

XIPRI ARBELBIDE

ZORIONA

31 eta esku

XIPRI ARBELBIDE

ZORIONA
31 eta esku

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2005

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

2003.urtean Euskaltzaindiaren Mikel Zarate saiakera sarian aipamena.

© *Obrarena*: Xipri Arbelbide

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Aretxabaleta, 1-1.a

48010 BILBAO

Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58

Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.

Silutegia: Gestingraf S.A.L.

Lege Gordailua: BI-661-05

ISBN: 84-89816-29-8

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berea transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

Dans la vie et sur le visage de l'homme, qu'elle modèle, s'inscrit le sens d'une civilisation. La nôtre a produit jadis, de Platon à Descartes, les plus lucides constructeurs de l'univers intérieur; elle ne produit plus guère aujourd'hui que les dominateurs les plus ambitieux du monde matériel, à tel point que cette seconde image est en passe d'oblitérer la première. Peut-être est-ce une mue de l'humanité à laquelle il est vain de s'opposer. Mais peut-être aussi, en se retournant contre le vieil homme, l'homme nouveau court-il le risque de faire disparaître celui qui l'engendra et le soutient encore dans l'existence.

*(Robert Kanters,
in Essai sur l'avenir de la religion, 1945)*

AURKIBIDEA

Sarrera	11
I. Zoriona helburu	23
II. Zorion gosea	33
III. Zorionerako bidea	55
IV. Bibliako bidea hobea ote liteke?	75
V. Zoriona orai	81
VI. Zorionerako kodea	87
VII. Zoriontsu zuek	105
VIII. Ez gara dinosauroen garaietakoak	117
IX. Zergatik joan elizara	139
X. Apezak noiz arte	143
XI. Federik ez ote liteke?	165
XII. Eliza saildua	189
XIII. Jesusen tentamenduak	201
XIV. Demokrazia elizan	207
XV. Ezkontza	225
XVI. Eliza eta Euskal Herria	237
XVII. Hautua	255
Bibliografia	261

SARRERA

Denbora gutxian bigarrenez dator liburu-sorta honetara Iparraldeko idazle bat. 26. zenbakia egin zuen Hiriart-Urrutiren idatzien bildumak, eta 30.a dugu Xipriren saio moduko gogoeta liburu hau. Ehun urteren alde dago bien idatzien artean, zeharo ezberdinak dira, baina kate beraren begiak direla esan daiteke.

Kazetaritza tradizioa Iparraldean

Eskualduna aldizkaria da Iparraldeko kazetaritzaren ardatz nagusia, Europako gudu nagusira arte behinik behin. Hala ere, baditu aurrekariak, ondo gogoan hartzekoak, *Eskualduna*-ri bidea girotu ziotenak. Kronologi ikuspegitik, lehenengo euskal kazeta 1848an Augustin Xahok bultzatu zuena dugu, *Uskal-Herriko Gaseta*. Laborarici zuzendua zegoen eta Zuberoako hizkeran oinarritua zen hango euskara. Han ageriratu zituen zuberotar idazleak bere zenbait ideia, politika zein gizarte arlokoak. Halabaina ahalegin laburra gertatu zen, bi ale baino ez baitziren aterra. Kronologiaren harian, *Le Réveil Basque* dugu hurrengoa: 1886an hasi zen irteten errepublikazaleen aldizkari hau frantsez ez eta euskaraz, Martial Henri Berdoly politika-gizonak bultzaturik; Paben argitaratzen zen. Astean behin banatzen zen, bakoitzeko sei hiru bat ale banatzen zirela. Politika giroa, orduko

garaian xuri eta gorri artean banatua zegoen; eta aldizkari hau gorriren aldekoa zen; politika eta gizarte arloan gorrien aldeko ikuspegi-iritziak bultzatzen zituen.

Handik denbora gutxira sortuko zen *Eskualduna* astekaria ere, 1887an, hau xurien aldekoa, astekari horrekin lehian ekiteko asmoz. Handik aurrera elkarren lehian jardungo zuten aldizkari biok, batez ere nekazari euskaldunak bereganatu nahian; izan ere horrek hauteskundeetan eragin handia eduki baitzezakeen. Azkenean, *Eskualdunak* laborariaren artean jaso zuen arrakasta handiagoa zela eta, lehia horretan galtzaile atera zen *Le Réveil Basque* eta itxi egin zuten 1894an.

Eskualduna izan da gaurdaino euskaraz atera diren kazetetan iraunkorrena: mende erdi luzez atera zen eta (1887-1944), eta hark Iparraldean kazetaritza euskaraz egiteko finkatu zuen tradizioak ez du harrezkero etenik eduki, aldiari aldiari aldaketak egon diren arren. Hasiera-hasieratik izan zituen atal batzuk denboran zehar iraun zutenak: lehen orrialdean editorial gisako artikulua; laborantzaren gaineko gaiak; euskal herrietako berriak eskualdez eskualde; Frantziako eta munduko berriak. Kristau erlijioa eta nekazaritza ziren ideologia aldeko ardatz nagusiak; Errepublikaren kontra borrokatzen zuen agerian eta tinko. Nekazariei zuzendurik zegoen batez ere, haientzat zuzenduak zeuden berriak eta entretenigarriak ere; baina jende ikasiari begira ere bazituen zenbait atal: literatur testuak atalka nahiz osoan, liburuen aipamenak, hizkuntzaren gaineko oharra eta halakoak. Euskal literaturarentzat harrobi ezin hobea gertatu da aldizkari hau bere bide luzean.

Hasierako aldiari idazle mordotxoak idazten zuen berean: Curutchet, Irigoyen, Daranatz, Frère Innocentius, Duvoisin eta abar. Gero Louis Etcheverryk Larresorora jo zuen eta handik zuzendu zituen zenbait apaiz, astekariaren ideologia ardatza sendotzen lagunduko ziotenak: Jean Hiriart-Urruty, Arnaud Abbadie eta Jean-Blaise Adémaren izenek aipu berezia merezi dute.

Hiriart-Urruti aldizkariaren bigarren zuzendaria izan zen eta bera bihurtuko da kazetari gisa maisurik handienetakoa. Haren

agintaldian hamar mila irakurle inguru izatera heldu ziren. Blaise Adéma eta Arnaud d'Abbadierekin batera, hirurak Larresoroko apaiz irakasleak zirela, talde iraunkor eta eragilea osatu zuten. 1904an kazetaren izena aldatu beharra izan zuen, izen horren jabe Etcheverry zelako, eta *Eskualdun Ona* izenaz berbataiatu zuten, harik eta aurreko jabea hil arte; orduan berriro eskuratu ahal izango zuen sorrerako izena. Hiriart-Urruty-ren meritua izan zen euskarari gero eta leku handiagoa aldizkarian eskaintzea, eta erlijioa jarri zuen pentsaera aldetik astekariaren ardatz nagusi: erlijio, laborantza eta familiaren alde jokatu zuen beti.

Hiriart-Urrutyk asko eta asko idatzi zuen *Eskualduna* aldizkarian, denetariko gaiez idatzi ere: iritzi-artikuluak, lege, lan eta ekonomia, euskara eta kultura, garaiko gertaera eta pertsonaiak, itzulpenak eta ipuinak ere bai. Beronen lana kazeta-aleetan barreiatu arren, beronen lanaz harrezkero egin diren antologietan, eta batez ere azkenengoan (2004) dastatuz gero, euskal literaturako idazle handitzat jo behar da ezinbestean, eta horrezaz gain idazle-eskola baten gidaritzat ere bai. Euskarari buruz eta hizkuntzari buruz arreta handia hartu zuen: hizkuntza ulertteraza eta garbia nahi zuen, hitz jator, esaera zahar eta esapidez gantzatua, ahozko hizkeran oinarritua, jendearengana eroso heltzeko modukoa, adierazkorra baina bizia eta jostalaria. Morfologia erdua tradizioz nagusi zen lapurteran oinarritu bazuen ere, hiztun multzoari dagokionez indartsuago zetorren behenafarrerarekin osatu zuen. Zinez maisu izan zen hizkuntzaren baliabideak erabiltzen: aditz, joskera, hiztegia, eta modu berezi batez esapideetan. Estiloaren aldetik erretorikoa da: hitz-joko, errepikapen, esakera, hots-hitz, dei eta abar etekin handiz erabiltzen dituela.

Hiriart-Urruty hil ondoren, eta behin I. Mundu Gerrako estuasunak igaro eta gero, Jean-Blaise Adéma ipini zuten zuzendari eta 20-30eko hamarkadetan lehenagoko indarrez birloratu zuen aldizkaria. Ordura arteko bideari jarraitu zion, erlijioari, euskarari eta nekazaritzari garrantzia emanez, baina kutsu informatiboagoarekin. Honek 1924an utzi zuen zuzendaritza,

beronen lekua Jean Saint-Pierre *Anxuberro* apaizak hartzen zuela. Honek ere astekariari berritu bat eman zion, idazlerik onenez inguratzen zela: Jules Moulier *Oxobi*, Louis ApesteGuy, Jean Etchepare, Luois Dassance, Jean Barbier. 1930 arte ekin zion honek, txanda Domingo Soubeletek hartzen ziola, aldizkariak irakurlerik gehien zituen aldian, zortzi milara heltzen baitziren. Orduan ere idazlerik onenak zebiltzan inguruan: Dirassarre, *Oxobi*, Jean Elissalde *Zerbitzari*... 1935ean Xalbat Arotçarena jarri zen zuzendari. Hauxe izango zen azkenengoa kargu horretan. Espainiako Gerra Zibilean Francoren armadaren alde eta II. Mundu Gerran alemanen alde jarri zelako, irakurleak galduz joan zen, eta gudu nagusiaren amaieran, 1944an, isildu zen betiko.

Iparraldeko euskararen ibilbidean berebiziko garrantzia izan du *Eskualduna* astekariak: idazle bikainen eskola izan zen, literatur-lan askoren agertoki, idazle eta berriemaile multzo gizona bildu zituen inguruan, hizkuntza eredu modernoak finkatu nafar-lapurtera literarioa, gero P. Laffitek bere gramatika aberatsaren bidez onetsi eta bultzatuko zuena eta jarraipena segurtatu zuen (*Herria* astekaria).

Eskualduna oraindik ateratzen zen denboran, honen azken aldian, sortu zen beste euskal aldizkari bat, *Aintzina* hilabetekaria, aldikada bi izan zituena, 1934-1937 eta 1942-1943 bitartekoa. Lehenengotan, sortu aurretioxan, Iparraldean Hegoaldeko jeltzaleen bidetik alderdi politiko bat sortuko zenetz zurrumurrua zebilen, baina azkenean aldizkaria besterik ez zuten sortu, eta haren eragileek argi esan zuten beren asmoa ez zela horren aitzakian alderdi bat sortzea. Pierre Lafittek sorturiko aldizkari hau, kultura edukiz hornitua zegoen gehien bat eta, Frantziako beste eskualde batzuetan bezala, gazteak erakarri eta bakoitzak bere lekuko kultura hedatzea zuen helburu.

Baina *Eskualdunak* hutsunea utzi zuenean, hutsune hori bete beharrez, euskalazale batzuk elkartu eta Pierre Lafitte zuzendari izendatuta *Herria* astekaria sortu zuten 1944an. Tramite eta diru-arazoak gainditu ondoren, *Eskualdunak* utzitako oste edo ondore-

naren eragina gainditu behar izan zuen lehendabizi eta bere bidea egiten hasi, batez ere haren pentsamolde erradikaletik aldenduz. Bere aurrekoaren moduan, hamar mila ale ateratzera heldu zen lehen hamar urteetan; 50eko hamarkadan gailur-gailurrean zegoen. Haren egiturari lotu zitzaion edukietan ere, orokorrean: nazioarteko eta Frantziako berriak, herrietako berri laburrak, laborarien gaiak, hau da, fedea, euskara eta nekazaritza hirukotea zituen oinarri. Lafitteren ostean (1944-1967) Jean Hiriart-Urruty etorriko zen (*Eskualdunako* arduradunaren iloba) (1967-1969) eta gero Emile Larre (1969-2003), oraintsura arte zuzendari-lanetan ekin izan diona, harik eta Jean Battitt Dirassar idazleak ardura hori bere gain hartu arte. Egia esan behar bada, 70eko hamarkadatik honantz *Herriaren* gizarte-eragina murriztuz joan da, euskararena berarena joan den era berean. Hiru arrazoi izan dira horretan tarteko: irrati-telebistek gizartean hartu duten indar neurrigabea, horren ondorioz edota horrekin batera irakurzaletasuna urrituz zihoan bitartean; frantsesezko egunkari-aldizkariak ugaritu dira izugarri; euskarak atzera egin du kalean eta etxean; behinola Ameriketara joan zirenen ondorengoek ez dute lehengo atxikimendurik.

1887an *Eskualduna* sortu zenetik, *Herriak* eman dion segidari esker, Iparraldeko kazetaritza-tradizioak ez du etenik jasan, zorionez. Horrezaz gainera, beste aldizkari batzuk ere sortu eta bizi izan dira, kate luze eta iraunkorra osatzen zela. Aldizkariok berez-berez bete dute eskolak bete ez duen zeregina jende euskalduna bere hizkuntzan eskolatzeko: aldizkariok euskaldunen etxea guztietara sartu dira eta kulturbide guztiz baliotsua gertatu hizkuntzaren sostengurako. Gaur egun euskal literaturaren historia-
ren ateetatik barrura diren idazleetako askok aldizkariotan jalki dituzte euren idatziak, hor trebatu dira idazle gisa eta hor irabazi dute idazle ospea. Idazleon izenak aipatu ditugu gorago ere, baina gure literatura idatzia zehatzago bergogoratzeko, banan-banan hemen aipatuko ditugu.

Jean Hiriart-Urruty (1859-1914) idazlea eta idazle-eskola baten sortzailea dugu. Idazle-kazetarion artean, eta euskal idazle-

en artean orohar, gehien eta ondoen idatzi duenatarikoa dugu. Aspaldi ohartu ziren ikertzaileak idazle honen garrantziaz. P. Lafittek hiru liburu edo liburuskak atera zituen beronen lan hautatuekin (1944, 1971, 1972); I. Caminok beste bat oraintsuago (1994), eta berrikitan antologia nagusi bat, hitzaurre-ikerlanez eta glosario luze batez hornitua, Xabier Alzibarrek (2004): *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio* izenburua du, eta idazlearen testu hutsak 550 orrialde inguru betetzen dituzte. Beronetan, autorearen artikuluak, gaien eta kronologiaren arabera sailkatuak daude.

Jean Etchepare (1877-1935), lanbidez medikua eta humanista handi bat. Kazeta-artikuluetan idatzi zuen gehien-gehiena; saio generoan koka daiteke beraren lana, baina literatura ikutu handia du nolana ere. Bera bizi zela bi liburu atera zituen, aurretik aldizkarietan idatzitako artikuluak batuta, *Buruxkak* (Baiona, 1910) eta *Beribilez* (Baiona, 1931), eta gainerakoa Piarres Xarritonek atondu du bost liburu marduletan gaika sailkatuta, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak (1877-1935)* izenburuaz. Kontalari sen ona du, ikutu lirikoarekin. Eztabaidazale ageri zaigu bere lanetan; saio-idatziotan argudioak garantzen ditu, pentsamendua landu eztabaidaren bidez. Bestalde, euskaraz asko erabili gabeko gaiak landu zituenez (medikuntza, zientzia, finantzak), hizkuntza horretara egokitzen ahalegin paregabea egin zuen. Hizkuntza garbi, zehatz, trinko eta aberatsa du; hizkeraren aldetik behe-nafarrera lapurterarekin osatzen du honek ere.

Jean Elissalde *Zerbitzari* (1883-1961), aurrekoen moduan idazle ugaria izan zen eta euskal kulturaren eragile handienetakoa. Kazetalan asko ezezik liburuak ere argitaratu zituen: olerkiak, antzerkiak, atsotitz bilduma bat, erlijio-lanak, I. Mundu Gerrateko kronikak, pilotarien gainekoak..., dena herri hizkera biziaren irudi, erritmo eta bizitasunarekin.

Jean Saint-Pierre *Anxuberro* (1884-1951) Larresoron Teologia irakasle izan zen. Han Hiriart-Urruty irakasle izan zuen; geroago bera izango zen hurrengo idazle belaunaldiaren irakasle leku berean: Pierre Lafitte, Xalbat Arotçarena... Landu zituen gaiak, elokuentzia,

soziologia, sindikalismoa eta euskaldunen arazoak izan ziren beste-ak beste. Sermoilari eta hizlari apartekoa izan omen zen, eta hori beraren idatzietan ere ezagun da. I. Mundu Gerratean parte hartu zuenez, handik bertatik bidali zituen kronikak *Eskualdunara*.

Pierre Lafitte (1901-1982), euskarari dagokionez, esparru askotan jarduna eta gailen ibilia da: kazetari, idazle, kritikari, ikerle, gramatikari, hiztegegile eta, azken finean, eragile. *Herria* aldizkariari atxikia dakusagu bere idazle ibilbidean; kazeta bere ideiak zabaltzeko eta euskara bera zaintzeko erabili zuen. Artikulu- luez gainera, hainbat idazlan egin ditu liburutan argitaratuak, antzerkia, poesia eta saiakera motan.

Honen ondorengoak izango dira Jean Hiriart-Urruty eta Emile Larre, gaur arteinoko lotura egiten dutenak Iparraldeko literaturan, kazetaritza generoari dagokionez.

Xipri Arbelbide idazle

Gaur plazara dakargun liburuaren idazlea, goian aipatu iturri-ko uretan edana dugu inolaz ere, idazle eta kazetaria aldi berean. Bere idazlanen zati handi bat egunkari-aldizkarietan argitaratu izan du. Landu dituen gaiak, kultura, gizarte eta erlijo arlokoak izan dira gehien baten. Han hor hemen sakabanaturik daude beronen idatziak, era askotako aldizkarietan barrena: *Herria*, *Herriz Herri*, *Deia*, *Egin*, *Diario Vasco*, *Egunkaria*, *Berria*, *Hemen*, *Eguna*, *Argia*, *Habe*, *Egan*, *La Semaine du Pays Basque*, *Le journal du Pays Basque*, *ASJU*, *Euskera*, *Eusko Ikaskuntza*, *Fededunak*.

Bere burua autodidaktatzat duen idazle hau irakurle handia dugu, bestetik. Komunikabideetara mugatzen bagara, gaur egun bereon *Berria*, *Le Journal*, *Soud Ouest*, *La Croix* egunero begiratzten ditu, baita *El Mundo*, *Diario Vasco* eta beste batzuk ere, egu-nero izan ez arren.

Bizitza-zertzelada nagusiak gogoratzeko, esan dezagun Xipri Arbelbide Heletan jaio zela 1934ko abenduaren 17an. Ikasketak, Lyongo misionesten etxeetan egin zituen; gero, Baudonne, Nantes,

Beljika eta Lyonen. 1960an apeztu ondoren, teologiako lizentzia egin zuen Lyongo fakultatean 1960-61 ikasturtean. 1961-64 urteak Baudonnen irakasle egon ondoren, Bolikostara joan zen. Hamabi urte igaro zituen herrialde horretan, lehenengo irakasle Bingervilleko seminarioan (1964-67) eta Tiassaleko parrokian gero (1967-1976). Han zegoelarik, bertakotzeko ahalegina egin zuen, hango jendearen ohitura, pentsaera, bizimolde eta hizkuntzara egokituz. Orduan idatzia da *Les Baulé d'après leurs dictons et proverbes* liburua (CEDA Abidjan, 1975). Lan horretan baule hizkuntzako 1250 atsotitz bildu zituen, herritarren artean arrakasta handia izan zuena gainera. Behin handik itzulita, urtebete eman zuen Parisen ikasten (EHSS eskolako diploma 1976-77) eta handik aurrerako denbora guztia Euskal Herrian eman du, apaiz, idazle eta kazetari zereginetan murgildurik. Apaiz arduretan, Uhartre Garazin egon zen sei urtez (1977-1983), eta 1996tik aurrera Aiherran da, irratiko lanetik erretiroa hartu ondoren.

“Gure Irratia” 1983an sortu zenetik eta 1997 urtera arte kazetari legez jardun du lanean, bera baita irratia kide sortzaileetarikoa. Izan ere, Frantziako Gobernuak irratia libretarako baimena eman zuenean euskaltzale batzuk elkartu eta halako kate bat sortzea erabaki zuten. Lan hori gustokoa izan du guztiz; gainera jende askorekin harremana egiteko aukera eman dio, eta hori guztiz aberasgarria gertatu zaio gure idazleari.

Hainbat sari hartu ditu idazle gisa: Xalbador saria 1980an, *Irri Solas* ipuin-liburuarekin, 1984an *Garazi* historia-lanarengatik, eta 1986an *Gerlako Tresna bizidunak* saiakera historikoari esker. 1982an Irun Hiria saria irabazi zuen *Afrikako salbaien zuhurtzia* izenburuko saiakera etnografikoarekin eta 1986an aipamena eman zioten *Enbata* historia-lanarengatik. Bilboko Kafe Iruña saria irabazi zuen 1996an *Piarres Topet Etxahun* historia-lanarekin, eta Euskaltzaindiak eratzen duen Mikel Zarate saiakera sarian, irabazle izan zen 2002an *Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria* izeneko lanarekin eta hurrengo urtean *Zoriona* liburu honen lehenengo idazkuntzari aipamen berezia aitortu zioten.

Bibliografia zabala du idazle honek: *Les animaux dans les proverbes baulé*, EHSS, Paris, 1976; *Euskaldun gazteria 50 urte*, Uhar-te, 1979; *Piarres Lafitte*, Elkar, 1986; *Etxahun, bertso bilduma*, Elkar, 1987; *Heleta Iraultzan*, Ostoa/Etor, 1992; Webster, *Ipuinak*, Euskal Klasikoak bilduma, 1993; *Euskaldunak Algerian*, 2004.

Itzulpenak ere egin ditu: *Terexa Dequeyroux*, François Mau-riac, Elkar, 1989; *Pete Aguerberry*, George C. Pipkin, Curutchet, 1997. Laburbilduz, esan daiteke lanik gehien-gehienak saiakera generoan idatziak dituela, hainbat gai jorratzen zituela: historia, etnografia eta gogoetak batez ere.

Zoriona, 31 eta esku

Liburu honetan luzaroko urteetan buruan jira eta buelta era-bilitako gaiak isuri ditu; ez da beraz, eserialdi batean hasi eta amaitu jarraian eginiko lana, ezpada astiro-astiro han hor hemen artikuluetan, sermoietan, batzarretan eta nahinon erabilitako gaiak, egilea biziro kezkatzen zuten gaiak, gogoeta sakon baten ondoren ondo sailkaturik eta ordenan jarririk eskaintzen dizkigu.

Edukiaren ardatza da gizakia beti ari dela zorionaren bila, bai-na non dago zoriona? Zerk ematen dio gizakiari zoriona? Testuan zehar Bibliako pasarte asko sartu ditu, haren argitan zoriona zer datekeen argitzen laguntzeko. Baina gaur egungo errealitatea beste bide batetik doa; zoriontsu izateko *gauzak edukitzeari* ematen diogu gehienok baliorik gorena, norberarentzat nahi dugun duintasuna besteei kentzearen truke bada ere. Gizarte-arazoak, egoera ekonomi-koen arteko aldeak, herrialderik herrialde zein balorek daukan garrantzia, zein Jainko gurtzen den, mendebaldeko gizartean gaur egun ditugun bitartekoak zelan erabiltzen eta baliatzen ditugun... eta halako beste hainbat gai darabiltza gogoeta Xipri Arbelbidek hemen.

Baina beste adar bat ere badu testuak: idazlea apaiza den aldetik, Elizaren jokabidea zein den eta gizartearen beharrei zelan egokitzen zaion aztertu eta kritikatzeko ditu. Ez da azaleko kriti-ka, berez, barrutik eta sentituta egindakoa baizik. Gizartea eta

bizimodua asko aldatu dira gure artean denbora gutxian, eta Eli-za? Egiten ote du behar besteko ahaleginik gaurko beharrei eran-tzuteko? Idazlearen ustez ez, hainbat gaitan ezikusiarena egiten ei du Elizak, barruko arazoak estali eta kanpora begira konponbi-deak ekarriko dituzten erantzunak eman gabe.

Gaiaren aldetik ezagun egingo zaio irakurleari hemengo tematika, baina bestetik hainbat datu, gertaera, anekdota eta argibide idoroko ditu gogoetarako, galdera funtsezkoa eginarazi-ko diotenak: ea nolako mundua jadetsi nahi dugun, guretzat, gure ingurukoentzat eta gure ondorengoentzat. Idazlea ondo dokumen-tatua dago darabilen gaian; irakurri eta aztertuak ditu Elizak eta teologoek honezaz edo hartaz idatzi dituztenak. Gaien garapene-an ezagun du bere eskola eta ikasbide sakona.

Azken aipatu nahi dugun obraren balioa, hizkerarena da. Ipa-rraldeko hizlaurko literaturaren tradizioan bete-betean txertatzen den hizkera du idazleak: sendoa eta segurua, tradizio ahozko eta idatziaren ardatzetan hezurmamitua, bizi den euskara, beneta-koa. Nekez topatuko da irudimenezko eraikuntza arbitrariorik; euskararen lur mamintsutik ernea da horko hizkera. Sintaxi ede-rra du josia, hitzetan eta esamoldeetan aiutua eta ugaria da. Eus-kara-ereduaren aldetik, behenafarreran oinarritua egonik, eredu landu osoago batera jotzen du.

Idazle eta kazetari trebatua den aldetik, gauzak kontatzen eta gaia zehetzen eta bilbatzen maisua da. Irudimenez ez dabil urri: uneoro daki irudi eta konparantza egokiak arlori egokitzen. Kazetaria den aldetik, prosa arina du, atsegina eta irakurterraza, komunikabide idatzietarik jasoriko datu askorekin hornidua.

Esaldi batez epaitu behar bagenu Xipri Arbelbide idazlea Iparraldeko literaturan, klasiko moderno bat dela esan daiteke, gaurko idazle eta euskaltzale guztiek ezagutu eta ikasi behar luke-ten eredu baten ispilu.

Labayru Ikastegia
2005-03-09

ZORIONA
31 eta esku

I

ZORIONA HELBURU

Haurra nintzelarik Baionako merkatu estaliaren ondoko arkupeetan bazen saltegi bat famatua: galtza, atorra, galtzerdi eta jauntzi mota guziak saltzen zituen, ezin higatuzkoak. Kanpoko murruan, ikus daiteke oraino harrian zizelkatua, haren izena: Velten. Etorri ziren kontsumismoaren garaiak. Jantziek ez zuten iraupen beharrik: modan izateko behar ziren askotan aldatu. Velten etxea kalitatearen sinestean gelditu zen eta egun batez hetsi behar izan zuen, jendek ez baitzuten behar zutena aurkitzen.

Badut beldurra horrelako zerbait gertatzen ari zaion Elizari. Velten etxetik goraxago den katedrale hartako harri zizelkatuak, oroitzapen baizik ez izatera kondenatuak ote litezke ondoko urteetan, zubiaz bestaldean Euskal Erakustokia XIX. mendeko Euskal Herriaren lekuko den bezala? European barna, horrenbeste frailetzetako eliza erromaniko eta gotiko kontzertu toki egin diren bezala? Kalitate oneko sinestea saltzen du. Beti saldu duen hura. Beti edo. Bainan garaiak aldatu dira. Eliza aldatuz doan mendeari jarraiki behar zaio; zaldizelako zaldaria emateko partez, zaldia aspaldi ahantzirik beribilez doazen jendeai, gaur beribilek behar duten erregaia eskainiz. Erranen didazue egia egia dela eta Jesusen Berri Ona ez dela aldatzen. Baina mendea eta gizona aldatzen

baitira eta aldatzen den bizi horretan sartu behar baitu Berri Onak!¹

Karmelo Etxenagusia geroztik Bilboko apezpiku laguntzale izendatuak idazten zuen 1975ekotzat «Eleizeak *oraintxe eta hementxe* zabaldu behar dau Barri Ona eta edozeinek ikusi lei, gure mundu hau ez da gure asabena, gure gurasoena, *gaur gaurkoa* da, guztiz, eta bizkor aldakorra.²» (berak du azpimarratu)

Ezagutzen duzue Jesusen Berri Ona bere osotasunean hartu duen norbait? Joan XXIII.a eta Joan Paulo II.a XX. mendeko bigarren partean, edo frantsesei errepublika onartzea eskatzeko, «Au milieu des sollicitudes» entziklika idatzi zuen Leon XIII.a, Pio X.a bere *syllabus* edo Estadoa eta Eliza bereiztearen kondenatze-ko «Vehementer nos» entziklikarekin, Ebanjelio beretik ari zirela hain garbi ote liteke? Nork lepora liezaioke gaur egun Estado bati Elizaren oinarrizko lege hau ez errespetatzea: Elizan ez da berdintasunik, bi jende kategoria badira, artzainak eta artaldeak³?

Pio X.ak laizitatea kondenatu zuen bi aldiz. Leon XIII.ak kondenada hori konfirmatu. Kondena hori nehork ez du deuseztatu geroztik. Nork aipa lezake horrelakorik urrunetik ere gaurko egunean?⁴

¹ Emile Poulat batek biziki poliki erraten du hori: «Croire c'est formuler sa foi, comme la penser, dans un état de culture et de civilisation: le croyable passe par le pensable.»

² Karmelo Exenagusia, *Euskerea nire bizitzan*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2003, 292 or.

³ Pie X «condamne le principe même de la séparation, déplore l'abolition unilatérale du concordat et la mise en cause par la loi, selon lui, d'un précepte fondamental de l'Eglise qui serait «*par essence une société inégale, c'est à dire une société comprenant deux catégories de personnes, les pasteurs et le troupeau*». Alain Gresh, «Aux origines des controverses sur la laïcité.» *Le Monde diplomatique*, 2003.8.

⁴ «Le pape Pie X a, par trois fois, condamné publiquement cette loi (loi de 1905 sur les cultes), le pape Pie XI, en 1924, a rappelé et renouvelé cette condamnation, celle-ci n'a jamais été levée, et cependant l'Eglise à Rome et en France, en est venue à s'accorder de cette situation, jusqu'à estimer qu'il n'y a pas lieu d'en demander la révision, moins encore l'abrogation.» Emile Poulat, «Une histoire à deux mémoires», *La Croix*, 2003.11.07.

Bost horiek aita saindu handiak izan dira. Gauza berak erran ote dituzte? Ezin uka bat bestetik oso urrun daudela. Bizkitartean batzuek ala besteek egia erran dute. Jesusen Berri Onean oinarritu egia... Beren garaiari zoakion egia. Bakoitzak bere nortasunaren arabera.

Gaurko apezek ez dituzte duela berrogei urte, gazteago zirelarik botatzen zituzten prediku berak egiten. Zein apezek oinarritzen du bere predikua *Humani generis* Pio XII.ak 1950ean izenpetu entziklikan, gure denborako aita saindu batek idatzia delarik alta? Elizaren seme den Karl Rahner Kontzilioko teologo handiak trajedia ilun bat bezala ikusten zuen entziklika hori bate-re dudarik gabe⁵.

Gure haur denboran ifernua, purgatorioa, heriotza, azken jujamendua, bekatua, ziren aipu predikuetan. Amodioa oso guti. Gaur egun, zein apezek aipatzen du ifernua, edo igandetako meza huts egitea bekatu mortala denik? Nork ez die komunionea emanen ezkondu aintzin elgarrekin bizi diren bi gazteei edo bereizi eta beste norbaitekin ezkondu direnei? Edo oraino musikariei, baizik eta gazteak bekatuaren bidean ematen dituztela? Nihaurk ehortzia dut Donibane Garazin Beñat Arrozaragai; Fauxtin Bentaberri orkestrakoa. Berak kondatu zidan nola joan zen Bazkokari, Donibaneko elizara, kofesatzeko. Apezak ez zion barkamenik eman. Ez eta Ezterentzubitik, oinez, goizeko seietako etorria zen Manez Turrut beste musikari bati. Urteak eta urteak egon dira biak batere Bazkorik egin gabe. Bainan igande bakar batez meza huts

⁵ «Cela fait partie de l'histoire tragique et difficile à élucider de l'Eglise: dans la pratique comme dans la théorie, celle-ci défendit toujours des maximes morales par de mauvais arguments, découlants de convictions et de préjugés incertains, liés au contexte historique (...) Si cette sombre tragédie de l'histoire spirituelle de l'Eglise est si pesante, c'est parce que toujours, ou du moins souvent, elle concerne des questions qui touchent à la vie concrète des hommes, parce que ces maximes erronées, qui n'eurent jamais de valeur objective (...) imposèrent néanmoins aux hommes, des contraintes que rien dans la liberté des Evangiles ne justifie.» Karl Rahner, *Schriften zur Theologie*, 13 alea, 99 or.

egin gabe. Musika jotzen zuten aldare aintzinean Heletako Besta Berriz, gure bi eskumikatuek... Ezterentzubiarran Donibanera etorria zen, bere herrian Paramina famatua baitzen erretor: hiltzorian zen bertsulari bati bere paper guziak erre arazi zizkion barkamena eman aintzin.

Mende erdia du doi-doia beren burua beste egiten zutenen ehorzketak ez zirela elizan egiten. Afrikan ikusi dut, gaur egun oraino, zakurrak bezala lurperatzen dituztela paganoeak: Elizaren ohidura hori gizartearena ziteken lehenago, hemen ere. Elizako zenbat lege ez dira gizartearenak? Gizarteak berenaz lege onak sortzen ditu. Kasu honetan, gizonaren bizia 30 bat urtekoa zelarrik bana beste, sakratutzat zeukaten eta ez zezaketan onartu, norbaitek bizia kentzea ez beste, ez bere buruari. Hor ere Eliza aldatu da gizartearen ikusmolde berri bati jarraikiz.

Nork ez litzake onart bataio batean aitabitxi izateko pastoraletako jokolariak? XIX. mendean, Uhart Atarratzeko erretorak baztertu zituen Erbinart eta Intsaizoixipi arrazoi horren gatik. Eta hauek apezka auzitan eman.⁶ Nork debeka liezaieke liliak botatzea Besta Berriko proosinoan, eskola publikoko hurrei urte beretan gertatu den bezala?⁷

Beren haurrak Elizako eskoletan ematea manatzen baitzien oraino girixtinoei, 1969an kontzilioak⁸, nork erraten du gehiago horrelakorik?

Nork irakur lezake 1959ko uztailean Toledoko apezpikuaren astekariak idazten zuena: «Ezkongaiek ihes egin behar diete ilunari eta bakartasunari. Bestenaz bekatu mortalean izan daitezke. Ezin onartua da besoz beso joan diten (...) Ausagailuetan bihirik ez da dantzaldi bat bezain lanjerosik (...) Hondartzetan, mainu-

⁶ ANF F19/6024/198. Conseil d'Etat auzitegiaren erantzuna.

⁷ ANF F19/5891/398.

⁸ Eginbehar hau gogoraraten die guraso katolikoek: ahal dutelarik, beren seme-alabak eskola katolikoaren ardurapean uzteko (...) duten eginbeharra. *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, Deustuko Unibertsitatea, 2003, 509 or.

tegian, ibaietan mainatzeak lanjer berezi bat dauka. Baitezpada ihesi egin behar zaie gizon eta emazte, nahasteka dauden mainuei, bekatu eta eskandala bide baitira kasik beti...»

Mantalina desagertu da isil isila gure elizetarik, mahomatarren beste mantalina batek egin duen ekaitza sortu gabe eta legerik gabe: norik utzi lezake orai komunionea eman gabe mantalinarik buruan ez daukan emaztea? Jondoni Paulori jarraikiz, hogeitaz mendez hala egin delarik. «Buruhas otoitz egiten duen emazteak(...) desohorutzen du bere buru den gizona. (...) Emazteari ile-labur edo ilemotz egotea ahalgegarri bazaio, estal dezala bere burua.» (1 Ko 11, 5-6)

Gazte nintzelarik, kazeta antiklerikal errabiatuenek onartzen zuten serorak izatea Baionako ospitalean, mahomatarren mantalinak bezain ongi, ile, beharri eta lepo estaltzen zituen korneta edo papalina harekin. Gaur egun, beren burua liberala daukatenean, neskak mahomatarrei debekatu nahi diete oso korneta iduriko mantalina hori ibiltzea ala eskolan, ala erakunde publikoetan lan egiteko. Bestetan ere badira aldaketak, eta ez baitezpada alde onerat... Ez ote mahomatar horiek ez direla osoki frantsesak iduriak bilakatzen ikustearekin, beren nortasun frantsesa galtzeko arriskuan senditzen dutelako? Mahomatarren beldurra? Identitarismoa? Komunitarismoa? Intolerantzia? Frantzian integratu behar omen dute. Bizkitartean Frantzian ez da mahomatar bakar bat senadore, deputatu, prefeta, eskualde edo departamenduko lehen-dakari, inspektore edo polizia komisario, jendetzaren %7 egiten dutelarik. Baina hauek ezer ez dute ikustekorik Elizarekin. Ez bada sinesmena, «fedea» bestetan ere badela erakustea. Ez baitezpada arrazionala.⁹ Bestetan ere badirela integristak eta aiatolahk!

Ez du hain aspaldi serorak ez zirela beren amaren ikustera joaten ahal beste serora batek ez bazituen laguntzen. Ez zutela beren etxean lo egin behar... Duela berrogeita hamar urte, jaiki-

⁹ «Aucun député musulman», *Le Monde Diplomatique*, 2003.10, 12 or.

tzean denek bezala eskuak ikuziak zituelarik, sakristian berriz garbitu behar zituen apezak, *ante missam* (meza aitzin) oihalean xukatu. Mezan hirugarren aldikotz garbitzen zituen ostia hunkitu behar zuten erhiak *lavabo* otoiiza erratean. Meza bururatzean berriz haste, ostia hunkia zutelakotz, eta sakristiatik jalgi aintzin, egundainokotan garbitu behar *post missam* (meza ondoan) oihalean xukatuz. Ez lehen hartan! Kalitza hunkitzea bera zorrozki debekatua zen garaiak ezagutu ditugu. Orain eskuan kominiatzen dute jende gehienek. Ez denek! Ez da zerbait aldatu?

Non da komunione aitzineko barur sakratu hura? Afrikako iguzkipean eguerdi arte ur xorta bat edan gabe egon behar zuten misionestek, egarriak zipilduak!

Non da latina? Apez gazte, lehen bataioak euskaraz egin zirelarik, baziren otoiitz batzu derrigorrez latinez egin beharrak hala nola: «Izpiritu lohia, Aita, Seme eta Izpirituaren izenean manaztzen deiat; hoaz haur honetarik kanporat.» Latina desagertu da. Otoiitz hori ere. Elizak ez du gehiago sinesten deabrua haur ttipien baitan dagoela? Bezperak berak mintzaira sakratuan kantatzen zituzten gure herriek hitz bat ulertu gabe. Beharrik, pentsatu nuen, Martxel nire herriko xantrea gogoan! Zer etorriko zitzaion gogora Andere Dona Mariaren bezperetan apuñatik kantatzen zuenaren erran nahia jakin izan balu? «Beltzarana naiz baina pollita. Horra zergatik erregeak maitatu nauen eta eraman bere logelara.» (Kt 1, 4) Hartu XIX. eta XX. mende hastapenean agertu *euskarazko* liburuak. Bezperak urteko himno guziekin latin hutsez ematen dituzte, itzulpenik gabe: mintzaira sakratua izanez, latinak bazeukan indar berezi majiko bat¹⁰. Erromak debekatzen

¹⁰ –*Ucologia ttipia*, Cluzeau, Bayonne, 1831: 642 orrialdeetarik 58 dira euskaraz. Gaineratikoak, igande guzietako meza bezperekin, ebanjelio eta epistolak barne, latinez.

–*Exercicio ispirituala*, Verlinde, Bayonne, 1868: salmo eta himnoak latin hutsez. 394-477 or.

–Heren Ordenako «zeremoniala Erroman Onhetsia»; JP Arbelbide, *Erlisio-nea*, Desclée de Brower, Lille, 1892, 373-422 or. «Mezarako» otoiitzak badira euskaraz, bainan ez mezakoak! Bezperak, latin hutsez.

zuen tokiko mintzairetan kantatzea meza nagusietan¹¹. Ez da zer-bait aldatu? Bai, eta ez guti!

Euskarazko kantikei begiratzen diegularik bada gogoeta egitekorik. Mende batez goiti gure elizetan apuñatik kantatu dugu *Agur izar kontsolagarri* kantikan *Jesus dugu nahi aitatzat*. Nik uste nuen Jesus semea zela! (Mt 23, 9) Kantika hori zeukaten liburu guziek izan dute *imprimatur* eta *nihil obstat*, arazo izpirik gabe.¹²

1895ean François Jauffret Baionako apezpikua (garai haietako ezkerrekoa, apezpiku errepublikar bakarretarik) Orreagara joan zen beilaz. Ikus arazi zizkioten hango aberastasun guziak. Berak kondatzen du, ikusi zituela erlikario baten barnean Jesusen koronako bi arantza, Ostegun Sainduko arno hartarik xorta bat eta egun bereko ogitik zenbait purruxka, bai eta... Ama Birjinaren esnetik.¹³ Irriño bat heldu bazaiku hori irakurtzean, ez da dudarik, hark eta garai hartako giristinoek horrela sinesten zutela. Zein izanen dira hemendik zenbait dotzena urte irriño bat atera araziko duten gaurko apezpiku eta giristinoen sineste segurrak? Ez ote du balio bi gogoeten egitea? Orrialde hauek idaztean neure sinestearen berri ematen dut, baina badakit ez duela

—*Giristinoen Elizako Liburua*, Mame, Tours, 1938, salmo eta himnoak latin hutsez.

—1961eko Eliza Liburuan, meza-bezperak euskaraz ere badira baina bataioko otoiñtzen parte bat bada latin hutsez, itzulpenik gabe.

¹¹ «—Est-ce que peuvent être chantées par les fidèles pendant la messe des prières et des hymnes en langue vulgaire, composés en l'honneur du saint ou du mystère dont on fait la fête? Réponse: Négativement quant à la messe solennelle ou chantée». «Sacré Congrégation des Rites», *Bulletin du Diocèse de Bayonne*, 1901, 139 or.

¹² D. Gabriel Lertxundi, *Kantikak*, Imprimatur: L.A. Terrier. Abbaye N-D. de Bellocq 1948, 302 or.

¹³ «Près du grand autel, sur un autel spécial, se trouve le reliquaire contenant deux épines de la couronne de Notre Seigneur et un autre avec des fragments du pain de la Cène, du vin aussi de la Cène, du lait de la Ste Vierge, etc...» *Bulletin du Diocèse de Bayonne*, 1895, 517 or.

Ebanjelioaren baliorik. Beste zenbaitek bestela sinets dezakete. Hemendik zenbait urte ageriko zein den zuzen eta zein makur.

Beste aldaketarik ere ikusi dugu mendez mende. Lehenago apez eta apezpiku ezkonduak izan dira, apezpikuak giristinoek hautatzen zituztela. Aita Saindua bera ere bai. Hor ere izan dira aldaketak eta ez entrabalekoak! Onerat dela segur?

Kontzilioaren kariatara Joan XXIII.ak gomiatu gintuen leihoen zabaltzera. Idekitze horren froga aipatu ditut aldaketa zenbait. Geroztik ez ote litezke leihoak hetsiak izan, krisketa ongi emanik haizeak bazter guziak harrotuko zituelako beldurrez! Usaia xaharrrak kanbiatuko direla xifritua baitago Erroman bulegokrazia bat! Bizkitartean iduritzen zait nonbait irakurtu dudala: «Bila lehenik Jainkoaren erresuma eta gaineratikoa bestalde izanen duzue.» (Mt 6,33) Kontzilioz geroz mundu hau aldatu da. Sartu gara telebista eta parabola, beribila, telefonoa, internet, pilula, sida, Txernobyl, Prestige, ekologia eta gaineratikoen munduan. Kontzilioan hasi aldaketek jarraiki behar zuten mendeari. Bainan Vatikanoko harresien gibelean, ikusmolde bakarreko munduan dago oraino Eliza bat. Iduri zuen Paulo VI.a beste bide batetatik zoala Roy kardenaleari 1971an idatzi zion gutunean¹⁴: «herri bakoitzeko egoera desberdinari bere aterabidea». Bainan Paulo VI.a joan da eta bulegokrazia hor dago sekulan baino indartsuago, egiaren jabe dela, sekulan baino segurrago.

Sineste, pratika eta prediku aldatu dira beraz. Eta ez guti! Oraingo Elizak lehenagokoaren fotokopia soila izan behar ote luke, baizik eta hura, Ebanjelioan oinarritua zela... Ebanjelio hori lehenagoko biziari egokituz, ez gaurkoari. Fotokopia nahi baldin badugu, noizko Elizaren fotokopia? Meza latinez zuen harena?

¹⁴ «Face à des situations aussi variées, il nous est difficile de prononcer une parole unique, comme de proposer une solution qui ait valeur universelle. Il revient aux communautés chrétiennes d'analyser avec objectivité la situation propre de leur pays, de l'éclairer par les lumières inaltérables de l'Évangile.» Paulo VI.a, *Octogesima adveniens*, 4. 1971.05.14.

Gristinoek hautatu apezpiku ezkonduetilakoena? Ez ote gintezke beste aldaketa batzuen egiteko behar gorrian? Ez ote dugu beste mende bateko Elizaren kultura mota bat eta Jesusen Berri Ona, biak bat direla uste sobera aise? Nork erran ote zuen: «Jainkoaren hitza deuseztatzen duzue, zihauren ohiduren gatik.» (Mk 7,13) Stephen Fumio Hamas kardinale japonesak kontzilioak eskatzen ditu tokian tokiko Elizentzat, ez direlakotz haur Elizak: «Erroman nehorik ez daki japoniarra, bainan japoniar liturgiako testo bat baliatu aintzin Erromak kontrolatu behar du!¹⁵»

Jerusalengo kontzilioan apostoluek erabaki zuten: «Zergatik tentatzen duzue orai Jainkoa, gure arbasoek eta guk ezin jasan izan dugun uztarria dizipuluaren lepoaren gainean ezarri nahiz? (...) Izpiritu sainduak eta guk erabaki dugu zamarik ez ezartzea, behar beharrezkoak diren hauek baizik.» (Eg 15,10, 28) Zein ote da gaur egun behar beharrezko den zama? Zein dira behar beharrezkoak ez direnak? Zein dira gure arbasoek eta guk ezin jasan izan ditugun uztarriak, ez baitira girixtinoen lepo gainean eman behar? Ez ote liteke hor baitezpada eta lehenbailehen egin behar diren gogoeta sakon eta sarkor zenbaiten gaia?

Horrelako itzala ematen dioten Jondoni Paulok du idatzia: «Juduekin judu egin naiz, juduen irabazteko. Moisen legepean bizi direnekin legepeko egin naiz, nahiz eta nihaur ez naizen lege horren peko, legepean bizi direnen irabazteko. Moisen legea ezagutzen ez dutenekin, legea kondutan hartu gabe bizi izan naiz, legea ezagutzen ez dutenen irabazteko.» (1 Ko 9,20-21) Zer libertatea legekeria guziekin! Zein urrun gauden horretarik!

Kultura guziak ditu argitu behar Ebanjelioak, ez bakarrik Erromako apezleriarena. Ez bakarrik XIX. mendekoa. Laparra bezala lehenagoko leihorrari lotuak egoiteko partez ez ote genuke Jesusen manuari obeditu behar: «Joan itsas zabalera.» (Lk 5,4)

¹⁵ «Un cardinal japonais souhaite un nouveau concile sur les Eglises locales», *La Croix*, 2003.12.11.

Zer behar du hogeita batgarren mendeko gizonak? Jesusen Berri Onak hori ematen ahal dio? Horra, errepostua eman behar diogun galdea.

Ordu da aldaketak egin ditzagun orain ere. Ez uste izan iraultzalea naizenik hori erranez. 1999ko sinodoan, Martini kardenaleak eskatu zuen, batere berotasunik gabe hartu zuten proposamena, kontzilio berri batena.¹⁶ König¹⁷, Lorscheder¹⁸ eta Dannels kardenalek, bai eta Favreaud, Baionan egon apezpikuak azpimarratu zuten aldaketa behar gorria.¹⁹

¹⁶ *La Croix*, 2000.1.26.

¹⁷ «Le gouvernement de l'Eglise est trop centralisée. Le bureaucratisme est excessif.» Franz König, «Le pouvoir doit être décentralisé», *La Croix*, 1999.10.18.

¹⁸ «Une certaine centralisation de l'Eglise semble actuellement ne tenir aucun compte des décisions conciliaires (...) Le pape est prisonnier des cercles qui sont autour de lui (...) Les textes de Vatican II ne sont pas appliqués.» *La Croix*, 2001.05.21.

¹⁹ «Je crois que ce nouveau concile serait nécessaire pour l'Eglise, pour sa mission. Il ne suffit pas 'd'aménager', il faut 'déménager'.» «Un temps favorable pour Vatican III», *La Croix*, 2002. 09.28-29.

II

ZORION GOSEA

Bizi honetan, egiten dituen guziak helburu batekin egiten ditu gizonak, orain, lehenago bezala: helburu hori da zoriona. Jaten du, gosez sofri lezakeelakotz eta sofrikarioarekin ez delakotz zorionik. Egun oroz lepo zintzurreraino gauza onez asetzen garenok, gose handirik gabe, egarri handirik gabe, janen eta edanen dugu gure ahoan pasatzean, janari-edariek gozotasun zerbait ematen digutelakotz, zoriona eta plazerra, elgarri lotuak ikusten baititugu. Aitor dezagun! Zenbat aldiz gertatzen zaio europar arrunt bati, gosea senditurik jartzea mahainean? Gure zaharrek erraten dute euskaraz: egizu bazkari. Moda berria: apetitu on! Frantsesaren fotokopia. Lehenago goseari zoakion bazkariaren egitea zen ametsa. Orain aldiz, bazkariaren araberrako gosearen, apetituaren izatea! Jenden laurdenarentzat. Beste hiru laurdenen ametsa, gosearen eztitzeko doia jatea.

Oporretara joanen gara egun goxoak pasatzeko nahikariarekin, goxotasunetik kanpo ez baitugu zorionik ikusten.

Eta beti helburu berarekin norbait joko du gizonak, barnean daukan herraz edo agresibitateaz purgatzeko, molde horretan deskantsatuko eta lasaiago izanen delako ustekeriarekin. Gerlak berak beren zoriona gogoan egiten dituzte zenbaitetik, beste batzuek, gehiengo handiak, zoriona galduko baldin badute ere gerla horien beren gatik. Bainan «lehenik aitaren»! Gure amak konda-

tzen zigun Ibarnegaraiko Pettittoren historia. 1914-1918ko gerlarako deia ukan zuelarik, gure etxe aitzinean pasatu zen, irriz, loriatua, gerlara johan zela. Zer amesten zuen gerlatik, ez dakigu. Salbu, gure amak erraten zigun handik eta zenbait hilabeteren buruan, Pettittoren hil mezan izan zela, herriko elizan. Ezin uka zorion gosea asetzeko hautatzen ditugun bideek ez gaituztela beti uste genukeen aldera eramaten.

Amesten den zoriona gauza bat da. Egiazkoa besterik! Norbaitek balu zinezko zorion horren segetua, munduko aberatsena litzateke epe laburrik barne. Azken finean, zorionerako bide horren ezagutzeko, behar litzateke lehenik jakin zer den zoriona. Europako *parabisuaz* gose hamikatuak eta Gibraltarreko itsasartean itotzen diren afrikar horiek denak ere ez ote ziren zorion bila abiatuak?

Urtatsez, bat besteari diogu, «Urte on, osagarri on batekin, hori baita beharrena. Hori gabe ez baita besterik.» Osagarria izatea aski balitz zoriontsu izateko! Barnetik sofritzen duten gehienak ez ote litzateke osagarri onean? Zenbatek ez dute beren buruaz beste egiten, osagarri onean direlarik, berdin oso gazterik, baina ezin jasanezko har batek barnetik jaten dituelakotz.

Beste alde batetik hartuz, zoaz Lurdara erien beilara. Munduko miseria guziak ikusiko dituzu: minbizi, paralesiatu, itsu, maingu, zango edo beso motz, enbalier... Horiek gurutzatzen eta laguntzen dituzten guziak harriturik itzultzen dira etxera, batere ez direla jende tristeak beren miseria guzien gatik.

Nihaurek gogoan daukat elizan ikusi gizon xahar bat, Gra-xien. Ilobasoaren haurraren bataiora etorria zen lau errotetako alki baten gainean: zangoa moztua zioten. Neure baitan egin nuen: «Gaixo gizona! Zer bizia, bere alkiaren gainean! Beti beste norbaiten beharretan!» Urrikari izan nuen.

Hurbildu zitzaidalarik, erran zidan: «Jaun erretora, hemen duzu Iholdiko gizonik urosena.» Arrallerian ari ote zen? Bere burua tronpatu nahiz? Ondoan baineukan bataio-bazkari luze hartan (arratsalde guzia iraun zuen), ohartu nintzen zinez ari

zela. Munduko gizonik zoriontsuena zen. Osagarririk gabe. Zangoa moztua, herriko dantzari hoberena izana zelarik. Errotekila-ko aulki harekin, besten meneko zelarik. Ez zuen gorputzeko oinazetik. Aitortzen dut oinazeak jasan behar dituenarentzat bes-terik dela... Baina gutarik zenbat lirateke zoriontsu lau erroteki-lako aulkian?

Duela zenbait urte izan naiz Pariseko auzitegian, hamabost urte hartan preso zen Gabi Mouescaren auzian. Auzi egun oroz, beti irri pollit goxo batekin agertzen zen. Libertatea galdua baina zorio-na ez. Egun beretan izan naiz Fleury Merogiseko presondegian, zenbait aste lehenago gelditua izana zen herritar emazte gazte baten ikusten. Hau ere gaitzeko omore onean. Preso. Zenbait hila-betetako haurra etxean utzia zuelarik. Libertatea bera ez da beraz baitezpadakoa zorionarentzat? Gorputzeko libertatea bederen.

Zerk egiten du bada zoriona? Diruak? Egia da dirurik gabe galduak gintezkeela. Jesusek berak ez ote zuen diruzain bat, Judas? Bizkitartean Los Angelesetan nintzen batez, metrotik ateratzean gizon bat ari zen paper hedatzen. Hartu nuen eta irakur-tu. AEBtako gizon aberatsenetako hamarrek 1923an egin bilkura bat aipu zuen. Hogeita hiru urte berantago, denek, salbu batek fin gaixto egina zuten! Eta paperak galdetzen zuen «Gizon horiek ongi ikasia zuten dirua irabazten, baina bihi batek ez zuen ikasi zertarako.»²⁰

²⁰ «The president of the largest independent steel company, Charles Schwab, died a bankrupt and lived on borrowed money for five years before his death. The president of the National City Bank, Charles E. Mitchel, is still alive. The president of the greatest utility company, Samuel Insull, died a fugitive from justice and penniless in a foreign land. The president of the largest gas company, Howard Hopson, is now insane. The president of the New York Stock Exchange, Richard Whitbey, was released from Sin Sing Penitentiary. The member of the President's Cabinet, Albert Fall, was pardoned so he could die at home. The greater wheat speculator, Arthur Cutten, died abroad insolvent. The greatest «bear» in Wall Street, Jess Livermore, died a suicide. The head of the great monopoly, Ivan Krueger, died a suicide. The president of the Bank of International Settlements, Leo Frazer, died a suicide.»

Gogora etorri zitzaizkidan hango euskaldun batzu: Martin Biscailuz, XIX. mende hondarrean, Los Angelesetako abokat aberatsenatarik izana: giza gaizo bat bezala hil zen, alkoholak errea, 42 urtetan... Zabala medikua, bere buruaz beste egin zuena. Goytino, notario eta kazetaria, hiri hartako frantsesetan famatuena bezala ekarria garai beretan, aberats okitua izana eta bere bizia, herresta batek bezala bururatu zuena, bakartasunean: bere ondo-regoa eskuraturik aitaren gandik urrun joan zen gazte haren parabolan ere, semea, bakarrik gelditu zen moltsa hustearekin. (Lk 15,11-32)

Hemen berean badugu horrelakorik trumilka. Zenbat eta zenbat politikari eta industrialari auzitegietan pasatzen baitira, dolarrak edo euroak mila milioika lapurturik: Marseillako futbol ekipako buru ohi bat, bere 30 metroko yachtarekin. Egunean eguneko ogiarentzat 500 euro behar zituen Parisko auzapeza, hiriko kutxatik ariz erretx baita! Lehendakari hupatua, bere soldata %580ez emendatu du 10 urtez. Nolaz ez aipa GALen historioan murgilduak izanak diren ministroak eta guardia zibilen buru izan naparra, bai eta Probintzia horretako dirukutxa xurgatu zuen apezondoa, Nafarroako lehendakari ohia. Bestek baino zorion gehiago gozatu ote lukete? Zorionean bizi ote dira gaur, Iruñeko eta Madrilgo presondegietan?

Orotan xapeldun, ELF petrolio konpainiako burua, bere apostoluekin: 800 milioi eurotako lapurketak eginak dituzte... epaileek frogatuak! Zurea bezalako 6.000 etxeren erostekoa! Donibane Lohitzungo etxe guzien erostekoa, «résidences secondaires» delakoak barne. Gure bizkar! Zentimo bat edo bi gehiago eman baitugu horretarako gasolina pinta bakoitz, jauntto horien kaprizak betetzeko. Zer heinetakoak ziren horien zorionerako baitezpadako gastuak? Purrukeria zenbaiten berri jakin dugu.

7 milioi balio zuen egoitza bat Pariseko «quartiers chics» horietan! 120.000 €tako sukalde bat sartu zuen egongia horretan, dirua iturri beretik bilduz: han erre bildoxkiak ez ote zukeen

ene labekoaren gustu bera? Munduko emazte pollitena hartu zuen, *beltzarana* Iparragirrek aipatu hura bezala. Edanago eta egarriago, horrelako andereari zoakion etxea eraiki Kortsikan 24 milioi eurotan. Ez zitekeen aski ederra zeren eta «madamak» utzi zuen ELF konpainiako lehendakari jaun ospetsua. Berextea 6 milioi euro gosta! Hauek ere guk pagatuak gasolina erostearekin!

Horrelako diruketarekin ezin uka beraz, ez zaizkiola zorionari hurbildu ere. Orain, mundu osoaren irringarri dira presondegian, kazetetan ala telebistan arratseko berri sailetan ezpainak milikatuz, denek igurikatu bazka izan ondoan egun oroz, zenbait hilabetez, horien biziko gorabeherak xehetasun bakar bat ahantzi gabe kondatu baitituzte auzitegian.

ELF aipatu dut, hor dira ere zenbait hilabete barne, Enron, Vivendi, Prestige, Parmalat eta abar, zein bestea baino handiagoak. Gure arduradunek nola gaitzesten dituzten horrelako egitateak argi agertu da hain zuzen *Prestige* hondamendiarekin: petrolio konpainiek dirurik aski ez dute, makurren ordaintzeko. Alabaina ELFeko buruek egin gastuekin, kutxa hustua! Estadoek erabaki dute beren gain (zu eta nire gain!) hartuko dituztela ordainketa horiek (parte bederen!). Horrela doa Jainkorik gabeko munduak ematen duen zoriona.

Paristar boltsako CAC40ko nagusien soldatak %15 igo dira, beren enpresek 20.000 milioi € galtzen zuten 2003 urte hartan berean! Jean Marie Messier batek, 23.300 milioi euro galarazi dizkio PDG zen Vivendi-Universal holdinari 2001ean: 739 € segundo bakotx!²¹ Guinness liburuan agertzekoa!

François Pinault jaun txit agurgarriak mila milioi irabazi ditu, «Executive Life» bere enpresak 500 mila milioi euroko isuna pagatu behar izan diolarik Kaliforniari; ez, barkatu, Frantziak du pagatuko: hamar euro etxe bakotx!

²¹ Alfred Grosser, «Une nuit du 4 août pour les privilégiés», *La Croix*, 2004.01.14.

Eta gure politika gizonak ez dira hobeak. Azken hiru urteak baizik ez hartuz, auzitegiek kondenatu dituzte 79 deputatu, senadore, eskualde-kontseiluko lehendakari edo deputatu, kontselari nagusi eta auzapez, herriko dirua burrustan sartu dutelakotz beren banko-kontuan edo beren alderdikoan! Eta auzitegietan dabiltzan horiek sustengatzen dituzte ainitz eta ainitzek, baizik eta Frantziarentzat baitezpadakoak direla, Juppé-rekin ikusi dugun bezala.

Beti gogoeta egon naiz non mila sorgin eta zer mila debrutan xahutzen ahal zituzten horrelako diruketak! Ahoa zabalik uzten naute ere, gaua palazio zenbaitetan pasatzeko beren logela 1000 euro pagatzen duten horiek. Nahi bezainbat pagaturik ere, ez ote dute begiak hetsirik lo egiten bi mihiseren artean, luze-luzea ohe baten gainean? Zuk eta nik bezala.

Sail hau bera beste puntatik hartuz, zer irri ederra duten, hortz zuri haiek begitarte beltza iguzkiak bezala argitzen diotela, lastozko ttattola txar baten aitzinean, erdi pildaz jauntziak, oinutsik, lur hutsa dutela beren etzangia lo egiteko, telebistan ikusten ditugun Afrikako beltz horiek. Horiei bai, horiei, zoriona dariotela beren izate guzitik! Dirurik gabe. Nahiz han ere badiren dirudunak; Mercedes beribil bat zeukan emazte bat ezagutu dut nihaurek. Mercedes guti zen han. Oraino gutiago emazten eskutan. Emazte horrek bere buruaz beste egin zuen, oso oso bakan baizik ikusten ez dena Afrikan.

Afrikan ibili direnek eta afrikarrak hurbildik ikusi dituzten guziek gauza bera erranen dizute (non ez diren Club Méditerranée-ko herri «afrikar» horien mugen barnean egon xintxo-xintxo, haratago begiratu gabe!); ez dute ulertzen nondik daukaten irri hori, ikusi eta nola bizi diren. Urte osoarentzat, guk aste baten-tzat baino diru gutiagorekin, apairu bakar bat egunean, haragirik gabe, ez bada noizean behinka. Ura, ahal dena, nonbaitik pegarrez ekarria eta ez dutxulua ideki orduko burrustan heldu dena (afrikarretan %65ek daukan ura ez da edateko sana. Gure behiei ere edatera ematea debeka lezakete Europako arau-

diek!²²). Argi indarrrik ez. Medikurik ez. Gure bizi esperantzaren erdirik ez. Bai, nondik mila deabru daukate horrelako zoriona, guri, baitezpadakoak zaizkigun oinarrizko gauza horietarik denetarik bihi bat ez dutelarik urrunera ere ikusten, ez telebista, ez hozgailu (alta, nihon baitezpadakoa balitz!), ez beribil, ez opor, ez SMIG, ez segurtasun sozial, ez zahar arranda, ez... Eta nork erran dezake ez direla zoriontsu? Niger, munduko herrrialde pobreenetarik batetan bi hilabete beltzen artean pasatu eta, hogeit urteko bi neska lapurtar gaztek zioten: «Biziki guti dute, bainan uros dira. Pobre, bainan uros. Miseria ainitz ikusi dugu, bainan ez dute iduri miserian bizi direla»²³» Hor da ukaitea eta izaitearen arteko diferentzia. Ez da filosofo handia izate beharrik horri ohartzeko. Hona duela mende erdi bat, Aljerian soldado zen hogeit urteko laborari seme batek zer idazten zuen, hango arabeen miseria xeheki aipatu ondoan.

«Gauza horiek kondatu ondoan, ez nauke bi gogoeta egin gabe: gu, hemengo jendeak baino urusago ote gira? Ba! duzue ihardetsiko duda mikorik egin gabe, eta, bizkitartean... Akabatzeke ixtorio ttipi bat. Duela zombait egun, gure Frantziako bizi moldea kondatu ondoan, soldado batek galde egin zuen arabe bati: «Mais vous n'êtes pas malheureux ici?» eta hunek ordu berean ihardetsi: «J'ai ma femme et mes enfants, mon âne et mon gourbi (etxola) et le reste à la volonté de Dieu et Allah...»²⁴ eta hori erraiten zuen bisaia airos eta alegera batekin. Eta gu, gure «civilisation» eta «modernisation» guziekin noiz estimatuko gira uros eta satisfos? Orai artio arras guti ikusten dut: nagusiak nigarrez aferarik ez dutela egiten... langileak ez dutela aski irabazten, bizikletaren orde moto bat nahi, motoa eros eta fite otoa... laborariek lehenik motor bat nahi eta gero traktor bat behar... eta

²² «Le chiffre: 65%», *La Croix*, 2003.12.09.

²³ Niger-en gaindi. *Fededunak* 3, 5 or.

²⁴ Baditut emaztea eta haurrak, astoa eta lurrezko etxea. Gaineratikoak, Jainkoaren esku!

zombat etsenplu eman nezake oraino? Ez dut erran nahi default bat dela hori ez... are gutiago hemengo jendeen hainerat behar dugula erori... Ixtorio ttipi horren medioz nahi nuke bakarrik erakutsi, eta gutarik baktxari gogoeta bat eginarazi: ez duela sosak eta aberastasunak egiten gizonen zoriona eta hemengo jenden araberan parabisuaren erdian girela...»²⁵

Mundu berri honek eman ditzakeen tresna eta girgileria guziak eskutan dauzkagularik, afrikarrak gu baino urosago dira! Han egon naizen 12 urteetan suprefetura osoan ez dut bi aldiz baizik entzun norbaitek bere buruaz beste eginik. Gure asurantz, bankoko txartela, RMI eta gainerakoekin, dotzena bat ehun gaztek beren buruaz beste egiten dute Frantzian, urte baktx, 15-24 urtekoetan. Gazte eta beste, dotzena bat milak urtean orotara. Bidetako istripuen doblea. Saiatzen direnak: 160.000! Beren buruaz beste egiten dutenen kopurua hamar mila jenderentzat %1,73tarik 2,13tara igo da hogeita hamar urtez. %23ko gorakada, 12-13 urteko neskatxetan %4 saiatuak ziren beren buruaz beste egitera 1993an, %8k hamar urte geroago: doblea.

Ez dut hegoaldeko datu zuzenik baina badakit 2002. urtean 194 jende beren buruaz beste egin zutela, bideko istripuetan 170 hil izan zirelarik. Hor ere bidetan baino gehiago hil, biziaz etsiturik. Ez dukete tripako min txarra horretaratzeko. Gauza bitxia, bideko istripuen izurritea baitezpada ttipitu nahiz ari direlarik buru belarri, eta arrazoinekin, nehork ez du deus erraten handiagoa den beste izurrite horretaz. Aipatzea bera, gure gizarte eta bizimolde, denak zalantzan kilikolo ematea litekeelakotz ote?

Alde berera doa beste datu hau: zainetarik eri diren 3 milioi jende bada Frantzian! Pilulak gabe, ezin bizi²⁶. Pilula lo egiteko egun, pilula lo egin gabe egoteko bihar. Pilula kalmatzeko egun, pilula bizitasun poxi bat izateko bihar. Behar ditugun guziak

²⁵ X. Arbelbide, *Eskualdunak Aljerian*, Elkar, 34 or. «Afrikako berri eta molde», *Gazte* kazetarik, 1957.2.

²⁶ Corinne Thébault, «Trois millions de dépressifs», *Aujourd'hui*, 2003.10.02.

eskutan izanki eta hiru milioi halere, barnea ments, depresioa egiteko puntuan! Ogi meta gaineko xoria goseak hiltzen ari! Denak eskutan... eta beharrena eskas!

Beharrena non den ez baitakite. Pariseko irrati nazionalen entzun berri dut gazte bat. Hilabetean 350 € xahutzen du markako jauntziak erosten. Lacoste atorra batentzat ez zuen eskerrik: «Nor nahik badu hori! Horrekin ez dizute kasurik ere eginen. Marka arraro bat baldin baduzu aldiz lagunek galdetzen dizute nondik daukazu. ‘Ca vous met en valeur!’ 45 eurotan Carrefour-en erosi bakero batek ez bezalako arrakasta baduzu 200 € balio duen markako batekin.» Bidea luze bezain zozoa izan behar da uste izateko axalezko gauza horiek emanen dizutela zinezko zoriona. Eta zenbat ez dira axalean gelditzen, itxuran, mami bat izan ditekeela gogoan pasatua ere gabe!

Zertarik igurikatzen dugu guk zoriona? Afrikarrek ez dituzten horietatik, batere dudarik gabe. Dirua behar dugu, ez aberats okitu zenbaitek bezala bankoan metatzeko, meta handiago, eta zoriona handiago, Molière-n «Arpagon» hura iduri. Baina ohartua ote zara SMIGa²⁷ hunkitzen duenak ere, kilo bat eta erdi urhe erosten ahal lukeela urteko irabaziekin! Arpagonek behin ere izan zuen baino gehiago! Ohartua ote zara *Libération*, 1968an maiztzeke iraultzale handiek sortu kazetak ere ematen dituela boltsa eta akzioen gorabeherak? *Gara* ezker abertzaleko militanteen egunkariak berak bi orrialde betetzen dituela berri horiekin, Dow Jones, Nasdaq, Nikkei, eta guzi! Ezkerrekoak baina banko eta akzioen gorabeheren berri gose!

Diruarekin, gizonaren jakitateak ateratzen dituen guziak erosten ahal ditugu. Beribil, mikrouhin, ordenagailu, DVD, kamera digital... Eta beti zerbait berri heldu! Beti amets berriak egiten ahal! Jenden erdiak goseak hilak direlarik euroak mila milioika xahutzen ditugu iguzkiko zenbait miligramo errauts bildu nahiz. Jankorik gabeko gain hatan ote liteke zoriona?

²⁷ SMIG = soldata apalena.

Aitzinamendu guziak aitzinamendu ote litezke? Egia da 100 urtez gure bizi esperantza doblatu dela. Baina, baina. Hamalau-ko gerlan lau urte behar izan baitzituzten hemezortzi milioi gizonen hiltzeko, segundu bakar batez 100.000 japoniar hil zituen Hiroshimako lehergailu atomiko hark! Ez ote zen hura ere gizonaren jakitatearen umea? Odol kutsatua, Amoco Cadiz, haragi-ormonatu eta beste zikinkeriak bezala. Behi eroa eta abere irinak halaber. Gizonen hutsak horiek.

Ezin uka bere hutsetan tematzen dela gizona: gure garapenari baitezpadakoa zaio %2ko igoera urte bakoitz. Nora garamatza horrek. Beribilak urtetik urtera garbiago izanikan ere, urte oroz emendatzen bada haien kopurua noiz artinoko bizia du lur honek? Eta zenbatez ez da emendatuko Txina, India, Errusia ... hasiko direlarik gure abiaduran garatzen! 2003an, 2002an baino %73 beribil gehiago saldu da Txinan! Beribil marka guziak ari dira, zein lehenka, pusaka, Txinan sartu nahiz, bakotxak bere fabrika berria sortzeko. Hori bai Eldorado izanen dela. Boltsentzat segurik. Ingurumenari doakionaz... Niretzat ez da dudarik, gaurko haurrek ez dute zahar arrandaz arranguratzerik, ez baitira zahartuko: lurak leher egingen du lehenago.

400 milioi jende hil da berrogeita hamar urtez aro aldaketaren ondorioz, Osasunaren Munduko Erakundearen txosten batek erraten duenaz²⁸. Hogei mila 2003an, Frantzia, berean, hiruetan hogeit hamar milioi euroko makurrekin²⁹! Baina gure aldia ez deno... Goazen gu egunean egunekoarekin... Gure ondokoak akomea ditela gero nahi duten (edo ahal duten?) bezala gu egin garen bezala!

Gizonari dio lehentasuna ematen Ebanjelioak, ez garapenari, jakitateari edo amentsei. Gizona jakitatearen nagusi eta ez esklabo. Bere hutsen jakinean, mundua bezala bere burua ere hobetu behar baitu.

²⁸ Arantxa Elizegi, *Berria*, 2003.12.12.

²⁹ «Le coût des catastrophes naturelles», *La Croix*, 2003.12.17.

ADN famatua gaitzeko aitzinamendua dela nork uka? Baina, ADNari esker, medikuek badakite zer nolako gizona aterako den hazitik. Ernamuin mikroskopiko batean ikus daiteke zer kalitate eta zer estakuru izanen duen geroago emanen duen gizonak. «Ovulatio in vitro» teknikari esker, hazi ona berezi eta txarra bota beraz! Segurantzza sozialak egun batez erranen dio ama bati: «Zure ernamuinak horrelako estakurua badu. Edo ilaur egiten duzu, edo haurra zure gain izanen duzu bizi guzian, laguntzarik gabe.»

Zein dira bada ernamuin bat ona ala txarra dela erabakitzeko erreferentzia objektiboak? Jockey batek ttipia eta arina izan behar du. Errugbilariak aldiz handi eta pizua. Zaldi lasterrak laket zaizkion aitak, errugbilaria eman lezakeen ernamuina bota beraz?

Indian ez dute neskarik nahi. Neska izatea, estakuru. Mutiko izatea kalitate. Medikuek bota beharko dituzte neska ernamuin guziak, aitak hala eskatuko dioten pundutik? Emaztea izanez, amak ez baitu deus erratekorik! Gaur egun jadanik, sei urtez petikako haurretan %58,5 mutikoak dira, %41,5 neskak, ama esperantzetan delarik neska bat izanen duela jakitearekin ilaur egiten baitute. Eta ez dira hurbiltzekorik ere emazte guziak medikura joaten esperantzetan direlarik... diru eskasez.

Zein dira ernamuin baten botatzea zilegi egin lezaketen «estakuruak»? Aita amek (edo segurantzza sozialak) nahiko dute konkorra izanen den haurra? Mutua? Alferra? Hori ere jakin baitaiteke. Eta zein pundutik harat erran norbait alferra dela?

Eritasun zenbaitek bizia mugatzen dute 40 urtetan gorenaz. Balio du 40 urte baino lehen hilen den norbaitentzat gizarteak inbestitzea, hogeita zenbait urte arte, hoin epe laburrez baizik ez izateko produktibitate, errentabilitate sainduaren errespetuz, hoin guti emanen duelarik? Pascal, Mozart, Schubert 40 urteak gabe hilak ziren. Gure jakitateari esker haien ernamuietarik jakin zitekeen hori. Bereiztearen bide hori hartuz, haien ernamuinak botaiak izanen ziren. Bai eta gizarteari ekarri diotena. Ernamuinak agertzen badu haurra erortzeko minak joko duela, bota? Plutarko, Flaubert, Dostoiewski botatzeko izanen ziren beraz.

Ernamuinak erakusten badu hetikara ekarria izanen dela, bota? Molière edo Chopinen ernamuinak zikin untzirako baizik ez ziren on izanen.

Nolaz ez aipa anormalak. Jende anormalik ez da normalen ondoan baizik. Pygmeen artean metro bat eta hogeieko gizona handia da. Hemen ttipia. Gaurko «anormalak» baztertuak izanen direlarik, orain normalak zaizkigunetarik batzu dira «anormalak» agertuko beste batzuen ondoan.

Joan den mendean jadanik proposatua izana zen, abereen artean bezala gizonen artean selekzio baten egitea: beltz eta juduak, baztertzen zituen delako selekzioak.

Baina sehiak behar baitituzte nagusiek, giderrak eskutan izanki eta bidea aurki lezakete emazte kategoria batek mundura ditzan sehi izateko egokiak litezkeen haurrak, umil-umila obedituko luketenak. Esklabotasunean aurki lezaketanak beren zoriona! Ez ote gara helduko haurrak egiteko, emazte eta gizonik behar izanen ez den punturat? Orduan orduan askatasun osoan egingen den garapen hura!

Legeak balitezkeela ez dezaten zernahi egin? Sortu aitzin egnikako diagnostikaz badira legeak eta nehork ez ditu gehiago aplikatzen³⁰.

³⁰ «Nous avons posé quatre conditions à l'établissement du diagnostic prénatal. *Toutes ont été abandonnées* (guk dugu azpimarratzen.) Nous devons dépister uniquement les maladies graves, incurables, dont la survenue était certaine. Enfin, il fallait toujours prendre en compte l'intérêt de l'enfant et non celui des parents. Or nous avons laissé de côté le critère de *gravité* puisqu'on dépiste et qu'on interrompt parfois la venue des fœtus porteurs de bec de lièvre. Nous avons abandonné le critère d'*incurabilité*, puisqu'on nous demande des diagnostics pour les maladies curables. Nous avons abandonné le critère de la *prise en compte de l'enfant* en tant que tel, puisque le choix de garder un enfant dépend parfois des conditions économiques et sociales des parents. Enfin nous avons abandonné le critère de certitude. Il suffit maintenant qu'il y ait un risque de 10 à 20% de déclenchement d'une maladie pour qu'une grossesse soit interrompue. L'abandon de ces critères a été de plus accompagné de deux dérives: une dérive eugénique et une dérive normative.» Jean François Mattei, *Eureka*, 1996ko azarara.

Ez uste izan ametsetarik ari naizenik. Gaur egun Singapur hiriak diru laguntza bat ematen dio unibersitatetik atera kuple bati, izaten duen haur bakoitzarentzat. Bai eta diplomarik ez dutenei, haurrik ez izatea onartzen duten pundutik³¹. Eugenismoa martxan da han jadanik singapurtar guziak goi mailako gizon-emazteak izan ditezten. Sehigoa etorkinentzat programatua dute. Mementokotz. Gorago aipatu lorpen miresgarri hura etorri arte.

Estatu Batuetan maila bat gorago daude. Badira hazi bankoak, «sperm-banks», kalitatezko giza hazia saltzen baitute. «Ron's Angels»ek interneten bidez inkantean saltzen ditu 'top girls' en haziak. 15.000 dolarretaraino egin dutenak badira. Fairfax Cryo-bank-ekin merkeago aterako zara. Pedigree segurreko gameta eskuratzen ahalko duzu 115 eta 200 \$ arte horretan eta, 135 \$ gehiago emanez, «Fairfax Doctorate» kalitatekoa: aita-amek, biek badute doktore diploma zenbait³². Beren hazia salduz ogiaren gaineko erreximetaren doia egiten dute gure top girl politek. Hilabeteke azken egunetan ere dirua behar baita! Ardien arraza Urdiñarbeko zentroan hobetzen baitute, gizonaren arrazari ez ote zaio zor, gutienez, ardiei ematen zaiena? Bai! Gizonaren arrazaren hobetzeko garaiak ere etorriak zaizkigu!

Haurra neska ala mutikoa izatea, begi urdin ala beltza, kantari ala filosofo, hori josteta bat da gaur egun. Azkenean zuk nahi duzun haurra izan dezakezu. Hasteko eta bat, ez hamabost urtetatik harat, zuk nahi ala ez, bere bidea hartuko duen haur bihurria. Bai! Zuk nahi bezalakoa!

Azken berria: gizonaren arraza aldatu nahiz ari dira zenbait. Gizona ez den norbait egin nahi dute gizonaz. Gizonaren GAM edo OGM bat. Transhumanismoa deitzen dute hori. Ikus Interneten www.transhumanism.com. Gizakia baino gehiagoko zerbait bila-

³¹ Grégory Bénichou, *Le Chiffre de la vie*, Seuil, 2002, 247 or.

³² Grégory Bénichou, *Le Chiffre de la vie*, Seuil, 2002, 281 or.

katu behar omen dugu. Hala nola, batere dopina beharrik izanen ez duten gizonak ateratzeari buruz ari dira: OGMaren bidez sortuko den txapeldunen arraza. Bai eta sehi izateak beren zorion gosea osoki aseko dutenen arraza. *The right man, in the right way!*

Hori da aurrera egitea? Azken etsenplu hauek erakusten digute ez garela fikzioan. Gaurko errealitatea da. Nork finka mugak, muga horiek gizonen esku baldin badira? Badakigularik diruarentzat edo famarentzat zernahi egiteko prest direla zenbait?

Dirua behar baita. Baitezpada. Argiaren pagatzeko, uraren pagatzeko, gasaren pagatzeko, telefonoaren pagatzeko, asurantzzen pagatzeko, zergen pagatzeko, interneten pagatzeko, erregaia-
ren pagatzeko, sukaldeko tresnen erosteko, beribilaren erosteko, telebistaren erosteko, oporren Tahitin pasatzeko... Janaria eta etxea ahanter nituen, hain ditu bigarren mailan ematen gure gizarteak! (Hormonez hantu kabalen haragia ez ote da merke ateratzen!) Eta nolaz ez, istudioen pagatzeko: berriki neska gazte batek bere birjinitatea inkantean eman du interneten 1000 eurotan, istudioentzat behar zuen dirua eskuratzeko³³. *On n'arrête pas le progrès*. Zenbait mila eskaintza izan ditu egun laburrik barne, gure neskak. Horietarik batek 2.500 € proposatu dizkio... birjina gelditzeko. Eta neskak hau hautatu! Mundua ez da oraino osoki usteldua iduriz. Ez da etsitu behar.

Badira gutiagorekin bizi direnak. Baina haiek ere dirua behar. Beribila pagatzeko doia bederen. A! Lehen beribil hura! Bi zalditako Citroen zahar hura! Bost edo seigarren esku erosi genuena. Zer zoriona ez zigun eman! Nola ez genuen garbitzen, txukuntzen, tinduari dirdira izana zuela ere aspaldian ahantzia zitzaizolarik. Orenean hirurogei kilometro egitera heltzen zen, bere abiadura handiengan, patarrari beheiti bulta hartzeko bide zuzena aski luzea zelarik.

³³ «Vende su virginidad en internet para estudiar», *Diario Vasco*, 2003.05.19, azken orrialdean.

Laster ohartu ginen gure auzoaren Panhard beltza aitzintzen zitzaigula noiz nahi. Zenbat eta zenbat aldiz ez gaitu aintzindu! Begiak hetsirik ere, irri maltzur bat ikusten genion auzoari, ezkerretarik pasatzen zitzaigun aldi oroz. Ezin jasana!

Gure bi zaldikoak bere grazia guzia galdu zuen emeki emeki. Ohartu ginen sekulako zarata egiten zuela. Ezantza soberaxko erretzen. Aulkietako elastikoen erdiak hautsiak zituela: «kalitate/prezinoa» ekuazioa batere ez zuela ona. Egun batez, leher egina, Mentaxuriko patarraren erditsutan eman zuen azken hatsa. Mentaxuriko patarra! Behin ere ez genuen igan ahal izan, gaztetxo ginelarik gure anaiak prestatu zigun Solex famatu harekin, ez eta geroxago ere Roquebert mobiletarekin.... Azken ehun metroak, beti oinez, tresna pusatuz. Bi zalditakoari ere nagusitu zitzaion azkenean Mentaxuriko patarra.

Gradoz hupatu ginen Aronde bat eskuratuz. Hirugarren eskukoa baizik ez zen. 145.000 kilometro zituen eginak doi-doia, bolantaren ondoko kondagailu hark zioenaz bederen. Orenean 70 km egiten zuen, ordoki bat zen pundutik. Alkiak, egiazkoak ziren. Gibelean hiru presuna jar zitezkeen batere arazorik gabe. Bi zalditako harekilan ezagutu ez genuen bezalako zoriona eman zigula, aitortu behar dugu. Hastean bederen.

Haren ondotik etorri ziren bi 4L Renault besteak beste, eta azkenean auto berri bat erosi genuen. Bainan berriaren zoriona ere itzali zen, denbora laburrik barne, gehiagokorik gabe. Gaur egun beribil berri-berria erosten dugularik, ez digu Baionako merkealdietan erosten dugun atorrak baino zorion gehiago ematen. Beribilari jarri gara. Bainan jarri gero! Egun batez beribilik gabe egon behar bagenu... Zorionik ez! Bainan zoritxarra, hura bai etortzen ahal zaigu beribiletik... gabe egotera behartuak garelarik!

Teknika berrien mundu honek ematen dizkigun tresna eta girgileria guziekin gauza bera gertatzen da: lehen aldian zorion bat ematen digutela iduri. Gero jartzen gara eta azkenean, gabe ez gintezke bizi. Eta beti zerbait gehiago behar dugu, zerbait berri.

Berri hark, segur, emanen digu beti amesten dugun zoriona telebistako pubak berak eten gabe hitzematzen dugunaz. Iduritzen zaigu girgileria berriaren espantuak egiten dizkigun neska gazte, luze, bilo holli ederraren adinera ere eramanez gaituela...

Botereak gaitu zorionera eramanez? Nolako borrokak, nolako azpijokoak ez dira ikusten hautetsi izateko ohorearen gibeletik dabiltzan horietarik zenbaiten artean! Kargua gorago eta egarria handiago. Herriko hautetsi izateak asetzen du gehien gosea, baina hiri bateko zenbat auzapez egon daiteke denbora berean kontseilari nagusi edo deputatu izan gabe? Hiruak, legez haizu zirelarik! Eta nolako borrokak BAB-ko hirieltzeko lehendakari aulkia eskuratzeko? Horrelako eta halako komisioren buru izateko? Mundu hori ongi ezagutzen duen lagun batek erraten zigun ezin sinetsia dela nolako bizia daramaten: 35 orduko lan astearen alde baldin badira ere, ehun orduz petikakorik ez dute ezagutzen berek. Kargua karga baita. Baina den mendreneko botere poxirik ez utzi nahi beste bati, hatsa hartzeko doia balitz ere! Dena berentzat nahi! Ezin asezko janizak hartuak. Ez! Zoriona ez da aurkitzen gosea ttipitzeko orde, emendatzen duen botere horretan.

Sexuak? Ez naiz gaizki mintzatuko sexuaz, Jainkoak egina denaz geroz! Hortik eta Gainsbourgek goraiatu «sea, sex and sun» hirukoteaz egitea biziaren helburua! Jainko ttipi honen jainkosa delarik «linea»: «mincir en haut, en bas, fesses, cuisses, ventre, bras, chevilles» irakurtu dut aldizkari baten estalgian, *Egun-karia* erosten ari nintzen batez. «Goia, behera, ipurdimazelak, isterrak, tripa, besoak, aztalbarriak mehatu.» Kabillaren neurriek ere baldintzatzen emaztearen zoriona beraz!

«Sea, sex and sun» zioen beraz Serge Gainsbourgek. Aiherrako bestetan zikiroa egiten dutelarik gatz eta biper ematen diote beste onkailu zenbaitekin, xarbote, peresil eta nik dakita zer. Baina nehor ez da tronpatzen. Zikiroa, zikiroa da eta onkailua onkailu besterik gabe. «Sea, sex and sun» hori onkailu baizik ez da. Ez da sekulan gizonaren zorion gosea ase dezakeen zikiroa izaten ahalko.

Bizkitartean, zenbatek ez dute sexutik igurikatzen zoriona? Norentzat zoriona? Hego Ameriketarako, Thailandiarako edo Philipinetarako turismo sexuala baizik ezagutzen ez dutenentzat menturaz. 3,5 milioi gizonak aitortzen dute pedofilia gatik doatzila oporretara beren herritik kanpo. Puntu horretan bost *txapel-dunak*: Frantzia, Italia, Alemania, Belgika eta Espainia³⁴. Gauza bera erran ote lezakete han, zerri batek bere aska bezala musuikatzen dituzten haurrek?

Gauza bera erran ote lezakete zenbaiten fantasma sexualak jasan behar dituzten putek? Frantzian egin ikerketa batek jakin arazten du 4.500 € irabazten dituela oren batez zakur batekin kopulatzen duen putak, hori ere eskatzen baitiete! BBVAko lehen-dakariak ere ez du horrenbeste irabazten. Ez da harritzekorik sexuak baldin badauka bere tokia Frankfurteko Boltsa famatuan. Nahitara erabiltzen dugu puta hitza, ongi erakusten baitu zer estimutan dauzkaten. Ba omen dira ofizio hori beren nahitara hautatua dutenak. Horien ondoan, ongi pagatua izanen zen lan interesgarri bat hitzemanik, Afrika, Hego Amerika edo Ekialdeko Europan miseria utzirik etorri zenbat mila neska gaixo! Hemezortzi urtez petikakoak. Migrazioen Erakunde Internazionalaren arabera (OIM) urtean 120.000 haur eta emazte erortzen omen dira trafikatu horren zepoan. Esklabo beltzen trafikua goreneari zelarik ez ziren hurbiltzekorik ere kopuru horretara heldu. Interpolen arabera, neska bakotzak urtean 110.000 eurotako irabazia ematen dio proxeneta bati³⁵. Nazio Batuek diotenaz urtean zazpi-hamar mila milioi eurotako mozkina ematen du munduan gaurko esklaboen trafikua³⁶. Alemaniako putetxeek eskutan ibiltzen duten

³⁴ «Save the children».

³⁵ *Faim-Développement Magazine*, 186 zk., 2003.05, 10 or.

³⁶ Claire Tréan, «De 800.000 à 900.000 personnes seraient enrôlées chaque année, d'après le département d'Etat Américain», *Le Monde*, 2002.08.17.

dirua, urtean 6.000 milioi eurotakoa da, Adidas enpresaren heinekoa! Eta ez uste izan Turkia eta nik dakita nondik jinikako etorkin gaizo batzuen bazka direnik emazte horiek: putetxetan ibiltzen direnetan %42 batxilerrak dira, bana beste %19 direlarik hauek Alemanian. Zer ari ote zen Bois de Boulogneko arbolapetan gauerdiko ondoan, berribilan 17 urteko nexkatxa batekin hatxeman duten lehen minitroaren prentsa arduraduna? Esklabo baten ganik, eta pagatuz baizik izan ez ditekeen zerbait hain segur. Badira 1.500 euro pagatzen dutenak zenbait oren pasatzeko bizpahiru emaztekin!³⁷

Beti OIMren arabera Europa Ekialdetik sartu 500.000 puta badira gaur egun Mendebaleko Europako (salbu zuek eta!) kotzozko zerbitzuko³⁸. Errepublikak Dominikarrek 50.000 neska badira horrela esklabo munduan barna, horietarik 6.000 Espainian.³⁹ Zenbat ote Eukal Herrian? 1.788 EAEan. Eta zibilizatuak omen gara! Hor dago zoriona? *Ekonomiako sektore* hori legeztatu behar dutela irakurtu dut *Berría* egunkarian. Zerri hazkuntza bezala ekonomiako sektore bat da beraz. *Gorantz* egiten duen ekonomiako sektorea omen. Bainan legezkoa ote liteke esklabo eta 18 urtez petikakoekin dabilan ekonomiako sektorea? Ekonomiari zerbait ekartzen dion ber, denak barka, ekonomia baita Jainkorik gabeko mundu honen jainko ttipia.

Berriki ohartu naiz *Diario Vasco*-n egun oroz orrialde bat eta erdi publizitate badela putentzat: 240 kondatu ditut behin! Badira putak eta badira kotzoak beraz. Gipuzkoako ehun mila etxetan sartzen baita egunkari hori, beren «edukazio» sexuala egin dezaketeko horietako haurrek iragarki eta argazki horiei begiraturaz. Zer

³⁷ Andrea Brandt, «Vendues comme du bétail», *Courrier International*, 2003.10, 16-22 or.

³⁸ Jean Pierre Stroobanks, «Alerte sur une croissance mondiale des trafics d'êtres humains», *Le Monde*, 2003.08.17.

³⁹ M.T. Benitez de Lugo, «La ONU denuncia la explotación sexual de inmigrantes en España», *El Mundo*, 2001.05.13.

gatik ez lezakete har hitz ordu bat? Telefono eta mail hor daude. Eta neska horientzat ere, hamabost urteko mutiko bat 70eko bat bezain atsegingarri daiteke... Hiztegia ere aberastuko dute *Diario*-rekin: Ostiak erosten ditudan komentuan *Diario Vasco* hartzen dute, eta ez *Deia*, monja guziak ez direlaketz euskaldunak, erran didatenaz. Abertzalegoa, sexu trafikua baino bekatu handiagoa monjentzat? Madril ala Parisen merkatu bertsua izanez, pentsatzeko da han bezala %90 *emigratuak* direla EAE-n ere eta gehienak 16-18 urtekoak, bezeroek horrelakoak nahi ditzutelaketz. Bezeroen zerbitzuko izan behar *ekonomia sektore* horrek ere: ekonomiko legea da.

Frantzian, mila sei ehun haurrez goiti desagertu da hiru urtez!⁴⁰ Eskandalarik sortzen du horrek? UNICEFen arabera 2002. urtean 1,2 milioi haur desagertu da beren etxeetatik munduan, haurren trafikoaren eraginez, lanean edo putetxeetan aritzeko. Europa eta Ameriketako zibilizatuak jantzi eta oinetakoak merkeago pagatzeko, oporrak Tahitin pasatzekotan, denen beharra baitugu!⁴¹

Norbaitek giltzurrun, bihotz edo beste txertatu behar duela-rik... eta txertorik ez, haur horiei esker, behar dena izanen dute, gazte gaztea, kalitate hoberenekoa. Berriki gelditu dituzte gorpuzki trafikoan ari ziren hiru israeldar eta lau brasildar. Hauek ekartzen zituzten gorpuzkiak Brasildik. Norenak? Hego Afrikako kliniketan egiten zen txertoa. Moldaviako herri pobre batean gorpuzkiak erosten zizkieten 3.000\$, 120.000tan saltzeko, gero jakin zutenaz!⁴²

Ekaitzik sortzen dute horiek? Horiek denak ez ote dira gure gizarte zibilizatuko ezinbesteko «pertes et profits»-tan ekarriak?

⁴⁰ F.G. Lemouton, «Un SOS est lancé pour les enfants disparus», *La Croix*, 2003.05.22.

⁴¹ «Haur trafikoak gora egin», *Berria*, 2003.07.31.

⁴² «Alain Guillemoles: Gorgi a vendu son rein pour 3.000 \$», *La Croix*, 2003.11.

Demokratikoki, denak demokrazian eta askatasunean bizi baigara.

Putetaz baliatzen direnetan, edo ofizio hori onartzen dutenetan zenbatek nahi lukete beren alaba ikusi putagotik bizi? Munduko ofiziorik zaharrena dela, irriño batekin erran eta, denak konponduak dira zenbaitentzat. Gauza kuriosa, edozein kazeta ala irratik erranen dizu 4.000 badirela Parisko gauetan, Bois de Boulogneko zein xokotan dauden, zein hilabetetan uzten duten Paris, Cote d'Azur-era joateko, zenbat diren Errumaniatik etorriak, zenbat Nigeria edo Kolonbiatik. Erranen dizute 342 direla Araban, 898 Bizkaian, 540 Gipuzkoan, 102 Gazteizen, 260 Bilbon, eta 72 Donostian. Telefonoak ere badituzue, beraz, *Diario Vasco*-n. Baina esklabotasunetik aterako dituen ertzaintza edo polizia ez da. Nahiz esklabogoa debekatzen duen lege internazionalak bi mende honetan. Berek jarri legeetat axola izpirik ez gure politikariek eta harriturik daude nolaz ez diegun gehiagoko konfiantzarik egiten!

Berriki lege bat eztabaidatua izan baita Parisen «ofizio» horretaz, goraki mintzatu dira lan hori «hautatua» dutenen libertatea errespetatzeaz, haien zahar arrandaz, eskubide sozialetaz. Eusko Jaurlaritzan, Gizarte sailburuordea ere arauak egiten ari da beraz. Zenbatek dute ofizio hori hautatu zinez librokiki? Zenbat, ezinbeste gorriak «hautu» horretara bortxatuak? Zenbat zinezko esklaboak? Lan horren esklabo bizi direnek nolako zoriona aurkitzen dute hor?

Hilabetean sei emazte erailtzen dituzte beren senar edo lagunek Espainian. Urtean 70 bat. Eskandalarik sortzen du horrek, erailketetaz hoin minbera diren erresuma horretan?⁴³ Ez uste izan oraino beste mende batetan bizi litezkeen espagnolika batzuen arazoa litekeenik. Trintignant-Cantat gertakariaren karietara jakin

⁴³ «Cincuenta mujeres han muerto por violencia doméstica este año», *Deia*, 2003.05.22.

dugu hamar emaztetarik bat joa dela Frantzia zibilizatuan; hila-
betean sei emazte hiltzen dituztela beren senarrek! Espainiako
neurri bera! Ez bakarrik alkoholika eta drogatuetan, baina ere
familia «onetan»: mediku, polizia, aktore, kantari.... Hor ere
amodioa mehe daiteke. Hamar emaztetarik batek bortizkeriak
jasaiten ditu bere lagun edo senarraren gandik; joak, biola-
tuak....⁴⁴!

Begiragailu, pilula, ilortze eta gaineratikoekin sexu-askatasu-
na hitzeman ziguten 1968ko maiatzean. Nolaz bada ikusten da
Frantzian 100.000 emazte bortxatuak urte oroz? Horietatik %45
egun argiz!⁴⁵ Hoinbeste gizon, puta beharretan? Eta putekin ez
aski!

Paris alde horretan polizia deitua delarik gauaz, hamarretarik
seietan emaztek jasan bortizkerien gatik da. Eta bigarren mailako
arazo bat bezala ikusia da: Chirac Frantziako lehendakari sartu
delarik 2002an, amnistia partziala erabaki baitu, xakur eta
gatuena kontra bortizkeriak eginik kondenatuak izanak zirenei ez
die barkatu, emaztekin bortitzak izanak zirenei aldiz bai!⁴⁶ Gure
Iparralde maite honetan ere badugu emazte horien ihesleku den
etxe bat Baionan. Eta nehorik ez zuen horrelakorik aipatzen ere
orain arte!

Cantat kantariak joka hil duelarik Trintignant anderea,
harrotu dira bazterrak. Artista batek, maite zuen beste artista bat
hil du. Joka!!! Ez daiteke erran gure gizarte honek baztertu esko-
la gabeko, mozkor edo drogatuen hondarkinetan gaudenik. Ez!
Egun oroz telebista, irrati eta kazetek, moda «zaharreko» gizarte
hura bazterturik, gaurkotu gizarte «berriaren» eredutzat ematen
dizkiguten artista famatu horietarik biga.

⁴⁴ Raphaëlle Besse Desmoulières, «Six femmes meurent chaque mois sous les coups de leurs conjoints». *Le Monde*, 2003.08.09.

⁴⁵ Enquête nationale sur les violences envers les femmes, en France, 2000.

⁴⁶ «Les violences envers les femmes», *Commission sociale des évêques de France*, 2003.07.01.

Norbaitek, maite duen emaztea joka hiltzea ez zuten konprenitzen kazetariak. «Konprenitu» nahi baitzuten! Horren egilearen kondenatzea ez zezaketen onar. Alabaina, beren mikro eta telebistetatik zorionaren eredutzat eman nahi diguten mundu horren kondenatzea izanen zen. Ez zezaketen onar eskaintzen diguten «gaurko» mundu «berri» horrek horrelakorik eman zezakeenik. Mundu hori baita haientzat zorionerako bidea. Zenbat eta zenbat istripu bide horretan! Zenbat eta zenbat beribil ez da errekarra joaten! Ez da harrizkorik, bideko kodea, koderik ez izatea delarik! *Il est interdit d'interdire.*

Zorion gosea badutela gizon eta emazte guzietan, ezin uka. Zoriona helburu, dudarik ez. Zenbaitek, besten axola izpirik gabe. Anitzek ahal bezala bilatzen dute, uste duten tokian, ahal duten tokian. Zenbatek aurkitzen dute hautatu bidearen buruan? Zenbatek ez dute hautu bat egiteko eskubiderik ere? Eta Jesusek laguntzen bagintu zorion horren aurkitzen?

III

ZORIONERAKO BIDEA

Zorionerako bide hori non den erakutsi digun norbait bada. Hori da Jesu Kristo. «Bakea emak hortik hire menskeriekin» entzuten dut Mañe nire adiskidea. Duela 60 urte katiximan zebilelarik, Athor erretor xaharraren ahotik entzunekin dago beti: Jainkoak zazpi egunez egin zuela mundu hau. Hoinbeste aipaldi daukan orain Irak deitzen dugun Mesopotamiako ipuin batetarik atera zuela hori Bibliak, bere lehen orrialdeko parabola idazteko, irakurtua du geroztik Parisko astekari famatu batean. Tigre eta Eufrate ibaien izenak berak hor daudela! (Has 2,14). Beraz, Athorren erranak ala akerraren gauerdiko eztula...

Athor beti estimatu dut eta are gehiago, Erromako bulegoetan zer egin nahi izan zuten jakin dudanetik. Vatikanoko II. kontziliarako denak prestatuak zituzten. «Bai» errateaz beste egitekorik ez zuten izan behar apezpikuek. Beste lanik baitute apezpikuek alabaina. Dokumentu horietan irakurtu zitekeen ez zela huts bihirik izaten ahal Biblian, ez sinestea hunkitzen duten punduetan, ez besteetan. Zorionez, lehen biltzarrean berean, apezpikuek baztertu zituzten bulegokrazia horien dokumentueria guziak gehiengo handi handiz⁴⁷. Kontzilioarentzat egin legeak hautsiz gainera!⁴⁸

⁴⁷ «Dans le projet initial de cette commission préparatoire (La Révélation), il était question *d'une inerrance absolue de toute la Sainte Ecriture* (idazleak du azpimarratzen), étendue à tous les domaines religieux et profanes et présentée, de

Athorri barkatzen nion, baina Eliza guzia menperatu nahi lukeen bulegokeria horri... Mundu hori nahi baino hurbilagotik ezagutu duen Congar teologo famatuak idazten zuen Pio XII.a, Montini eta beste bakar batzu ez bada, batere ez zela idekidurarik gogolari eta ikerlariei buruz Erroman, ez eta intelektuaren akulatzaile izan beharko zukeen unibersitate eta seminarioen kongregazioan.⁴⁹

Ez nire adiskideak, ez Athor xaharrak, ez zekiten zenbat zor diogun orain Iraki. Kaldea probintziako Ur herritik aterarazten du Bibliak Abraham, izan gaiten judu, girstino ala mahomatar, Jainko bakar batean sinesten dugun guzcion aita. Jesu Kristo baino sei mende lehenago, Bagdadetik hurbil dagoen Babilonen, juduen buruak, erbestean egon mende erdiaren ondorioa da Bibliaren parte handi bat. Zauriaren gaineko pikoa, erbestera eramatean, ez ote zioten Nabukodonosor erregeak lurrera bota Tenploa, Israelgo urgulua! Garai haietako juduek ere ez zituzten irakiarak oraingoek baino gehiago benedikatzen.

plus, comme la conviction ancienne et constante de l'Église. Heureusement, le Concile a rejeté cette construction théologique dès sa première session, en 1962, et ce, à une majorité écrasante». Hans Küng, *Une théologie pour le 3^e millénaire*, Seuil, 1989, 81 or.

⁴⁸ Hona zer idatzi duen Lienart kardinalak berak. «Brusquement, je me penchais vers le cardinal président (Tisserand) pour lui dire à voix basse: Eminence, il est vraiment impossible de voter comme cela, sans rien savoir au sujet des candidats qui seraient les plus qualifiés. Je vais, si vous le permettez, prendre la parole. –Je ne peux pas vous la donner –me répondit-il– car le programme de cette séance ne comprend aucune discussion. –Alors –lui dis-je– excusez-moi, je vais la prendre.» Cardinal Achille Liénart, «Vatican II », *Mélanges des Sciences Religieuses*, Facultés Catholiques de Lille, 1976. Eta horrela zuten kontzilioa eskutan hartu apezpikuek, kontrabandan.

⁴⁹ «Sauf Pie XII et Montini et quelques rares autres, il n'y a ici aucune ouverture intellectuelle, aucune perception des problèmes du monde qui cherche et qui pense; à la Congrégation des Universités et Séminaires, en particulier, c'est à cet égard le néant». Yves Congar, *Journal d'un théologien*, Cerf, 2000, 84 or.

Ez uste izan duela 25 mendekoak direlakotz mesopotamia-
rrak mentsak zirenik. Haiek zuten asmatu ibai bazterreko lurren
ureztatzea Tigre eta Eufratetik bildu urarekin. Gero mahomata-
rrek, Tudela aldeko euskaldunei erakutsiko zizkieten teknikak
asmatur... Hiru mila urteren beranta izan dugu eta Nafarroa
hegoaldea zorretan da Mesopotamia-Irakekin. Ordukotzat ezagu-
tzen zuten errota eta honekin karroak. Noiz sartua Euskal
Herrian? 5.000 urtez goiti badu idazten badakitela. Nor gara gu,
gure lehen liburuak ez duelarik 500 urterik!

Biblia idatzi zutenak ere ez ziren mentsak. Ez dute behin ere
sinetsi argia izan zitekeela iguzkirik gabe, nahiz Gilgameshen
ipuean eta gero Bibliako lehen orrialdean Jainkoak argia egiten
duen iguzkia baino lehen (Has 1,3-15).

Ez zuten zientzia edo historia liburu bat idazten, baizik gizo-
naren gogo sinesteak hazteaz beste helbururik ez zeukan liburu
bat. Horrelakoek ez zituzten harritzen garai haietako jendeak, gu,
Oxobiren ipuietako belea edo axeria mintzo ikusteak baino gehia-
go. Gero dira izan, gauza hori hitzez hitz hartu duten jendeak,
baizik eta Biblia Jainkoaren beraren hitza dela, Jainkoak Bibliako
idazleen eskua harturik bere esku barnean, berak idatzi balu
bezala!

Duela bi mende eta erdi, Bernard Larreguy Aiherrako erreto-
rak euskaraz itzuli zuelarik Royaumonten *Testament Zaharreko
eta Berriko historia*⁵⁰, azken hogeita bost orrialdeak bazterre-
ra utzi zituen: Bibliako gertakari guzientzat urtea ematen du Royau-
montek, munduaren hastapenetik, Uholde handiaren ondotik,
Abraham eta Jalgitzaren ondotik edo Jesu Kristo baino lehen.
Hala nola Josepe 16 urtetan saldua izan zen munduko 2276. urte-
an, Uholdetik 620 urteren buruan, Abrahametik 205, Jalgitza
baino 225 eta Jesu Kristo baino 1716 urte lehenago. Jadanik

⁵⁰ *Testamen çaharreco eta berrico historia*, Horgado, Donostia, 1978, 2 tomo.

ordukotzat, gure Larreguyk ez zukeen gehiagoko sinesterik «historia» horretan eta 25 orrialde horiek bazterturik, saindu zenbaiten biziarekin bururatu zuen liburua. Biblia Jainkoaren liburua da, bai, baina gizonak idatzia eta beraz gizonkeria anitzekin, on eta txar.

Amodioa da Bibliako legea, bainan mendekioaz zer ez dugu irakurtzen? Ezin sinetsizko basakeriak! Mendekioak ez zuen mugarik lehenago. «Kain hiltzen duena zazpi aldiz gogorrago gaztigatua izan da. (Has 4,15)» Zazpitan mugatze hori ezin onartua zitzaion Lameki: «Kainen hilketaz zazpi aldiz mendekatu badute, hiruetan hogeita hamazazpi aldiz Lamekena.» (Has 4,24) Baina bide onean ginen: zazpi ala hiruetan hogeita hamazazpi, muga bat bazen. Gero etorri zen ondoko urratsa: «Bergia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain» (Ir 21,23-24), bat zazpiren partez. Eta azkenik Jesu Kristorena: «Ongia egin gaizkia egiten dizunari.» (Mt 5,38-42) Horiek denak Biblian dira nahiz batere ez berdinak, Bibliak gizonari pausoz pauso egin arazi dion bidearen lekuko. Mendekioa lehenik 77tan mugatua da, ondotik zazpitan, gero batetan, azkenik desagertzea gorai-patua delarik. Praktikari doakionaz, Aljeria, Bosnia edo Txetxerian ikusten da ez direla denak 77 hartan mugatzen gaur egun oraino. Euskal Herriari doakionaz ezagutzen duzue erran zaharra: Lehen aldiak barka, bigarrenak marka, hirugarrenean urka.

Ez nagoke, otoitz kantikak diren salmoetarik batek dioena aipatu gabe: «Dohatsu haurtxoak hartu eta harrokaren kontra lehertuko dituenak.» (Sal 137,9) Artetik errateko, gaur egun oraino, bertsu hau baztertua izan bada, honen iduriko beste zenbait ematen dizkigu Elizak otoitz egiteko, hala nola bezperetako lehen salmoko hau: «Erresumetan emanen ditu hilak metan, buruak ditu xehakaturen bazterretan.» (Sal 109,6) Palestinan zelarik, Gabriel Lertxundi beneditarrak Iratzederri proposatu zion, bertsu zenbait baizik ez hartzea salmo bakotxean, ekialdeko frailetxeetan egiten zen bezala, salmoak hango kulturaren emaitzak

direlarik: hogeita hamar, berrogei salmo baizik ez dituzte kantatzen.⁵¹

Bazko gauan urte oroz irakurtu behar genuke: “Jaunak aurtiki zituen egiptoarrak itsasoaren erdirat... Ez zen bat ere bizirik atera.” (Jalg 14,27-28)

Itun Zaharra, Jesu Kristo baino sei mende lehenagokoa dela nahi dut. Ez uste izan Testamentu Berriarekin, azken leerroak idatzia direnik. Gizona beti hobetuz doa: bide luzea gelditzen zaio. Mendez mende urak egiten du bide Jesu Kristok ideki isurgiari behera. Bide horretan segitzen dugu, ez gara bidearen burura helduak oraino. Ez gaiten ar amentsetarik «lehenagoko denbora» famatu haietaz. Orduan ere aste bakotzak bazuen bere ostiralea.

Testamentu Berriak berak ez daukala egia osoa hona bi etsenplu. Gaur egun nork egin litzazke bere Jondoni Paulok efesoarrei emazteaz erraten zituenak: «Emazteak izan daitezela beren senarraren menpeko, senarra emaztearen buru baita.» (Ef 5,22) Edo: «Ez doakio emazteari biltzarrean mintzatzea.» (1 Ko 14,35) Gaur egun Pauloren garaietakoak ez bezalako eliza-biltzarretan irakurtzen dute! Oraino: «Ez dut onartzen emaztea jendeen aintzinean irakasle izan dadin. Egon bedi ixilik!» (1 Tm 2,12) Kati-xima egileen gehiengo handia ez ote dute emaztek egiten? Azken bat: «Ongi ote da emazteak Jainkoari buruhas otoitz egitea? (...) Norbaitek eztabadaka hasi nahi balu, jakin beza guk ez dugula holako usaiarik eta Jainkoaren eliza elkarteek ere ez.» (1 Ko 11,13-15) Nork aipatzen du, duela berrogeita hamar urte oraino, Paulori jarraikiz, gaurko mahomatar fundamentalistentzat bezen baitezpadakoa zitzaizen mantalina hura?

⁵¹ «De mon côté, j'ai toujours rêvé (sans pouvoir le réaliser) de 12 à 15 psaumes-thèmes, établis en utilisant les mieux frappés des versets ou hémistiches de versets de tout le psautier officiel et même des cantiques des matines. Il y a dans ces pièces, telles qu'elles se présentent, tellement de versets où l'on piétine, tellement de versets qui ne font pas prier, tellement de steppes avant d'atteindre un verset sympathique!» (Iratzederri igorri gutun batetarik).

Bigarrena: Kolozokoei idazten dien gutunean bada pasarte bat, bakarren burhausteak emaiten baitizkie itzultzale eta teologoei (Kol 1,24). Igandetako irakurgaietan irakurtzen dugu: «Nere haragian betetzen baitut Kristoren oinazeek eskas dutena.» Zerbait eskas bailiteke Jesusek jasan oinazeetan? Biblia guzietan baduzue ohar txo bat pasarte honi erran arazteko irakurtzean ulertzen ez dugun zerbait. Euskal Biblia ekumenikoak itzulpena bera du aldatzen, bestek notatxoan ematen dituzten argitasunak berak sartuz itzulpenean: «Gorputzean jasaiten ari naizen atsegabeak Kristoren atsegabeei eranstean diozkatet.» Ez baita gauza bera!

Azkenik, zer pentsatzen zuten esklaboetaz? Jondoni Paulo eta Jondoni Petrik, biek, beren jabeari obeditzea manatzen diete. Egia da Paulok, hitz erdika bezala, Filemon adiskideari konpreniarazi nahi diola ez litzatekeela gaizkiago Onesimo bere esklaboa libre uzten balu, ez Ebanjelioaren izenean, baina Paulorentzat daukan adiskidetasunaren izenean. Aholku bat baizik ez zen. Esklaboek nagusiarri obeditzea aldiz, manua. Emazteak senarrari obeditzea bezala... (Ef 5,21).

Hona zer dioen Jondoni Petrik: «Zuek esklaboak, zaudezte errespetu osoz zuen nagusien menpeko, ez bakarrik on eta bihozbera direnen menpeko, gogorrek direnen menpeko ere bai.» (1 P 2,18)

Ez zitzaizkien nagusi paganoak zituzten esklaboei baizik mintzo horrela, ez zelakotz besterik egiten ahal. Nagusi giristinoari ere ez zioten esklaboa libratzerik aipatzen. Hona Jondoni Paulo: «Esklabogoaren uztarripen dauden guziek beren nagusiak oharagarritzat har ditzatela Jainkoaren izenaz eta gure irakaspenaz nehor gaizki mintza ez dadin. Nagusi fededunak dituztenek ez ditzatela gutiets, fedean anaiak dituztelakoan; aitzitik, hobeki zerbitza ditzatela, zerbitzu hori hartzen dutenak ere fededunak eta Jainkoak maitatuak baitira.» (1 Tm 6,1-2)

Nagusiei ez die beren esklaboak libratzerik urrunetik ere aipatzen: «Zuek nagusiek, eman zuen esklaboei zuzen eta bidezko dena, jakinik zuek ere baduzuela zeruan nagusia.» (Kol 4,1. Ikus ere Ef 16,5-9, 1 Ko 7,20-22, Tt 2,9). Sei aldiz aipatuak dira

esklaboak Testamentu Berrian eta nehon ez da den mendreneko lerrorik haien libratzeaz.

Ez da harritzekorik beraz Gangrako kontzilioan bilduak ziren Turkiako apezpikuek erabaki bazuten 362 urtean: «Norbaitek, erlisioa aitzaki, esklabo bati erakasten badio bere jabea mespretxatzen eta haren ganik joaiten, gogo onez eta errespeturekin zerbitzatzeko partez, kondenatua izan bedi.»⁵²

Kondenatua. Anatema sit! Azken kontzilioa arte beste guzietan, hitz hori agertzen zen palatraka. Hitz harrigarria elizgizonen ahoetan, bere senarra tronpatu zuen emazteari Jesusek errana zio-larik: nik ere ez zaitut kondenatzen. (Jn 8,11) Eta kurutzeko gaix-taginari: «Gaur nerekin izanen zara parabisuan.» (Lk 23,43) Jesusen hitzak beretuz, kontzilio guzietako apezpiku guziek egun oroz errepikatzen zutelarik: barkatu gure zorrak guk ere gure zor-dunei barkatzen diegunaz geroz (Lk 11,3), *Egia* inposatu nahi izan du luzaz Elizak. Ez baita deus bortxaz sar arazten ahal nor-baiten gogoan! Biziki polliki erraten du hori Gabriel Matagrín apezpikuak: «La vérité qu'on assène ne passe pas.»⁵³ Sakatu nahi den egia, ez da sartzen. Ahateak eta antzarak dira galkatzen. Ez jendeak. Hogei mende eman dugu Jesusen ondotik «kondenatua» hitzaren baztertzen.

Baina Ebanjelioaren indarra bere bidea egiten hasia zen jada-nik. 217an aita saindu hautatua izan zen Kalisto, Karkoforo giris-tinoaren esklabo ohia, bere nagusiak libratua. Esklaba Aita sain-du! Ez zuten denek horrela onartu eta izan zen kalapita ederrik hautu horren ondorioz: zenbaitek bigarren aita saindu bat izenda-tu zuten! Ez baitziren oraino denak maila horretara helduak.

Aldiz, bi mende berantago, San Joani Krisostomo, Elizako saindu eta teologo handienetarik bat, beheragoko mailan zegoen oraino: «Jondoni Paulok esklaboak gomitatzen ditu beren nagu-

⁵² Alphonse Quenum, *Les Eglises chrétiennes et la traite atlantique du XV^e au XIX^e siècle*, Karthala, Paris, 1993, 44 or.

⁵³ *Le Chêne et la futaie*, Bayard, 2000, 424 or.

sien ohoratzera, Jainkoaren izena eta erakaspenak ez laidostatuak izateko. Alabaina, paganoek konprenitu behar dute esklabo bat bera laket zaiola Jainkoari. Bestenaz sakre eta biraoka ar lirateke. Esklaboak kendu behar baldin bazaizkiote beren nagusieri, gauza guziak pekoz gora emateko sortu liteke girixtinotasuna: bortizkeria liteke.»⁵⁴

Mende ber berean, auzo-auzoan, San Gregorio, Nizako apezpikuak, beste katiximarik zeukan: «Erradazu zenbat dirutan estimatzen duzun gizakia? Zenbat zilarretan estimatzen duzun gizonaren gogoia? Zenbat amoina eman duzun Jainkoaren iduria den horren truk? (...) Ba ote liteke diferentzia izpirik, edozein sailetan, esklaboa eta nagusiaren artean? (...) Zergatik zintezkete gehiago, zer gatik uste duzue gizon bat beste baten jabe izan litekeela?»⁵⁵ Horra arrazoinamendu zuzena eta zein argiki emana!

Lehen urratsak ziren horiek. Besterik beharko da Eliza osoak esklabotasuna gaitzesteko, munduan barna ikusmolde hori zohitzeko. Erran daiteke eztabada ez dela zinez trenkatua izan Lavigerie euskaldun kardinalak muntatu «esklabotasunaren kontrako kruzada» arte! XIX. mendean beraz! Testamendu Berritik eta esklabotasunaren kondenatzera, egin da bide. Eta behar izan da denbora. Behar izan dira mendeak. Nahiz XXI. nean oraino, putetxeekin...

Arte horretan, XIII. mendean, berriki arte Elizako teologo handienarentzat zeukaten San Tomasek idazten zuen: «Gizon bat beste baten esklabo egiteko arrazoi nagusia, bekatua da. *Horrelako esklabotasunik ez daiteke izan Jainkoaren baimenik gabe*. Eta ez daiteke erran Jainkoa zuzen kontra ari denik. *Bekatuaren araberako zigorra* ematen du.»⁵⁶

San Tomasen arrazoinamenduaren iturria, bera bezain jakintsun handia zen San Agustin: «Esklabogoaren arrazoi nagusia

⁵⁴ Alphonse Quenum, *Op.cit.*, 42 or.

⁵⁵ Alphonse Quenum, *Op.cit.*, 44 or.

⁵⁶ Alphonse Quenum, *Op.cit.*, 48 or.

bekatua da eta horrelako esklabotasunik ez da, Jainkoaren baimenik gabe.»⁵⁷

Hots, esklabo izatea, «Jainkoaren zigorra» zen bizi honetan! Gaizkia, sofrikarioa, Jainkoaren punizioneak. Duela mende bat oraino Jean Pierre Arbelbidek idazten zuen komentutik aitak atera arazi ondoan eritu zitzaion alabaz: «Ai, orduan aita izitzen da, ikusten du *Jainkoaren gaztigua* dela hor. Temak eta duda-mudak utzirik ematen dio alabari bere baimena. Aitaren baimena entzun dueneko, Beronika mirakuiluz sendotzen da eta sartzen komentuan.»⁵⁸ Hona zer dioen igandeko mezaz: «Ez espanti beraz Igan-deko Mezaren arbuiatzaileri Jainkoak gaztigu bortitzak igortzen baditu.»⁵⁹

Ez zen Euskal Herriko berezitasuna. 1940an, nonbaitik jini-kako predikari handi batek zioen Baionako katedralean, Fran-tziako zorigaitzak, honen apostasiaren gatik Jainkoaren eman gaztiguak zirela.⁶⁰ Zenbait urte lehenago, gutarik bi urratsetan, munduko katolikoek gehiengo handiak, Eliza buruzagiak barne, gain gaisetetik ohoratu eta estimatu duen Goma kardinaleak ere zioen Espainiako gerla zibila, 1931ko Errepublikaren apostaziak ekarria zela. Jainkoaren punizionea hori ere!

Niger-eko beltzak Kaliforniako amerikanoak baino askoz ere beketoros handiagoak daitezke San Tomas eta San Agustinen araberak, ikusiz nolako miseriaz gaztigatu dituen Jainkoak! Itun Zaharreko ikusmoldea zen hori. Ikusmolde horrekin gara ainitzak *girstinoki* altxatuak izan, ifernua eta gaztiguaren beldurpean.

⁵⁷ Alphonse Quenum, *Op.cit.*, 42 or.

⁵⁸ J.P. Arbelbide, *Bokazizona edo Jainkoaren deia*, Jaun Desclée de Brower, 1887, 20 or.

⁵⁹ J.P. Arbelbide, *Igan-dea edo Jainkoaren eguna*, Jaun Desclée de Brower, 1895, 100 or.

⁶⁰ «A la cathédrale de Bayonne, le 17 juin 1940, j'ai entendu un jeune capucin établir que les malheurs de la France étaient dues à ses apostasies. (...) fallait-il entendre que le vainqueur devait sa victoire à ses sentiments chrétiens?» Robert Kanters, *Essai sur l'avenir de la religion*, Julliard, 1945.

Jesusek errana du Zeruko Aitak «bere iguzkia gaixtoen eta onen gainera ateratzen du eta euria isurtzen zuzenen eta zuzengabeen gainera.» (Mt 5,45) Pilatok hil zituen galilear batzutat zioen: «Galilear horiek beste galilearrak baino bekatorosago zirela uste ote duzue, heriotze hori izan dutelakotz? Ezetz diozuet! (...) Edo Siloeko dorreak erortzean lehertu dituen hemezortzi haiek, beste jerusalemdarrak baino hobendunago zirela uste duzue? Ezetz diozuet!» (Lk 13,2-5) Sortzez itsu zenaz eztabaida bera zen: «Nork egin du bekatu, hau itsu sortzeko, berak ala aitamek? Jesusek ihardetsi: Ez berak, ez eta aitamek». (Jn 9,2)

San Agustin eta San Tomas juduen ikusmolde berean zeuden: harritzeko bada ere, Jesusek erranari ez zitzaizkion ohartuak, gizon bat Jainkoaren gaztiguz esklabo izan zitekeela uste zutenaz gain. Kategoria horretako bi gizon ohartu gabe sineste makurrean egoteak erakusten digu zein neke zaigun Jainkoaren egia eta gizonkeria bereiztea. Vatikanoko idazkari elemania haiek ez dira bi saindu horiek baino gehiago. Gu ere ez. Bainan on liteke bi gogoeta egin ditzagun ikusteko zein litezkeen gure baitan erroak barna eginak dituzten sineste makurrak. *Gure* horretan sartzen dut neure burua, bixtan dena.

Besta Berriko dantzetan bezala: hiru urrats aitzinera, biga gibelera joan da Eliza historian barna. Jondoni Paulo eta Jondoni Petriekin ere hori da gertatu. Jalgitza liburuan (21,2) irakurtua zuketena «Esklabo hebrearra erosten baduzue, sei urtez lan egingen du zuentzat, baina zazpigarrenean libre geldituko da, ezer ordaindu gabe.» Ez dute nehon sei urteko epe hori aipatzen esklaboentzat bi apostolu handiek. Biblia hebrearentzat zela soilki? Ez ote zien Jondoni Paulok berak idatzia Erromako girixtinoei (10,12): «Ez da diferentziarik judu eta greziarren artean.» Edo Kolozokoei (3,11): «Ez da gehiago ez judu, ez greziarrik, ez esklabo, ez librerik.» Ez ote zuketena erran behar juduentzat egin lege on hori girixtinoentzat ere bali zela? Esklaborik ez izanez gehiago, giristinoek bederen beren esklaboak libratu behar zituztela sei urtetarik? Bibliaren erakaspen hori ahantzia ote zitzairen, esklabogoa onartzen zutelarik? Eskla-

butza zilegi zelako sinesteak hain barna zituen erroak garai hartako gizonen gogoan non ez baitira ohartu ere Ebanjelioa beste alde batetara zoala. Urrats bat aintzinerara egiteko partez, biga egin zituzten gibelera gure bi apostolu famatuenek!

Lehenagokoen hutsak ezin ulertuak baldin bazaizkigu, ez uste izan gaur egun baitezpada aitzinera goazela gu. Hemendik eta, ez zenbait mende, baina zenbait dotzena urteren buruan, nola jujatuko gaituzte, gu, apairua egitean jenden erdia goseak hiltzen ari dela telebistan ikusten ari, eta bisteka zaflaren ondotik, gasna zerra eder bat jan, mahats molko bat irets, kafea edan, onddokoarekin, eta hoinbeste janari zakar untzira botatzen dugunok? Mundu honetan bi mila milioi eta erdi jende egunean bi eurorik ez dutelarik bizi-tzeko⁶¹ eta Europak bi euro eta erdi laguntza ematen dielarik nekazariei behi bakoitzarentzat! Frantzia behere horietan gizon bat kondenatu du auzitegiak bere kabalak ez zituelakotz ongi tratatzen. Nor da kondenatua, hoinbeste milioi jende kabalak baino gaizkiago direlarik munduan? Hainbeste jaten dugu non bost milioi frantses gizenegi baitira, osasun arazoak izateraino. Badira pizuegi diren beste 20 milioi: diru gehiegi xahutzen dugu jateko eta beste hainbeste... mehatzeko!⁶² Ekonomia martxan da, eta nola ekonomia den gure jainko handia! Ameriketako Estatu Batuetan 17 mila milioi dolar xahutu dira 2003an gizenegi diren *haurren* artatzeko! Europak ez baitu amerikarrak baino gutiago izan nahi, hemendik 25 urte, hiru europarretarik bi, gizenegi izanen dira eta horrek Europa Batuak gaur daukan buxetaren heineko gastuak ekarriko ditu: 70-130.000 milioi €! Frantziako zakur eta gatuen erdiak gizenegi dira: *light* janariak asmatu behar izan dizkiete, gosetea delarik horrenbeste jenderentzat! Ekonomiaren onetan hau ere.

Gogoan daukat Los Angelesetan ikusia. Gela handi batetan baziren zenbait dotzena txirindula (errotarik gabeko haietarik,

⁶¹ Henri Tincq, *Dieu en France*, Calmann Lévy, 2003, 269 or.

⁶² Corinne Thébaud, «Toute la vérité», *Aujourd'hui*, 2004.03.02.

prefosta!), beste hainbeste hometrainer eta nik dakita zer oraino, behar diren guziak artifizialki izertzeko eta mehatzeko. Ohartu nintzen handik ateratzean, karrikara igotzeko, *kiroltzale* handi horiek denek eskailer automatikoa hartzen zutela, bestea hartuz grama zenbait gehiago galtzeko partez!

«Ase eta betean bizi gara» gure zaharrek erraten zuten bezala, eritu arte hantzen zirenetaz. Bainan kontsola gaitezen! Ez gara oraino erromatarren heinera jautsiak, beren «vomitorium» goiti botatzeko toki bereziekin... berriz jatera joateko! Dakizuen bezala, erromatarren zibilizazioak leher egin du!

Gure ekonomia peko errekarra joanen da ez bada urte oroz %2-z garatzen. Garapena da gure ekonomiaren zimendua. Gero eta gehiago garatu behar dugu. Erran nahi baita gero eta gehiago kontsumitu behar dugula. Gero eta gehiago ur, gero eta gehiago argi-indar, gero eta gehiago petrolio, gero eta gehiago girgileria behar... gero eta gehiago hondarkin botaz. Baina hondarkintegi eta erregailu auzoan nahi ditugu, gutarik urrun, besten herrian, lur hau gero eta gehiago kutsatuz. Hiri hondakinak %206z emendatu dira Bilbo aldean 1996tik 2003rat.⁶³ Geldituko ote da zer-bait, ekonomia aldetik herrestan daudenentzat, lur honetako jendeen bostetarik lau egiten dutelarik? Munduan kontsumitzen denaren %60 Europa eta Ameriketako Estatu Batuetan dauden munduko jendeen %12ak egiten du. Hego Asia eta Afrikan dauden %35entzat, %3,2 baizik ez da⁶⁴. Berriki entzuna dut Sabin Intxaurrega erraten gure heina balu mundu osoak, bi lur eta erdi beharko litezkeela deneri hein horren emateko. Eta guk beti gehiago behar!

Jadanik errana dut oraiko haurrak ez direla zahartuko lur honek leher eginen duelakotz lehenago. Leher egiten ari delako frogak begien aintzinean dauzkagu itsu ez bagara. Hala nola 2003ko

⁶³ «Apirilean hasiko dira Zabalgarbi errausteko labean frogak egiten», *Berria*, 2004.03.04.

⁶⁴ www.worldwatch.com.

uda hura. Horrelakoak noizean behin gertatzen direla uste nuen. Geroztik jakina dut Mont Blanc mendiari beheiti heldu den Mer de Glace izotz ibai hura Chamonix arte jausten zela lehenago. Mila metro gehiagoko goratasunean gelditzen da orai. Groenlanden bada Ipar Poloko izotz-punta ikusgarri bat, Ilulissat: bi urtez, bost kilometro galdu ditu. Urte laburrik barne itsasontziak Europatik Japoniara joatea Kanada iparraldean barna aipu dute seriocki, horko izotza urtzen ari delakotz. Lurra ez dela berotzen ari diozu?

Haurra nintzelarik, gure amak kondatzen zigun nola Haltzerrekara joaten zen xurikiten egitera: harri lauzak ikusi ditut Haltzerrekan bai eta ura burrustan uda ala negu. Orain, agortzen da udan. Nire haur denborako xipa haiek desagertuak dira.

Ortzanzurieta aldeko artzain zahar batek errana dit, haurra zelarik errekarra joaten zela artetan amarrain zenbait eskuz hartzerat *beti xingarra* menua aldatzeko artetan. Ez omen da gehiago amarrain handirik ikusten han. Zer? Mendiak ere kutsatuak? Artikako hartz zuri baten odola analizatu dute. Kutsagailu kimiko betea zen. Gure zibilizazioaren ondorioak jasaten hark ere.

Kutsadura horrek ondorioak baditu gizakiarentzat ere alabainan: duela hirurogei urte baino hiru aldiz gehiago barabiletako minbizi bada. Gizon gazteetan. Gizonaren hazian %50 espermatozoida gutiago. Gero eta minbizi gehiago emazten umuntzian. Duela mende erdi bat 70.000 frantses jotzen zituen minbiziak urte oroz. 150.000tan gara orai. 30 urtez %30ez emendatu da minbiziaren kopurua haurretan, %45ez gaztetxoetan. Gaitz horren kontrako borroka omen dugu lehentasuna: gero eta gehiago zilo daukan bertza bete nahi, zilo horiek ez balire bezala eginez! Zergaitik horrelako gorakada? ARTAC (Association pour la Recherche Thérapeutique Anticancéreuse) elkarteko lehendakari eta minbiziaren aditu handia den Dominique Belpomme medikuaren arabera, airearen kutsadura gatik, janarietan irensten ditugun zikinkerien gatik (gizonak sartu zikinkeriak prefosta) eta abar. Toki askotan ura bera kutsatua da, nitrataz gaindika. Horrela ur gehiago saltzen da botoiletan, ekonomiaren onerako. Deustako ez denik

ez dela zioen gure amak. Minbiziaren kontrako borroka dugu modan bainan ez gaitz horren iturriak.

Ekonomia, dirua, gaurko jainko modernoek kontra joan beharko genuke. Nori zaio axola gero eta gehiago minbizi izatea, nondik heldu den jakitea? Minbiziak ez ote ditu lanpostuak sortzen, dirua irabaz arazten, ekonomia garatzen? Alde batetik onkailuak eta belar-pozoinak egiten dituzten fabrikak beren ikertzaleekin, bestetik mediku eta erizain, hauek ere beren ikertzaleekin. Zer erranen dute lurra kutsaturik utziko diegun haurrek?

Gizon zuriaren arraza, mundu zibilizatua, endurtzen ari da. Zenbat kiroletan ez da beltzik baizik ikusten finaletan! Haien herrialdeak ez baitira oraino kutsatuak edo haien aita-amek ez baitzitzaketan eros gure gorputza pozoinatzen duten fruta, baratzeak, haragi eta gaineratikoetarik, guk bezainbat. Bainan gure heinerat helduko dira, haiek ere *modernizatuko* baitira. Txina eta India hasiak baitira gu bezainbat izan nahiz beribilari doakionaz: hogeit bat urterena omen dute gu bezainbat izateko. 2003ko uda hartaz neguaz bezala mintzatuko dira laster. Gizonaren arraza lur honetarik desagertuko den eguna hurbil izanen da, gizonak gero eta gehiago modernizatu nahi baitu itsutuki, gostarik gosta.

Jainkoak eman digun lur eder eta balios hau, guk dugu hiltzen gure ezazolkeriaren gatik, gure pretentzioeen gatik, gure diru egarria gatik, gure ongi nahi gose neurrigabea gatik. Hain gara arroltze gose non oiloa bera jaten ari baigara. Eta mugimendu hori geldi dezakeen deusik ez da. Diktadura bat bera ere ez liteke fida erregei pinta bost eurotan emateko, gutixago erre dezagun.

Nola jukatuko gaituzte Europa eta Ipar Amerika aberats bezain «zibilizatu», «girstinoak», eta modernizatuak beraz, heren munduko paganoak miseria gorrian hiltzera uzten ditugularik? 1971an Erromako sinodorako bildu baitziren mundu guzitik lau ehun bat apezpiku, beren dokumentuetan «garapen» hitza erabiltzearen kontra agertu zen gehiengoak. Herri aberatsen hitza dela onartu behar izan zuten mendebaleko apezpikuek. Gobernariak

baino argiago gure apezpikuak.⁶⁵ Afganistango gerla ez zuen Asiako apezpiku bihi batek onartzen Amerikakoen ustez, herrialde horri libertatea ekartzen ziolarik⁶⁶.

Nola jujatuko gaituzte gure haurrek, irakurtuko dutelarik hilabete oroz 15 afrikar Mediterraneo zolara doazela Gibraltarreko itsasarte iragaitean; Libia eta Sizilia artean 28 hil zirela egun batez, 13 biharamunean (hauetan zazpi haur) gosez eta hotzez, beste 200 kolpez bi hilabete lehenago! 1996ko Eguberriz, sortzearen besta biharamunean 283 indio ito baitziren golpez Siziliako itsasartean, aspaldi ahantziak dira! Frantsesek gogoan ote lukete oraino Ingalaterrara joateko amentsarekin kamioi batetan sartu eta barnean hilak aurkitu zituzten 58 etorkinak? Bai eta Sangateko kanpo famatu hura. Gure telebista emankizunen bidez ametsak egin arazirik gure parabisuaz, haiek ere parabisu horren jastzera heldu dira, ez baitugu onartzen gure lantegi zenbait haien herrietara deslokalizatuak izan daitezen, «lana herrian» izan dezaten haiek ere...

Sony, Turbomeca, ADA, Michelin, Wolkswagen eta Daewoo Baiona, Lasarte, Iruña edo Gasteizera deslokaliza ditezen, bai, eta dirua ematen diegu horretarako. Baina hortik joatea aipa dezate-la. Orduan oihuak. Union Carbide joan dadiela nahi badu Bhopalera...

Bizkitartean supermerkatu horietan ez ote ditugu deslokalizatu lantegietan egin jauntziak hautatzen, merkeago direlaketz. Ekonomia da lehentasuna. Iparraldekoa. Eta lehentasunak beharrezkoak dira. Ez ahal dituzue langabeziara igorriko lehentasun horiek finkatzen dituztenak oro?

⁶⁵ «La prise de conscience de la majorité des pays du Tiers Monde, disons d'Amérique latine, d'Afrique et d'Asie, s'est faite au synode de 1971, puisque la majorité des évêques a refusé le terme de développement comme étant une forme subtile de colonisation et a imposé le terme de libération.» G. Matagrín, *Op. cit.*, 2000, 231 or.

⁶⁶ Yves Pipette, «Les évêques veulent dire l'espérance au monde», *La Croix*, 2001.10.29.

Deslokalizazioak eta Mendebaleko krisi ekonomikoa balira, mundu osoaz baliatuz egin dugun garapenaren bumeranga? Hartu dizkiegu esklaboak, hartu etorkinak, hartu oihanak, hartu... Noizbait errotak itzulia egingen du! Bihar ez bada etzi, molde bat edo bestez, nahi ala ez, gure zorrak pagatuko dizkiogu, hain luzaz bazterrerat utzi dugun heren munduari, bazterrerat utzi, ez garelarik hartaz ongi baliatu.

Mugetaz ari baigara, ba ote dakizue palestinarren mugan Israelek eraikitzen ari duen murren hura ez dela mundu honetako bakarra? 40 kilometroko bat badela Mexiko eta Estatu Batuen artean, Tijuana, amerikarrek ez dietelakotz beren aberastasunetik jasta eman nahi Hego Ameriketatik heldu zaizkien indioei. *Beren* lurra, indioei kenduak dizkietelarik! Jainkoak egin egun bakoitzean, hiru *mexikano* (horrela deitzen dituzte Guatemala edo Perutik heldu badira ere) hiltzen dira muga horretan. Bost ehun kilometroko beste *hesi* bat bada Botswana eta Zimbabwe artean bi metro eta erdi gorakoa⁶⁷. Lazaro eta aberatsaren historiok ez duke behin ere orain bezainbat gaurkotasunik ukan. (Lk 16,19-31)

Nola jukatuko gaituzte gure haurrek jakinen dutelarik Gibraltarreko itsasartearen iragatea lortu dutenetan hamabots-hogei mila preso emanak direla urte oroz Espainian, haien behar gorrian delarik gure ekonomia. Alabaina ez dugu haurrik aski egiten gure ekonomiari behar dituen langileak emateko, gure zahar arrandak segurtatzeko... eta gustukoak ez zaizkigun lanen egiteko: nor ikusten da Parisen metroaren garbitzen eta zikinen biltzen ez bada beltzak? Nor tomate biltzen Erriberan? Nork egin litzake lan horiek hemen ez balitz etorkinik? Baitezpadakoak zaizkigu bai⁶⁸,

⁶⁷ Jabier Cercas, «Cette plage où saigne l'Amérique Latine» eta

Delcan Walsh, «L'Occident n'a jamais fait autant rêver», *Le Courrier International*, 2003.10.03.

⁶⁸ Le Conseil Economique et Social préconise une relance de l'immigration de travail et l'accueil de 10.000 migrants par an jusqu'en 2020. Et cela avec presque 10% de chômeurs chez nous. Cette incohérence n'existerait pas si la rémuné-

eta ez ditzakegu jasan hemen daudelarik, begiko zikina baino gehiago.

Nola jukatuko gaituzte jakinen dutelarik euroak eta dolarrak mila milioika xahutu ditugula lehenik ilargira joateko, gero martera, amerikarrak zein lehenka errusoekin lehenik, europarrekin gero, munduko bi herenak miseria gorrian uzten ditugularik. Ameriketan eta European berean hoinbeste miseria badelarik! Paris sonatuko karriketan 150 hil biltzen dituzte urtean! Lehen-tasunak baditugu, bai. Gure gisakoak.


Nola jukatuko gaituzte jakinen dutelarik 2003. urtean Europa goxoan bizi zela, bere 15 milioi langabeekin deus izan ez balitz bezala? Ez da ahurtara bat hamabost milioi. Jakinen dutelarik langabeen kopurua goiti joan dela Europa industrializatu eta aberastu arau, *Les trente glorieuses* deitzen diren urteetan! 1948an 100.000 langabe ziren Frantzian, 2003an 2.800.000! Diruari balio bera eman ez, soldatarik apalena (SMIC) 684 eurotatik 1154tara pasatu da Frantzian 1973tik 2003ra... lana dutenentzat! Eta gure gizarteak nahiago izan du batzuri hein horretan emendatu soldata, ezinez eta gutxiago, denek izateko moldean! Ekonomiako legea omen da. Erresuma aberatsenetan zen langabezia tasa handiena 2003an: lehen Espainia, bigarren Frantzia, hirugarren Alemania. «Zer ziren arrunt mentsak?» pentsatuko dute gure haurren haurrek. Inkisizioaz bakar batzu ziren hobendun. Horretan aldiz, denak.

Heren mundua laguntzen omen dugu, baina Munduko Bankoak 2002an plazaratu ikerketa batek dioenez, eskolatuen heren bat galdu du Afrikak azken hamarkada hauetan, Erresuma aberatsetara heldu zaizkigulakotz mediku, injinadore, unibertsitateko irakasle eta beste: herriari gosta zaizkien lehen 25 urteak, haur-

ration du travail s'effectuait, non pas en fonction de la durée des études, mais de l'offre et de la demande intérieure. Le recours à l'immigration fausse cette règle fondamentale de l'économie libérale. Immigration. *La Croix*, 2003.11.19.

-«300.000 emplois non pourvus en France», *La Croix*, 2004.02.02.

Loturarik ba ote da
gorabehera horien artean?
Datuak Frantziakoak dira



tzaro eta gaztaro, ikasketak barne, pobreen bizkar. Laneko prest direlarik, errentable, emankor diren egunetik onartzen ditugu aberatsei baliatzen zaizkigula⁶⁹. Ghanak 80ko hamarkadan formatu medikuetan %60 gutienez herritik kanpo joan da lanera! Hamarkada berean Afrikak 60.000 mediku, injinari, unibertsitari... galdu ditu⁷⁰. Ahalaz emankorrenak hartzen dizkiegu, gehienik gosta zaizkienak, beste horietarik ez dugula ikusi nahi ere. Beltzak eta arabeak onartuak dira arazo izpirik gabe, kirolari onak direlarik: begira futbol edo lasterkari ekipak. Bainan ez langile xoil direlarik, hauen beharra askoz ere handiagoa delarik. Zer lekukotasuna ebanjelioko amodioarentzat!

Eta ez uste izan gauzak aldatzekotan litezkeenik! Ez! Europak 700.000 ikertzaile behar ditu 2010erako, baitezpada. Berak formatuetan %70 Ameriketara baitoazi, ez ote da normal, amerikarrek erakutsi bide bera hartzea hor ere: ikertzaileen bila joan gaitezen diren tokira. Heren mundura. Eginak prestak etorriko zaizkigu handik, lehenagoko Veltin saltegiko jauntziak bezala. Bainan urririk aldi honetan!

Ez ote dira beren baitarik etortzen Europara ikertzaile horiek, nehorik katez loturik bortxatu gabe, lehenagoko esklaboak bezala? Libertate osoarekin. Nor zertaz arregura da. Otoi! Norbaitek kontzientzia sobera kilika balu horretaz, askiko du txeke bat emaita gosetearen kontrako obra onentzat edo misionestentzat. Heren mundua esplotatzen dugu eskuak zikindu gabe.

Berdintasuna da Frantziako hiru dogmetarik bat. «Liberté, égalité eta fraternité: Ah! hiru gezur horiek egiak balite!» zioen Gratien Adema Zaldubyk⁷¹. Horren izenean, Frantzian ez da

⁶⁹ Selon un rapport publié en novembre 2002 par La Banque Mondiale, l'Afrique a perdu le tiers de ses cadres et professions libérales au cours des dernières décennies du fait de la politique moins restrictive des pays occidentaux à l'égard de la main d'oeuvre qualifiée. Tony Curzon Price, «Les limites du rapport «People Flow»», *Le Courier International*, 2003.10.16.

⁷⁰ Laurent d'Ersu, «Les diasporas scientifiques», *La Croix*, 2004.03.31.

⁷¹ Gratien Adema Zalduby, *Kantikak eta neurtitzak*, Klasikoak, 1991, 162 or.

aipatu behar ere, beltz edo arabarik ez eta euskaldun edo betroinik. Denak berdin, denak bat. Bizkitartean hauteskundeetako zerrendak egitean, diferentzia egiten dute, dogma hori gorenik kantatzen dutenek berek: Frantsesetan %7 mahomatarrak direlarik, 2004an, euskaldeetako 1829 deputatuetarik 38 dira mahomatarrak, 130 bat izan beharko luketelarik. Sail honetan ere arrotzen beharrik ez beraz.

Jadanik izpiritu xorrotxenak ohartzen hasiak dira, beren indarrak munduko jaun eta jabe egiten dituela uste badute ere Amerika, Europa eta Japoniak, besteek ez dutela betirako neguan egoiteko asmorik. Indar gutiago izana gatik, handiak inarosten ahal dituztela: 11/9, 11/3, Irak....

Lehenagokoen hutsak bekatu mortal zaizkigu, baina geureak? Ez daiteke erran lur honetako bideek, nahi bezain ametsetakoak izanik ere, zorionerat erematen gaituztela. Ebanjeliokoek aldiz, bi gogoeta egin nahi ditugun pundutik.

IV

BIBLIAKO BIDEA HOBEA OTE LITEKE?

Gorago aipatu Bibliako *erakasp*en horietarik ez atera Liburu Sainduak enganatzen direnik, baina bide bat ideki dutela eta bide horretan gizonak aitzina joan behar duela. Eta aitzina doala. Gizonaren urratsean. Emeki emeki. Esklaboen sailean egin duen bezala, beste sailetan ere. Printzipio bat atera eta mendeak behar ditu gizonak gogoaren aldatzeko. Obrak aldiz, erran dugun bezala....

Duela mende bat laster, Père Lagrange biblistak zioen Biblia, beren garaiko gizonentzat idatzi liburua dela. Beren garaian eman behar direla testu horiek, irakurle sinesdunarentzat kalterik batere egin gabe.

Ez du balio erratea Apostoluek, edo lehen giristinoek horrela eta horrela egin zutela, XXI. mendean berdin egin behar dugula frogatzeko. Jesus astoz sartu zelakotz Jerusalemen edo Jondoni Petri bela untzi txar batean joan Jerusalemetik Erromara, hegazkinak baztertzen ditu gaurko Aita Sainduak?

Ikusi dugu zer leizea zen San Gregorio eta San Joani Krisostomoren artean. Auzo ziren bi apezpikuk horrelako ikusmolde diferenteak izatea ez zen eskandalagarri garai haietan. Gaur egun unanimitatea nahi genuke mundu osoan, Laponiako eskimoetarik, Patagoniako indioetara, Txinako intelektualetarik eta Aljeriako kabiletarik pasatuz. Denak aho batez mintzatu, denek berd

egin, denak berdin ari. Erromako bulegokraziak erabaki bezala. Zentralismoa ez da bakarrik Paris edo Madrilen gaitza. Elizan ere badakigu horren berri. «Eleizeak berak ez dau bide bakar bat ezartzen. Bakotxak berak ikusi beharko dau zein dan biderik zuzenena eta egokiena, herriarentzat mesedegarriena»⁷² zioen halere Karmelo Etxenagusiak. Jesusek: «Nire Aitaren etxean egoitza frango bada.» (Jn 14,3)

Lehenago ere Elizak jakin izan du ohiduren aldatzen. Jondoni Paulok apez (ala apezpiku?) izateko, gizonari eskatzen zion aldi bat baino gehiago ez ezkondua izatea. Hots, alargundu eta alargun gelditua izatea (Tm 3,2, Tt 1,6). Lau mendez Jondoni Pauloren bideari jarraiki zaio Eliza. 325ean Nizeoko Kontzilioan apezpiku batzuk nahi izan zieten beren emaztearekin etzatea debekatu ezkonduak ziren apez eta apezpikuei. Bera ezkondua ez zen Egiptoko apezpiku xahar bat, Paphnuce, zutitu zen eta erran ez zitekeela zuhurtzia horrelako zamarik ematea, ez bakarrik Eliza gizonen bainan ere hauen emazteen bizkarrean, eta apezpiku xaharraren ikusmoldea onartu zuten.⁷³

Aspaldiko mendeetan halere, apezak ez du gehiago ezkondua izateko eskubiderik eta, nahiz ez den Ebanjelioak eskatua, berak egin lege horri laparra bezala lotua irauten du Elizak, gostarik gusta... Ekialdeko elizaz kanpo, zeren eta han, hogei mende badu aita familiakoak apezten dituztela. Eta gu bezain katolikoak dira. Azken kontzilioko testoez azpimarratzen dute apez haien saindutasuna. «Egia da ez duela (ezkongabea izatea) eskatzen apezgoaren izaerak berak, hasierako Elizaren praktikan, eta Ekialdeko Elizaren Tradizioan ageri denez: hauetan, graziaren dohainak hartara ekarririk, apezpiku guziekin batera, ezkongabetasunaren aukera egiten dutenen gain, *apaiz ezkondu oso baliotsuak* ere badira. Dena den, ezkongabetasuna gomendatzean, Sinodo santu

⁷² Karmelo Etxenagusia, *Op. cit.*, 302 or.

⁷³ *Dictionnaire de théologie catholique*, II T. 2077-78, or.

honen asmoa ez da inola ere Ekialdeko Elizetan indarrean dagoen diziplina ezberdina aldaraztea, eta aholku ematen die ezkon-duta egonik maitasunez apaizgoa hartu zuten guzietan, bokazio santuan iraunez, bete-betean eta bihotz zabalez beren ardurapean jarritako artaldeari beren bizitza eskaintzen jarrai dezala⁷⁴.

Ba ote dakizue 655ean, Toledoko IX. sinodoak esklabo izatera kondenatu zituela, ez emazte batekin bizi ziren apezak, baizik eta hauen haurrak! «Betirako esklabo izanen dira sortu diren moral ahalgegarria gatik.»⁷⁵

Apezen emazteak esklabo izatera kondenatu zituen Urbano II.a aita sainduak⁷⁶, Maftiko sinodoan, 1089an. Baina ez apezak... hain segur, Jainkoaren gizonak izanki eta sakratuak zirelako! Berriz ere errateko, Ebanjelioak nihon ez dielarik eskatzen apezetara emazterik gabe bizitzea.

Gure gaitetik urrundu garela? Bai eta ez. Erakutsi nahi genuen, Eliza beti aintzina doala eta aintzina joanen, noizean behinka gibelatze zenbait gorabehera, bai bere praktikan, bai Jainkoaren ezagutzan. Eliza ez da zeruan gora, itzea bezain zuzen doan telefono haga buluzi bat iduria, baina adarrak zabal dauzkan gaztainondo ederra. Biblia ez zuten guk bezala ulertzen duela zenbait mende. Garai beretan ez dute denek berdin konprenitu eta gaur egun ere batzuek ala besteek ez ditugu gaztainondo horrek eman gaztainabihi berak jaten. Gainera, jende batzueri lili-

⁷⁴ *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, 807 or.

⁷⁵ «Les enfants nés des relations deshonorantes entre une ministre de l'Eglise et une femme, esclave ou libre, seront rayés de l'héritage. De plus ils resteront en état permanent d'esclavage dans l'Eglise de ce prêtre ou ministre à cause de la turpitude morale dans laquelle ils sont nés.» Quenum, *Op.cit.*, 50 or.

⁷⁶ «Nous retirons de tous les ordres sacrés, ceux qui après avoir reçu le diaconat, refuseront de quitter leur femme, et nous décrétons qu'ils perdent toute charge et tout bénéfice dans l'Eglise. Mais s'ils ne se sont pas amendés après avoir été prévenus par leur évêque, nous octroyons aux princes l'autorité de réduire leur femme en esclavage. Et si leur évêque leur pardonne leur dégradation, ils seront eux-mêmes punis par la perte de leur fonction.» Quenum, *Op.cit.*, 47 or.

tan zaie gustatzen gaztaina, bihiarentzat esker mikorik gabe, gehienek bihia dutelarik estimatzen.

Guk baino hobeki edo beste molde batetara konprenituko dute hemendik zenbait urteren buruan Biblia hori bera. Eta zorionerako bidea hor kausituko dugu guk, gure aitzinekoek egin duten bezala, gaurko begiez ikusiz Biblia hori, lehenago, lehenagoko begiez ikusi duten bezala.

Ez uste izan ttipitan ikasi katixima harekin denak badakizkigula. Badugu zer ikasi hil arte. Bizi osoan hausnarketan ari behar dugu horiek denak guretzeko. Matagrín batek behin baino gehiagotan errepikatzen du Kontzilioa berantegi eta goizegi jin dela⁷⁷. Elizak beti behar du gaurkotu, lehenago, orai eta gero ere, Kontzilioak berak dioen bezala: «Erromes doan Eliza, *etengabeko erreforma* honetara deitzen du Kristok, eta hark, giza erakundea eta lurtar erakundea delarik, *beti du erreformaren premia.*»⁷⁸ 1960an kontzilioari esker egin aldaketak berantegi ziren 1940ko. 1960ko hamarkada goizegi zen 2000. urtean beharko ziren aldaketentzat. «Etengabeko erreforma» zuen gomendatzen kontzilioak. Erromako bulegokraziak arrestak ez balitu hilka tinkatu bai!

Ez genuke Biblia irakurtu behar Mañe nire adiskideak bezala, ez eta ikasketak Sorbonan edo Salamancan eginak dituen historialari batek idatzia balitz bezala. Untsa kasurik ari ziren gure historia teoretaz San Mark eta Jondoni Matiu! Eman izkitzue buruz buru Alkat eta Amuritza eta galda iezaiezue *Egunkariaren* hestea konda dezaten. Ongi jorra litzakete Aznar eta Garzon. Historia ezagutzen dutenek irri ederrik egin lezakete. Baina gertakaria bertso horien bidez baizik ezagutuko ez luketenek nola konda lezakete gero? Bizkitartean, nor akusa litzake bertsolariak gezurrrak errateaz? Nehor ez dute enganatu nahi izan eta nehor ez dute enganatu. Gertakari horretaz baliatzen dira Aznar eta Garzon jorrazteko eta ez diete besterik eskatzen beren entzuleek.

⁷⁷ *Le Chêne et la futaie*, 70.106, 158, 179, 227, 389, 428.

⁷⁸ *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, 337 or.

Horrelako zerbait gertatu da gure Biblia eta Ebanjelioekin. Liburu horiek idatzi dituztenek eta haien irakurleek, ez zuten historiaren axola lehentasuna. Irakurleen fedearen argitzea zen haien helburu. Ez du erran nahi historiarik ez dela Biblian. Jesus, Maria, Josepe, apostoluak, Herodes, Gurutzea, piztea eta abar, horiek denak historiako gertakariak dira. Baina gertakariak ez zuten baliorik sinestea laguntzez ezaketen pundutik baizik. Sinestea zen lehen. Erlisione liburu bat da Biblia, ez historia liburu bat.

Eguberriz, Gure Irratia, ETB edo *Egunkaria* ez ziren Belenen, biharamunean berean jakin arazteko zer gertatu zen, ahal bezainbat xehetasunekin, bakoitzak bere ñabardurekin halere. Berriak begi xorrotxeekin begiratzen dituztenak ohartuak dira ez dituztela denak berdin kondatzen kazetari profesionalak ere! Diferentziak badira telebista, irrati edo kazeta batetik bestera.

Ebanjelioaren idazleak ez dira ari biharamunean berean: egun hortatik 30 urteren buruan Mariak kondatuak... beste 20 bat urteren buruan dituzte idatzi! Bi gizaldi badira gertakari zenbait eta Ebanjelioen artean. 70 bat urte Jondoni Joaniri doakionaz. Eta Mariak berak bere fedearen bahetik pasatuak zituen denak jadanik, kondatu zituelarik. Gure amaxiren gazte denbora, duela 30 urte amak erran zigunetik kondatzen baginu bezala. San Mark bat hirugarren esku ari zen gutienez, ez baita Jesusekin ibili.

Gainera bihi batek ez zuen gure historia kuriostasunaren asetzeko den mendreneko arrangura izpirik. Beren arrangura bakarra: lerro horiek irakurtuko zituztenen sinestearen haztea beraz eta horretarako, bistan da Jesusen bizitzako gertakariak kondatu dituztela, baina ez historialari baten gogoarekin. Are gutiago gaurko historialari batek bezala.

Ahantzi gabe, guk ere gure bahetik pasatzen ditugula irakurgai horiek. Galda iezaiozu edozein giristinori, noiz sortu zen Jesus? Hamarretarik bederatzik erranen dizute: abenduko 25ean. Alta, Ebanjelioak ez digu horrelakorik erraten! Baina nola egun batez ospatu behar, eta abenduko 25a hautatua izan baitzen, eta

egun horretan baitugu guhaurek Eguberri urtez urte ospatzen, gogoan sartu zaigu abenduko 25 horretan sortua dela Jesus.

Zenbat errege mago? Hiru bistan dena! Ebanjelioak ez digu nehon erraten hiru zirenik. «Jakintsun batzu ekialdetik etorri ziren.» (Mt 2,1-12). Aipatzen dizkigu oparitzat eskainiak izan ziren urhea, mirra eta intzentsua eta gure belen edo krexetan hiru opari horiek hiru gizonak eskaintzen baitituzte, girstino guziak segur dira magoak hiru zirela. Hiru gizon horiek errege zirela, Meltxor, Baltasar eta Gaspar deitzen zirela eta hiruatarik bat beltza zela uste duten bezala. Nahiz ez duten behin ere horrelakorik entzun Trufaniako ebanjelioan. Baina nola duela zenbait mende, mago horiek errege egin zituzten, eta Erdi Aroko pastoraletan hiru izen horiek eman, sineste makur horrek erroak barna dauzka denen gogoetan... ondorio izpirik gabe gure sinestearentzat.

Noiz piztu da? Bazkoz bixtan dena! Ebanjelioan entzuna duzue, Bazko goizean hil hobia hutsa hatxeman zutela (Lk 23,43). Ez da errana goiz hartan piztu zenik. Aldiz kurutzean zelarik, gaxtagin batek eskatu baitzion parabisuan sartzea, Jesusen erantzuna: «*Gaur berean* nirekin izanen zara zeruan.» Ez ote luke erran nahi ostirale arratsean berean piztu zela?

Zenbat horrelako aldaketa ez genituzke kondatzen ahal Jesusen erakatsitik eta gure gogoan sartua den hartara!

Ebanjelio eta Biblia osoaren helburua da sinesdunen, gizonaren, gutarik bakoitzaren fedearen haztea, azkartzea, gure zoriona Jesusek erakutsi bidean bila dezagun eta ez beste nonbait. Zenbat girstinok irakurtzen dute oinarrizko helburu hori gogoan? «Zer erran nahi du horrek? Zer ondorio dauka niretzat, gaur egun?» Horra geure buruari egin behar geniokeen galdea, zerbait irakurtu eta. Hori baita konda. Munduak ematen dituen zorionerako beste xendra-bide horietarik baztert gintezke menturaz.

V ZORIONA ORAI

Zorionerako bide hori Jesusek erakusten digu beraz Ebanjelioan. «Ba! Zeruko hura bai, erranen dit berriz ere Mañe nire adiskideak. Guk, hemen berean nahi baitugu zoriona. Ez baita esku-ko xoria utzi behar airekoaren menturan.»

Ebanjelioa irakurtu dutenak ohartu daitezke Jesusen erran honi: «Ni gatik eta Berri Ona gatik, etxea, edo anaiak, arreba, aita, ama, haurrak, lurak uzten dituenak *ehunetan gehiago* ukainen du, *orain, mundu honetan berean*: etxe eta anai, arreba, ama, haur eta lur, pertsekuzionekin batean. Eta heldu den munduan betiereko bizia.» (Mk 10,29-31)

Nondik atera dute zenbaitek lur honetan ongi pairatuz behar dugula pagatu beste bizi hartako betiereko zoriona? Hemen, garbiki erraten digu Jesusek, *orain danik*, mundu honetan berean nahi digula eman zoriona... gure ametsetako bide guziak utzirik, hark erakusten digunari lotzen bagara. Ebanjelioan erakusten digun bidea hartzekotan. Bide horren hartzeko bazterrera utzi beharko ditugunak baino ehun aldiz gehiago emanen digu Jesusek, orai, mundu honetan. Beste bizi hura, beste zorion hura ere aipu du, oraingoari gehitzen zaion zorion bat bezala.

Jesusek hitzeman zoriona ez da sari artifizial bat, diploma bat eskuratzean, aitak semeari ematen dion txirrindula bezala. Sari hori, zorion hori, hartu bidearen ondorio zuzena da, lane-

an ari den gaztearentzat diploma eskuratzea den egiazko saria bezala.

Hil zorian den baten azken hitzek badute pisu berezi bat. Hala azken apairuko mintzaldi luze hartako Jesusen hitzek. Hor irakurtzen dugu: «Hau guzia erran dizuet nere bozkarioa zuen baitan izan dezazuen, eta bozkario hori bete-betea izan dadin.» (Jn 15,11) Bozkario hori, eta bozkario bete-betea, oraingo da. Ez gerorako bakarrik.

Aski da Jesusek egin duenari so egitea, egia dariola ikusteko. Bizi publikoko hiru urteetan ez du besterik egin ez bada sofritzen zutenei zoriona ematea. Zenbat eta zenbat eri ez du sendatu? Paralesiatu, itsu, lepradun, maingu, mutu, elkor... mundu hone-tako miseria guziak. Lehen egunetik azkeneraino ez da gelditu.

Ez dio soilki gorputzari begiratzen. Bere senarra tronpatu zuelakotz (edo beste norbaiten senarra ezagutu, Ebanjelioak ez digu xehetasunik ematen, ez bailioke gertakariaren erran nahiari deus gehiago ekarriko) Bibliako lege zaharrari jarraikiz, harrika hil nahi zuten emaztea, juduen aztaparretatik libratu zuen eta berak ere ez kondenatu. «Nik ere ez zaitut kondenatzen.» (Jn 8,1-11). *Anatema sit* hitza ez da ebanjeliokoa, jende xeheari doakionaz bederen.

Bekatorosekin dabila gostuan, beste nornahirekin bezala. Haiekin jaten du (Mk 2,16). Orain ere gehiagokorik laket ez zaizkigun zerga-biltzaileen etxean jaten du, jendea mar-mar-mar ari dela. Zakeo zerga-biltzailearen etxera gonbitatzen du bere burua (Lk 19,1-10). Beste zerga-biltzaile bat, Matiu, hartzen du apostolutzat (Mt 9,9-13). Jendetarik urrun bizi behar zuten lepradunak huntitzen ditu eta ondorioz, bera ere herritik baztertzera bortxatua da haiek bezala (Mk 1,45). Puta bat uzten du bere oinen nigarrez eta usain onez ikuzten, ileez zukatzen (Lk 7,36-50). Zer eskandalua gaur egun puta batek gauza bera egiten balio zure jaun erretorari! Hitz batez errateko, nehongo herresta eta fama txarreko jende guziak besten mailean ematen ditu.

Sekula santan ez dio bihi bati erran: «Sofritzen duzu! Kontsola zaitetz. Hil eta, betiereko zoriona emanen dizut zeruan». Molde

horretako predikuek deus ikustekorik ez dute Jesusen Berri Onarekin. Behin ere huts egin gabe, bere zorigaitzetik libratu ditu beharrean zirenak. Beti. Jondoni Petrik azpimarratzen du hori hitz laburrez, bere prediku motxenatarik batean: «Jesusek iragan zuen bizia ongia eginez.» (Eg 10,38)

Igurika ez genezakeen lekuan ere agertzen zaigu ongia egiten. Jondoni Joanik kondatzen digun lehen miragarria, Kanako ezteietan egin zuen. Beraz arnoa eskastua zitzaien (Jn 2,1-12). Batek baino gehiagok erranen zien: «Edan duzue polliki. Aski duzue freskatzea orain. Bestaldiko ikasiko duzue heintto batean gelditzen!» Bestan dira. Jesusek ez du nahi besta hori histua izan dadin. Besta segitzeko behar dena ematen die: falta zuten arnoa. Eman, baina eman gero! Ez eskaini bakarrik: sei ehun pinta! Hoberenetik gainera! Hainbestetaraino non mahaintzaina harriturik etortzen baitzaio jaun esposari erratera, arno ona apairua hastean ematen ohi dela eta ez bururatzean, jendeen erdiak edanak direlarik, arno onaren behar bezala preziatzeko gehiago gai ez direlarik (Jn 2,1-12). Ez da gertakari arrunta. Joaniren Ebanjelioan aipatua den bizi publikoko lehena. A! Bageneki guk ere, ezteietako zerbitzariei Mariak eman aholkua entzuten «Jesusek errana egizue!» (Jn 2,5)

Ebanjelioko pasarte hau hartu nuen behin ostaler baten ehorzketetako mezan. Kanako herrian Jesusek besta, historiarik gabe, ongi egiten Jesusek lagundu zituen bezala, ostaler horrek ere bakarren ezteiak bazituen eginak, Kanako zorion bera ematen zuela gonbitei.

Ala hitzez, ala obraz, ezin ukatua da Jesusek zoriona, lur honetako zoriona, hedatu duela bere inguruan, beste bat ere hitzemanetz, zerukoa, ogi gaineko erreximeta bezala, bainan lehena ukatu gabe. Beste hura oraingoaren segida bezala agertzen da edo oraiko hau beste haren abiapuntu bezala, biek bat egiten dutela.

Zorion hori agertzen bagenu giristinoek gure bizian, zer publizitatea Ebanjelioarentzat. Telebistetako *pin up* ederrak baino sinesgarriago gintezke. Sinesten ez dutenak ez ditugu kolorezko

katixima liburuekin, den filma hoberenarekin, ez eta telebistako emankizun miresgarrienarekin bilduko. Ez zuten horrelakorik apostoluek. Haien indarra: biziko lekukotsuna. Oroit naiz Afrikan nintzelarik Buzukro herrian ikusirik Abebeko giristinoen buruak.

–Zer ari zarete hemen?

–Auzi baten jujatzeko deitu gaituzte.

–Herriko buruzagien lana da hori.

–Bai, baina erran dute giristinoetan konfiantza gehiago badute-la.

Ez ziren batere goi mailako giristinoak Abebekoak, baina bazuketen zerbait onik eta horri ohartuak zitzaizkien paganoak. Fedetak zoriona ekartzen digula ikusten badute, besteak ere etorriko dira Jesusen gana, purratzen diren oiloak arto bihietara bezain segur. Gaurko egunean gauza baliosek dute arrakasta: «Zer irabazi ekartzen dit?» Gure sinestearen agerpen bakarra baldin bada mezarako obligazionea, begiragailuaren kondena edo komunioaren debekua dibortziatuarentzat, ez dugu jende handirik bilduko. Jakin behar dena: zer itxura ematen dugun kanpora.

«Zuen argiak jendeen aintzinean argi beza, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten.» (Mt 5,16)

Afrikan nintzelarik, Koizikoidjokro herrian kalakan ari ginen zuhaitz baten itzalean pagano batek atera zuelarik: «Ezkontza! Giristinoen lege handia!». Nik berriz uste nuen amodioa zela giristinoen ezaugarria. Bainan komuniatzen ez zuten hainbeste jende bazen, ezkontza elizaz egitekoa zutelakotz edo bi emazte zituztelakotz... Hori zen beraz kanpoari erakusten genion lege nagusia. Hori zen gure ezaugarria. Zein da kanporat ematen dugun ezaugarria?

Amodioa eta zoriona agertzen badira gure ezaugarri bezala ... «Elgar maite baduzue, hortarik ezagutuko duzue nere dizipulu zireztela.» (Jn 13,35) Zoriona orai danik beraz, gorputzak eskatzen dizkigunekin. Baina horretan ez mugatzekotan.

Jesusek dio erratzago zaiola kamelu bati orratz baten zilotik pasatzea ezinez eta aberats bati haren erresuman sartzea (Mk

10,25). Aberatsak uste du bere dirua aski zaiola zoriona ardiesteko. Diruarekin denak eros ditzake eta gure gizarteak zer ez dezake sal! Gaurko gizonak ez du gehiago Jainkoaren beharrik senditzen.

Diruak gorputzeko gosea ase badezake, horretan mugatzen baita! Bainan gizonak beste goserik ere ezagutzen. Eta diruak deusik ezin egin beste gose horren kontra. Gose horrekin dago gaurko gizona eta gose horretatik datoz mundu honetako miseria gehienak. Bestalde erraten dugun bezala, gose horren ezin aseak ditu hoinbeste jende ekartzen beren buruaz beste egitera. Gorago erran bezala «sea, sex and sun» baino gehiago baita gizona. Le Nid elkarteak galdezkatu ditu putetxetako bezeroak. Nabari omen da barnea ments ateratzen direla bisita hoietarik: sexua izaten dute, bainan amodiorik ez. Eta horiek ere amodio gose. Diruarekin musuak eros daitezke. Diruarekin perekak eros daitezke. Diruarekin sexua eros daiteke. Bainan diruarekin ez daiteke eros amodiorik. Eta amodioa musuak, perekak eta sexua baino gehiago da.

Zoriona oraidanik hitzeman digu beraz Jesusek. Lur honentzat daukagun lotura handiegiak egiten du ez garela sartzen Jesusek erakutsi zorionerako bidean, ez zerurakoan, ez bizi honetakoan. Bere konfidantza osoa lur honetako aberastasunetan daukana nola igan liteke bizi honetako lurkerietatik gorago? Bere burua bere zilko. Bere burua bere jainko. Berekoitasunaren iguzki hila argitzaile.

VI ZORIONERAKO KODEA

Beribila hartzen dugularik bidean barna joateko, badakigu lege batzu errespetatu behar ditugula: eskuinetik ibili, abiadura heintto batean mugatu, bereziki herri bat zeharkatzean. Ez da bihurgune batean edo patar baten kaskoan aintzindu behar gure aintzinean bare baten urratsean doan hori, ikusten ez dugun beste norbait gainera etortzen ahal bailitzaiguke bestaldetik. Marra zuriak baditugu bidearen erdian, aintzintzeko tokirik aski ez dugula jakin arazteko. Bide gurutze lanjerosetan stopak. Hirian argi gorri eta berdeak.

Horiek denak ez dira asmatuak poliziek prozedura edo isunak emateko parada ukan dezaten, gisa horretan gobernuko diru kuxta apur bat hazteko. Lege horiek denak eginak dira gure ibilaldiak ongi iragan daitezen eta etxera itzul gaitezen osorik, ospitale edo hil herrietara joateko partez. Kode hori hor da lege horiek baitezpadakoak direlaketz. Bideak berak manatzen dituen legeak direlaketz. Bihurgune batean aitzintzea haizu dela erabaki lezakeen legerik ez da asmatzen ahal.

Bakoitzak nahi duena egiten du lege horiekin... poliziarik ez delarik bide bazterrean, baina lege horiek hausten baldin baditugu, ondorioak hor dira: hilak milaka urte oroz, zaurituak dotzena milaka. Eta ez ditu beti hobendunak jasaiten bere ezaxolakeriaren ondorioak. Ez! Hurbiltzekorik ere. Zenbat eta zenbat dotzena

mila hobengabe ez da kaltetua gelditzen, batzutan bizirako, bes-
teen ezaxolakerien gatik!

Bizkitartean, bakoitzak nahi duena, da lege berria. Hots! Ez da gehiago legerik. Hori baita naski gaurko jendeen arazo handiena. Ez dute legerik, ez baitute norabiderik. Ez dakite nondik heldu diren ez eta nonbaitik heldu direla. Ez dakite nora ari diren ez eta norabait ari direla. Ez dakite zer ari diren bizitza honetan. Ipar orratzik ez dute, eta gehiago dena, ez dakite ipar orratz bat izan litekeela. Nolaz aurki eta bila lezakete bidea, bide bat bade-
la ere ez zaielarik gogoan pasatzen?

Iduri dute *Solitaire du Figaro*-ko itsasturi bat, ekaitzaren bez-
peran itsasoaren erdian galdua, lemarik gabe, ipar-orratzik gabe, zubian etzana iguzkitara, larrua beltzatzen ari zaiolakotz loriatua. Egunean egunekoarekin bizi dira. Horrek ez baitu behin ere ase gizon baten gosea. Gorputzaz besterik ere baitu gizonak eta *beste* horrek ere berea eskatzen. «Gizona ez da ogiz bakarrik bizi» erran zion behin Jesusek deabruari (Lk 4,4).

Gure gizarteak gorputzeko gose guziak asetzekoa ematen dio gairidika Mendebaldean %95i. Zenbat jende ez da gelditzen bar-
nea ments. Denak izanki eta halere zerbait eskas senditzen. Zen-
bat ez da drogari ematen ustez eta gose hori artifizialki aseko duten! Gero eta gehiago. Gero eta gazteago. 25-35 urteko gaztee-
tan hiltzen direnen %15 drogak ditu hiltzen. Zenbatek ez dute beren buruaz beste egiten, jadanik erran dugun bezala, etsituak, ustez eta gose hori ezin ase den!

Jesusek biziko norabidea eta kodea, biak ematen dizkigu Ebanjelioan. Ematen dizkigu marra xuriak, stopak eta argi gorriak. Bide seinaleak bide gurutzetan, nondik nora joan jakite-
ko. Behelainoa den gauetan hoin baliosak diren bide bazterretako marra xuriak ez ditu ahanzten gure biziko bidea errazteko. Lege horiek denak ez dizkigu ematen zeruan sartzeko txartelatxo hura nolazbait pagatu behar dugulakotz, bizi honetan sofritut irabaz-
ten delakotz betiereko zoriona. Are gutiago errespetatzen ez badi-
tugu, ifernuan kizkaltzera igortzeko, anartean barrandan dagoe-

la, hutsean noiz izanen garen, gutienik usteen gure hartzeko miruek xitoak beren aztaparretan bezala: «Bapatean eta uste gabetarik hiltzetik, begira gaitzazu Jauna!» kantatzen da sainduen litanietan. Halako teologia ezezkor bat bada hor.

Lege horiek ematen dizkigu Jesusek, bizi hau ongi iragaiteko bizi hontan zorion doi bat jastatzeko baitezpadakoak direlaketz. Sinestedun ala sinesgabeentzat.

Den mendreneko zentzu poxi bat daukan edonork, bi gogoe-ta egiten baditu seriooki, onartu beharko du, ez daitekeela beste-la izan: bihurtune batetan ez dela aitzinu behar begi bistakoa den bezal-bezala, argi dela herrarekin edo mendekio egarriarekin ez dugula zorionik gozatuko.

Ez da harritzekorik. Gure etxeko bazter guziak betetzen dituzten tresna horiek denak (irradi, pantaila zabaleko telebista, DVD, azken puntako ordenagailu, bost milioi pixedako digitala, argazkiak hartzen dituen eskuko telefonoa...) papertxo batekin saltzen dizkigute. Paper horretan esplikatzen digute nola erabili behar den tresna bakoitza. Papertxo horrek erran bezala egiten dugu, ez baitugu dudatzen egileak guk baino hobeki badakiela horien denen berri. Nehori ez zaio gogoan pasatuko ezantzaren partez ura ematea beribilean, merkeago delaketz.

Mundu hau eta gu, Jainkoak eginak gara. Mundu honetan nola ibili jakiteko bere papertxoa eman digu Egileak: hori da Jesu-sen Berri Ona. Ez ote daki, guk baino hobeki, zer den ongi eta zer ez guretzat? Hura baino gehiago ote gintezke? Nondik genuke jakitate hori?

Bai, badakit! Jainkoaren beharrik ez dugu. Big Bang hura aterako didazue. Baina ezagutzen duzue lehergailurik gabeko zapartatzerik? Oso ideia ona Big Bang horrena. Baina zerk egin du Bang? Ez dut Voltaire baino gibelago izan nahi, hark baitzioen: «Erradazu nolaz martxan den ordulari hau, nehorik egin ez badu.»

Gure gorputzeko azken zelula ordenagailu bat bezala programa-tua da. Edozein landare, animale edo gizonen hazia ere bai. Hain da ttikia azken hau, non ez baitaiteke ikus mikroskopiorik

gabe. Baina, emeki-emeki handitzen da; gure gorputza egiten duten zati ttikienak, mila milioika emanez, bakoitza bere tokian, bakoitzak bere lana egiten duela. Hori uste gabetarik egin dela? Halabeharrez? Ikusi ditut Koloradoko Gran Cañon eta Brice Cañon toki miresgarriak, Kakueta eta Ilunberriko mendizintzurak, Iguazuko urjauziak, baina ez dut behin ere ikusi berez sorturik Erriberrin Nafarroako erregeek eraiki jauregiaren parekorik, hain zuzen, hor, programazio bat behar baita.

Jainkoak ez duela gizona moldatu buztina landuz bere eskuetan, ados. Jadanik errana dugu parabola bat dela hori. Hortik eta, deustarik sortu dela mundu hau, nehorik eskurik sartu gabe, uste gabetarik, halabeharrez, nehorik ez daki nola, bada bide.

Ordenagailu bat ikusiko dudalarik, nehorik ez daki nola programatua, gizonik aintzinean izan gabe, lanean ari, nehorik ez daki nondik ateraila, kobrea, burdin, berina, plastiko elgarren ondoan gertaturik «halabeharrez», haizeak eta ur xortek pusaturik «uste gabetarik», bakoitza bere tokian, bakoitzak bere lana egiten duela, orduan sinetsiko dut ordenagailu handiena baino askoz ere gehiago den gizonaren burumuina ere uste gabetarik egin direla, programatzailerik gabe. Orduan sinetsiko dut, munduaren hastapenean zen *zerbait* hura (baina nondik ateratzen da *zerbait* hori?) zapartatu dela eta mundu miresgarri hau egiten hasi, beti eta handiago, beti eta zabalago.

Musean, ez aldi bat, ez bi, hiru edo lauzpabost aldiz, baina zenbait dotzena mila aldiz, segidan, lau erregeak eskuratuko ditudalarik «uste gabetarik», orduan sinetsiko dut mundu hau horrela programatua eta ordenatua izan dela «uste gabetarik», programatzailerik gabe, ordenatzailerik gabe. Orduan sinetsiko dut «uste gabetarik» horrek miragarriak egin ditzakeela. Ni ere «ikus eta sinets» haietarik bainaz San Tomasen ondotik! (Jn 20,24-29) Jainkorik ez dela diotenak bezala. Hauek ere beren fedea baitute haatik «uste gabetarik», «halabeharrez» edo «zerbait» deitzen duten beren jainko guziz boteretsuan. *Fedea* erran dut, ez baitute beren erranaren frogarik ematen ahal haiek ere.

Bizi guzia izarren ikertzen pasatua duen Hubert Reeves 70 urteko astronomoak, munduak zentzurik ez duela diotenei galde hau egiten die: «Nolaz dakizu hori? Zertan oinarritzen da zure segurtamena?»⁷⁹

Gure bizimoldeari doakionaz, zentzu poxi bat daukanak ere emeki-emeki ikus litzakeela Ebanjelioak erraten dizkigun horiek denak, onartzen dut. Hala nola, ez zaiela besteri egin behar, haiek guri egitea nahi ez genukeena. Ez dugu Jesusen beharrik beraz. Teorikoki ez. Har matematikak. Lege guziak gizonek aurkituak dira Pitagoras famatua eta bere teorema xeble hartatik hasiz eta Einsteinen errelatibitate legea arte. (Artetik errateko, delako teorema hori Babilonen asmatua zuten Pitagoras baino mila urte lehenago. Berriz ere irakiarrei zordun gatzazkie!) Matematika jakitate guziak gizonen heinekoak dira beraz. Baina ezagutzen ote duzue bere aitzineko jakitsu horiek izan ez balira bezala, bere ikerketak hutsetik hasten duen matematikari bakar bat? Arrunt mentsa behar luke. Bestek egin lanaz baliatzen dira denak, eta gero, ahal badute, haratago joaten.

Bakoitzak gure sailean berdin egiten dugu. Besten jakitateaz baliatzen. Bizia ote liteke gure aitzinekoek ikasiaz axolatu gabe, bakoitzak zerotik hasi eta egin lezakeen gauza bakarra? Bixkotxa baten huts egitea nehoi ez diogulakotz galdetu nola egiten den, paso. Baina bizia huts egitea arrazoi bera gatik... Bizi bat baizik ez eta!

Zergatik behar luke gizonak bereber jokatu, matematikak baino askoz ere konplikatuago diren biziko legeekin? Doi bat

⁷⁹ «Si on prend le mot 'sens' au... sens métaphysique, moi je ne m'aventurerais pas à affirmer que l'Univers n'a pas de sens. L'humanité depuis toujours se pose la question. Les bouddhistes offrent une réponse, les chrétiens une autre, les athées encore une autre. On entre dans le domaine du questionnement philosophique. Demander pourquoi l'Univers n'a pas de sens revient à présupposer qu'il n'en a pas. A cette affirmation je réponds: 'Comment le savez-vous? Sur quoi repose une telle certitude?' Anna Alter, «Dis-nous pourquoi... Hubert Reeves», *Science et Avenir*, 2002.08, 65 or.

zuhurtzia baduenak ez ote du lur honetan agertu denetik gizonak ikasi dituenetaz baliatu nahi, bere bizi laburra ahal bezain ongi iragaiteko? Bizi honetaz ahal bezain ongi baliatzeko! Nork eginen digu beharrezkoenak diren lege horien bilduma sinesgarria?

Pariseran joaten naizen aldi bakoitz, faltarik gabe hartzen dut *Plan guide Tarride* liburu gorria. Nola atera ninteke hori gabe hango karrika eta metroek egiten duten sare ikaragarrian. Sare biziki konplikatua den bizian, begiak hetsirik ibili behar nuke-ela?

Nork emanen digu gure bizian beharrezkoa zaigun Plan Guide bat? Nori eginen diogu konfiantza oinarritzko puntu horretan? Arrats guziz telebistako leihotik dotzena bat milioi frantsesei barbar-bar ari zaien PPDari? Mikroa eskuan hartzea ez baita aski profetak bezala egia errateko. Chirac ala Mitterandi? Ez dute batere ikusmolde bera! Bushi? Sinesgarritasun guzia galdua du, bi eskuak tinkaturik, begiak hetsirik, kopeta zimur, kartsuki otoitzean erakutsi badigute ere. Aznar jaun txit agurgarriari? Nork sinets lezake Prestige afera eta Irakeko gerlatik landa? Bizkitartean, ekaitz handienak kantiaraziko ez duen fedea daukate zenbaitek gizon horietan.

Nori bada konfidantza? Hurbilagoko politika gizoneri. Bada onetarik horietan. Konfidantza gehiago eginen genieke ez baligute boza ematea eskatzen, auzitan diren hautagaiei, baizik eta garbi bezala hartu behar direla kondenatuak ez direno. Baizik eta ez ditzakegula kondena jujeak egin aitzin.

Konfidantza izan genezake boz hori ematera gonbitatzen ez bagintuzte presondegitik atera den bati, baizik eta bere kondena betea duela. Zer eskandalua ez liteke Aita Sainduak apezpiku izendatzen balu pedofilia dela eta auzitan den apez bat, baizik eta ez dela oraino kondenatua! Edo presondegitik ateraia berri den beste bat, baizik eta bere penitentzia egina duela!

Ebanjelioa baztertu eta, ez dut ikusten *kontsensus* minimo bat egin lezakeen beste deusik. Ez ote ditu bere frogak eginak 2.000 urtez? Duela 2.000 urte dotzena bat apostolu gaizo haiekin hasi-

rik, 1.500 milioi jendek kodetzat hartua dute orai, bidekoarekin bezala, askotan, noizean behinka, nork nola, bakoitzak bere libertateak hartzen baditugu ere. Baina badakigu gaizki ari garela eta hori biziki garrantzitsua da: gaizki ari dela dakienak bide xuxenera itzultzeko xantza badu. Ez dakienak aldiz ez. Péguy-k zioen giristino bekatorosa, pagano bat baino biziki gehiago dela⁸⁰.

Ez dakiten zenbat ez da gaur! Madrilen berean ehun erailketaz goiti bada urte bakoitz. Gorenean zelarik ETak Espainia osan egiten zuen bezainbat! Gaztetxo gaixtaginen kopurua doblatu da 25 urtez Paris aldean. Zergatik? «13 eta 15 urte artean, nehork ez die erraten geldi daitezen», gazten sailean aditua den Sébastien Roché jaunaren arabera⁸¹. Ez ahal diegu *moralak* eginen! Ez du gehiago nehork moralik egiten ez bada moda zaharreko gibelatu zenbaitek. Preso direnetan, sexua gatik kondenatuak %5etik %22rat pasatu dira azken hamalau urte hauetan, puntu honetan ere moralarik ez baita aipatu behar gehiago.

Gutarik nor ez da ari izan haurrak ginelarik «tzarkerian», orduan erraten zenaz? Oroit naiz nola, mukuzu bat baizik ez nintzelarik, aritzen ginen, elektrika hagetako berinei harrika, haiek hautsi beharrez. Baina, ala etxekoek, ala beste nornahik, erasia-tzen baigintuzten! Bagenekien gaizki ari ginela.

Jesusen kode hori ona ez balitz aspaldi desagertua izanen zen eta ahantzia, Santimamiñe edo Otsozelaiko harpeetan bizi ziren gure aitonen sinesteak eta kodeak desagertu eta ahantzi diren bezala. Mendeak iraun ondoan, Mesopotamia, Egipto edo Greziako zibilizazio miresgarriak, larrazkeneko haize zirimolak orbela bezain errazki eramanak izan diren bezala. Aldiz, bi mila urteren buruan beti hor dago Jesusen Berri Ona, erroak gero eta barnago. Eihartzeko partez, gure haitzak gero eta hedadura handiagoa hartzen ari du gaur egun oraino. Mendez mende gure gizarteak

⁸⁰ Un pécheur chrétien est tellement plus qu'un païen!

⁸¹ «Pourquoi tant de mineurs parmi les délinquants», *La Croix*, 2000.

ezagutu dituen aldaketa eta iraultza guzien gainetik, beti sinesgarri da miliar bat eta erdi jenderentzat.

Elizak husten ari direla? Egia! Badakizue zer arrakasta duen kirolak. Ez da besterik aipu igandetan irrati-telebista guzietan. Ba ote dakizue kirol zelaietan baino askoz ere jende gehiago (kirolari eta behari) biltzen garela elizetan gaur egun, igande oroz, burrumba gutiago egiten badugu ere? 700.000 gazte baitziren Torontoko JMJ munduko gazte katolikoek topaketetan, Aita Saindu zaharkitu baten inguruan, zenbat ziren egun ber-beretan Koreako Joko Olinpikoetan munduko izar ederrenen ikusten? Bazena hamarretarik bat? Bizkitartean, irrati-telebistetan, zein da gehienik aipatua izan? Berriki irakurtzen nuen estatistikek eman datuen arabera, erlisionea dela jende gehiena libreki hunkitzen duen gertaera sozial zabalena, sinesteak gutienik hunkitzen dituen gizarte zatietan ere⁸².

Gibelka ari garela! Hemen bai. Ez baigara munduko zilko edo zilborra. Ez, ez! Ez da heren munduko ezjakinen artean bakarrik goiti ari sinestea. Munduko tekniken puntan diren Ameriketako Estatu Batuetan ere bai: %16ez emendatu da katolikoek kopurua 1991 eta 2000 artean. 10 urtez! 62 milioi dira gaur egun. Estatu Batuetako erlisione nagusia da. Ondotik, biziki urrun, Baptist Convention eliza, 20 milioi kiderekin. Eliza katolikoak ezagutu dituen miseria guzien gatik, %42-z goiti egin du mendebalean. Doblatsu da 10 urtez Nevada, Ipar Karolina eta Kolumbian⁸³. Frantzian igande oroz elizan ibiltzen direnak %10ez petik badira, AEBetan %40 dira⁸⁴. Ameriketako Estatu Batuetan urte oroz

⁸² «Même dans les sociétés les plus sécularisées, le fait religieux, apprécié statistiquement, est encore nettement majoritaire. Il est de loin le fait social de nature volontaire le plus massif.» R. Rémond, 269 or.

⁸³ *Tiddings*, 2002.11.07 (Kalifornia behereko katolikoek astekaria).

⁸⁴ «La pratique religieuse est de «40% aux Etats Unis, pays le plus riche de la planète, ce qui laisse bien voir que le développement et la religion ne sont pas incompatibles.» Chantal Delsol, «Des intellectuels chrétiens sans aveu», *Le Figaro*, 2003.08.23.

200.000 jende heldu bataiatuak dira⁸⁵. European berean, elizak alde batetik husten badira, bestetik betetzen dira. Urte oroz 4.000 helduz goiti bataiatuak dira Frantzian.

Den bihurrienak ere ez ote lituzke bi gogoeta egin behar, jakiteko nola mila deabru, duela hiru mila urte basa mortuan agertu Jainko bakar bat badelako sineste hura, daukaten oraino, ez Abraham bezala oinez edo astoz dabiltzan zenbait dotzena artzainek, bainan supersonikoetan dabiltzan horrenbeste jende eskolatuk.

Irakeko gerla zela eta, Opus Deiko kidez inguratua omen den Aznar, Espainia Katolikoko lehen ministroa Bushi jarraikitzen zitzaiola begiak hetsirik. Espainiako apezpikuak oso motel agertzen zirela, Ameriketako apezpikuak garbiki eta goraki mintzatu dira gerla horren kontra. Nahi ala ez horrek bere eragina izan du hango katolikoan (eta beste zenbaiten) ikusmoldean.

Ba ote dakizue Parisko seminarioan sartzen diren gazte gehienak maila goreneko ikasketak egin ondoan direla bide horri lotzen? Sciences-Po, ENA, Normale Sup., Centrale, Polytechnique, mediku, arkitekto... Sinestea ez da xoroen ezaugarria.

Daniel Duigouk berriak eman ditu entzule kopuru aldetik handiena den *TF1* telekatean, arratseko 8etan, entzule gehien biltzen duen berri sailean. Orai *La 5* kateko erredaktore da. Jendea ez da guti harritu 1999an jakin duelarik apeztu zela... telebistan segitzeko lanean⁸⁶.

Aita Lhande euskaldunaren sailari jarraikiz, 2003ko Garizuma Parisko katedralean predikatu duen frailea, Joseph Marie Verleinde, 1968ko iraultzaile sutsuenetarik izana da. Nahitara hautatu zituen sinesterik ez zuten irakasleak, haur denborako *sineskerien* azken herrestoak errotik ateratzeko. Ez zuten ase haren gosea. Haizea alde zuen *Méditation Transcendentale*-an sartu zen

⁸⁵ *Courrier International*, 2003.10.09, 40 or.

⁸⁶ *Le Pèlerin*, 1999.11.05.

lepo zintzurreraino, zuzendaritza internazionalako bulegokide izan arte. Hor ere barnea ments gelditu. Gero joan zen Indietara, budismoan eta hinduismoan asean aurkituko zuelako esperantzan. Sekulan bezain gose itzuli zen Parisera. Okultismoan itzuliño bat egin ondoan, komentu batean sartu zen azkenean. Han dago geroztik behar zuena aurkiturik. Kimia nuklearrean berezitua, bere saileko diploma guziak sakelari ditu eta horiekin denekin beraz... fraile!⁸⁷ Hau ere ez da lehen jina. Ahago erroak nahi bezain ongi bildurik ere, belar tzar hori beti pizten baita, sinestearekin ere horrelako zerbaitek gertatzen da. Atetik kanpora, leihotik barnera, gure zaharrek zioten bezala.

Lustiger kardinala bera, judu ohi bat da, konbertitua, bere aita-amak Alemaniako Naziak juduen suntsitzeko eraiki kanpo famatu haietan galduak.

Baizik eta moda zaharrekoa dela, gaurkoak izateko ametsarekin Ebanjelioa baztertzen duten horietan zenbat ez dira mandotik astora erori? Uste dute gaitzeko balentria egiten dutela sinestea baztertuz. Gero, sineste bastart guziak irensten dituzte lapaka, xerri ttipiek gazura bezala⁸⁸.

Zer arrakasta ez dute gaurko sorgin eta aztiek! *Diario de Navarran* hogeita lauen puba ikusi dut. Idek ezazue telefono gida. Zenbat eta zenbat ez da! Bakoitza bere berezitasunarekin: bat sikotarologoa da, bestea parasikologoa, hirugarrena numerologoa, ez bada mañetista, druida, marabuta, argazki ikuslea, kristal boletan berezitua, edo telefonoz *ikusten* duten haietarik, batere etxetik ateratzeko beharrik gabe, aparkatzeko arazorik sortu

⁸⁷ «De l'expérience spirituelle à la rencontre de Dieu», *La Croix*, 2002.02.16, 12-13 or.

⁸⁸ *Dieu un itinéraire* bere liburu aberatsean, (O. Jacob, 2001, Paris) Regis Debray-k idazten du, 321. orrian: «Moins il y a de gens à l'église, plus il y en a chez les avocats. Moins on allume de cierges et suspend d'ex-voto dans les cryptes, plus on remplit de formulaires et on élève de recours au tribunal administratif. La Providence divine coûtait sans doute moins cher à la société que l'Etat Providence».

gabe. Badira politikoen aholkulariak eta nik dakita zer oraino. Baten publizitatea ikusi dut: kartologo-parasikologo-mañetista. Ez gutiz utz!⁸⁹

Behin, hoinbeste jende liluratzen dituen Hollywood famatuko saltegi handi baten atarian ikusi nituen oihalezko 20 bat ttattola elgarri lotuak, kofesategiak iduri, eta jendea lerroan, bakoitza bere aldiaren aiduru, lehenago kofesatzeko egiten zen bezala. Oihalaren gibelean, ttattola bakoitzean, azti bedera. Haien kontsultatzera zetozen! Gure kofesategiek baino arrakasta gehiago bazutela! Hollywoodeko lilura bat gehiago? Ameriketako sineskeriak?

Ondoko urtean Angeluko BABen ikusi nuen gauza berbera. Oso moda zaharrekoak izan nahi ez badugu, Amerikak ideki bideari jarraiki behar alabainan. Nolaz puntu honetan eta ez gorago aipatu sinestearen gorakadan?

Berriki irakurtzen nuen 50.000 astrologo badela Frantzian. Apezak 13.500 dira! Hiru mila milioi euroz goitikako pizua daukate ekonomian. Horrelako jakintsunen lan baliosa ez baita musutruk pagatzen! Frantzian beti, %60k sinesten du egia zerbait derasatela horiek denek. Horoskopoa ematen ez duen zenbat egunkari eta astekari ezagutzen duzue? Irakurleak hori eskatzen duelako froga. Eta zenbatek ez dute sinesten hil eta, behi, urde, sagu edo suge baten baitan berriz sortuko direla eta biziko! Horretan daukate beren *esperantza*!⁹⁰ Nik neurea nahiago.

⁸⁹ Hona Donostian izan dudana panfletoa: “Vidente medium directo. Profesor D. Gran ilustre vidente africano con rapidez, eficacia y garantía. NO HAY PROBLEMA SIN SOLUCION. El Maestro Chamán africano, Gran Medium Espiritual Mágico, poderes naturales, 26 años de experiencia en todos los campos de Alta Magia Africanos, ayuda a resolver todo tipo de problemas y dificultades por difíciles que sean. Enfermedades, crónicas de droga y tabaco, cualquier problema matrimonial, recuperar la pareja y atraer personas queridas, impotencia sexual, amor, negocios, judiciales, suerte, quitar hechizos, depresión y protecciones vida familiar, mantener puesto de trabajo, atraer clientes... Cualquier otra dificultad que tenga en el amor, lo soluciono inmediatamente con resultados positivos y garantizados al 100% de 3 a 7 días como máximo.”

⁹⁰ Jean Vernet, «La quête de l'irrationnel», *La Croix*, 2001.11.13.

Gauzak ez ote dira horoskopopak erran bezala gertatzen? Goizean urliak sagitario denaz geroz eguna omore txarrean pasatuko duela irakurtu badu ez du huts eginen, minbera izanen da, ezin hunkia, iguzkia itzali arte! Horoskopopak egia erraten duela sinesten duen pundutik, hura irakurtu eta, hark errana egiten du! Ohartu ere gabe.

%60 sinestun beraz. Fededun erran behar ote nuke? Parisen *le salon de l'agriculture* bezala, Biarritzen badugu urte oroz *le salon de la voyance*, hots, sorginen topaketa. Karia horretara kon-sulta 45€ baizik ez zaitzu gostatzen, beste orduz 60tan delarik. Ez da horrela eta horrela ateratzen 60€ sakelatik. Desperdio hori egiten dutenek badute nonbait zerbait sineste. Mediku bereziak baino hiru adiz garestia dira sorginak!

Horien bezeroak ez dira, eskola gaizki egin eta gizarteak bazterturik, ahal dutenari lotzen diren horietarik bakarrak. Azti eta sorginen aholkuei hel egiten diete gure politikariek. Maila gorenekoek. Ez dute gehiago, Jesu Kristo baino lau mende lehenago galiarren kontra Erroma salbatu zuten Kapitoleko antzara haiei dei egiten baina...

Gure artean, ez otoi nehoi sala! Erranen dizuet mundu osoak ongi ezagutu duen Frantxoa Mitterand, 14 urtez Frantzia hoin ederki kudeatu duenaren aztia zein zen: Elizabeth Teissier⁹¹. Lehendakariaren isilean, bere aholku emanaldien hamar kazeta grabatu zituen, gerorako froga gisa atxikiz. Zin egiten dizue andereak (Chanel-en *mannequin* ohiak) ez duela hark kudeatu Frantzia eta munduko politika. Erabakiak hartzeko tenorean, haren aholkuak, beste batzuen arteko batzu baizik ez ziren. Baina beren pizñoa bazuten. % zenbatekoa? Ez digu salatu andere xarmagarriak.

1997ko deputatu hauteskundeak aitzin *L'Événement du Jeudi* astekariari sorgintxoak errana zion, Jospin lehen ministroak hai-

⁹¹ Denis Demonpion, «Mitterand et ses magiciens», *Le Point*, 2000.07.7, 57-62 or.

–Mathieu Castang, «Elizabeth Tessier, l'astrologue présidentielle», *La Croix*.

zea ez zuela alde. Madelin eskuinekoak izan behar zuen sorpresa, «marro-harrulia» baita! Badakizue zer gertatu zen! Jospinek airez aire irabazi, gehiengoa Chirac-i kenduz eta Madelin nehork ez aipatu. Horrelako aholkulari argiekin, ez da harritzeko mundu hau ez badoa hobeki!

Ekumenikoa gainera gure sorgina! Mitterand sozialistari aholkuak eman zizkion bezala, *Le Figaro* eskuineko kazeta ospetsuko irakurleentzat orrialde bat osoa betetzen du aste oroz!

Anderea ez zen Frantxoaren aholkulari bakarra. Honek berak ere aitortzen zuen funtsean. Bazuen bestalde druida betroin bat eta marabout beltz bat. Gutienez!

Thierry Pfister *Le Monde*-ko kazetari ezagunak idatzi duenaz, garai batean aste buruak Tunisia hegoaldeko Sahara Palace handian pasatzen zituzten gizon politiko frantses guziek beren itzuliñoa egiten zuten hango mago handi baten etxean. Faltarik gabe. Deus seriozik ez, ala fede, berek erraten zutenaz! Irri egiteko bakarrik.

Lehendakaria minbiziak joa eta Elizabeth Teissierek asun eta ilarka tisana gomendatu zion biharamunean, Elysée-tik kanpoa izan zuen Gubler aspaldiko medikuak. Bi gauza horien artean loturarik izan litekeelakorik ez dut erranen...

Zer ote zuen gogoan lehendakari sozialistak azken mintzaldian erran zuelarik, urtatsez, «Izpirituaren indarretan sinesten dut»? Ez ote liguke argi izpi bat ematen horretarako beste ateraldi honek: «Girixtino sortu naiz eta hain segur girixtino hilen. Arte horretan...» «Arte horretan» da hain zuzen politikan ibili.

Gizon politikoen jokamolde hori ez da oraingoa. Napoleon I.a inperadorearen aztia Adélaïde Lenormand deitzen zen. Josefina inperatrizak bai eta, harrigarriago dena, Metternich Austriako enbaxadoreak ere andere berari dei egiten zioten. Hau ere ekumenikoa! Ez ahantz, makila bi buruetarik atxikitzen zuela inperadoreak: Pio VI.a Aita Saindua Parisera etor arazi zuen bortxaz, bere koroatzeko. Hein horretara heldu eta denen beharra baita orori buru egiteko!

Lurrari hain lotua den ekonomia mundu serio horretan ere entzuten da musika horretarik eta astrologoei dei egiten diote Suitzako trenbideetako aldizkarian irakurtu dugunaz.⁹²

Aitortuko dizuet nihaur ere izan naizela behin Iparraldeko sorgin baten ikusten, kazeta batek harekin elkarrizketa bat egitea eskaturik. Elkarrizketa aintzin bere aholku sorta eman nahi izan zidan ohiko kontsulta eginez. Isilik egon nintzen ahal bezainbat, neure burua salatuko nuelako beldurrez. Mahain ttipi baten bi aldeetan ginen jarririk. Bien artean mahainaren erdian, dupin bat, gatz larriz betea. Gaitzeko sinestea zeukan gatzaren boterean. Etxe inguruetan eman behar zen, bide kurutzetan eta nik dakita nun, zorte gaixtoaren urruntzeko. Zorte gaixtoa badela ez baitute dudatzen, Jainko ona baitan sinestea utzi duten izpiritu argiek. (Badakit bere auzoarekin betirako samurtua den emazte bat: bere haur sortu berria ohakoan zeramala, «begi gaixtoa» bota zion auzoak, irri eginez gainera. Eta ñiña hil!)

Nire sorginak aipatu zidan, ttipia nintzelarik eskuineko zangoa hautsi zidan eroriko hura (ez dut erratearen beharrik, Jainkoari esker, behin ere ez zaidala hezur bat ere hautsi ene bizian!). Ene bi zalditako Citroen gaixoaren aintzineko errota bati norbaitek botatia zion «zorte gaixtoa». Lehen bai lehen behar nuen berria erosi, izigarriko istripu bat jasan nahi ez banuen. Oheko burukita erre behar nuen: lumak koropilotan emanak zizkidan, beste norbaitek bota «zorte gaixtoak» (ene burukita artilezkoa zen!) Eta noizpait atera zidan ere, emazte batekin harreman sexualak izanez bildua nuela zizari-nagusi luze-luze bat... Medikuek ere balukete zer non ikasi horrelako sorginekin!

Zenbat jendek ez zituzten begiak hetsirik irensten hark erran guziak! Nola sinets Ebanjelioa horrelako katixima entzun eta? Eta zenbat eta zenbat girixtinok nahiago dituzte horrelako aholku

⁹² «Avec la récession celles-ci (les entreprises) recourent davantage à l'astrologie comme aide à la décision, par exemple pour savoir si la période est propice à des mesures stratégiques.» VIA (Suitzako trenbideetako hilabetekaria), 2003.05.

argiak entzun eta *aztikeriei* jarraiki ezinez eta askotan *astakeria-tzat* dauzkaten Jesusenei! Hauek moda zaharrekoak, dakizue-naz... Sorginak baziren mendeak eta mendeak Jesus baino lehe-nago!

Euskal kultur munduan oso ezaguna zen norbait badakit, gorago aipatu sorgin horren kliente jarraikia izan baita. Diozesan kargu bat izan duen beste baten ahotik entzuna dut: «Hik bada-kik eihar mezak badirela! Bainan kasu! Eihar meza manatzeko, hihaurk garbi izan behar duk! Bestenaz hanbat gaixto hire-tzat!»⁹³

Aitormenak aitormen, beste bat egin behar dizuet oraino: nihaur ere sorgina izana naizela. Euria ekartzen duen sorgin ona. Afrikan nintzelarik, asteartean meza Kpakobo herrian eman nuen, asteazkenean Ahuakron eta ostegunean Mbrinbon. Sasoi idorretik landako lehen euri balios haiek zenbait aste hartan berantetsiak eta euria zurrupitan hasi zen nik meza Ahuakron eman eta oren baten buruan. Kpakobon eman eta biharamunean beraz, Mbrinbora abiatzekotan nintzelarik. Ez zen dudarik: euria nik ekarria nuen. Esplikatu nien, bi egun berantago egin balu, Mbrinboko meza biharamunean izanen zela eta Nzianuangoaren egunean. Eta noiz nahi egin zezan, beti nik meza nonbait emanen nuen egunean izanen zela eta beste nonbait eman eta biharamu-nean. Ez ninduten sinetsi.

Etxauz, Baionako apezpiku euskaldunak berak ez ote zuen sorginetan sinesten? 1610ean Baionako kolegioko sei zuzendari hil ziren bata bestearen ondotik, denbora laburrik barne. Azkena, 1610ean izendatua izan eta urte bat gabe. Apezpikuak erran zuen zorte gaixtoak botaiak izanak zirela kolegioaren kontra⁹⁴. Fran-

⁹³ Eihar meza: apezari eskatzen zaiona, Jainkoak norbait madarikatzeko. Behin bat eskatu zidan norbaitek. Erran nion, meza eman nezakeela bere etsaia hobetzeko bainan Jainkoak ez zuela madarikatuko.

⁹⁴ Roland Moreau, *L'Ame Basque*, Ulysse Edition, 1981, 236 or.

tziako erregeren konfesore izendatua izan behar zuenak, sorginen baitan sinesten zuen.

Etxauz apezpiku zela Bordaleko Parlamentuak igorri de Lancre *jujeak* ikusmolde bera zuen. Bai eta sorginak zirelako akusapean, honek erre zituen apez eta girixtinoek ere. Denen ustez sorginkerien ondorioak ziren zorte gaixto eta gaineratiko gaitzak. Herria haietatik libratzeko zuen hiltzera kondenatu lapurtar andana bat Bordaletik etorri epaile famatuak. Lapurdi gaizkitik libratzeko: eurite, idorte, harri, izurrite, gerla, heriotze, denak sorginen zorte gaixtoen ondorioak baitziren batzu ala besteentzat⁹⁵. Bai de Lancrentzat, bai lapurtarrentzat bai eta beraz... apezpikuarentzat.

1750ean Aturriko artxapezpikuak Novempopulaniako apezentzat plazaratu *Rituel* liburuan otoitz bat bada zorte gaixtoaz joak izanez haurrik izan ez dezaketen senar-emazteentzat⁹⁶. Tru-moi edo ihortziriaren kontrako otoitzaz, apezpei artoski debekatzeko zaie ohiko jestu eta gurutzearen seinaleetaz besterik egitea... Egiten zituztelako frogat⁹⁷.

Belen Altunaren liburuan irakurria dugu Pedro Astarloaren prediku hau: «Askok uste dute pekatu dala esatea, sinistatzea edo uste izatea, sorginak daudela. Hau edo beste egin dutela, honi edo besteari gaitz egin diotela. Hau ez da pekatu. Dakigu sorginak aurkitu litezkiala, edo gizon ta emakuma galdu ta itsu asko demo-

⁹⁵ «(La sorcellerie) tue par venin ou par charme les corps des gens de bien, engendre les pestes par l'infection de l'air, fait mourir le bétail, gâte les fruits de la terre par les grêles, tempêtes qu'elle fait naître.» De Lancre, 332 or.

⁹⁶ «Bénédiction pour les personnes mariées qui sont empêchées par maléfice ou sortilège d'user du mariage.(...) L'Eglise est trop bonne mère pour manquer aux besoins réels de ses enfants, lorsqu'ils sont véritablement dans le cas de maléfice; aussi a-t-elle institué pour eux des prières et des bénédictions particulières.» Jean François, archevêque, *Nouveau Rituel*, Auch, 1750, 356 or.

⁹⁷ «Il leur est encore défendu (aux prêtres) d'affecter un ton de voix plus élevé, ou des gestes et des signes de croix extraordinaires, pour en imposer aux simples.» *Op. cit.* 465 or.

niarekin paktua eginik, sorgin egin direla. Gauza bat da sorginak badirela sinestatzea, ta beste bat sorginen esanahiari sinestea ematea. Sorginak daudela sinestea, ez da pekatu; baina sorginari sinestea da pekatu.»⁹⁸

Argi da sinestea baztertzen dutenak sinestekerietara erortzen direla. Gurea ez omen da ona, berek erraten dutenaz, bainan zer erran berenaz?⁹⁹

Aipatzen ditugularik meza, kominione, kurutzearen bide, Jainko eta beste, irriño batekin entzuten gaituzte. Bainan ez dute huts eginen San Mameseko ‘katedralera’ joatea, futboleko ‘meza nagusia’ ikusteko, kirol-zelaiko ‘jainkoekin’ ‘kominiatzen’ dutela. Frantziako itzulian, begiak zuriturik daude, mendian ‘kurutzearen bidea’ egiten ari diren txirrindulariei begira. Horrela mintzo dira Frantziako irрати-telebistetako fedegabeak.

Lehenagoko ala gaurko sorgina, kristalezko bolarekin ala telefonoz ari den moda berriko aztia, hauta nahi duzuen. Neure aldetik, batere dudarik gabe, nahiago dut aztikeriarik eta astakeriarik gabe egia darion Jesu Kristo. Ongia ala gaizkia, egia ala gezurra, zuzena ala makurra non diren jakinen dut harekin. Ez nuke haurra nintzelarik ikusi ditudan gaixo batzu iduriak izan nahi: aitatxi-amatxiek utzi gerezizko armairu, baxerategi eta kadera zaharrak eman zizkieten hiritik jin arranoei, formikazko-etan truk, gaitzeko afera egiten zutelako duda izpirik gabe! Mustuka ukaldi bat aski zuten garbitzeko eta ezkorik gabe dirdiratzeko!

⁹⁸ Belen Altuna, *Euskaldun fededun*, Alberdania, 2003, 210 or.

⁹⁹ «Sans les mirages du sacré, la foi se languit ou glace les sangs. Et les âmes en panne de merveilleux sacralisent anarchiquement la nature, le corps, la technique, un champion de foot, un chanteur de rap, une actrice, une idéologie. Elles investissent leur religiosité latente dans des orgies d’effusions immanentes: le match, le concert, les rituels des bandes juvéniles.» D. Tillinac, *Le Dieu de nos pères*, Bayard, Paris, 530.

VII

ZORIONTSU ZUEK

Omiainsindore da, elizan jende gehienik biltzen duen besta eguna: zibilizazio guzietan heriotzeari lotu sineste, otoitz eta ohi-durak dira zibilizazio bat hiltzen delarik azkenik galtzen direnak. Duela 100/150.000 urte hasi ziren gure arbasoak hilak ehortzen errito zenbaitekin, eta erroak hoin barna dauzkan ohidura bat ez da horrela eta horrela desagertzen. Ez du beste misteriorik gure elizak Omiainsindoretan beteak izateak. Bazkoz eta Eguberriz zangorik sartzen ez dutenak ere hor daude. Omiainsindore ez dute huts egiten.

Hain zuzen, urtean behin elizan sartzen eta, urte oroz Jesusen Berri Oneko pasarte bera entzuten dute. Zortzi aldiz «zoriontsu zuek...» (Mt 5,1-12). Gorago erran baitugu Jesusek gizonaren zoriona nahi duela orain danik... Ateraldi horiek entzutearen bortxaz, erroak barna eginak behar lituzkete jende horien gogoetan. Baina naski ura ahatearen luma gainean bezala lerratzen dira, batere barnera sartu gabe. Ezkerreko beharritik sar eta eskuinekotik atera.

Jendeen gogoia errotik isurgia naturalaren kontra hartzen dute. Batere katiximarik gabe, beren hezur muñetaraino sartuak dituzten sinesteen kontra. Iduri luke kontrarioaren sinesteko programatuak garelara.

Zoriontsu behartsuak! Ez ote da miseria guzien iturri bezala ikusia behartsu izatea? Dirua, ez ote liteke zorionaren baitezpa-

dako zimendua? Zoriontsu aberatsak! Horra zinezko egia. Horra zinezko sinestea. Egiazko fedea!

Zoriontsu eztiak! Ez ote dugu borrokatu behar, gogorki borrokatu behar, mundu honetan gure ziloa egin nahi baldin badugu? Barea iduriko gizon melenga bat ez da sekulan aterako gure munduan.

Zoriontsu nigarretan direnak! Ez du kanorerik! Gizon zoriontsuaren begitartea, irripar eder batek alaitzen du. Nigarra, zorigaitzaren hizkuntza da.

Zoriontsu gose eta egarri direnak! Sahelen, Saharako desertuko mugetan, egarriak eta goseak hilak, hezur eta larru direnak litezkeela zorionean? Harat emigratu behar ote genuke hain zuzen hango beltzak Europara heldu zaizkigularik?

Zoriontsuak zuek, laidostatzen eta gaizki erabiltzen zaituztenean, zernahi gaixtakeria gezurrez erranen dutenean zuetaz!!! Ez bakarrik gaizki erabiliak edo laidostatuak, baina hori *gezurrez!* Trufa baino handiago musika! Ez gutiz utz otoi! Nork har dezake serioски horrelako ateraldia?

Bururatzean Jesusek ateratzen digu bere segetua: «handia baita zuen saria zeruetan.» Apezen betiko leloa. Uko egin hemen segurra dugun zorionari, ttipia bada ttipia! Hobea igurika beste bizi batean. Beste bizirik batere baldin bada. Nehor ez baitzaiku itzuli hango berriekin! Goazen beraz segurretik, ametsetako lukainak bazterrera utzirik.

Ez ote dugu gorago ikusia Jesusek zoriona hitz ematen zigula orai danik, haren gatik uzten duguna baino ehun aldiz gehiago emanez? Orain danik. Eta betiereko zoriona gero, horren gainera. Jesusen mezua osotasunean hartu behar da. Etxe batean badira borta etxeak, leiho etxeak, zirritu ziloak, giltzarriak, denak harriz eginak. Harri batzuen aipatzeak ez ditu besteak ukatzen. Ebanjelioan ere pasarte bat irakurtzean ez da beste nonbait idatzia ahantzi behar beste nehon errana izan ez balitz bezala. Hemen zeruetako zoriona aipatzen badu Jesusek bururatzean, ez du, beste nonbait eta bere biziko urrats guzietan horrelako garrantzia

ematen dion lur honetako hura badenik ukatzen. Ateraldi hauek ere ez dira bakarrik zeruko zorionerako baldintzak.

Gorago aipatu pasarte haren gainera beste bat ere bagenuke seinatzeko, bizi honetako zorionaz: «Zatozte ni ganat nekatuak eta zamapean zirezten guziak eta nik pausua emanen dizuet. Har zazue nere uztarria eta ikas nere gandik, ezitia eta bihotz apala bainaiz, eta zuen biziarentzat aurkituko duzue pausua, jasan erretxa baita nere uztarria eta arina nere zama.» (Mt 11,28)

Egundainokotan pausua, jasan erretxa den uztarria eta zama arina, *orain danik* ditu hemen ere aipatzen, zeruan ez baita ez uztarri, ez zamarik, orok dakigun bezala. Hemen ez badu zerurik aipatzen, horrek ez du erran nahi zerurik ez dela. Lerro horiek ez dute komentario beharrik. Berak mintzo dira.

Geroago apostoluak alde berera joan ziren. Hala nola Jondoni Paulo: «Jainkoak ez digu eman beldurti egiten gaituen izpiritua, bai ordea, indarra eta maitasuna ematen eta gure buruaren jabe egiten gaituen izpiritua.» (1 Tm 1,7) Kasik gauza bera idazten die Erromako giristinoei: «Ez duzue esklabo egiten zaituzten izpiritua ukan, berriz beldurrean bizitzeko. Seme alaba egiten zaituzten izpiritua ukan duzue. Izpituaren bidez, Aita erraten diozue Jainkoari.» (Erm 8,15-16)

Beste pasarte honek ezin argiago erakusten du Jesusen dizipulu batek zorionean bizi behar duela lur honetan: «Lehen lehenik gizaki guzien onetan galde, otoitz, eskari eta esker onen egitea gomendatzen dizuet (...) *bizitze gozo eta baketsua* eraman dezagun.» (1 Tm 2,1) Bai. Ongi irakurtu duzue, bizitze gozoa aipatzen du apostoluak ere. Ez zeruko gozoa.

Jondoni Joanik berriz: «Haren manamenduak ez dira dorpeak.» (1 Jn 5,3) Jesusek ez gaitu beldurrarekin ibilarazten, ez ifernukoarekin, ez beste batekin, baina amodioarekin. Maitasuna da Berri Oneko ardatza, lege nagusia. Hori da biziko bidean behar dugun erregaia.

Nolaz dira gure elizetako sailduak hoin serioak? Iparralde honetan bihi bat ez dut ikusi irriz. Hemendik kanpo, oso guti.

Horiek ikusi eta nork sinetsiko du Jesusek zoriona ematen duela? Nork izanen du horien bideari lotzeko gutizia? Frantses erran zahar batek dio *un saint triste est un triste saint*. Goibel den saindua, bai, zinez tristea dela. Testamentu Berria zentsuratu izan dela ezin uka.

Ebanjelioak ongi irakurtu behar dira beraz eta ez aitzur ukaldika pozi osoak moztuz. Gogoratzen zait Uharte Garaziko etxe batean belarretan ari nintzen batez, Jehovahren Lekuko pare bat etorri zela eta bere predikua atera, nor nintzen jakin gabe: «144.000 toki baizik ez da zeruan». Froga ematen ziguten Apokalipsian: «Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila.» (Ap 7,4) Alimaleko Biblia bat aterarik, berehala hatxeman zuten orrialde zuzena, 1387.a! «Ezagutzen dutela Biblia, horiek!» erran zidan Katixa xaharrak. Nork duda Jainkoaren hitzaz?

Liburua hartu nion eta zenbeit lerro haratago irakurtu: «Gero jendeketa handia ikusi nuen, nehork ezin kondatua.» (Ap 7,9) Beraz, 144.000 baziren Israelgo leinuetarik. Egia handia. Nahiz erran nahi berezia daukan Biblian xifre honek. Baina askoz gehiago, herri eta hizkuntza guzietakoak. Hori ere egia, ez ttipiagoa. Jehovahren Lekukoek Biblia zentsuratzen dute. Ez genuke Jehovahren Lekukoaren bideari jarraiki behar guk!

Itzul gaitezen gorago aipatu *zoriontsu* haietara. Ez ote lukete lur honetako zoriona hunkitzen. «Zoriontsu bihotzez behartsu direnak» dio Jesusek. Ez du behin ere gomendatu miseria gorrian bizitzerik. Ez! Jadanik ohart arazia dugun bezala ahal zituenak oro egin baititu beti, ikusi behartsu guziak beren miseriatik ateratzeko. Zoriontsu dira, Jainkoaren beharra senditzen dutenak, haren beharra badutela badakitenak, behar horri idekiak zaizkionak. Horra nolako behartsuetaz ari den. Jainkoaren beharra, ez Hark egiteko guk bizi honetan egin behar genukeen lana, (hori da molde guzietako sorginen gandik igurikatzen dena, mendeetan barna, lur honetako lau hegaletan) baina erakusten digun bidea ikusteko argia eman diezagun, bai eta bide horretan ibiltzeko kemena.

Gure otoitzak ez dituela beti entzuten erraten da, entzunak izanen garela hitzemanan duelarik. Hor ere zentsura bada. Entzunak izanen gara bai: «Nere izenean Aitari eskatuko diozuen guzia emanen dautzue.» (Jn 16,23, Jn 14,13, 1 Jn 5,14)». *Nere izenean*. Ez baita zernahi eskatzen ahal Jesusen izenean! Ez baititake eska etsaiaren gaztigua *Jesusen izenean*, barkatzea gomendatu digularik. Ez du balio eihar mezarik eskatzea Jainkoak gure etsaia madarika dezan: madarikatzea ez daiteke Jesusen izenean eska. Gure haur denboran entzuten genuen «deabrua sar balakio», «deabruak eraman dezala», «leher egin dezala» eta horrelako. Deabruari zitzaion eskatzen gaizkia egitea, nahiz *otoitz* horrek ez zuen Jainkoari eginik baino efikazitate gehiago, deabruari egina izana gatik!

Jesus baino mende zenbait lehenagokoa delarik Salomonen otoitza izan behar genuke eredu. Jainkoak erran zion: «Halako eskaria egin didazulako eta zuretzat urte asko, aberastasun edo zure etsaien heriotza eskatzeko partez, zuzen gobernatzeko adimena eskatu didazulako, emanen dizut eskatu duzuna. Zu aintzin nehork izan ez dituen eta zure ondotik ere nehork izanen ez dituen bezalako zuhurtzia eta adimena ematen dizkizut.» (1 Erg 3,10-12)

Gero aipatuko dugun Michael Chang tenislari famatuak, Roland Garros-en behin ere izan den irabazle gazteenak, dio: «Ez dugu otoitz egiten tenisean irabazteko, bainan gure lehentasunak onak izan ditezen bai eta guri esker, Jainkoak besteak argi ditzan. Eta ere, indarra eman diezagun haren nahia egiteko.»¹⁰⁰ Horra Salomonena iduriko otoitza, Jesusek ere gomendatzen duena. Entzuna izanen dena.

Lur honen hobetzea ez da Jainkoaren lana, gure esku utzia du Kreatzaileak: «Bete lurra eta izan haren *nagusi*. *Menpera* itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean herrestan dabiltzanak.» (Has 2,28) Aitortu behar da gizona ez dela eskuak sakelan egon

¹⁰⁰ <http://www.mchang.com/christianity.html>

alde horretarik, astokeria zenbait gorabehera. Gero eta gehiago ari da lur honen nagusi bilakatzen, lurraren menperatzen. Etsenplu bat baizik ez emateko: Europari doakionaz bizi esperantza doblatu da ehun urtez. Eta urtean lau hilabetez luzatzen da oraino.

Ebanjelioko behartsua da beraz, Jainkoaz behartsu senditzen dena.

Zoriontsu zuek eztiak. Zer jende motarekin nahiago dugu bizi, eztekin ala bortitzekin? Senarra bortitza ala eztia nahiago du emazte batek? Aita eztia ala bortitza haurrek? Eztiarekin ala bortitzarekin da bizia goxoago? Ezti izateak ez du erran nahi melenga izaterik. Jesus eztia zen, baina nola ez zen haserretzen behar orduan, hala nola tenploko saltzaileak azote ukaldika bota zituelarik kanpora, haratago erranen dugun bezala.

Zoriontsu gose eta egarri direnak? Ez, ez gaitu Etiopiarra igorri nahi Jesusek, herrialde hori gaitzeko idorteak joa delarik: jatekorik gabe ziren entzuleei ogi eta arrainak eman zizkiela kondatzen digu Ebanjeliok! (Mk 6,35-44) Jainkoaren nahia egiteko gose eta egarri izatera gaitu gonbitatzen. A! Gizon guziek Ebanjelioren arabera bizitzeko gosea eta egarria balute! Maitatzea, barkatzea, herrarik gabe, gorrotorik gabe, mendekiorik gabe, beren burua ahantzirik besteak zerbitzatuz! Zer parabisua litekeen lur hau!

Corputzeko gose eta egarriaz, aski da Elizaren historiari so egitea, lasterka bada lasterka, eta ikusiko da Elizaren ezaugarri handienetarik bat dela hain zuzen, gose eta egarri direnetaz, lurreko ontasunez behartsu direnetaz arduratzea, Jesusi jarraikiz. Zenbat fraile eta serora ordena ez da sortu behartsuetaz arduratzeko! Gaur egun oraino zenbat mila ez dira beren herritik urrun, tokirik lanjerosenetan ari Rwanda, Aljeria, India, Hego Ameriketan etab. Bakar batzu aipatuak dira, noizean behinka... Ellakuria jesuita bezala. Horrelako beste zenbat ez da?

Beti, aspaldiko Jondoni Petri eta Pauloz mintzo eta Katiximako haur batek galdetu dit behin: ‘Zergatik ez da orai ikusten horrelakorik?’ Bai badira gaur egun ere Berri Onaren lekukoak begiak idekitzen baldin baditugu. Nihaurek ezagutzen dut Afrika-

ko misionest euskaldun bat, oren laurden bat etzanik atxiki zuten, harma punta garunean. Baietz bai, aspaldi egina zuela kontrizio-
nezko akta eta lehen izialdura hura pasaturik, lasaitua, joateko
prest. Zer gatik ez zuten hil ez du behin ere konprenitu. Han dago
beti eta oporretara etorri eta beti itzultzen. Zenbat herrialde, ONG
guziak joanak direlarik, misionestak han gelditzen baitira, apez
ala serora. Eta zenbat horrelako, miserian direnen amodioz, Jesu-
si jarraikiz, Berri Onak zerbait onik ekar dezakeela gizonaren
bizian eta segetu hori ezin atxikiz berentzat, herritik urrun joa-
nak! Ez urte bat edo bi 'kooperazio', bainan bizi guzia. Horrela-
koen aipatzeak ez bailezake audimatik, egin! Realeko jokolariaren
ostiko batek askoz ere aipaldi gehiago badu.

Horiek urrunekoak. Hemen ere badira trumilka. Aipatzen
ditugu bestalde, katekista, edo etorkin eta hiesdunetaz arta har-
tzen dutenak...

Zoriontsu urrikalkorrek. Nola ez da xehetasunetan sartu pun-
du honetaz? Barkatzea da gehienik aipatu duen maitasunaren
adarra. «Barkatu gure zorrak, guk gure zordun direnei barkatzen
diegunaz geroz.» (Mt 6,12) Ba ote liteke mundu honetan, hau
bezain hedatua den erranaldi bakar bat, giristino guziek egun
oroz errepikatzen baitute? Jesusen otoitza baita hau. Hain zuzen,
barkatua ez duguno, otoitzik egitea ez duela balio jakin arazten
digu. «Aldarean zure oparia eskaintzerakoan, zure anaiak zure
kontra zerbait baduela oroitzen bazara, utz han zure oparia, alda-
re aitzinean, eta zoaz lehenik zure anaiarekin baketzera. Zato
gero, zure opariaren eskaintzera.» (Mt 5,23)

Guk, barkatu behar dela *erraten* dugu. Afrikako paganoek
egiten dute. Ez barkatzea, ez da onartua hango gizartean. Egun
oroz elgarrekin bizi, kasik bata bestearen gainean beren herrixke-
tan, barkatzen ez balitz, elgarrekilako bizia ezinezkoa liteke.
Beraz hutsik handiena ere barkatu behar da. Eta barkatua den
pundutik, ahantzi: sekulan ez berriz aipatu.

Elozo herri ttipian gertatu zitzaidanaz oroit naiz oraino. Uste
dut lehen aldia zela harat nindoala. Kapera berria egina zuten.

Lurrez eta lastoz. Meza eman nuen, jendeen erdia kanpoan zegoela, denentzat tokia bazelarik barnean. Johan ez zen zerbait bazen non-bait. Zer? Ez nuen jakin ahal izan, ez barnean sartu zirenen gandik, ez kanpoan geldituen gandik. Auzo herrian baitzen aspaldiko giristino zahar bat, 1916an Ghanan bataiatua izana N'Krumahrekin, harekin hitzartu nintzen eta egun batez biak joan ginen herrira. Zuhaitz baten itzalean bildu ginen denak eta bakoitzak bere tripako minak atera ondoan, ongi purgatu ondoan, etorri zen erabakia: kapera eraikia zuen eliza-buruak zuen arrazoi. Kaperan sartu ez zirenek botoila bat arno pagatu behar zuten, baketzearen seinale.

Norbait delako botoilaren eroatera joana zelarik, elgarrekin edateko, giristinoen buruak jakin arazi zuen ez zuela barkatzen eta ez zuela barkatuko. Hark pagatu behar izan zuen botoila. Baina bere hartan tematu baitzen, azkenaren buruan, handik eta zenbait hilabete berantago, lekuak hustu behar izan zituen herri-tik, sekulan ez itzultzeko. Ez zekien barkatzen: ez zen on bestee-kin bizitzeko.

Diapositibak kanpoan pasatzen bainituen, paganoak ere etortzen ziren ikustera. Nagusiaren barkamena ardietsi eta lagun bati barkatu ez zion sehiaren parabola bururatzean (Mt 18,21-35), beti protestatzen zuten, gora-gora: ezin ulertua zitzaien gizon horren joka moldea. Paganoei giristinoei bezala.

Hor daukazue Afrikako beltzen irriaren segeretua. Izigarriko elkartasuna badute beren artean. Haien bizi soziala biziki aberatsa da. Ez dute etxea hesiz inguratuko, nehork ez ikusteko zer pasatzen den etxearen inguruan. Emazteek ez dute gela berezirik janariak egiteko eta jateko. Ate aitzinean prestatzen dute bazkaria. Ate aitzinean du familia guziak jaten. Etxainzina dute jangia. Etxangia baizik ez dute barnean, lo egiteko. Besteekin bizi dira eta ez bakoitza bere xokoan. Elkartasuna eta amodioa familia bereko anai-arrebak dira. Bizi pribatuaren aldetik eskas bat badutela han? Hain segur, bainan bizi pribatuak baino zorion gehiago ekartzen dio gizonari elkartasunak. Bestekin bizitzeko programa-tuak baikara eta ez bakarrik gure zokoan. Hori zaio ahanzten

gure gizarteari. Teknikak asmatu zeretarik soberaxko igurikatzen du eta gizonak eman behar ligukeena bazterrera uzten. Gaur egun 'komunikatzen' da (telefono, internet, SMS...) baina jendeak ez dira ikusten, ez da jendekin mintzatzen. Gorputzeko goseen aseztean kondatzen dugu biziki gehiegi, gogoarena, izpirituarena askoz ere garrantzitsuagoa delarik. Gose hau gizonek dute asezte, ez girgileriek. Baina horrek ez baitio dirurik ekartzen ekonomiarri.

Hasieran aipatu dut errotekilako aulkian zegoen zango motz zoriontsua. Bere zoriona ez zion ematen aulki hark. Filosofiaz betea, bazekien bere hogeit hamar urteak aspaldi iraganik zirela. Baina bere zahartzaroan, hor zeukan familiakoen amodioa, etxeko goxotasuna. Errotekilako aulkia! Zer tresna miresgarria ez du hor asmatu gure teknikak! Zahar etxe batetan, denek ahantzia, amodiorik gabe, aulkia nahi bezainbat perfektionatua izana gatik, ez zuen zorionik gozatuko ordea gizon horrek. Egun oroz telefonoari esker, etxekoekin 'komunikaturik' ere.

Gure zaharrak entzuten direlarik lehenagoko biziaz mintzatzen nostalgiarekin, gauza bera erakusten dute: ez dute xurikiten errekan, neguko ur hotzean egiteaz dolurik ez eta kilometroak oinez lohian ibiltzeaz, baina bai elgarren artean zeuzkaten harreman aberatsetaz, urera joatean ala bideetako ibilaldietan. Bidean oinez zoazelarik eskolara, elizara, merkatura, elizan sartu aitzin eta ondoan, arto biltzen edo xuritzen, ogi joiten... elgarrekin mintzo ziren, elgarren berri bazekiten, elgarren arteko loturak sortzen ziren, indartzen. Bizi sozial bat bazen, biziki aberatsa. Elgar ezagutzen zuten. Gaur egun bere izen-deiturak norbaiti galdetzea bera gaizki ikusi da!

Orain, beribila tiroa bezala badoa bidean; norbait gurutzatzean eskuaren (edo kokotsaren!) altxatzeko denbora dugu doi-doa. Mezatik ateratzean, etxera itzultzeko presatuak gara... Etxekoan arteko harremanak ere pobreak dira. Telebistak baizik ez du mintzatzeko eskubiderik. PPDA, futbola, Frantziako itzulia dira jaun eta errege: haien entzuteko, denek isilik egon behar. Irakeko

berriak beren haurrenak baino hobeki ezagutzen dituzte familia batzutan. Harreman sozialak izigarri murriztu dira. Alta elgarren arteko berotasun hori baitezpadakoa zaigu zorionarentzat. Besteek digute zoriona ematen. Jendek... Ez gauzek. Ez zerek. Ez girgileriek. Karl Marxek zioen erlisioa zela gizonaren opioa, lo-belarra. Gaur egungo lo-belarrak, batere dudarik gabe, telebista eta kirola. Bainan beste lo-belar harek egiten ez zituen makurrekin.

Zoriontsu bakegileak. Gerla garaietan da gehienik senditzen bakearen balioa. Baina bakea bada edo ez da, gure etxeetan ere, gure herrietan, gure elkarteetan, gure lan tokietan. Ez da zorionik etxean, lanean edo herrian, gerla gorrian bizi direnen artean, arma bakarra mihia baldin badute ere. Bakea ez ote da zorionaren ezin baztertuzko baldintzetarik bat? «Gizonen zorionak zu zaitu erroa» zioen Xalbadorrek, bakeari mintzatuz¹⁰¹.

Zoriontsuak zuzentasuna gatik gaizki erabiliak... Nere gatik gaizki erabiltzen zaituztenean, zernahi gaixtakeria erranen dutenean zuetaz nere gatik. Hain da zuzentasuna eskas mundu honetan non norbaitek borrokatu behar baitu zuzentasun horren alde. Norbaitek, erran dut. Sinestedun guziek erran beharko nukeen. Zuzengabekeria jasaten dutenentzat ez da zorionik. Denek badute zorionaren gozatzeko eskubidea. Bainan zuzentasuna izateko borrokatu behar. Eta gogor borrokatu. Borrokan ari denak kolpeak jasanen ditu. Min egiten duten kolpeak. Baina zer zoriona zerbait lortzen delarik! Galdegiezu sindikalistei nolako zoriona ezagutzen duten, borroka luze baten buruan zerbait ardiesten dutelarik langile guzien onetan. Zer zoriona norbait ikusten delarik zuzengabekeriak jasan ondoan, zuzentasunean bizitzen. Hori da *Jesusen gatik* gaizki erabilia izatea: besten amodioa gatik, besten ongia gatik, besten zoriona gatik sofrirituz. «Etsenplua eman dizuet, nik zuei bezala egin dezazuen zuek ere.» (Jn 13,15) Jesusi jarraiki nahi badugu, zuzentasunaren alde borrokatzea baitezpa-

¹⁰¹ Xalbador, *Odolaren mintzoa*, Auspoa, Tolosa, 1989, 250 or.

dakoa da. Nola ez du borrokatu farisauen kontra eta apezzeria falsu baten kontra!

Maitatzea, Jesusen manamendu handia. Aitortuko dizuet *manamendu* hitz hori batere ez zaidala gustatzen. Ama ez da maitate manamendu hori badelakotz, eginbidez, bortxaz. Mutiko batek ez du bere emaztegaia maite lege horri obeditzeko. Obligationez. Maitatzea, naturalki egiten da. Beharrezkoa da bizitzeko, ezinbestezkoa, jatea, edatea, edo hatsa hartzea bezala. Ez gintezke bizi jan gabe, edan gabe, hatsa hartu gabe. Ez da zorionik, maitatu gabe. Manamendu hitzaz beste bat erabiltzeko, bizi zoriontsu baten *legea* da amodioa. Ez Jesusek manatu digulakotz, baina ez daitekeelakotz bizi zoriontsurik izan amodiorik gabe, edo herrarekin. Ez daitekeelakotz bestela izan. Zorion eta amodio hitzak elgarren ganik ezin bereziak direlakotz ura eta bustia edo sua eta beroa bezala. Gauzak horrela direla gaitu Jesusek gaztiazten. Amodioa dela bizi zoriontsuko legea.

Beribila ibiltzeko koda ikasten ari garelarik, irakasleak abisatzen gaitu, ez dela norbait aitzindu behar parean beste beribil bat heldu delarik. Ez dugu horrelakorik eginen, kodeko lege bat delakotz, edo irakasleak manatu digulakotz, edo oraino jandarma bat hor nonbait izan litekeelakotz, baina ikusten baitugu lanjerosa dela. Bideko legea delakotz. Lege bidezkoa. Bizi huntako bideko legea delakotz digu Jesusek erran: «Hau da ene manamendua: elgar maita zazue nik maitatu zaituztedan bezala.» (Jn 15,12) Hain da biziko legea non, jadanik Testament Zaharrean ohartuak baitzitzaizkion. Zepoan hartu nahiz, farisau batek galdetu ziolarik zein zen manamendurik handiena, Jesusek Deuteronomia eta Lebitika liburuak hartu zituen: «Entzun Israel: Jauna, gure Jainkoa, Jaun bakarra da! Maita zazu Jauna, bihotz guziaz, arima guziaz, adimendu guziaz eta indar guziaz. (Dt 6,4-5). Eta bigarrena hau da: Maita aldeko laguna zeure burua bezala. (Lb 19,18) Manamendu horiek baino handiagorik ez da.» (Mk 12,29-31)

Berak ohartuak ez direnei, bizi zoriontsuaren legea amodioa dela jakin arazten die Jesusek. Eta amodio hori ez du ohean

mugatzen gaur egun gehiegi egiten den bezala. Aita-amek ez ote dituzte beren haurrak beste gisa bat maitatzen, bizia haientzat emanaz hain zuzen Jesusek erraten digun bezala? «Maite denarentzat bizia ematea baino amodio handiagorik ez da.» (Jn 15,13)

Bi gogoeta egiten baditugu, ezin uka, bai, zorionerako bidea erakusten digula Jondoni Matiuren bosgarren kapituluak. Denen zoriona kondutan hartzekotan.

VIII

EZ GARA DINOSAUROEN GARAIETAKOAK

Jesus baitan, ebanjelioan eta gaineratikoetan sinesten dugunok ez ote gintezke halere dinosauroen garaietako azken espezi-
men zaharkituak, fosilak izateko bezperan, Fiterotik hurbil dau-
den dinosauro hatz haiek iduriak utziko ditugunak gure giblean,
frailetxe-kulturetze, kapera-musika entzutegi, Eliza-erakustoki
eta abar? Gaurkoak, modernoak izateko ez ote genituzke horiek
denak antikuarioren etxeetan utzi behar? Ezin uka badirela, gibela
ka dauden zozo tonto buzoka edo huntz batzu girela derasatenak.
Askotan trufa eta ironiarekin aipatzen gaituzte, juduetaz egitera
mentura ez litezkeen moldean... auzitegira jaukituak izatea segu-
rra bailukete. Haien marrak ez gaitzatela durduza.

Lehenik erran dezadan, ez gara desagertzen ari diren anima-
le edo landareen erronkan sartzekoak. Emendatzen ari gara. Egia
da sinestea behera doala Frantzia eta Espainian. Bai eta Euskal
Herrian, puntu honetan, abertzale sutsuenak Madril eta Parisek
ideki bidean sartzten baitira tropan, begiak hetsirik, elgarri pusa-
ka, artaldea marroaren ondotik bezala. Francoren garaietan,
Espainiari jarraikiz, Eliza ez ote zen gorenean, Euskal Herrian
ere, itxuraz bederen! Gero marxismoa izan da modan, bere ñar-
bardurekin: estalinismo, leninismo, troskismo, maismo eta beste.
Gaur egun hutsala da moda nagusia, ez bada hutsa: deus ez sines-

tea. Aspaldiko mendeetan gure kontra ari direnei jarraikitzena kondemnatuak ote gintezke euskaldunok? Betirako?

Ipar Afrika izan da luzaz Elizako lur aberetsenarik bat: Jon-doni Xipirine, San Agostin, Tertulien, Bazko egunaren batasuna egin zuen Bittor aita saindua, Gelasio liturgiaren aita saindua eta Melkiade pertsekuzioen bukaera ikusi zuena, seiak afrikarrak dira. Ez da orain giristino bakar bat gelditzen han. Mahomatarren konkistako haize zirimolak eraman du hango eliza, mende bakar batez, maia-tzeko elurra iguzkiaren lehen izpiek urtzen duten bezala. Baliteke hor bi gogoeten gaia euskaldunentzat bereziki, Eliza, ez berbera baina latina izatea baita desagertze horren zinezko arrazoia.

Bide bazterrera erori haziaren gisa, erroak axalekoak zituen Eliza horrek (Lk 8,4-15). Egipto, Siria, Irak eta Ekialde Hurbileko beste herrialdeetako elizek ihardukitzen dute beti¹⁰², nahiz mahomatarren erdian diren, han ez baitzen eliza arrotza, arrotzen kulturaren *errotua*. 2000. urtean Erroman iragan zen Afrikako sinodoa aitzin, hango apezpikuei banatu dokumentu ofizialak¹⁰³

¹⁰² Ipar Afrikan giristino araba edo berbererik ez da. Etiopian aldiz 27 milioi, Egipton 4,2 milioi, Libanon 1,9, Eritrean 1,8, Sirian 1,3, Iraken milioi bat. Mahomatarren erdian galduak. Bainan beti hor. «Une mosaïque d'Eglises», *La Vie*, 2003.04.10.

¹⁰³ «On s'accorde aussi à reconnaître que l'Eglise d'Afrique du Nord ne se soucia pas de traduire la Bible en langue berbère ou phénicienne, ni d'adapter des éléments de la culture locale au profit de la liturgie pour créer une église nationale nord africaine qui aurait été en mesure de survivre à la domination de l'Islam (...) Il semble qu'au moment où la mission chrétienne était à son sommet, les habitants aient eu le même enthousiasme pour la culture latine provinciale que pour la chrétienté. Historiquement l'Eglise d'Afrique du Nord était une Eglise qui se servait du latin, à l'exclusion de toutes les autres langues. Quand le latin disparut plus tard totalement de l'Afrique du Nord, la langue berbère survécut. C'est ici que l'on s'aperçoit de la différence fondamentale entre l'Eglise d'Afrique du Nord et l'Eglise d'Egypte. En Egypte et en Ethiopie, c'est très tôt que la foi chrétienne fut présentée (Bible, Liturgie...) dans les langues coptes et éthiopiennes, même si celles-ci n'étaient parlées que par des minorités. Si l'on avait traduit la Bible et la liturgie en langue berbère, il est fort possible que la chrétienté aurait

ere ohart arazten du, eliza hori suntsitu dela, ez zelakotz herrian errotua. Gauden horretan oraingoan. Ipar Afrikan lehenago bezala, Europan ere desager daiteke Eliza. Bai eta Euskal Herrian.

Afrikatik sartu nintzelarik ber irakurtu nituen ene gazte denboran bazterrak inarrosi zituzten bi liburu: Godin H., Daniel Y., *France Pays de Mission?* (Le Cerf, Paris, 1943) eta Boulard, F., *Problèmes Missionnaires de la France rurale* (Le Cerf, Paris, 1945). Europarentzat ari ziren horiek, Txina edo Madagaskar emanaz eredu, Elizak hemen ere errotu behar duela errateko. Ohidura, erakunde eta beste giristintotu behar zirela. Beti gogoeta egona naiz Eliza ez ote litekeen bat bederaren giristintotzean mugatu, Frantses Iraultzako indibidualismoari jarraikiz Euskal Herrian, errotzeaz arrangura handirik izan gabe. Zerk egiten du euskaldun hemengo Eliza, beste nonbait afrikar edo indio bezala, horrelako nortasuna daukan gure herrian?¹⁰⁴ Mintzairak? Teologo frantses eta espainolen gogoetak euskaraz itzuliak izan dira, tututik edanak gehiagorik gabe. Gure Elizak axala baizik ez dauka euskaldunik.

Tokiko Eliza, presuna baten fedea bezala itzali badaiteke, mundu mailan batere ez da horrela. «Ni zuekin izanen naiz egun oroz munduaren azken eguneraino.» (Mt 28,20) Fedea zabalduz doa gaur egun, historian sekulan egin ez duen bezala. Ez bakarrik heren munduko herrialde *atzeratueta*n. Teknika aldetik mundu guziaren aitzindari diren Estatu Batuetan ere bai, jadanik aipatu

pu survivre en Afrique du Nord, en dépit de l'Islam, comme cela s'est produit en Egypte et au Moyen Orient.» «L'Eglise en Afrique et sa mission évangélicatrice vers l'an 2000», *Synode des évêques. Assemblée spéciale pour l'Afrique*, Cité du Vatican, 1990, 11 or.

¹⁰⁴ «Le missionnaire ne 'francise' pas un Chinois ou un Malgache, il ne l'*européanise* même pas avant de le faire chrétien. Son rôle est de bâtir une Eglise chinoise, une Eglise malgache... cent pour cent divine, selon l'Evangile du Christ et la doctrine de son Eglise, mais aussi cent pour cent humaine, cent pour cent incarnée dans le pays, dans les coutumes légitimes, dans la race: car ce ne sont pas les individus qu'il faut christianiser, c'est le *milieu*, ce sont aussi les institutions, les coutumes, les moeurs.» H. Godin, 20 or.

bezala. Hemen ere jende argituenetan badira fededunak. Fedea ez da batere gibelatuaren ezaugarria.

Estatu Batuei ezin jarraikiz hats bahituak ari diren Asia mendebal ekialde horretan ere goiti doa Eliza. Singapurreko giristinoek %10 baizik ez dute egiten. 300.000 orotara. Bainan zer bizia! Berriki eliza zahar bat botarik ttikiegi izanez, berria eraiki dute, 1600 tokitakoa. Igande oroz zazpi aldiz betetzen da. 5,5 milioi euro gosta zaie eta bi urtez pagatu dute. Ondoan apezetxe berria, hiru solairutan katixima gelak, 500 tokitako gela handi bat ezteientzat. Eta urte oroz 2500 heldu bataiatzen dituzte.

Hemen ere gora doa. Fedearen alde aipatzen dira Abbé Pierre, Teresa Indietako serora, Romero edo Helder Camara apezpikuak eta beste giristino arraro batzuen etsenpluak. Ez ote daude goraxko guretzat? Tourmalet eta Aubisque gainen ondotik, Luz Ardi-den mendateari lotzen diren txirrindulariek ahoa zabalik uzten gaituzte (dopatuak ez direlarik!) gure besaulkian gaudela goxogoxoa, erroradino sartuak: haiek bezala egiterik ez zaigu gogoan pasatzen ere! Ez ote da gauza bera gertatzen eredutzat ematen dizkiguten goi mailako giristino horiekin? Hain dira gora non, miresten baldin baditugu, ez baitigute haiei jarraikitzeo gogorik ematen: bide hori ezinezkoa zaiku. Sinestearen sailan gutarik hurbilago dauden besterik ez ote liteke? Gure heinekorik? Haiei jarraikitzeo gutizia ematen ahal liguketenik?

Ez naiz batere militartzalea. Baina errespetua zor diot Bosniako egun beroenetan, NBEko soldadoen buru, bakearen alde lan handia eginik, mundu guzian ezaguna den Philippe Morillon jeneralari. Gerla hortatik etxera itzuli eta idatz zitzakeen bere oroitzapenak eta liburua harrapaka erosia izanen zen. Garai haietan zuen omenaz baliatu nahi izan du bere fedearen lekukotasunaren emateko *Ene sinestea* liburua idazten zuela.¹⁰⁵

¹⁰⁵ «J'ai décidé de ne plus revenir sous les feux de la rampe que pour porter témoignage de mes engagements de foi, de vie et de métier, et de la joie qu'ils m'ont apportée.» Général Morillon, *Mon Credo*, Presses de la Renaissance, Paris, 1999, 17 or.

Bere fedearen lekukotasuna eman duen besterik ere bada. Uste ez den tokian. Begiak zabaltzea aski da horien ikusteko. Baina salmoak aipatu jainko aizuna iduriak gara: «Begiak ba eta ez ikusten.» (Sal 115,5) Mundu guzian famatuenak izan diren kantari taldeetarik bat dugu Beattles taldea. Talde horretakoa zen George Harrison. Hil delarik etxe aitzinean zain zeuden mundu guziko kazetariei ageri hau eman zien haren alarguntsak: «Mundu hau utzi du, bizi izan den bezala. Jainkoa gogoan, heriotzearen beldurrik gabe, etxekeok inguratua, lagunaren amodioa gomendatuz». Futxo! Ez da hain gaizki bilo luze batentzat! Bere bizian jastatuak zituen fama, emazteak, dirua, eta diruak eman ditzakeen guziak. Baina beharrenerat itzulia zen bidaiaria luze horren buruan. Esperientzia horiek denek Jainkoaren ganat eraman zuten azkenean. Eta ez zen solas ederretan mugatzen. Hala nola Bengla Desh-eko gosetearen kontra emanak zituen, disko baten irabazi guziak. Besteak beste. Eta horrelakoaren disko batetik ateratzen diren mozkinak ez dira bi soseko bat.

Beattles taldearen ondotik, Rolling Stones dugu orain gorenean. Hauen kantaria, Mick Jagger. Gure gazte guziek ezagutzen dute. Ohartu ote dira bere azken diskoko kantu baten tituluari? «God gave me everything», Jainkoak eman dizkit denak. Disko hori plazaratu eta *France Soir* Pariseko egunkariari egin elkarrizketan zioen: «Erlisionea biziki garrantzitsua da niretzat. Ez banaiz ere egun oroz elizara joaten, han ibiltzen direnen ganik hurbil senditzen naiz.» Ez daiteke beraz erran fedea, moda zaharreko jendeentzat baizik on ez den gauza zaharkitu batentzat daukala.¹⁰⁶

Beste ingeles bat oraino, Peter Gabriel. Honen lehen albuma *From Genesis to Revelation* Elizako CD-en artean emana izan da saltegi askotan. Honek ere ez du bere fedearen aitortzeko ahalge-

¹⁰⁶ Patrick Cabanne, «Mick Jagger sur le divan», *France Soir*, 2001.11.20, 20 or.

rik. «Norat jo jakin gabea durduzatua naizelarik, Jainkoa otoizten dut neretzat eta nere familiarentzat, girixtinoen Jainkoa... Nire bizian espiritualitate gehiago sartu nahi nuke.»¹⁰⁷

Mundu horretako azken bat ere aipatu behar dizuet. 2001ean iraileko 11ko atentatu hark inarrosi zituen, beren buruaz hain segur ziren amerikanoak. Gazteak barne. Ezin hunkiak zirela uste eta hona non ohartzen diren zein hauskorra den beren indar neurrigabea. Beren buruaz dudan egonki eta beren jainkoetarik bat den Bruce Springsteen rokeroen Top-5eko kantariari eskatu zioten disko bat amerikano gazteek, berriz kuraia hartzeko. Atera du delako diskoa: *The Rising*: (Zuti!) 13 kantu orotara.

Hona zer dioen «Gizon ez deusa» bosgarren kantuan:

*«Ni baizik ez naiz Jauna.
Otoitz egizu indarra izan dezadan.
Gure zortea zure eskuetan da Jainkoa.»*

«Nire herria suntsitua» azken kantuan:

*Esku hauekin otoitz egiten dut Jauna
Otoitz egiten dut Jauna indarra izan dezadan
Esku hauekin otoitz egiten dut sinets dezadan Jauna.
Otoitz egiten dugu Zure amodioarentzat Jauna,
Otoitz egiten dugu galduak direnentzat
Otoitz egiten dugu mundu honentzat
Otoitz egiten dugu indarra izan dezagun Jauna»¹⁰⁸*

¹⁰⁷ Dans les moments de panique, je prie Dieu pour ma famille et pour moi-même, le Dieu des chrétiens. Je ne sers pas Dieu tel que l'enseigne l'Église. C'est peut-être de la paresse, mais je ne le crois pas. Quand je fais de la méditation, j'ai ensuite l'impression que je peux mieux servir. J'aspire à plus de spiritualité dans ma vie». Sébastien Maillard, «J'aspire à plus de spiritualité dans ma vie», *La Croix*, 2003.12.

¹⁰⁸ The Rising CD, Columbia 2002.

Lehenago ere aitortua zuen bere fedea kantuen bidez. «The Ghost of Tom Joad»-en entzunen duzue:

*«Zer gara
Egun batez Jainkoaren ur benedikatuak edanen
Eta mahastiko frutuak janen ditugulako
Esperantzarik ez badugu bihotzean.
Badakit amodioa eta zoriona nereak izanen direla
Nonbait, mugaz bestaldean.»*

Blood Brothers CDan berriz:

*Jainkoa otoizten dut indarra eman diezadan,
bai eta sinestea besteen gan.*¹⁰⁹

Kantu hauk, kantika hauk erran beharko nuke, ez dira Gabriel Lertxundi beneditarrak idatziak bainan munduko gazte guziek, giristino ala mahomatar, budista ala ateo, begiak zuri-tuak, ahoa zabalik begiratzen dioten kantari batek. Eta dozena eta dozena milaka hor dauzkalarik bere aitzinean, batere ahal-gerik gabe, bere fedea aitortzen die Los Angelesetako Coliseum-etik Parisko Bercy-ra, New Yorkeko Madison Square Garden *katedraleetan* gaindi. *Born in the USA* CDa 30 milioi aletan saldu du, Columbia etxeko salmentarik handiena. Bost milioi entzule izan ditu, munduan barna CD hau argitaratzearekin egin kontzertuetan.

Hau ere ez da hitzetan mugatzen. Obrak hor dauzka. Urte bakar batez, 1985ean, milioi bat eta erdi dolar eman ditu langabeen aldeko elkarte eta gisa bereko erakundeentzat. Dirua badaukala! Egia handia. Dirua daukan besterik ere bada. Aipatu ditugu. Zenbat ematen dute?

¹⁰⁹ Hugues Barrière, *Bruce Springsteen*, Libro Musique, Flammarion, 2001, 68 eta 81 or.

Badakit artista guziak ez direla kasta horretakoak. *Los Angeles Times* egunkariak kondatzen zuen 2003ko Eguberriren kariatara, nola Hollywoodeko artista batzu aritzen ziren *obra onek* antolatu ikusgarrietan... agerraldi hori ongi pagaraziz. Hala nola batek Jet pertsonal bat eskatu zuen, bere gustuko haragia jatera joateko Kanadara! Bi artista mota hauetarik zein nahiago duzue?

Pasa gaiten kirolarietara. Lehenik futbolariak. Brasildarrak belauniko ikusten dira zelai erdian, otoitzean, telebistaren bidez begira dagozkienak ehun milioika kondatzen direlarik. Sorginkeria ote? Ez dakit zer daukaten gogoan. Horietarik bat aipatuko dut. Madrilgo Realaren kondu ari den Roberto Carlos. *L'Equipe-Magazine* kirol munduko astekariak elkarrizketa bat egin dio: «Jainkoa ene baitan dago. Bizian, futboleant bezala, zerbaiten ardiesteko, eman behar da, Jainkoaren dohainen gai izan nahi baldin bada... Egia da futbolari handi baten oroitzapena utzi nahi dudala, bainan oroz gainetik, gizon on eta zuzenarena.»¹¹⁰

Horra zer atera dion, ahoan bilorik gabe, kirol kazetariari, munduko futbolari famatuenetarik batek. Ezin erran Jainkoa baitan sinestea gauza zaharkitutzat daukanik edo denen aitzinean bere fedearen aitortzeko ahalge denik. Solasen araberrako obrak honek ere: Madrilgo ospitaleetan dauden haurren ikustera joaten da, Carlos, munduko gizon ospetsuenetarik den hori. Sorginkeriaz edo superstizioz dela uste ote duzue?

Edmilson Lyongo atezainak dio lagun batek gomiturik Biblia irakurtu duela: «Ohartu naiz Jainkoak ematen duela bakea, lasaitasuna, amodioa, bozkarioa. (...) Jainkoaren seme bakarra den Jesus baitan sinesten dut.» Bere gunea badu interneten.

Richard Dutruel Bartzelonako atezainak: «Fedea aurkitu dut. Brasildar lagunak handitzen lagundu naute eta aste oroz Biblia irakurtzen dugu elgarrekin. Fedeak oreka bat ekartzen dio nire biziari.»

¹¹⁰ *L'Equipe Magazine*, 839 zk., 1998.11.09.

Futbola hegoaldekoa da baina Iparraldeko futbolari bat dut gogoan: Christian Saramagna. Saint Etienneko ekiparekin hiru aldiz Frantziako txapeldun izana, Frantziako hiru kopa irabaziak, Txapeldunen Europako kopan final bat, final erdi bat eta final laurden bat jokatuak, entrenatzaile da orain Baionan eta ekipa xume hau eraman du Frantziako kopan final laurdenera. *Sud-Ouest* egunkariari deklaratu dio: «Ene segetua: Fedea. Egun guzietako bizian baitezpadakoa zaidan zerbait.»¹¹¹

Interneten trebe ez bazarete ere, Google ateratzeko doia bazarete. Sar hor Michael Chang. Bere gunea badauka. Lehen orrialdean ikusiko duzue tenislariaren argazkia eta gunearen aurkibidea. Orrialde zolan: «Badakit segur, zuen baitan lan ederra hasi duenak, bururadino eramanen duela, Jesu Kristo berriz agertuko den arte.» (Fel1,6) Zer deabru ari da Jondoni Paulo Michael Changen gunean?

Pasa gaitezen bigarren kapitulura: Chang fundazioa. Zein obra on laguntzen ote du mundu osoan ezaguna den tenislari famatuak? Zure sagutxoarekin klikatzen duzu Fundazioa hitza. Bi lerrotan ikusiko duzu fundazioaren helburua: Jendea Kristoren gana erakartzea kirola baliatuz etorbide bezala, jendek zerbait entzun dezaten giristino fedez. Erromako burulehenak berak ez zukeen hobeki erranen. «Egun oroz otoiz egiten dut eta Biblia irakurtzen.» Zuk ere bai irakurlea?

Munduko txapelduna 1 Formulan, Mika Hakkinenek bederlatzi sari handi irabazi ditu: «Konda dena ez da gure emozioak, bainan duela 2000 urte Golgotan gertatu dena. Horra zeri lotu behar zaion.»

Horiek denak telebista-kazeten bidez ditugu ezagutzen gutarik gehienek. Ez nagoke kazetarien munduko izen bat eman gabe. Frantz Olivier Giesbert, Frantzia guzian ezaguna: *Le Nouvel*

¹¹¹ «Mon secret, ma foi. Quelque chose d'essentiel dans ma vie de tous les jours.» Rémi Monnier, «La vie devant lui», *Sud Ouest*, 2003.11.29.

Observateur, gero *Le Figaro* eta orain *Le Point* astekariaren zuzendari, hots, kazeten munduko titulu ospetsuenetarik hiruren arduradun izana. Tipitik beti sinetsi du Jainko bat badela eta sineste hori ez du behin ere dudan eman. Ez du sinesten mundu hau «uste gabetarik» sortu dela, *Panorama* aldizkariari erran diot naz.¹¹²

Auzoko salda etxekoa baino hobea zelako, ñapurraren ñapurrez pentzetik larrera pasatu ardiaren historiaa ederki aipatzen du Denis Tillinac-ek: saiakera asko eta asko egin ondoan eskuin eta ezker, ez zuela bere oinaren neurriko zapatarik nihon aurkitu, ez bada fedea, erraten duelarik.¹¹³

Zientzia munduan ere izan dira eta badira giristino kartsuak: Copernic, Galilée, Descartes, Leibniz, Newton eta abar. Sinestun nahiz makil ukaldi ederrik bildu duten zenbaitek Vatikanotik, lehenago ere izan baitira beren burua egia osoaren jabe bakartzat zeukatenak! Zientzialari ala idazle, jakintsun ala herritar xoil denak maila berean Jainkoaren ezagutza eta amodioari doakio naz.

Berrogeita hamar urtetan joan zaigu Andolin Eguzkitza euskaldunberri euskaltzaina. Euskaraz gain mintzo zituen espainola,

¹¹² «Je crois que j'étais chrétien dans le ventre de ma mère. La foi est pour moi de l'ordre de l'évidence. Je ne suis pas un croyant qui doute et je n'ai pas d'angoisse par rapport à la question de l'existence de Dieu (...) J'ai grandi avec la conviction que le monde n'était pas le fruit du hasard et que Dieu est partout. Je n'ai jamais remis en question cette foi avec laquelle je suis né.» Bertrand Révillon. Franz Olivier Giesbert, «Dieu pour moi est une évidence», *Panorama*, 2003-1, 26-32.

¹¹³ «J'ai été comme tout un chacun le jouet de désirs capricieux et d'illusions avortées. J'ai nourri des suspicions majeures sur la morale et la politique; l'avenir de l'engeance humaine m'a paru sujet à toutes sortes de cautions. J'ai forcé l'amour dans ses pires retranchements (ses meilleurs aussi) et j'ai essayé maintes métaphysiques comme on essaie des chaussures dans un magasin, sans jamais trouver ma pointure. Pour autant, je n'ai jamais perdu la foi en Dieu. Egarée parfois, oubliée souvent, toujours récupérée sans contraindre ma nature.» Denis Tillinac, *Op. cit.*, 23-24 or.

frantsesa, alemana, inglesa eta arabea. Teologia ikasten ari zen azken urte hauetan eta, gauza bitxia, denak dakizkiten kazetolari hoietan bihi batek ez digu horrelakorik salatu! Egia erran, haren ehorzketetan meza bat izan dela ere ez du erran *Berria bere* kazetak, dedikatu dizkion sei orrialdeetan.¹¹⁴ Futbol partida bat aipa lezakete baloia eta kirolariak badirela ere erran gabe! Dena den, hil baino zenbait hilabete lehenago *Hemen* aldizkariari erraten zion, gaztetan Elizatik baztertu zela, bainan geroago itzultzeko eta praktikatzeko. Galdetu diotelarik erlasioak ba ote zuen zer erran mundu honetan, erantzuna izan du «batere dudarik gabe. (...), Agindutzat maitasuna duen kristautasunaren muina, zorion iturburu segurua (da)». ¹¹⁵ Hain zuzen, liburu honetan erraten duguna.

Euskaldun guziek ezagutzen dute Xabier Lete. *Gara* egunkariari, (eta dakizuen bezala, hau ez da apezpikutegetiko aldizkari ofiziala!) erraten zion bera ere Elizatik urrundu zela gero itzultzeko. Otoitz egiten duela. Artikuluaren titulua: «Erlasioarekiko kezka itzuli nintzen orai hamar urte.»¹¹⁶

Zerrenda luzatzen ahal nuke. Aipatzen ahal nituzke gure parropietako katekista, irakurle, gazte animatzale, lizeotako apezorde eta Apokalipsiak *ezin kondatuzkoak* deitzen dituen horiek denak: ur xirripak oro handira, erraten zuten lehenago. Bainan izen horiek aski dira erakusteko sinesdunak ez garela desagertzeko bidean dauden azken mohikanoak. Ez garela menskila zenbait. Emazte uli edo gizon tresna, gure gisako tetele zenbait. Munduko gizon famatuenetan, argituenetan badira sinestunak. Gure gazteen jainko ttipietan ere bai. Jainko handiari buruz begiak altxatzen dituztela deplauki aitortzen dutenak. Gauza bera egitera gomitatzen gaituzte.

¹¹⁴ *Berria*, 2004.03.

¹¹⁵ *Hemen*, 2004-1, Lekukoak, 76-78.

¹¹⁶ «Erlasioarekiko kezka itzuli nintzen», *Gara*, 2002.02.29.

Bainan ez ditut maila goragokoak gutietsi nahi: Terexa Indietako serora, Emmanuelle Egiptokoa, abbé Pierre, Romero edo Helder Camara apezpikuak, Nobel saria irabazi duten Rigoberta Mentxu, Martin Luther King edo Desmond Tutu, baina geroago aipatuko ditut.

IX

ZERGATIK JOAN ELIZARA

Igandetan mezara joatea eskatzen die giristinoei Elizak. Ez ote gintezke giristino on izan batere elizara joan gabe, han ematen diren prediku aspergarri eta estralurtarrak entzutera bortxatuak izan gabe? Inkarnazio fedearen izenean, gorputz bat hartu duen Jainkoaren izenean, prediku estralurtarrak entzuten baitira. Zenbait apezek nahi lukete Jondoni Joani bezainbat izan, ahantzirik hain segur San Mark dela Jesusi... bai eta jende xeheari hurbile-na gelditu den Ebanjelio idazlea. Konpara bagenitza lehen hiru Ebanjelioak elizetan entzuten diren prediku zenbaiti, edo gure apezpiku-kardinalen gutunei! Apezpiku batek berak aitortzen du nolakoa den beren ohiko estiloa... utzi duen pundutik¹¹⁷. Axala gaingainetik landua, hainbestetaradino non, baiaren azpian, eza ulertu behar bailiteke! Zenbat ez dira mintzo *bak + 10* dute-

¹¹⁷ «Laissant de côté les savants balancements, les distinctions habituelles et les nuances désirables, ce que St Paul appelle la sagesse du monde, je me suis exprimé de façon plus incisive, plus percutante. Il s'agissait de ma part, d'une objection de conscience, d'une protestation de ma conscience d'évêque devant les silences et les non-dits de ces dernières années, devant la dénatura-tion progressive de l'Evangile, de la vie chrétienne et de l'Eglise à partir d'éléments non critiqués.» G Matagrin, *Op. cit.*, 342 or.

nek baizik ulert ez dezaketen erdara hetsi batetan?¹¹⁸ Noiz ikasiko dute bada San Markek bezala mintzatzen, Oihanburuko Manezek ulertzeko gisan, apokalipsiaren bidetik ibiltzeko partez? Apokalipsia dute gustukoena sekta guziek. Bosgarren mendean Arles hiriko Cesaire-k apezpikuei gomendatzen zien jende xoiletara joan zitezen, eskolatuen mintzaira hetsia bazterrera utzirik.

Igandetako meza horrek baditu arrazoin bat baino gehiago. Juduak sinagogan biltzen ziren astean behin. Jesus bera ere bai (Jn 18,20), batzutan hark zuela Biblia irakurtzen eta bere gogoen berri ematen, hots, predikua egiten. Ez bide zen beti denen gustukoa (Lk 4,25)! Apezen kontsolagarri! Elgarrekin entzuten zuten Biblia eta elgarrekin otoitz egiten. Egia da, Bibliaren irakurtze ala otoitz, horiek denak egin ditzakegula bakoitzak gure ber, nork bere xokoan, denek baitakigu irakurtzen orain. Jesusek ere gomendatzen digu hori: «Otoitz egiteko, sar zaite zure gelan, hetsi atea, eta egizu otoitz gordean dagon zure Aitari.» (Mt 6,6)

Lehen, egun oroz egiten zen arratseko otoitza, familia guziaz sukaldean bildua zelarik ohera joan aintzin. Non egiten da hori orai? Zenbat dira bibliotekako xoko batetan daukaten Testamentu Berri hura artetan idekitzen duten giristinoak? Liburu hori batera baldin badute! Zenbat dira gaur egun, Jainko bat badela bera, gogoan pasatzen dutenak, astean behin edo beste, elizako urratsetarik kanpo?

Ez dut uste igandetako urrats hori debaldetan asmatua izan den. Elizako ohidura zaharrena da. Jesus piztu zenetik, igandearrekin biltzen ziren apostoluak, Tomasen bi gertakariak erakusten diguten bezala. (Jn 20,19-29)

¹¹⁸ «Contrairement aux pharisiens, le Jésus des Evangiles n'argumente pas, et se garde de déduire et de conceptualiser. Ce n'est pas un scribe. Il donne un enseignement de rue à des gens de la base, oralement et sans façons. Il parle par paraboles et proverbes de la vie de tous les jours. (...) Si vous voulez captiver, n'écrivez pas un bouquin de philo, racontez une belle histoire. (...) 'Faire image', cela apporte un plus de sens dans un moins de mots.» Régis Debray, *Op. cit.*, 169,170 or.

Astean behin bederen Jesusekin bat egiten dugu haren hitza entzunez eta komuniatuz. Astean behin bederen otoitz egiten dugu. Astean behin bederen mundu huntako tarrapata, arrabots eta burrunbak utzirik gelditzen gara eta bi gogoeta egiten. Elizako isiltasunean: «Jainkoa ez da ekaitz edo lur ikaren karrasketan aurkitzen, bainan goiztiriko haize goxoan.» (1 Erg 19,11-12) Jaun erretoraren predikua ez bada ere beti goi mailako haietarik, gehienetan zerbait onik atera dezakegu hain segur eta gutienez Bibliako bi edo hiru irakurgai entzumen ditugu. Eta horiek baitezpadakoak dira gaur egun, goizetik arras publizitate guziek sakatu nahi liguketen zorionerako bidez besterik badela oroitzeko: Jesusek erakutsi digun bidea.

Baitezpadakoa zaigu oroitzea *ase eta lo*, aski bada abendora-ko gizentzen den bortako bargoarentzat, gizonak besterik behar duela. Gaingsbourgek kantatzen zuen «sea, sex and sun» hura baino gehiago denik ere. Zenbaitek diote larrikiago (salbu suek eta!) «bronzer, bouffer, baiser, l'idéal des 3 B.» Gizona ez da ogiz bizi bakarrik (Mt 4,4) beste goserik ere badu. Baitezpadakoa zaigu astean behin bederen *puntua* egitea. Bidean doan ontziko mariñelak itsasoa jabal-jabala delarik ere egiten duen bezala. Eta gure itsasoa ez da hurbiltzekorik ere jabala.

Aste guzietako egun guzietan beste katiximarik ere entzuten baitugu. Tai gabe! Eta nolako katixima? Patick Lelay TF1, Frantziako telekate nagusiko zuzendariak idatzia du, bere lana, Coca-Colari gizonen burumuinak saltzea dela. Bere lana dela biltzen dituen entzuleen gogoak, publizitatea iresteko gai egitea. Gure burumuinak saltzen ditu beraz Heletako feirian astañak bezala, gu ohartu ere gabe.¹¹⁹ Eta zuk uste zinuen zuri denbora goxo baten pasa araztea zela telebistaren helburua! Beren helbu-

¹¹⁹ «Le métier de TF1 est de vendre du cerveau disponible à Coca Cola . Nous vendons à nos clients une audience de masse, un nombre d'individus susceptibles de regarder nos spots publicitaires.» *Telesrama*, 2004.09.

ru horrekin, zer ez digute sakatzen! «Lehenago Afrikan beltzak ziren saltzen» diro Manex Pagolak bere kantu batetan¹²⁰. Orai burumuinak beraz. Modernizatu gara geroztik. Aurreratu. Zibilizatu.

Beste milen artean aipatuko dut egun oroz arratseko 8etan, 45 minuta irauten duen katixima. Telebistako Berriak. Zer ikusten dugu? Ministro batek milioi bat eman diola Marseillako hiriak parean ukanen duen ekipako futbolari bati, bere ekipa galtzen *lagundu* dezan. Frantziako Itzulian munduko txirrindulari handienetarik bat dopatua dela. Sydneyko joko olinpikoetan, hamar kirolaritarik zortzik gutienez erremedioak hartzen dituztela asmarren kontra! Atlantako jokoetarik Sydneykoetara asmak joak diren kirolari horien kopurua %50ez goititu da!¹²¹ Gogoeta zaude, nolaz izaten ahal diren munduko kirolari handienetan, hatsa kentzen dizun eritasun horrek joak direlarik.

Oroitzen zara duela zenbait egun, irrati nazionalean entzun duzula Frantziako itzulia egina duen txirrindulari batekilako elkarriketa: dopatu diren txirrindulariak desintoxikatzeke Alpe-setan finkatu eritetxe berezi hartarik mintzo zen. Diru gehienik dutenak Ameriketara joaten dira artamendu horren egitera. «Dopatzen ez bazara, ez zara besteei jarraikitzen ahal,» zioen boza aldatua zioten txirrindulariak. Goi mailako 1.200 kirolari desintoxikatzen ari dira Frantzian, gaur egun. Gobernu frantsesak dopinaren kontrako komisioren buru izendatua eta urte bat gabe, Jean Paul Escande medikuak bere kargua utzi zuen, argi ikusirik nehork ez zuela egia jakin nahi: urxuria baizik ez zen ikertu behar, denek bazekitelarik droga gehienak ez zirela urxu-

¹²⁰ Manex Pagola, *Biziaren altzotik*, Baionako Euskal Erakustokiaren adiskideak, Baiona, 1988, 155 or.

¹²¹ Jean Luc Ferre, «Les coureurs peuvent-ils tout prendre sans ordonnance?», *La Croix*, 2001.07.26.

rian agertzen.¹²² France Inter irratian entzuna dut dopinak 4.000 milioi euro sartzen dituela gutienez munduko ekonomian urte bakoitz. Xikanatzea, jukutria egitea, gezurrez aritzea, helburua lortzeko bide *normalak* dira gaur egun. Ekonomiari zerbait ekarzen diotenaz geroz... Lau mila milioi euro!

Ez uste izan txapeldunen mundu hertsu hartan mugatzen denik: Landesetan gizon bat hil da, honen semearen kontra tenis-ean partida arrunt bat irabazteko, kontrakoaren aitak botoila urean temesta erremedioa sakaturik. Eta semearen partez aitak edan. Uste baino gehiago. Hamabosna urte zuten bi gazteek.¹²³

Baina zure gogoetak utzi behar dituzu, astirik ez baitizu emanen leihatilako kalakari hark. Harrigarria! Bush, Blair eta Aznarrek gezurra zioten, baizik eta arma suntsigarriak bazituela Saddam Husseinek. Gerla egiteko estakurua baizik ez zuten hori. Eta irakiarrak milaka hilak (erailak) izan dira: ehun mila gutienez, amerikano talde baten arabera. Irakiarrek berek erailak bestalde! Beren herria suntsitua izan da, gezur horri esker. Ez daiteke hain gertakari handia, ondoko gaiera lasaiki pasatzen baita kazetaria.

Jakin arazten dizu 400.000 jende dauzkan Grenoble hiriko auzapez ohia, departamenduko alderdi-buru hautatu duela, UMP, Chirac lehendakariaren alderdiak. Gogoeta zaude ez ote zen gizon hori bera lau urte preso egona berriki, hiriko auzapez zelarik, denen dirua bere sakelan emanik. Bi soseko bat baino gehiago

¹²² «Oui le dopage est généralisé dans le sport de compétition (...). Non, les dispositifs dits de lutte actuellement en place ne permettent pas de se faire seulement une idée correcte de la situation.(...) Oui il existe un consensus réel pour faire semblant de faire de la lutte antidopage et le consensus va du sportif au supporteur en passant par les yeux grands fermés des autorités de tout poil, sportives, administratives, politiques.» Jean Paul Escande, *Des cobayes, des médailles, des ministres*, Max Milo, 2003, 166 or.

¹²³ Benevent Tossieri, «L'étouffante pouponnière du tennis», *La Croix*, 2003.08.06.

hain segur! Lau urte presondegi ez baitute horrela eta horrela ematen jujek. Txirrindula bat ebatsi duen ile luze petentatsu bati, paso, baina maila horretako gizon politiko bati!

Zeure buruarekin ari zara, haren lekuan, presondegitik atera eta mendiko zoko batean gordeko zinela. Bere burua aurkez dezan kargu horretarako, gauza bat dela, baina alderdiko militanteen gehiengoak botoa hari eman diezaion, elurra bezain zuri balitz bezala, besterik dela... Are gehiago Frantziako giderrak eskutan dauzkaten alderdiko buruek.

Zure gogoetak eten beharrean zaude berriz ere, zeren eta delako leiho hartako gizonak ez du gogoetarik egiten, ez du komentariarik egiten. Haren lana berrien ematea da, berriak berrien gainean eta beste berri batetara pasatua da artean. Hona ELF petrolio konpainiako auzia: eguneko hostokada. Odolik isurtzen ez duten ohoin *garbiak*. Lapurketa *zibilizatuen, moderno*en ereduak. Afrikan tratu bat irabazi nahi duen industriariak zenbait milioi eman ditzake azpiz hango arduradun bati. Rivoli karrikako bulego batetan deklaratzeari aski du eta ez du arazorik izanen hemengo zerga etxearekin. Legez xuritua izanen da.¹²⁴ Horra nola egiten diren *contrats du siècle* famatuak... ekonomia-
ren garapenerako.

Telebistako gizon hura ari da beti, erran eta erran, eta horrelako ezin isilduzko ortzi karraskek beharriak tutaturik, horrelako berriek lepo zintzurreraino aserik, gohainditurik, telebista itzali eta irratia pizten duzu.

Emazte boz goxo bat ari da solasean Parisetik, telefonoaren beste puntan, han nonbait Frantzia behere horietan den emazte batekin. Bozaren arabera, oso gaztea. Etsitua da giza gaiztoa. Gizon bat maite du. Bere ohera biltzen du bai, batean astean

¹²⁴ «Par ce biais, le Trésor finance une partie des commissions occultes. (...) Une usine clés en main dont le prix est de 100 millions de dollars, en aura 10 de pots-de-vin...» Pierre Péan, *L'argent noir*, Fayard, 1988, 18-19 or.

behin; bestean hilabete bat igurikatu behar. Nahiko luke osoki beretu, bainan ezin. Noizbait aitortzen du delako gizon maitea ezkondua dela. Bere emaztea zinez maite duela, nahiz tronpatzen duen beraz noizean behinka. Handik eta zenbait minuturen buruan ikasten dugu bi urteko haur bat ere badutela. Beha zaude irratiko boz goxo hark noiz erranen ote dion, jadanik ezkondua denaz gain, lehen emaztea maite duenaz gain, haurra maite duenaz gain, utz dezan gizon hori eta beste bat bila. Gutienez haur ttipi hori ez dadien betikotz, edo aita edo ama etxean ukan gabe bizitzera kondenatua izan. Bainan ez. Behin ere ez dio horrelakorik erran irratiko aholkulari atrebituak. Bi emazteen arteko lehiaketa hori, haurraz kondurik hartu gabe, kirol mota berri bat izan behar ditake gaurko mundu honetan.

Lehen neska hori utzirik, irratiko anderea hasten da beste entzule batekin. Honek urratsa egina du. Senarraren gandik berezia da. Menturaz batere ez da arrazoinik gabe baina ez dira xehe-tasunetan sartzen. Haurra du partida honek. Haurrak ezin konpreni nolaz ez dituen, aita eta ama, biak gozatzen ahal. Batekin delarik, bestea falta. Bestearekin delarik, lehena falta, Bixintxo eta Dominixe eskolako bi lagun minek egun guzietz berekin dituztelarik beren aita-amak, biak. Zer erran haur horri? Irratiko andere argituaren arabera, haurrak behar du konprenitu amak bere bizia egiteko eskubidea baduela. Bere zorionean loratzekoa. Haurrak ere ba ote duen bere zorionean loratzeko eskubiderik ez da aipatua izan. Amak aldiz ba, badu egun guziz gizonaren gozatzeko eskubidea, biak elgarrekin, hori ba. Itxura guzien arabera, haurrak ez du egun guzietz bere aita amen gozatzeko eskubiderik, biak elgarrekin eta ez aldizka. Haur batek ama galtzen badu istripu batetan, izigarrikeria. Dibortzio baten ondorioz delarik, gauza normala. Gehiagokorik gabe egin daitekeena. Ez da abiadura 50etan mugatua delarik beribilez 55etan ibiltzea baino huts handiagoa.

Hirugarren solaskide batetara pasatzen da. Gizon bat aldi honetan. Banko batetako enplegatu, ibiltzen da batean Bordalen,

bestean Tolosan, gero ez dakit non, zenbait egun irauten duten ikastaldiak egiten, jana eta loa hotelean bankoaren kondu. Haren lagun guziek neska bat hartzen dute gauaren pasatzeko. «Neska ala urrixa» pentsatzen duzu. Baina honek, emaztea maitte du eta ohaidetik gabe egoten den gizon bakarra da. Certatzen zaio gogoeta aritzea ez ote duen bitzi aire bat, batere normala ote den.

Irratsaioko andere mintulinak egiten dion predikutik ateraldi bat baizik ez dezagun har, hitzez hitz zioen: «Gaur egun, ezkondua denak, beste emazte bat ere izatea *norma* da.» Ez dakit zer konprenitu duen gure gizonak hariaren beste puntan, baina ez da dudarik: delako irratilari jakintsunarentzat, bai, normaz kanpoko da, a-normala. Ez da dudarik bitzi aire bat baduela. Ez bada elbarritua! Haurra nintzelarik behi susara erematen genion Gattutegi-ko zezen hark egiten zuen bezala, ikusi behi guziak gainkatzea ote liteke amodioa? Edo nire auzoko labri zakur kotzoak bezala, bidean kurutzatu ohara guziak gainkatzea?

Zaping egiten duzu. Berrien tenorea da beste irrati honetan. Chanteloup les Vignes izen poetikoa daukan Paris ondoko hirian dotzena erdi bat mutiko auzitan dira: 17 urteko neska bat bildu dute beren saretarat, etxe bateko sitora eraman eta aldizkatuz, bata bestearen ondotik bortxatu. Auzitan dira. Denak, baina denak gero, harrituak nolaz izan diren auziperatuak. «Gaizkirik egin ote dugu? Mutikoak neskekin etzatea ez ote da gauza normala? Ez ote da gizon eta emazte guziek egun oroz egiten dutena? Ez ote da plazer bat, gizon ala neskeentzat? Plazerra ez ote da zorionaren baitezpadako baldintza? Ez ote ditugu egun oroz horrelakoak ikusten telebistan? Neskak ez zuela nahi? Baina telebistako neska guziek ez dutela nahi erraten dute. Zer dute bada polizia eta juje txar horiek gure kontra mendekatzeko? Gazteen kontrako arrazakeria!» Ez dira batere arrailerian ari. Beste *norma* batzu dira haienak. Bakoitzak bereak aukera ditzakeen pundutik... *Nor* dira beste norma batzu inposatu nahi lizkioketen horiek? Hauek ere *Gattutean* ikasia zuketen beren katixima.

Bakoitza bere bidea hautatzeko libre den puntutik! Debekatzea debekatua denaz gain!

Neskek ez dute arras ikusmolde bera: «Ni putes, ni soumises» lema pean (ez puta, ez besten meneko) egin dute manifestaldia Parisen, joko hori gero eta usuago gertatzen dela ikusirik.

Eta ez da bakarrik Pariseko *banlieues* famatu haietan mugatzen ohidura berri hori. Telebistako leihatilatik gure gazteei eredutzat emanak zaizkien mail goreneko kirolariak ere aritzen dira josteta berean: herriki, hamazazpi urteko neskatxa bat joan da lehen mailako futbolari batekin Londreseko hotel famatuenetarik batetara (*****NN). Zer ohorea, mail horretako gizon batek *maïtatu* izatea! Ez zioketen erranahi bera ematen biek hitz horri. Gelan sartu bazen sartu, ez zen nahi bezain laster atera. Hain zuen neskatxa maitagarria aurkitu gure futbolariak non, bera bezain famatuak ziren beste zazpi laguni *eman* baitzien gero, bakoitzak bere aldian gainka zezan.¹²⁵ Ez ziren etorkin giza gaixo batzu horiek. Horren gatik ote litezke horien izenak ez agertu kazetetan, geldituak diren euskaldun guzienen jakin arazten dituztelarik?

Geroztik entzun dut Frantzia behere horietan eskubaloi talde bat osoak gauza bera egin duela. Gero Espainian Leicester-eko futbol ekipako jokolari zenbaitek, hiru neskaekin. Baionan Santandreko arkupetan hemengo gazte zenbaitek, Ortesen beste andana batek, bi urtez, hamabost urteko neska gaixo batekin: horietarik bat, Kuruxet, ez zitekeen Kurdiatik etorria. Behin baino gehiagotan entzun dugu irratitik polizia taldetxo zenbaitek beren sareetan bildu emagaldu bat bortxatu dutela, denak haizu baitira emazte klase horrekin. Hau ere moda berriko *norma* beraz.

Paris aldean, 17-18 urteetako gazteetan %40k dio zigarretak edo droga erosteko dirua behar eta, beren gorputza saltzen dutela neskek. Musu zenbait zigarreta paketa baten prezioan, titiak hunki belarra erostekoa behar dutelarik, eta ohea droga gogorragoa-

¹²⁵ Viol collectif. J. Du. *Aujourd'hui*, 2003.10.02, 17 or.

ren beharretan direlarik.¹²⁶ Ene gaztetxo garaietako jostetetaz beste haurtzarkeriarik badute oraingoek: 2003ko urtats gaua ospatzeko lau ehun beribil erre zituzten Estrasburgo edo Parisko inguru horietan. Gau bakar! Ez dituzkete tripako min txarrak horrela baizik ez badaitezke purga! Zer itxura dute gure kale borrokek beren dotzena erdi beribil erreekin?

Irratia hilik, *Libération* egunkaria hartzen duzu. A! Ederrik ikasi behar duzu! Lau orrialde badira haurren pornografiaz. Hila-betan 480 filmaren ikusteko parada badute satelita edo beste kateetan. Filma horiei begira egoiten dira aita-amak joanak direlarik eta batzuetan aitamen konpainian, hori ere ba omen baita. Haurraren edukazio sexuala egiteko! Satelitetako kate horietan *zaping* egiteko ez omen dute parrerik haurrek. Badakite kazetak automatikoki ematen dituzten tresna horietan, hirian, zein diren kasta horretako filmak. Tresna horien barnean dauden filmen erdiak, pornografikoak dira.¹²⁷ *Libération* egunkarian sinisterik ez dutenek jakin dezatela *La Croix* katolikoak ez duela besterik erraten.¹²⁸ Aita-amak hor ez daudelarik, magnetoskopa martxan

¹²⁶ *Aujourd'hui*, 2004.04.04.

¹²⁷ Blandine Grosjean, «L'accès au porno brouille les repères des ados», *Libération*, 2002.05.23, 3-5 or.

–Entre 12 et 14ans, tous regardent frénétiquement du X.

–A court terme, ça accroît le malentendu qui existe déjà entre filles et garçons: eux croient que les filles, comme dans les films, pensent oui quand elles disent non.

–Il y a des mecs en prison car ils ne comprennent pas qu'une meuf qui monte en voiture avec eux a pas forcément envie de se faire claquer par tous leurs potes.

–La sodomie, les partouzes, c'est normal. Ils croient que leurs parents vivent comme ça.

¹²⁸ «Aujourd'hui nous comprenons que des petits de 8 ans ont vu des images pornographiques. (...) Les cassettes VHS de films X constituent 25% du chiffre d'affaires des video-clubs généralistes et 50% des distributeurs automatiques.» Rosalyne Bottrel, Nos enfants ont vu des films pornographiques. *La Croix*, 2002.05.22.

dela! Eta Internetekin? Ama gaixoa! Hor ez da batere mugarik. Oro haizu. Eta amak uste seme maitea lanean ari zaiola hortzak izerdi bere ordenagailuarekin!!! Gero eta gogorragoak dira eta ez omen dute gehiago filma izena ere merezi urtean agertzen diren 12.000tarik 11.500ek.¹²⁹

Europa Batuan, film horien zabaltzea mugatzen duten legeak badira. Frantzian ere Europako lege horiek berak onartarazi nahi lituzkete deputatu zenbaitek, baina gutiengo bat baizik ez dira. Chirac eta Raffarinnek ez omen dute Konstituzioko 39,5 artikulua-ren baliatzeko xederik lege horren onartarazteko, beste kasu batzuetan egin duten bezala, hala nola hauteskunde lege berriaren zatitza, (hoin funtsezkoa non Auzitegi Nazionalak deuseztatu baitu!) Zer duten zinezko traba lege horien kontra? Zoazte zuek! Gauza segura, filma horien egileek ez diote dirurik batere ematen hauteskunde kanpainen pagatzeko. Alafede! Leku segurretik jakina dugu. Norentzat hartzen dituzue gure deputatuak? Ala!

Madriren, sozial ministeritzan¹³⁰ emazteen saileko arduradunak, argitaletxe bat badu, «El Cobre Edicional». Plazaratu duen azken liburua: *Todas Putas* (Denak putak). Biolazioaren apologia hutsa. Hau ere *norma* orai beraz. Bizkitartean, Opus Deiko kideak ihaurri omen dira Aznarren ministeritzetan.

Zein urrun garen gure elizkizun eta mezetatik? Batere ez! Gure gaiaren minean gaude erdiz erdi. Beraz horra nolako erauntsiei ihardoki behar diegun egun oroz, goizetik arrats. Erauntsia hain da gogorra non aterki bihi batek ez baigaitu gerizatzen ahal.

Egun guziez, aste guziez, hilabete guziez, urtez urte, gauza horiek entzuten ditugu. Euria zurrupitan, jauts ahala botatzen

¹²⁹ «Aujourd’hui 95% de la production est considérée comme du porno-gonzo (...) Sa violence conduit à des scènes crues de viol ou de soumission (...) Ce n’est plus du cinéma, il n’y a plus de dialogue, plus de musique, plus d’histoire résume un acteur.» Karim Nedjari, «La nouvelle dérive», *Aujourd’hui*, 11.23.

¹³⁰ «La directora del Instituto de la Mujer edita un libro que defiende la violación», *Deia*, 2003.05.18.

duen ezin atertuzko erauntsia! Atertzen ez den erauntsi baten pean gara. Lehen aldian inarosten gaituzte ortzi karraska batek bezala. Bigarrenean gutixago eta emeki-emeki jartzen gara, hiriko burrunbari bezala. Emeki-emeki, entzutearen bortxaz, gauza horiek denak, normalak iduritzen zaizkigu eta normalak diren pundutik, a-normalak ez izan nahiz, bide berera lerratzeko arriskuan gaude. Itsasotik heldu den haizea nagusi den leihorretan, zuhaitzak barne aldera makurtuak diren bezala, gure gogoia ere alde horretara doa emeki baina segurki, nahi ala ez. Noren onetan?

Horien denen araberrako mundu bat nahi ote dugu? Lapurketak haizu harrapatuak ez garen ber? Gu garelarik lapurtuak arrazoinamendu bera egiten ote dugu? Garges les Gonesses-eko *arabe zikin horiek* beribil batetarik irrati bat lapurturik poliziek preso eman ditzaten atseginez txalotzen dugu, *ordrea* baitezpadakoa baita. Baina guretzat, sekulako xikana eta tramankulu mota guziak haizu, nonbaitik diru «purruxka zenbait» (irrati baten saria baino gehixago denik ere, hasiz geroz) tiratzen ahal badugu? Eguneko 1.000 euroren janaria behar duen lehendakariak (kutxa publikotik) du errana ez dela barkamenik izanen lapurtxoentzat.

Gaua beste emazte batekin pasa Parisera joaten garen pundutik? Anartean emazteak gauza bera egin dezan onartzen dugu? Sekulan jakiten balu (jakiten ez denik ez baita!) zer egin lezakeen gogoan pasatu dugu? Horrek zer ondorio lukeen, hain maite ditugun gure haurrenzat pizatu dugu? Gure nortasunak osoki loratu behar omen haurrari gostaiak gusta? Onartzen ote dugu haurrak erran dezan, bere nortasunak duela loratu behar, aita-ameri gostaiak gusta? Nork du hautatu haur baten ukaitea? Haurrak? Gure alaba bortxa dezaten onartzen dugu? Mutiko baten partez, hamar bat baldin badira, bakoitza bere aldiaren zain, berdin zaigu?

Gure gogoia isurgia makur horietatik zaindu nahi baldin badugu, egun guzietan eramaten gaituen zirimola horretatik apur

bat urrundu nahi badugu, pozoin horiek kutsa gaitzaten nahi ez badugu, xertatuak izan behar dugu eta ez nolana hika, uholdea izigarria baita, alde guzietatik jotzen baikaitu. Xerto hori, gure ustez, igandetako meza da. Aste osoan xortaka-xortaka gure gogoia hunki duten ikusmolde *normal* horiek itoak izan nahi ez badugu, Ebanjelioko mezua entzun behar dugu, baitezpada, aste guziez. Beste normarik ere badela oroitu. Jesu Kristoren erranak, mikroa eskutan hartzen duen lehen jinarenak bezainbat balio duela gutienez, onartu. Beste mundu bat ere badela oroitu, beste mundu horretan sartuz.

Mezan, igande oroz oroituko gara zein den Jesusek erakusten digun norma, bidea, zorionerako bide bakarra. Astean barna, batzuek eta besteek pusaturik bide bazterreko arroiari soberaxko hurbilduak baginen, gider ukaldiño bat emanen dugu eta bide erdira itzuliko. Oroituko beste saihesbide horietatik bihi batek ez digula zorionik ekarriko, ametsetatik kanpo. Ez dut erranen ez garela behin ere eroriko. Eroriko garelarik, jakinen dugu gutienez eroriak garela, zutitu behar dugula. Lurrean egotea norma dela uste izatea, azkena da. Ez du zutitzerik eskatzen. *Rising up*.

Beste abantail bat ere atzematen diot igandetako mezari. Ira-keko gerla dela, presoak direla, soldatak direla, zahar arrandak direla, ikusten ditugu jendeak elgarretaritzen herriko plazan, deputatuaren bulego aitzinean, karrketan ibiltzen moda berriko prozesionetan... Hamarretarik bederatzitan badakite beren urratsak ez duela ondoriorik izanen. Badu 40 urte euskal departamendu baten gibeletik gabiltzala. Debaldetan! Eta manifekin segitzen dugu. Ez hauen efikazia gatik!

Elgarretaratze eta manifa horiek badute ondorio bat: bil dai-tezen 50, 500 ala 5000, ikusten dute ez direla bakarrik beren ametsarekin. Ez direla bitxi edo a-normalak. Bakarrik... lotsa litezke, baina beste 50, 500, 5000 ikusiz beren inguruan kuraia hartzen dute, bat bestea sostengatzen dute eta etxera doaz indarrez beterik, ezantza-ontzia gaineraino mukurru, panan gelditze-ko, lotsatzeko arriskurik gabe.

Haizea batere ez dugularik alde, lotsatzera ekarriak gara gure fedearen aldetik, geure buruaz dudatzera. Astean behin gure iduriko andaño batekin elgarretaratuz, noizean behinka andana eder batekin, kuraia hartzen dugu. Ikusten dugu ez garela tetelekerietan eroriak diren mentskila bakarti batzu. Ez garela zenbaitek nahiko luketen bezain a-normalak. Gure norma berak dituzten besteak ere badirela. Besteak ere badirela gure bide berean ibilki, sineste berarekin, bide zuzenean, bide hoberenean dabiltzala segur eta fida. Mezatik ateratzen gara bideari jarraikitze gogorekin. Moda zaharrekoa ez zen Boulard kalonjeak azpimarratzen zuen igandeko mezaren garrantzia, den arruntena izanikan ere.¹³¹

¹³¹ «C'est une constatation qu'il faut bien faire que la pratique religieuse contribue à maintenir la vitalité chrétienne et que la messe du dimanche, même routinière, soutient la foi et la religion personnelle beaucoup plus qu'il ne paraît d'abord.» F. Boulard, *Op. cit.*, 124 or.

X

APEZAK NOIZ ARTE

Mezan parte hartu bai, baina noiz arte izanen ditugu mezak, apezak desagertzeko bidean daudelarik? Frantziako apezpikuek liburutxo bat plazaratu dute, fedearen muinera nola joan esplikatzeko. Fedearen irakaskuntza dute aipagai. Ez bakarrik haurren katekesia, baina helduena ere bai. Hots, gauzak denek ulertzeko gisan errateko, apezpikuek erraten digute beren ustez Jesusen Berri Ona nola hedatu, intelektualki bederen. Berenaz, girixtinoen biziaren lekukotasuna baita fedearen zabaltzeko bide bakarra.

Sinesteak zoriona ekartzen digula agertzen baldin badugu, etorriko dira besteak ere, uliak eztira bezala. Sinesteak deus onik ez digula ekartzen iduri baldin badugu, alferretan Berri Onaren zabaltzeko teknika modernoekin egin tresna guziak. Alferretan, aditu hoberenen aholkuei jarraikiz egin apezpiku eta aita sainduen predikuak. Gure lekukotasuna laguntzeko baldin bada, gure gogoaren argitzeko, bai. Baina ez gehiago. Korana ezagutzen dut: ez dit mahomatar giteko gogo izpirik ematen.

Apezpikuek Bazko gaueko mezatik abiarazten dute gogoaren argite hori. Mezan ibiltzen direnentzat prefosta. Guziak ez baitira mezan ibiltzen naski. Dena den, hona zer idazten duten: «Girixtinoen elkarteko hiru lan nagusiak eukaristian oinarritzen

dira.»¹³² Edo: «Zinezko ebanjelizatzearen iturria eta gailurra bezala emana da Bazkoko eukaristia.»¹³³ Edo oraino: «Bazko gaua apez batek du zuzentzen, eta haren bidez zauku heldu Jainkoaren hitza.»¹³⁴

Laugarren kapituluan: «Aldarea da denen erdian orai (...). Hona gure otoitza: Jauna igor zure Izpiritua gure giza biziko ogi eta arnoa izan diten Kristoren ogi eta arno... Ogi beraren bidez bat egiten dugularik gira bilakatzen zinez, garen hura: Kristoren gorputza.»¹³⁵

Eukaristia da beraz Elizaren, giristinoen familiako bihotza, giristino biziko muina. Ez digute deus berririk erraten. Apostoluen Egintzetan irakurtzen dugu lehen giristinoetaz, Apostoluek berek bataiatu haietaz: jarraikiak ziren ogiaren zatitzeari. (Eg 2,42) Jesusen lehen dizipuluen ohiduretarik da igandeko meza. Igandeko mezaren *obligazionea* pratikatzen zuten ordukotzat. Plazerrekin. Batere obligazionerik senditu gabe. Vatikanoko II. Kontzilioan ere ez dugu besterik entzun: «Ezin daiteke inolako kristau komunitaterik eraiki, Eukaristia saildian ez bada.»¹³⁶

Meza beraz giristino biziaren muña. Eta apezak desagertu arau? Aspaldi ohartuak gara nonbait meza bat kentzen delarik giristino batzu auzo herrira joaten badira ere, beste batzu etxean gelditzen direla. Erdiak etxean gelditzen dira, ez bada gehiago. Meza baten kentzeak oraino ahulago uzten ditu dauzkagun giristino elkarteak. Egitate horren kondentatzeak ez diete batere arrazoi ematen *jujerei*. Errealitate bat da eta errealitate bezala onartu eta ikertu beharko genuke. Kondentatzea erraza da: «Giristinoek behar dute ikasi beribila hartzen mezarat joateko, medikura,

¹³² *Aller au cœur de la foi*, Paris, Bayard, 2003, 23 or.

¹³³ *Op. cit.* 29 or.

¹³⁴ *Op. cit.* 46 or.

¹³⁵ *Op. cit.* 53 or.

¹³⁶ *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, Apaizen ministerioa 6, 779 or.

kolejiora edo supermerkatua joateko egiten duten bezala» irakurtu dut behin. Besteak dira beti hobendun! Kontzientziaren etsamina gomendatua zaie giristinoei, baina berea egiten du Elizak? Congar-ek idazten zuen bekatu orijinalean sinesten zuela Elizak, baina bekatu hori bestetan izatekotan¹³⁷.

Errealitatea da, orain arte, giristinoen familiak eta herritarrenak, biek bat egiten zutela. Orain aldiz, herriaren gehiengo handiarekin deus ikustekorik ez duen zatiketa administratibo bat da parrochia. Errealitatea da herriek hurbiltasuna eskatzen dutelarik, urruntasunaren politika berri bat praktikatzeko duela Elizak. Herria borrokan ari delarik eskola, posta, ostatu eta beste herrian egoteko, apezetxe eta eliza hesten ditugula. Aldi bat gehiago Eliza ipuruan dago.

Apez batzu entzuten ditudalarik erraten: «Ba! Andana bat joaiten duk auzoko elizara. Jende gehiagorekin elizkizun ederra-goak egiten ditiagu» min egiten dit. Lehenik eta bat, Jesusek errana digu: «Bi edo hiru bilduak direlarik nire izenean, haien erdian nago.» (Mt 18,20) Bazko eta Salbatore ondoko gela gakatu hartan, 11 apostolu ziren lerro-lerro igandekari. Zenbat igandez eman dugu meza 11 presumentzat? Nzianuango kaperatxo hartan 30 bat biltzen nituen, beste kaperatxo batzuetan gutiago. Elizkizun pollitak egiten genituen, eta horrela da Eliza hasi eta hazi, han eta beste toki askotan. Zaro, Iriberrri edo Buztintzeko elizetan eman dut meza pollitik 30 jende baino gehiagokorik gabe. Amikuze eta Xiberoko eliza ttipietan zenbat biltzen da? ZUPko elizan doi-doia gehiago dira. Badakit apezpiku bat dolu baitzitzaion 1966. urteko lur ikara hark Xiberoko eliza horietarik zenbait ez lurrera botarik! Giza gaixoa! Bistan da ez nezakeela igandeko meza nagusirik Baionako katedralean eman 30 jenderekin. Baina bai, bazterreko kaperatxo haïetarik batetan.

¹³⁷ «Le péché originel? Mais elle n'y croit que chez les autres». Yves Congar, *Journal d'un théologien*, Cerf, 2000, 292 or.

Afrika eta hemengo ikusmoldearen diferentzia: han ttipia iza-tea onartzen dela, ttipia handitzen delakotz. Mixel Cartateguy Nyameyko apezpikuak erraten zion *Mezulari* aldizkariari hiru egun pasatuak zituela herri bateko sei girixtinoekin¹³⁸. Apezpiku bat sei giristinorentzat! Hiru egunez! Eta hemen apezek jendeak ehunka nahi! 2004ko Bazkoak diozesako herri ttipienez pasatuak ditu Niameyko katedrala utzirik! Ebanjelio beretik ari ote gara?

Hemen ttipia, desagertzerako bidetzat daukagu. Hala sinesten dugun pundutik esperantza galdua dugula erran nahi du. Etsituak garela. Elizaren heriotzea onartua dugula. Elizako heriotzearen gestio-egiletzat daukagula gure burua. Elkarte ttipiak biltzen ditugu *ttarro* bat egiteko eta horrela... geure burua tronpatzen.

Andana bat auzo elizara doala erraten dugularik, horrek erran nahi du beste andanaño bat, ez bada andana ederra, batere ez dela hara joaten. Batere ez dela mezara joaten. Eta horrek ez digu min egiten? *Pertes et profits* sailean sar hori eta jo aitzina? Ala gibelka joate hori onartzen dugu gehiagokorik gabe? Guhaur ari gara gure elizak husten, Eliza hiltzeari laguntza ematen.

Ez omen da lehen bezainbat jende elizetan. Jende gutiago ibiltzen dela! Bai. Bainan gauza segurra, 100 mezetan 200etan baino jende gutiago ibiliko dela. Zenbat meza gutiago? Girixtinoen kopurua ttipitu delakotz, ala apezena? Behin ere ez dut entzun meza bat kendu denik apezak bazireno, jende gutiegi zelakotz elizan. Parropien birmoldaketa eta horrelako teoriak, geure burua tronpatzeko baizik ez dira eginak, egiari bekoz beko so egiteko partez, egiak beste erabakirik hartzera bortxa baigintzake. Eta guk deus ez aldatu nahi. Aldaketak girixtinoek egin behar: «Aski

¹³⁸ «Avant de venir ici j'ai passé trois jours avec une communauté de six chrétiens.» «Rencontre avec Mgr Cartatéguy», *Mezulari*, 2001ko buruila, Hazparne.

dute...» Nolaz erabaki daiteke oraino bizi diren herrietako *Elizen*, gristino elkartean hiltzera kondenatzea? «Ez dut hilen itzaltzera doan mitxa» (Es. 42,3) zioen Yahwe gizagaizoak.

Eta herri ttipiak beti petzero. Ttipiei baitzaie eskatua herri handira biltzea. A! Gaur egun etortzen balire magoak, zenbat apez ez liteke Jerusalemen egon, Beleneko zilo hartara joan gabe. Zenbatek ez lezakete erran beren Jerusalem ttikitik begira: «Zer atera daiteke onik Nazaret txar horretarik?» (Jn 1,46). Ehun eta berdin gehiago gristino biltzen dituzten herriak mezarik gabe utziak dira, hirietako parropia zenbaitetan bi edo berdin hiru apez badirelarik meza ematen! Baionan, 25 bat meza ematen dituzte aste buru oroz 17 apezek, horietarik hamar goizeko hamarrak eta hamekak artean, Santandreko elizatik bi kilometro ez delarik eliza urrunenera! Bizkitartean 1992ko sinodoak gomendatua zuen hirietako apezak herri ttipietara joan ziten meza ematera.¹³⁹

Ahalaz mezaren segurtatzea du Erromak ere gomendatzen: “Mezarik gabeko elizkizuna erabaki aintzin ikusi behar da ez ote den posible parropietan ez diren apezzei dei egitea, hala nola frailei.”¹⁴⁰

Badira mezak kendu dituztenak geroari prestatu behar zelakotz. Gosetea etorriko delakotz jendeak jan gabe uzten balire bezala janaria oraino badelarik! Arrazoinamendu hori egin duena geroaz etsitua zela garbi da. Esperantzarik gabe.

Artetik errateko, hor ere nahi duenak nahi duena egiten du. Edo ahal duena. Gure diozesan ez dut behin ere apezten arteko

¹³⁹ «Il est demandé que l'effort de mobilité exigé des ruraux dans la pratique dominicale soit partagé par les urbains dans un esprit de communion et de solidarité. Pour cela, des prêtres exerçant leur ministère en milieu urbain pourraient à certaines dates, être déchargés de leurs tâches dominicales et affectés à certains secteurs demandeurs pour assurer les célébrations en milieu rural, en accord avec les prêtres et les Conseils pastoraux responsables.» *Synode 1992*, 101 zk., Baiona, 1992, 108 or.

¹⁴⁰ *Igande eta bestetako elizkizunak apezik gabe*. 2. kapitulua, 25. par. Erroma 1988.06.02

gogoetarik ikusi pundu horretaz, urtean hamar bat bilkura egiten dugularik. Eta Frantzia guzian berdintsu naski.

Apezik aski geldituko ez delarik mezak eliza guzietan emateko, zer egin? Apezik gabeko otoitza? Denak herri handienara deitu? Meza aldizka eman herri bakoitzean?¹⁴¹ Bakoitzak bere bererabakitzen du bere xokoan. Erabakia hartu aitzin, nork daki Frantziako 2.750 elizatan apezik gabeko otoitza egiten zela jadanik 1997an. Zer gatik gelditu diren segitu ez dutenak? 500 giris-tinotaraino biltzen dituzten horrelako elizkizunak badirela?¹⁴²

Nork ezagutzen du Paulo VI.ak Frantzia erdialdeko apezpikuei egin gomendioa 1977an? Herri ttipietan apez eskasia gatik apezik gabeko elizkizunak egitea aipatu zioten eta Burulehenak azpimarratzen zuen gure mendeari laket zaizkiola gizonaren heineko elgarretaratzeak.¹⁴³

Joani Paulo II.ak 2003an aipatu ditu elizkizun horiek, bainan behingokoa direla azpimarratuz. Laster beste aterabiderik behar da beraz.¹⁴⁴

¹⁴¹ Sinodoko erabakietan ehungarrenak aipatzen du aldizkako arrangura: «avec un souci d'alternance.» *Synode 1992*, 100 or.

¹⁴² Monique Brulin, «Les assemblées dominicales en l'absence de prêtres», *L'Eglise catholique en France*, 1997, 197 or.

¹⁴³ «Vous abordez aussi la question des ADAP dans les secteurs ruraux où les villages forment une certaine unité naturelle pour la vie comme pour la prière qu'il serait périlleux d'abandonner ou de disperser. (...) Le monde actuel préfère ces communautés à taille humaine à condition évidemment qu'elles soient suffisamment étoffées, vivantes et loin de l'esprit de clocher.» *Documentation Catholique*, 1977.04.17.

¹⁴⁴ «Quand la communauté est privée de prêtre, on cherche à juste titre à y remédier d'une certaine manière afin que se poursuivent les célébrations dominicales, et dans ce cas, les religieux et les laïcs qui guident leurs frères et sœurs dans la prière exercent de façon louable le sacerdoce commun de tous les fidèles, fondé sur la grâce du baptême. Mais de telles solutions ne doivent être considérées que comme provisoires, durant le temps où la communauté est en attente de prêtre.» Jean Paul II, *L'Eglise vit de l'Eucharistie*, 2003, Bayard, 43 or.

Vatikanok araudiak atera ditu apezik gabeko elizkizunetaz. Proposatzen du giristinoak zentroan biltzea, baina Elizak baitaiki gizonaren berri, beste aterabiderik ere proposatzen du. Meza ezinezkoa delarik Jainkoaren hitzaren elizkizuna dela, egokiena erraten dute, komunionearekin burura baiditake, Jainkoaren hitzaz eta Kristoren gorputzaz hazten direla denbora berean girixtinoak¹⁴⁵. Baina beste aterabide bat aurkitu arte baizik ez da hori bali izaten ahal. Gauza egokia, normala hauxe da: *giristinoek meza izan dezaten normalki* igandetan, hamar, hogoi, hogeita hamar kilometro egitera bortxatuak izan gabe.

Herri ttipiek handira joatetik beste atera biderik ez badute, laster egina izanen da herri horietako giristino familiaz. Ez badira elizan elgarretaritzen, ez badute elgarrekin zerbait egiten, non haziko dute beren familia bizia? Eta hemendik zenbait urte, apezak berriz izanen direlarik (apezak berriz izanen direla sinesten dutenentarik bainaiz) herrian sartzean jadanik martxan den multxo bat, herriko Eliza eskutan hartua duten giristino talde bat izateko partez, hutsetik abiatu beharko dute. Batzuk hautsi, bestek peka. Zentrorra joan behar dutela supermerkatuarentzat egiten duten bezala? Bai! Supermerkatuarentzat bezala eginen dute: kontsumitu eta etxera itzul. Ez dute familia bat egiten zentroko girixtinoekin beren herrian bezala. Ez dira inplikatuak sendituko han.

Aterabidea ez da ere Afrikan: jakin ezazue Bolikostan apezek *aberats* direlarik, 800 bat apez direla hamasei milioi jenderentzat. Iparraldean haien heienean izanen gara hamabost bat apez izanen dugularik orotara. Hango giristino *gehienek* ez dute mezarik igan-

¹⁴⁵ «Entre las varias formas de la tradición litúrgica, cuando no es posible la celebración de la misa, lo más recomendable es la celebración de la Palabra de Dios, que oportunamente puede ir seguida de la comunión eucarística. De este modo, los fieles pueden nutrirse al mismo tiempo de la Palabra de Dios y del Cuerpo de Cristo.» *Celebraciones dominicales y festivas en ausencia de presbítero*, Coeditores litúrgicos, 2000, 3. edición, 15 or.

de oroiz. Apezik gabeko elizkizunak egiten dituzte aspaldiko bideari jarraikiz eta horrela da hango Eliza hasten eta hazten. Aberats dira, pobrego ziren garaieri konparatuz. Erromak garbiki errana du ez duela Europak apez bila joan behar lehenagoko misionetara¹⁴¹.

Gorago aipatu apezpikuen dokumentuan garbi errana da: Eukaristiak egiten duela Eliza, Eukaristiarik gabe ez dela Elizarik. Sinestedulak izan daitezke eskuin eta ezker, baina Elizarik ez da meza batek elgarretaratzen ez ditueno. Apezpikuek erraten ez dutena, eta denek ulertzen dutena, apezik gabe ez dela Eukaristiarik. Beraz, apezik gabe ez da Elizarik. Kurioski, gorago aipatu liburutxoan, hitzik ez da apezten desagertzeaz.

Philippe Barbarin, Primat des Gaules titulua daukan Lyongo kardinalak, *La Croix* egunkariari elkarrizketa bat egin dio gai horretaz. Garbiki erraten du ez dela apezik gabeko Elizarik izaten ahal. Aitortzen du apez eta apezgai guti dela. Zenbait dotzena urtez horrela segi dezakegula. Aitortzen du Frantziako Elizak jasan duela, ixiltasunean gorde den oinaze handi bat: 1970 eta 1990 artean, 10.000 apezek utzi dutela apezgoa (zenbaki horren pizua neurtzeko hona beste bat: gaur egun 13.500 apez dira Frantzia osoan, eta gehienak zaharrak. 65 urtez petikako 4.500 baizik ez dira izanen hamar urte barne!). Zinezko ekaitza dela hori. Orain denek nahi dutela ulertu zer gertatu den. Zauri horrek airean uzten duela, erratera menturatzen ez garen gauza bat. Horra zer dioen, besteak beste.

Jakin ezazue ehun bat mila apezek utzi dutela apezgoa munduan, mende erdi batez. Drewermannek 80.000 erraten du 1982 urterako, eta horietarik 8.000 frantses, Barbarinek 10.000 erraten duelarik 1990erako. 1982an 409.000 apez ziren munduan.

¹⁴⁶ «Rome demande aux évêques de tout faire pour éviter que les jeunes églises missionnaires qui ont encore un grand besoin de personnel et en particulier de prêtres, soient privées de forces apostoliques. Il convient de réglementer le séjour à l'étranger de prêtres diocésains des territoires de missions.» 2001-4.

%20k utzi du beraz. Bestalde 409.000 horietan zaharrak barne dira, joan diretan aldiz gazteak nagusi.¹⁴⁷

Gaitza ez da oraikoa. 1964 eta 68 artean, munduan barna, 7.375 apezek Erromari eskatua zioten apezgoa uzteko baimena. Hona urtez urte: 1964/640, 1965/1.168, 1966/1.418, 1967/1.759, 1968/2.263. Batere baimenik gabe joan zirenak bestalde.¹⁴⁸

Aitortuko dut, Barbarinen *orain* horrek harritu nauela. Hogoi urtez 10.000 apez joan dira beraz eta gure apezpikuek ez dute oraino gogoetarik egin gai horretaz! Aspaldiko urteetan, apezteak bata bestearen ondotik husten eta gehiagokotik gabe onartzen da beste zenbait dotzena urte iraun dezakeela horrek! 50 urte erran dit apezpiku batek. Zer ez liteke erran, Frantziako ospitaleetan erizainak eskasten ari eta 30 urte egoten balire, bi gogoeten egiteko! Apezpikuak ikusten duen erremedio bakarra: otoitz egitea. Orain arte ere ez ote da otoitzik egiten? Apezpikuek berek ez ote dute otoitzik egiten? Ez omen dute berek programatua egoera hori. (Ez arai!) Kanpotik inposatua zaie.¹⁴⁹ Eta zer ote da erra-tera menturatzen ez den hori?

¹⁴⁷ Eugen Drewermann, *Fonctionnaires de Dieu*, Albin Michel, 1993, 724 or.

¹⁴⁸ Rapport de la commission internationale de théologie. *Le ministère sacerdotal*. Cerf, 1970, 12 or.

¹⁴⁹ *La Croix*, 2003.04.04. Hona pasarte batzu:

Il n'y aura jamais d'Église sans prêtre. (...)

Le fruit ne se verra peut-être que dans des décennies. (...)

Nous cherchons à comprendre ce qui se passe, ce qui est à revoir ou réformer dans notre façon d'appeler les jeunes ou de former les prêtres. (...) L'essentiel se situe en amont : que la prière reprenne sa place dans nos vies et nos maisons. (...) Le clergé (...) a vécu une souffrance terrible, toujours couverte par le *man-teau du silence* (guk dugu azpimarratzen): près de 10.000 prêtres ont quitté le sacerdoce entre 1970 et 1990. C'est un véritable ouragan qui a soufflé et *maintenant* que les choses se sont apaisées, tout le monde cherche à comprendre. Cette blessure demeure et laisse planer quelque chose qu'on n'ose pas ou qu'on ne sait pas dire.

Ce n'est pas nous, bien sûr qui programmons cela... *La Croix*, 2003.04.04.

Kardinalak 70-90 urteak aipu ditu, bainan gaitza lehenago hasia zen bestalde erran bezala.

Bainan nork du bada erabakitzen hemen ez dela gizon ezkon-
durik apeztko, Kontzilioak berak onartzen dituelarik ekialdean?
Frantziako errepublikak? 1943kotzat hasiak ziren gogoeta apez-
pikuak bokazioen krisiaz. Beren biltzarrari buruz egin txostenean,
Mgr Chollet Cambraiko apezpikuak idazten zuen diozesetako apez-
zak beheiti ari zirela, apezgaiak kongregazioetan sartzen zirela-
katz berekoitasunez, salbatu behar ziren arimekilako elkartasuna
ahantzirik...¹⁵⁰ Ez zen batere arrallerian ari! Ezin begira arazoar-
ri bekoz beko...

Kontzilioko teologo izan den Lyongo apez batek hitz gogorrak
idatzi berri ditu apezpikueta¹⁵¹ eta apezpikuen isiltasunaz. Beti-
ko leloak ateratzen dituztela, zinez gogoan daukatena erran
beharko luketelarik eta ez apezpiku tituluari doazkionak. Profe-
tak izan behar luketenak diskalifikatuak direla haurkeria batzu

¹⁵⁰ «Les vocations religieuses qui parmi nos séminaristes viennent entraver
notre recrutement sacerdotal diocésain. (...) Un certain individualisme religieux. On
est préoccupé de se mettre à l'abri dans une communauté, de s'assurer les secours
de la confraternité religieuse, des vœux etc. Il y a là prédominance du MOI sur le sens
de la Chrétienté, de la solidarité qui nous relie aux âmes à sauver.» Martine Seve-
rand, *Vers une Eglise sans prêtres*, Presses Universitaires de Rennes, 24 or.

¹⁵¹ «Ce qui frappe alors, c'est le contraste entre la *liberté* (idazleak berak du
azpimarratzen) de leurs propos (des chrétiens) lesquels manifestent un esprit de
recherche plutôt que de négation ou de rejet, et le *silence* des autorités religieuses
qui semblent ne pas entendre ces mises en cause.» (64 or)

«J'avoue être malheureux, lorsque je constate que nos autorités parlent un
langage devenu conventionnel, parce qu'il s'agit moins de dire ce que l'on pense
en conscience que de répéter ce qu'il faut dire en raison de la responsabilité que
l'on occupe. (...)

Je ne peux pas prendre mon parti de ce que *les responsables de la foi*, ceux
qui devraient en être *les prophètes* se trouvent disqualifiés par des prises de paro-
les insignifiantes ou simplement décalées ou trop éloignées de ce que vit le peuple
chrétien.» (71 or.)

«L'écrasement ou même l'insignifiance déclarée des *conférences épiscopales*
à travers le monde est un grave dommage pour l'expression d'une Eglise qui dev-
rait être en Pentecôte permanente.» (78 or.)

Henri Denis, *L'avenir en face*, Desclée de Brouwer, Paris, 2002.

ateratzen dituztelakotz. Horra zer idazten duen besteak beste. *Le Devoir* Kebekeko egunkarian gauza bertsua irakurtu dugu: ohiz kanpoko aita saindu honek apezpikuak mutu uzten dituela.¹⁵²

Berrogeita hamar urte lehenago jadanik, Otaviani kardinale-ak isilik egotera kondenatu ondoan, Joan XXIII.ak kardinale egin Congar teologo ospetsua ere biziki gogorra agertu zen apezpikuen aldera, sehiak eta haurrak iduriak zirela.¹⁵³

Hona Frantziarentzat apezzen beherakadaren datuak: 1948an 42.700 apez ziren, 1965ean 41.000; 1975ean 36.000; 1985ean 28.000; 1995ean 18.000, 2000an 13.500. Zahar eta gazte, denak barne. Duela 55 urteko laurdena orain, eta askoz ere zaharragoak.

Baionako diozesako kasua aipatuko dizuet. Berrogeita hamar urtez petikako 14 apez dira Iparraldeko parropietan, kostalde eta barnekalde. Azken apeza 2002koa da. Apezgai bihirik ez da seminarioan. Eta nola zazpi urte behar den apez bat egiteko, eta nehor ez urrunera ageri, hemendik hamar urte, hirurogoi urtez petikako hamalau apez izanen dira... arte horretan *gazte* bat edo beste hiltzen ez bada. Berrogeita hamar urte badu itzulipurdi hori hasia dela: hirurogei urtez petikako 645 apez bazen Baionako diozesa osoan hartuz, 1962an; 582 1972an; 360 1982an; 91 1992an, 37 2002an eta hain segur 35 2012an.

Iparraldea baizik ez hartuz, hona apez berrien kopurua azken 50 urte honetan: berrogeita hamarreko hamarkadan 103 izan ziren; hirurogeikoan 79; hirurogeita hamarrekoan 31; laurogeiko-

¹⁵² «Ce pontife superstar, unique dans l'histoire de l'Eglise, Jean Paul II a tant parlé et tant écrit qu'il a rendu aphones la plupart des membres du collège épiscopal et figé leurs plumes et leurs ordinateurs.» «Le temps est venu de parler du rôle du pape», *Le Devoir*, 2002.07.05.

¹⁵³ «Les évêques sont entièrement courbés dans la passivité et la servilité; ils ont pour Rome une dévotion sincère, filiale. Voire puérole, enfantine.» *Journal d'un théologien*, Cerf, 2000, 241-42 or. Ikus ere *Mon Journal du Concile*, t. I: 9, 23, 53, 176, 193, 198, 252, 325, 348, 447, 508, 510; t II 57, 191, 255.

an 17; laurogeita hamarrekoan 5. Apez bihirik gabeko hamarkadan gaude! Ez daiteke erran uste gabetarik hartuak izan garela.

Bi mendez goiti badu ez dela horrelakorik gertatu: Frantziako Iraultza garaian, apez eta apezpiku guziak mugaz bestaldera botaiak izan zirelarik ere 11 urte egon zen apez berririk gabe Iparraldea, baina egoera politikoa aldatzearekin errotak egin zuen itzulia. Gauzak pikoan jarri eta bederatzi apez izan ziren 1803 eta 1810 artean. Hogeita hamazazpi 1811 eta 1820 artean, hirurogeita bat 1821 eta 1830 artean. Hogoita hamar urte behar izan zen egoera normal batetara itzultzeko. Gaitza, kanpoko zen. Gaur egun aldiz barnekoa. Ez dut ikusten, goiti berriz abiatzea ekar lezakeen zer aldaketa izaten ahal litekeen.

Afrikatik etorriko omen zaizkigu apez beltzak, lehenago hemengoak harat joan ziren bezala. Aments egin daiteke. Bainan amentsetan sinisterik ez daukateneztat, hona zer erabakia duen Erromak. Apez beltzak etorri daitezke Europara istudioak egiteko, beren herrian ez den ikasketa batentzat. Esku ukaldiak ematen ahal dizkiete hemengo apezzi, beren ikasketei kalterik ez egitekotan: ez dira beraz erretor edo bikario izaten ahal. Etor daitezke oraino European dauden beren herritarretaz arduratzeko. Hauek ez dute beraz europarrekin lan egiterik. Iheslari politiko ere etorri daitezke bainan kasu honetan, Vatikanoko baimena behar dute hemen lan egiteko¹⁵⁴. Ikus daitekeen bezala ez da hor aterabiderik guretzat.

Agortua den iturria, ura berriz ematen hasten bada ere, zenbait dotzena urte beharko da egoera normal batera heltzeko, orain artinoko bideak hartuz. Frantziako apezpikuen buruak aitortua egia da hemengotzat ere.¹⁵⁵ Eta apezetxeak bat bestearen ondotik hesten segitzen da gehiagokorik gabe, elizarakoan etxeko atea hesten den bezalaxe. Iduri luke gaitzeko inarros aldia eman behar

¹⁵⁴ *Documentation Catholique*, 2001.07.15, 678-682 or.

¹⁵⁵ «Le fruit ne se verra peut être que dans des décennies», *La Croix*, 2003.04.04.

ligukeen lurrikara horrek oso lasai uzten gaituela eta ohiko bide-etatik goatzila deus ez balitz bezala. Etxea sutan eta soropil eta loreak ustutzen ari gara!

A! Bai! Erromako jakintsuneria handiak aurkitu du aterabi-dea. Erabakiak prestatzen ari dira Elizari bizi berri baten emateko: neskaxeri debekatu behar diete beretter edo monagillo izatea.¹⁵⁶ Hain ongi dituzte leihoak hetsiak beren bulegoetan non ez baitakite Joan Paulo Parisen izan delarik JMJen karietara, beretterren erdiak baino gehiago neskak zituela! Beste erabaki bat: elizetan ez da txalotu beharko. Jondoni Petri basilikan aita saindua agertu orduko txalotzen dute, bainan kanpoko leihoak hain ongi hetsiak dituzte non txalo horiek ez baitira entzuten haien bulegoetan!¹⁵⁷

Erroman hori, baina diozesetan? Lekuaren gainean? A herriko apeza hil delarik, B-koari eman diote lehenaren herria. B-koa hiltzarekin, C eta Dko apezari lau herriak. Eta hau hiltzarekin E herrian dagoen 60 urteko apez gazteak 12 herri izanen ditu bere esku. Apez bat astelehenean hiltzen dea? Asteazkenean ehortzen da eta ostegunean biltzen dira gelditzen direnak, ikusteko nola eta non eman biharamunagoko mezak. Biziki polliki estaltzen da hori *birmoldaketa* hitz ederrarekin, gero eta barnago agonian barna goazila aitortzeko orde... Birmoldaketa nora arte? Digneko diozesan, Alpesetan, badira berrogei kilometroz goiti egin behar dutenak, mendiko bide hertsietan, dena bihurgune eta patar, apezik hurbilena ikusteko!¹⁵⁸ Duela ehun urte %99,5 katolikoak ziren. Orai %25, han ez delarik mahomatar imigraturik.

Frantzia behere horietako apezgai bati galdetu diot nola ikusten zuen apezzen geroa, harek biziko zuen gero hori. Ez

¹⁵⁶ Guillaume Goubert, «Liturgie: une «ébauche» controversée», *La Croix*, 2003.09.26.

¹⁵⁷ Aude Soullaine, «La Messe sous haute surveillance», *La Vie*, 2004.04.29

¹⁵⁸ Nicolas Senèze, «Les diocèses réinventent une Eglise de proximité», *La Croix*, 2003.12.17.

zekiela aitortu dit. «Eta zure apezpikuak.» «Harek ere ez daki. Murru bati buruz goazela badakigu bainan nehork ez du deus egiten.»

Birmoldaketa! Parropien *birmoldaketa!* Horra gaitz guzien mirakuiluzko botika. Aterabide hori ez da orain asmatua. Eta goraki erranen dizuete ez dela apez eskasia gatik asmatua. Elizaren ikuspegi berri baten gatik da egiten delako *birmoldaketa*. Aspaldi du apezak xuhurtzen ari direla Frantzian jadanik erran bezala: 1902an 1.750 gazte apeztuak izan ziren eta 1913an 650 doi-doa. Bigarren gerla ondoko kopuru haiek eztitu eta, 4.500 izan ziren 1948an¹⁵⁹, 1.300 1975ean eta 83 2002an.¹⁶⁰ Girixtinoen kopurua ez apaltzen bainan urtzen ari da. 1981ean 530.385 bataio izan ziren Frantzian. 1987an, 488.788 tara jautsiak ziren eta 1992an 424.561 etara, urtean 10.000 gutiago¹⁶¹. 2003an %46 haur dira bataiatuak izan. Erdiak baino gutiago. Eta puntu bat gutiago urte bakotx. St Deniseko diozesan sortzen direnetarik %13 dira bataiatuak! Bolikostan baino gutiago.

Doncoeur jesuita ohartua zen 1903 eta 1930 artean diozesa bat desagertzen zela urte oroz, apez kopuruari zoakionaz¹⁶². Gauza bera azpimarratuz, Congar-ek idazten zuen 1948kotzat, delako *birmoldaketan* bilatu zutela aterabidea, orain asmatua dela zenbaitek uzten duten mirakuluzko aterabide berean. Eta gehitzen zuen Elizaren lehen mendeetan behar ziren erabakiak hartuak izanen zirela duda muda izpirik izan gabe: apezpikuek giristinoei galdetuko zietela apez izateko on zirenak hauta zitzaten

¹⁵⁹ Urte bakar izan zen hemendik hamar urte geldituko den 65 urtez petikako apezten kopuru osoa.

¹⁶⁰ Hippolyte Simon, *Libres d'être prêtres*, Les éditions de l'Atelier, Paris, 2001, 20 or.

¹⁶¹ *L'Eglise Catholique de France, 1997*, Cerf, 1998.

¹⁶² «Une perte annuelle de 431 prêtres de paroisse, soit l'équivalent d'un diocèse de l'importance d'Autun, Clermont, Nancy etc...c'est à dire d'un de nos florissants diocèses.» Doncoeur, *La crise du sacerdoce*, Flammarion, 1932, 199 or.

beren artean.¹⁶³ Krisia hor zen duela 75 urte! Behin ere izan bada kazetolari katolikorik, Jacques Duquesne izan da. 1968an idatzi zuen apezpikuek oso gaizki hartu zuten liburu bat: *Demain une Eglise sans prêtre?* Bihar apezik gabeko Eliza bat ote? Galdea egitea ere ez zen haizu. Beha egon behar krisia noiz geldituko zen bere baitarik, euri uhar bat gelditzen den bezala.

1972an, Bordaleko apezpiku lagun zen Fretellière batek azpimarratu zuen Frantziako apezpikuen Biltzarrean, «muga batetara helduak» zirela. Duela 30 urte, mugan ziren! Non gaude orai?

Gaur egun ez da gehiago krisi soil bat. Muga aspaldi gainditua da. Ez da beherakadarik aipatu behar bainan erroitz bati behera egin erorikoa! Istripu izigarria! Katastrofea! Ez gara goiti abiatzekotan: Iparraldea ez da salbuespen bat. 2003. urtean apez berri bihirik ez da izan Frantziako 44 diozesatan. Lehenago apez ez aberats zen Aveyron departamenduan, 13 urtez 207 apez ehortzi dituzte eta bost ordenatu!¹⁶⁴ Hamar urtez goiti badu ez dutela apez berririk horietarik zenbaitetan.¹⁶⁵ Urtean ehun bat apez berri baizik ez da Frantzian, eta horietarik hamar batek beste bide bat hartzen du zenbeit urteren buruan. 2003ko sartzean,

¹⁶³ «La France depuis une trentaine d'années, perd un diocèse par an. Cela n'apparaît pas trop parce que le phénomène est dilué sur un grand territoire. Tout simplement quand un vieux prêtre meurt à la tâche, il n'est pas remplacé; son voisin reçoit sa paroisse, comme quatrième ou cinquième, un peu comme une famille ouvrière adopte, en quatrième ou en cinquième, le petit orphelin voisin (...).

Ce que je sais de l'Eglise ancienne me porte à penser que, dans une situation de ce genre, elle aurait pris des mesures d'un radicalisme tout simple, devant lequel nos désirs de sécurité, notre crainte des aventures, nous rendraient sans doute hésitants aujourd'hui. Tout simplement, les évêques auraient demandé aux fidèles de désigner les plus aptes, parmi eux, à devenir prêtres et, s'étant assurés les garanties indispensables, les auraient consacrés.» Témoignage Chrétien, 1948.

¹⁶⁴ Bernard Jouanno, «Entre Rhône et Garonne, les visages de l'Eglise», *La Croix*, 2004.01.21.

¹⁶⁵ Raymond Centène, «Quelle crise des vocations?», *Kephas*, 2003.04, 65 or.

Bénédicté Foucher, «l'Eglise entoure ses nouveaux prêtres», *La Croix*, 2003.06.27.

apezgai bihirik ez zen bi diozesatan, bakar bat bederatzitan, bi seitan! Jadanik badakigu hemendik hamar urte, sei diozesatan 65 urtez petikako hamar apez izanen direla gorenetik; hamabostetan hogoi bat! Hoberenetik!¹⁶⁶ Zer itxura izan dezake hamar-hogoi apezkilako diozesa batek? Jehovaren Lekukoena gure diozesari doakionaz.

Ez gitezke beherakadaren buruan: apez zaharrak ikustearen bortxaz, apez izateko, zaharra izan behar dela sartua daiteke jadanik gazten gogoan. Nondik izan dezakete apez egiteko gogoan, iduritzen bazaie ez dela haientzat egina? Zein amak nahiko du bere semea apezten ikusi, 86 urtetan bere herriko erretora beti lanean dela ikusten duelarik?

1945ean jadanik, gerla ondoan, 60 urtez goitikakoak ziren apezten erdiak baino gehiago, gutienez Aturri (Auch), Bourges, Cahors, Langres, Montauban, Pamiers, Périgueux-ko diozesetan.¹⁶⁷ Parropien birmoldaketaren berri bazekiten ordukotzat: Sens-ko diozesan laurogeita hamar apezek hiru eta 8 elizen artean bazuten bakoitzak.¹⁶⁸ Zer eman du han, orain hemen modan dugun *birmoldaketa* miresgarriak? Ez ote dugu gauza bera egina aspalditik gure diozesan berean Garlin eta Lembeye alde haietan? 60 urteren buruan bide bera hartzen ari garelarik ez ote liteke besten esperientziei begirada bat eman behar? Boulard dudakor zen ordukotzat, apez bakar batek ez zezakeela bi herritako lana baino gehiago egin!¹⁶⁹

¹⁶⁶ «Nombreux sont les diocèses où les jeunes prêtres ne sont pas bien, se posent des questions d'identité. Ils ont tout lâché pour donner leur vie à l'Eglise et, par moments, ils ont l'impression qu'ils sont de trop.» Jean Marie Launay, Bokazioen arduraduna Frantzian, in Henri Tincq, *Op. cit.*, 79 or.

¹⁶⁷ F. Boulard, *Op. cit.*, 282-283 or.

¹⁶⁸ F. Boulard, *Op. cit.*, 34 or.

¹⁶⁹ «Dès qu'un prêtre a trop de paroisses (et nous serions tenté de dire que dès qu'il en a plus de deux, il en a trop), il est vite conduit par la force des choses à ne plus faire que du service.» F. Boulard, *Op. cit.*, 65 or.

«On ne peut aggrandir indéfiniment les territoires paroissiaux.» 49 or.

Duela 25 urte Garazin egin bilkura bat gogoan daukat. Gaia: «Zergatik husten dira elizak?» Hogoï bat apez bilduak ginen. Bakoitzak bere ikusmoldea eman zuen. Giza gaizoa, ni! Elizan ibiltzen ez ziren dotzena bati egin nien galdea eta erantzunak idatziz eman zizkidaten. Irakurtzen hasi nintzen, baina laster isildu behar izan nuen. «Betiko kritika berekin, aspertuak gaituk! Hago ixilik!» Isildu nintzen beraz. Geroztik ez dut behin ere gai hori seriozki tratatzen ikusi apez bilkura batean. Apezen desagertzea oraino gutiago.

Gogoetarik ez elizen husteaz. Gogoetarik ez gazteetaz. Gogoetarik ez apezen desagertzeaz. Istudiante batek ikerketa bat egin du apezgaigoa utzi duten 20 bat euskaldunez.¹⁷⁰ Nolaz ez du Elizak berak egin ikerketa hori, Frantzia mailan, ikusteko zergatik hustu diren seminarioak, elizak? Zergatik ez den apezgairik gazte sinesdunetan?

Gure girstinoek elizak txukun-txukun atxikitzen dituzte. Milioiak xahutzen eliza horien zaharberritzen. Erran behar ote diegu: «Geldi! Alferretan ari zarete! Laster ez da gehiago mezarik izanen zuen elizan! Ehorzketak berak apezik gabe egin beharko dituzue.»

La Croix egunkariak aipatu du Frantzia iparraldeko parroquia *berri* bat: duela 35 urte, baziren 20 apez 50.000 jenderentzat. Gaur egin hiru: 67, 75, 80 urtetakoak!¹⁷¹ Heldu baita hamar urte barne apez bihi bat ez dela geldituko! Apezik ez, mezarik ez. Eukaristiarik ez: Elizarik ez. Jean Marie Vianney Ars-eko erreter sainduak erraten zuen: «Utz herri bat apezik gabe. Denbora laburrik barne, abereak adoratu dituzte.» Duela mende erdi bat H.

¹⁷⁰ Bénédicte Niquèze, «*Il a quitté*». *Mémoire pour la maîtrise en sociologie*, Bordeaux II, 2000.

¹⁷¹ P. Lesoing, «Prêtres et laïcs en paroisse», *La Croix*, 2003.05.28.

Godin-ek idazten zuen Frantzian bazirela gune batzu apezik ez izanez osoki larre joanak.¹⁷²

Apezen desagertzearen beste ondorio bat: lehenago baziren teologo, moralista, biblista eta gaineratiko, diozesa guzietan zeuden seminario handietan. Bai eta apez ordena guziek zeuzkatene-tan, Elizako unibersitateetan. Hots! Elizaren sare intelektuala. Nonbrearen bortxaz atera dira mail goreneko gizonak: Congar, Lubac, Liégé, Chenu, Daniélou, Teilhard de Chardin... Horien inguruan baten girixtino sare intelektual bat: Georges Bernanos, Maurice Blondel, Paul Claudel, Jean Cocteau, Jean Guittou, Jean Lacroix, André Latreille, Gabriel Marcel, Jacques Maritain, François Mauriac, Emmanuel Mounier, Pierre Peguy, Ernest Psichari (Ernest Renan-en arrasemea!), Henri Simon, ... Kapital hori urtu zaiku elurra primaderan bezala. Ez da gehiago teologo behar handirik seminarioetan: 831 apezgai ziren Frantzia osorako 2002 urtean, 4.536 zirelarik 1966an.¹⁷³ Gelditzen den purruxkerietarik ez daiteke lehenagoko andana hartarik bezainbat goi mailako gizon atera. Gero eta gehiago lanpetuak, apezek ez dute gehiago gogoeta egiteko astirik ere izanen.¹⁷⁴ Elizaren apologia egitea, gaur egun, Régis Debray bezalako intelektual agnostikoen esku da!!! Horra zertaratuak garen jadanik? Gero...

Garai haietan ehun jendetarik bospasei ziren unibertsitetean ibiltzen. Orain, jenden erdiak. Eta orain dira intelektualak falta Elizan. Zer eragin izan dezake Elizak, intelektualik gabe, intelek-

¹⁷² «(Les pays païens): les pays agricoles où il n'y a plus de tradition chrétienne, où l'amour de l'argent a tout rongé, où la politique a tout saccagé, où l'absence de prêtres a tout laissé mourir. Il y a, nous dit-on, des cantons ruraux qui n'existent presque plus sur la carte de la France religieuse. (...) L'abbé Boulard parle (...) des paroisses où le minuscule noyau des pratiquants est absolument en dehors du milieu vrai...» H. Godin et Y. Daniel, *Op. cit.*, 14 or.

¹⁷³ Jacques Anelli, «La situation des vocations», SNOP, 2003.04.21, 8-9 or.

¹⁷⁴ «L'élite n'est jamais possible, au moins d'une manière suffisante, en dehors de la masse.» Mgr Guerry, 1943.

tualen munduan, ikusi bezala, zenbaiten arabera, apezpikuak Erromako magnetofonoak baizik ez direlarik? ¹⁷⁵ Jesusen Berri Ona gaurko gizartean inkarnatzen lagunduko gaituzten intelektualik gabe, fundamantalismora kondenatuak gara. ¹⁷⁶

Mundu honek ez daukala estimu handirik Elizarentzat hona ezaupide bat: edozein artista, kantari, ministro hil dadiela, alde guzietan aipatuko dute; irрати, telebista, kazeta.... Zer aipaldi izan dute Congar edo Lubac bezalako teologo batzuek, XX. mendea zinez markatu dutelarik? Ezagutzen duzue izen horietarik duen karrika, plaza edo lizeo bat?

Noiz arte horrela? *La Croix* egunkarian irakurtu dut artikulu bat diozesa ttipien geroa dudan ematen baitu. ¹⁷⁷ Ez da harritzekorik giristino batzuk uste badute Elizako arduradunak lotsatuak direla, geroaz ez badiegu beste perspektibarik ematen. *Abandonatu* dutela, entzun dut behin, Frantziako itzulian, Tourmalet eta Aubisque ondotik, Luz Ardiden zolara heltzen den txirrindulariaz, goiti behako bat emanik, etsitua, gelditzen delarik erraten den bezala.

Ez etsi, artalde xumea, (Lk 12,32) erran digu bizkitartean Jesusek. Lehenago ere ezagutu ditugu horrelakoak. Frantziako Iraultza garaietan, apezak bota zituztelarik eta denak Ingalaterra, Alemania edo Espainiara joan zirelarik. Hamar urte egon ziren *apezik batere gabe*. Ez bada noizean behinka, gordeka etortzen zen bat... hor zela jakiten zutenentzat. Badira hiru, lau urtetan

¹⁷⁵ Zuzenketak egitean entzun dut apezpiku bat erraten, aita familiakoan apeztea onar lezakeela Aita Sainduak egitekotan. Frantziako apezpikuen biltzarretan sekulan ez dutela gai hori hunkitzen.

¹⁷⁶ «L'intelligence catholique semble aujourd'hui comme frappée d'aphasie. (...) Elle ne fait plus les gros tirages. Elle est absente des cercles littéraires, des débats d'actualité, des écrans de télé, des joutes philosophiques, des controverses artistiques.» H. Tincq, *Op. cit.*, 33 or.

¹⁷⁷ P. Rémy M. Forissier, «L'Avenir des petits diocèses», *La Croix*, 2003.05.08.

bataiatu haurrak, sortu eta berehala egiten ohi zirelarik, ainitz hiltzen zelakotz. Badira 20, 30, berdin 40 kilometro oinez egin dutenak beren haurraren bataiatzeko. Aihertar bat Luzaidera joan zen bere ñiñiarekin! Jendeak ez ziren lotsatu. Lotu ziren hortzez eta haginez. Iraun, eta garai hobeak etorri. Garai hobeak *egin* zituzten.

Baina itzul gaitezen gaurko egoerara. Frantziako apezpikuek ez digute zeharka ere erraten nola ikusten duten Elizaren geroa, apezik gabe, eukaristia delarik Elizaren, giristinoen, giristino biziaren iturria, oinarria, ardatza, berek idazten dutenaz.

Gure apezpikuakitsuak ote litezke? Ez ote dute ikusten nola-ko egoeran dagoen eskutan daukaten Eliza? Leher egiten ari dela! Nolaz eman liezaiokete bada Eukaristiari ematen dioten lehentasuna laster apezik izanen ez bada? Egia erran, badira bokazio eskasik ez dela diotenak, *Kephas* aldizkarian, Perpinyaneko kantzilerrak idatzi duen bezala.¹⁷⁸

Etsituak litezkeela, esperantza (bertute kardinala) galdurik, aterabiderik ez dutela ikusten, ez bada Couet metodoa? Bibliako lehen orrialdean ikusten dugu Jainkoa erraten «lur bat izan bedi» eta erran bezain segur lurra agertzen da. Gero erraten, «Izan bedi iguzki bat» eta erran orduko, iguzkia lurraren berotzen hasi zen.

Kristoren ondoko izanki eta gure apezpikuek uste ote lukete, Jainkoaren gisa hitz bat erratea aski litzaiekela, hitz hura erreali-

¹⁷⁸ «Leur rareté n'est d'ailleurs évidente que si l'on s'obstine à croire que l'ensemble de la population de la France est chrétienne et qu'il faut un prêtre sous chaque clocher.

La réalité est bien différente, le nombre des prêtres et des séminaristes est proportionnel au nombre de fidèles de leur âge. Chaque génération de fidèles génère les prêtres dont elle a besoin.

Il n'y a pas de crise de la vocation sacerdotale, à laquelle on pourrait remédier par l'ordination d'hommes mariés parfois encore évoquée par certains comme une solution miracle, il y a une crise de la vocation baptismale.» Abbé Raymond Centène, Chancelier du diocèse de Perpignan, «Quelle crise des vocations?», *Kephas*, 2003.04, 69-70 or.

tate izateko? «Apezak izan ditela» erratea, apezak sortzeko? «Otoiz egizue uztaren nagusiak langileak igor ditzan bere uztarat» (Mt 9,38) erraten digute, Jesusen hitzak beretuz. Ez ote dute berek ere otoitz egiten? Elizan dabiltzan giristinoek ez ote dute otoitz egiten? Ala otoitz egitea baitezpadako baldintza bada, besterik ere behar liteke? Zer egin? Pilota ez da punpera etorriko bere baitarik. Lagun ezak heure burua lagun dakikan zerua, zio-ten lehenagokoek.¹⁷⁹

Laster zerbait egiten ez badugu, denbora laburrik barne, mezarik gabe geldituko dira giristino gehienak. Mezarik gabe, giristino familiarik gabe, komunio-nerik gabe. De facto *eskumika-tuak*. «A moins d'un sursaut, nous allons tous échouer» idazten zuen Hippolyte Simon apezpikuak.¹⁸⁰

¹⁷⁹ «Un surnaturel pur, désincarné, hautement insouciant des réalités quotidiennes de la vie.» F. Boulard, *Op. cit.*, 10 or.

¹⁸⁰ H. Simon, *Vers une France païenne*. Cana, 1999.

XI

FEDERIK EZ OTE LITEKE?

Elizari da apezen deitzea: hori erran nahi du *bokazio* hitzak. Latinetik heldu da: vocare-deitzea. Deitzea, ez da ahoa zabalik nor etorriko den beha egotea. Apezik ez delarik berenaz heldu, apezpikuari da parropia batetara etortzea, hango apez eta giristino arduradunekin (katekista, irakurle, kontseilu...) mintzatzea, haiekin ikustea nor litekeen egokiena apez izateko, hori *deitzea* gero, eta apeztea.

Jondoni Paulok idazten zion Timoteo bere dizipuluari apezgaiatz: «Itzalgabea izan behar du, behin bakarrik ezkondua, jale urria, zentzuduna, onesta, ongi etorri egilea, irakasle trebea; ez edalea, ez mokokaria, ezta eta baketsua bai, ez diru gosea.» (Tm 3,2-3). Ba ote liteke horrelako giristinorik ez daukan herririk, apezak egiteko Euskal Herrian?

Entzuten dugu bokaziorik ez dela, federik ez delakotz. Egia da. Lehen bezalako federik ez da! Lehen zenbat jende ez zen elizan ibiltzen auzoaren erranaren gatik. Edo ifernuaren beldurrez: mezaren huts egitea ifernuko suaz pagatzen baitzen! Matthieu, Akizen zen hazpandar apezpikuak kondatzen zuen zer izialdurak sor arazten zizkioten Bastres Belokeko abadearen predikuek. Ifernuan kixkaltzen ari ziren damnatuek zeruko musikak baino biziki gehiago efetu egiten zio-

ten¹⁸¹. Ikusmolde hori ez zihoan ez, Jainkoaren amodioa eta lagunarena, biziaren ardatz gisa ematen dizkigun Ebanjelioaren bide-tik.

Jainkoaren beharra bazuten euria eta iguzkia eskatzeko, arbi landa jaten ari zituen harrak hiltzeko, eriak sendatzeko eta abar. Garai horiek ongi ezagutu dituen Jean Guitton filosofoak zioen aintzientzat, lur honetako ontasunen banatzailea zela Jainkoa eta Richelieu kardinaleak Jainkoa otoizten zuela buruko mina ken zieziaion, baina ez bestela.¹⁸²

Fede hori desagertuxea dela ezin uka. Eta hobe. Ez ote da beste federik? Argituagorik? Gure elizak ez dira hutsak. Sei milioi jende ibiltzen da elizan igande oroz Frantzian. Ez da guti! Kirol zelaietan baino gehiago da. Zinezko fedea badutela, girstinoek ez dute behin ere erakutsi orain bezainbat. Bizi naizen parropia honetan 50 katekista ari dira aste oroz katixima egiten, borondatetz, Jainkoaren amodioz. Aitzinetik prestatu ondoan. 220.000 Frantzia osoan. Adina gatik lana utzia duten laikoak ikusten dira lizeo batetako apezlana beren gain hartzen, batere apezik gabe. *Secours Catholique* laguntza batasunean beste 75.000 ari dira lanean, urririk Frantzian. Federik ez dutela? Noiz ikusi da horrelakorik orain arte gure Euskal Herrian? Edo arrunt mentsak dira, edo fedea badute, eta ez entrebalekoa gaurko egoeran lotzeko lan horri! Federik ez dela erraten dutenakitsuak dira, nonbaiteko *kantziler* badira ere. «Itsuak itsua gida ote dezake? Ez ote dira biak zilarat ereriko?» (Lk 6,39).

¹⁸¹ «Dom Bastres soufflait dans la trompette du jugement. Je n'ai pas oublié l'effroi dans lequel, me plongeaient ses prédications sur le feu qui brûle les damnés. Sa prédication sur le ciel remuait moins ma sensibilité. L'enfer où les damnés sont brûlés me bouleversait beaucoup plus que ne m'apaisait le ciel où sont harpes et luths.» *Othoizlari*, 1955.03.25.

¹⁸² «(A l'âge prétechnique) il se formait dans l'esprit de l'homme une idée de Dieu comme grand distributeur d'avantages matériels (...) Richelieu avait des migraines. Il priait Dieu de l'en délivrer. Croyez-vous qu'il priât Dieu pour autre chose?» Jean Guitton, *Mon testament philosophique*, Flammarion, 1997, 27 or.

«Bakoitza bere burua gogoan dago. Ez da beretik ematen bes-
tentzat lehenago bezala. Edozein elkartek erranen dizu anima-
tzaileak falta dituela.»¹⁸³ Horrela mintzo denak ahantzia duke,
duela 40 urte pilota batasuna baizik ez zela bere herrian. Bazela-
rik. Orain bada errugbia, futbola, judoa, dantza euskalduna,
dantza klasikoa, musika, kantua, gimnastika eta beraz... katixi-
ma edo dotrina. Frantzia mailan 14,5 milioi jende ari da horrela
lanean urrik kirol, kultur, sozial... mailetan¹⁸⁴. Eta batasun
horiek denek aurkitzen dituzte beren denboratik kitorik ematen
duten animatzaileak. Ez nahi bezainbat menturaz, baina bai
bizitzeko behar dutena halere. Urtean bi mila miloi euro eman
dute frantsesek 2002an beren baitarik munduko eta hurbilagoko
beharrentzat, hala nola delako elkarte horientzat. Lehenago bai-
no berekoikeria gutiago da gaur egun batera dudarik gabe. Bizki-
tarteetan, apez gutiago.

Gizonaren historioan noiz izan dira Médecins du Monde,
Médecins sans Frontière eta beste hainbeste ONG, hilak edo bahi-
tuak izateko arriskuan ari direnak non nahi. Lehen bezala hor
dira beti apez eta serora misionestak: ONG guziek lekuak husten
dituztelarik, bahituak eta erailak izateko arrisku handiegia gatik,
haiek han daude zer arriskatzen duten arras ongi badakitelarik.
Hango jende gehienek maite badituzte ere, ments bat aski baita
tiro bat botatzeko.

Horrelako kapitala eskutan izanki eta ez diegu beste espe-
rantzarik eman behar giristino horiei geroari buruz? Garimeta
gaineko xoria iduri dugu, goseak hiltzen ari, mutur zuria eginez,
bihiak ez zaizkigulakotz aski ederrak. Kopeta ona izanen du Jau-

¹⁸³ «Là où le sens du service et du dépassement de soi est honoré, l'appel à
un plus haut service est entendu. (...) Il n'y a pas de crise des vocations, mais le
vivier dans lequel les vocations peuvent naître est restreint.» Raymond Centène,
«Quelle crise des vocations?», *Kephas*, 2003.04, 66 or.

¹⁸⁴ Martiane de Santo, «Les associations prennent la parole», *La Croix*,
2002.04.11.

nak, eman digun urrezko talentu horretaz ez dugula gehiagoko funtsik egin aitortu beharko badiogu egun batez. (Mt 25,14-30)

Gazteek ez dutela federik? Badira federik ez dutenak. Badira badutenak eta gaztetan ere ikusten ditugu beren denboratik hartzen dutenak fedearen gatik. 12-18 urtekoak biltzen baititugu urtean bost aldiz asteburu batez, 100 bat elgarretaraten dira, 11.000 bizilagun dauzkan parrophia honetan. Eta haien laguntzeko *zaharragoko* hogeit hamar bat hor dira, larunbat arratseko kantaldi guziak eta Lapitxuriko dantzaldia bazter utzirik. Federik ez dutela!

Konfirmazioneko erretretara etortzen dira gazteagoi beren fedearen lekukotsuna ematera. Behin ikusi dut mukuzu tzar bat neska eder bati galdetzen heian mutikoekin etzaten zenetz; errepostua eman zion goxoan, batere antzara ferratzerat igorri gabe. Erretreta batetan entzun beste galde bat ere gogoan daukat: «Zerk hartu zaituzte, oporretan izanki eta (salbu zuek eta) pitoak bezala hona etortzeko, jostatzeko partez?» Nondik ateratzen dute federik ez dela? Galde hau egin duen mukuzu hura zerbaiti ohar-tua zitzaion. Apez-apezpikuek baizik ez dezakete erran ez dutela federik. Gazte horiei ez diegu beste perspektibarik eman behar? Ez da harritu behar ez badute esperantzarik apezzen baitan. Gero-ari buruz atea idekitzea digute eskatzen, atea hetsirik egoteko partez, azken sinodoaren karietara bildu gazte talde batek erran duen bezala.¹⁸⁵

Fedea bada, lehen baino argituagoa. Zer gatik ez da hozitzen eta loratzen? Zer gatik ez da apez edo serora bakar bat ere ate-

¹⁸⁵ «Les prêtres donnent l'impression d'être enfemés dans le 'carcan' de l'Eglise. (...) Un certain immobilisme de la part de quelques prêtres qui devraient être des 'stimulateurs'. (...) L'Eglise en France est à construire... qu'on se le dise... elle est toujours à construire. Une Eglise est obsolète: celle de nos parents. Nous les jeunes (25-30 ans) sommes les héritiers de cette Eglise, qu'allons-nous en faire? Que vont faire les prêtres, les évêques?» *Démarche synodale, compte-rendu*. 2003.

ratzen beren biziko parte bat Ebanjelioarentzat ematen duten gazte horietan? Hamabost bat urte badu delako gazte asteburu horiek ezagutzen ditudala Hazparne, Donapaleu eta Garazi-Baigorri gutienez eta 15 urtez ez da ez apez, ez serora bakar bat ere jalgi. Lehen baino gutiago izatea bat da. Bainan bihirik ez! Bihirik! Zein da gure apezpikuen erantzuna?

Fedea bada beraz, baina apezik ez. Apezpikuek ba ote lukete zerbait aterabide gogoan, nahiz ez diguten ezer salatzen? Lurdan elgarren artean bilduak direlarik beren urteko biltzarrean, nork daki zertaz ari diren, han, segetuan, den mendreneko solasa kazetariak salatuko dutelako beldurrik gabe. Kanpora aitortzen ez badute ere, ez ote dute onartua ondoko urteetan beharko diren apezak, jadanik Elizan lanean ari diren laiko horien artean, fedea baduten horien artean hautatzeaz beste aterabiderik ez dela, Jondoni Paulok egiten zuen bezala, Elizak leher egin dezan nahi ez badute.

Ez ote da aspaldiko ohitura Elizan? Ebanjelioak aipatzen digu Jondoni Petriren amaginarreba. Gure lehen aita saildua ezkondua zen edo ezkondua izana gutienez. Ez zen birjina. Elizaren lehen mendeetan, ala apez ala apezpikuak ezkonduak ziren. Geroago ziren hasi zenbait eskatzen ez ziten alargundu ondoan bigarren aldikotz ezkonduak izan.

Ez bakarrik apez eta apezpikuak bainan aita sailduak ere bai. Anastasio (399-401) bere aitaren segida hartu zuen Inoxente I.ak (401-417), Aita Saindu kargutan. Silberio (536-537), Hormisdasen semea zen (514-523). Bi aita-seme pare horiek ez dira gaixo enulak izan. Beren pasaia laburra markatu dute Elizako historian eta sailduen erronkan daude lauak, nahiz biga ezkonduak izanak ziren. Eta jakin ezazue bazela saltsa ederrik Elizan lau horien garaietan!

Anastasio aita familiakoak kondenatu zituen Origene eta donatistak. Inoxente izan zen bosgarren mendeko aita saildu handiena San Leonekin: Erroman zen, Alarikek hiria hartu eta xehatu zuelarik, 410ean. Honena da ateraldia: «Erroma mintzatu da, eta kitto!»

Berehala erran dezadan, batere ez naiz erranaldi horrekin akort. Gaur egun juduen legeen peko gintezke bestenaz. Judu eta mahomatarren munduko gisa zirkonizazioa beharrezkoa liteke eta ez genuke xingar edo urdazpirik jan behar. (Adio nire arroltze ta xingar maitea!) Alabaina Jondoni Petrik, gure lehen *Erroma*-k horrela egitea onartu zuen bestalde erran bezala. Aita saindua ez da nagusia, baina *primus inter pares*, lehena bere neurriko apezpikuen artean. «Bakarrik naiz Jainkoarekin» erran zion behin Paulo VI.ak Veuillot kardinalari, 1971an jadanik gizon ezkonduen apezteaz mintzo zirelarik biak. Kardinalaren erantzuna: «Zure anaiak diren apezpiku guziekin zara eta bereziki giristino guziekin. Ez dezakezu erabakirik har haiek gabe.¹⁸⁶» Elizako burulehena ez da tronpatzen, hain zuzen *Elizaren* izenean mintzo delarik, giristinoen sinestea erraten duelarik. Ez *bere* izenean mintzo bada.

Bainan segi dezagun gure aita-sainduekin. Hormisdasek batasuna egin zuen Erroma eta Konstantinopoliseko elizen artean. Silberio ez zion Europa konkistatu zuten agota barbaroen erregeari obeditu, honek eskatu ziolarik Kaltzedoniako kontzilioa kondenatzea. Ondorioz erbestera igorri zuen erregek. *Tottoa* hutsa izanez Bixilio bat jarri zen burulehen eta Silberio kondenatu zuen. Horrela beretzat segurtatzen zuen honek Erromako aulkia! Bixilio ezkongabea ez da saindu ekarria. Silberio aita saindu semea aldiz bai.

IV. mendean da *hasi* Erromako Eliza apezkeri serioски eskatzen ezkondu gabe egon zitezten. 1123an du zinez finkatu lege hori Latraneko Kontzilioak. Ordu arteko apezak ez ote ziren handik goitikakoak bezain apez-apezpiku?

¹⁸⁶ «—Je suis seul devant Dieu.

—Vous êtes avec tous vos frères évêques, et surtout vous êtes avec tout le peuple chrétien. Vous ne pouvez décider sans eux.» Henri Denis, *l'Avenir en face*, 168 or.

Erromako Elizarentzat hartua izan zen 1123ko zelibatuaren lege hori, baina ez Ekialdekoarentzat. Han apezpikuei baizik ez zaie eskatu ezkongabea izatea. Gaur egun oraino Ekialdeko eliza horietan, hala nola azken urte hauetan hoinbeste aipaldi daukan Iraken, apezetan badira bai ezkondu gabeak, bai ezkonduak. Libaneko apezetan %40 ezkondua da.¹⁸⁷ Hauek ere apezak, besteak bezen apezak. Hauek ere meza ematen, bataiatzen, ezkontzen... Eta apez ezkondu horiekin dute mahomatarren artean irauten 13 mende honetan. Ez da zerbait hori?

Clermont Ferrand-eko apezpikuak idatzi du gizon ezkonduak apeztea erabaki aitzin, apez ezkonduak dauzkaten Elizen bilana edo balantzea egin beharko dela bai eta ezkongabeak dituztene-na.¹⁸⁸ Guk dugu arazoa. Ez haiek. Nolaz galda diezaiegu bilana egin dezaten guk dugularik arazoa? Zein da nagusi? Apez ezkonduekin bizi den Eliza, minoria bat baizik ez delarik mahomatarren artean Iraken bezala ala, ezkongabeekin leher egiten ari dena Mendebalean bezala? Non dira arazoak pedofilekin eta serora bortxaketekin? Ekialdean ala mendebalean? Non dira elizak husten ari?

Duela zenbait urte Eliza Episkopaleko apez batzu Eliza katolikora pasatu baitira, ez zutelakotz onartzen beren elizan emazteak apeztuak izan zitezen, apez katoliko ordenatu dituzte (heien elizako ordena bali ez izanez katolikoentzat), nahiz ezkonduak izan. Mendebaleko Elizan eta ez Ekialdekoan.

Komunisten garaian, gizon ezkonduak apeztuak izan dira Europa mendebalean. Urteak eta urteak beren apez lana isilean eginik, pentsatzen dituzuen arriskuak hartuz, libertatea berreskuratu dutelarik, beren apezlana uztea eskatua izan zaie Txekoslo-

¹⁸⁷ Jean Rigal, *L'Eglise en quête d'avenir*, Cerf, 2003, 211 or.

¹⁸⁸ «Il faudrait au préalable que les Eglises Orientales catholiques fassent un bilan de leur pratique, puisqu'elles connaissent bien cette situation. Il faudrait aussi que les Eglises des autres continents fassent l'évaluation de leur situation.» Mgr Hippolyte Simon, *Op. cit.*, 87 or.

bakian. Neretzat horretan da eskandala, ez aita familiakoak apez izatean: memento zailetan, fedeari tinko egon dira, Eliza zutik atxiki dute, eta libertatea etortzearekin baztertuak izan dira trapu zaharrak bezala!

Lehenago posible izan bada, eta orain ere Ekialdean, aita familiako bat apeztea, zergatik ez hemen? Jesusek behin ere ez du horrelakorik debekatu. Arrazoin bat edo beste zela, gizonak egin lege bat, gizonak desegin dezakete beste arrazoin batzuen gatik, hala nola gure gizarte hipersexual honetan ezkondu gabe egotea ezinezkoa delako irena¹⁸⁹ edo heroea ez denarentzat. Nola aipa ez-ezkontzea ttipitik film pornografikoak ikusten dituzten haurrei? Apez izateko, orai bezalako apeza izateko, profeta baten gaia behar da gaur egun, Richard Mathes, Erromako seminario alemaneko zuzendariak erraten zuenaz¹⁹⁰. Eta heroeak ala profetak ez dira palatraka biltzen bide bazterretan.

Aita familiakoak ere apezten balire, menturaz eskandala gutiago liteke apez pedofilo eta serora bortxatzaileekin. Eskandaluak beti izan dira eta beti izanen, bai Elizan, bai Elizatik kanpo: pedofiloak eta emazte bortxatzaileak badira aita familiakoetan ere. Ezkonduak diren gizonetan beste baten gibeletik joaten direnak badiren bezala. Bainan eskandalek ez lukete daukaten pizurik Elizak berak ez balu sexua kasik sakratu egiten. Apeza sakratuago, apeza gorago eman eta erorikoa handiago. Sakratu, paganoek hitz honi ematen dioten zentzuan: tabu. Ezin hunkia. Ezin aipatua.

Ingalaterrako kazeta batek atera berri du 1962an Erroman, Otaviani kardinale beldurgarriak idatzi gutun bat: emazte edo haurrekin arazoak izan zituzten apezten kasua aipatzea debeka-

¹⁸⁹ Irena: eunuque.

¹⁹⁰ «Je pèse mes mots. Pour être prêtre aujourd'hui, il faut la force spirituelle d'un prophète.» Christiane Rancé, «Génération Jean Paul II», *Le Figaro Magazine*, 2003.04.12, 54 or.

tzen zuen eskumikatua izateko mehatxupean. Segeretu erlisione hori ez dute onartzen gaztek.¹⁹¹ Ez eta bestek.

2000 urte irian apez pedofiolen eskandaluak plazaratzen hasi zirelarik gai hori aipatu zuten Lurdan, beren urteko biltzar nagusiarentzat bilduak ziren Frantziako apezpikuek. Biltzarra bukatu eta kazetari batek galdegin zion apezpikuen bozeramaleari heian zenbat apez ziren auziperatuak Frantzian. Honek: «20 eta 30 arte horretan.»¹⁹² Neure baitan egin nuen: «Debrua! Zer dute 20 baino haratago kondatzen ez dakien bat hautatu bozeramaile gisa apezpikuek?» Handik eta zenbeit asteren buruan, apezpiku batek aitortu zuen 43 zirela auziperatuak. Zeinek erran zuen egia? Batek bederen egia erran zuena? Tabu!

¹⁹¹ «Ne pas cacher les problèmes (pédophilie...) mais condamner ces actes et arrêter l'hypocrisie. On a souvent l'impression que l'Eglise se défend et justifie a posteriori au lieu de faire le ménage.» *Démarche synodale, Compte rendu*, 16 or.

¹⁹² –Bernadette Sauvaget, «Pédophilie. Eglises en examen», *La Vie*, 2000.10.05.

–J. M. Guénois, «Sur 25.000 prêtres, entre 20 et 30 ont affaire à la justice pour pédophilie», *La Croix*, 2000.11.14.

–Claire Lesegretain, «Au Canada, les évêques ont dû réagir dès 1992», *La Croix*, 2000.11.10.

–«Problème d'une extrême gravité», *La Croix*, 2000.11.10, 10 or.

–Claire Lesegretain, «Le diocèse de Boston sous le choc des affaires de pédophilie», *La Croix*, 2002.02.

–J.M. Guénois, «Les évêques américains luttent contre la pédophilie», *La Croix*, 2002.02.21.

–«Exhortation apostolique *Ecclesia in Oceania* de Jean Paul II», *La Croix*, 2002.03.22.

–Jean Paul II demande aux évêques du Nigéria de réagir aux comportements déviants des prêtres. *La Croix*, 2002.04.23.

–Blandine Milcent, «Les évêques allemands sommés de réagir après les révélations qui font scandale», *La Croix*, 2002.08.02.

–J.M. Guénois, «Les évêques américains luttent contre la pédophilie», *La Croix*, 2002.02.21.

La Croix egunkariak elkarrizketa bat egin zion Louis Marie Billé, Frantziako apezpikuen lehendakari zen kardinaleari:

–Zenbat kasu ezagutzen duzue?

–Aitortuko dizut ez dakitala zenbat apez diren auziperatuak.

Bigarren mailako arazo bat ote zeukan hori ala aldi bat gehiago *tabu*! Elkarrizketa horren orrialde berean kazetariak idazten zuen 50 bat apez zirela edo kondenatuak edo auzitan. Kazetariak ba ote lekikete Elizaren berri, apezpikuen lehendakariak berak baino hobeki?

Los Angelesetan nintzen batez, *Los Angeles Times* egunkariak hiriko 3 kasu aipatu zituen egun berean, biga lehen orrialdean, bedera argazkirekin. Zer efetua irakurleentzat!¹⁹³ 2002-2003an 700 apez beren kargutik kendu dituzte Ameriketako Estatu Batuetan pedofilia gatik! Bat egunean! Beste zenbat ezagunak ez direnak. 720 milioi dolar gosta zaie pedofilia, auzi, isun eta hautsi mausti fresetan. Texasen, Turlukeko diozesak kiebra egin du eta bilana pausatu auzitegian, apez pedofiloen gatik izan izuneri buru ezin eginez. Beste bi diozesak geroago. Bostongoak bere apezpikutegi ospetsu eta puxanta saldu behar izan du arrazoi beraren gatik.¹⁹⁴ Eta zenbat apez emazte batekin bizi direnak eta noizean behinka harremanak izan edo badituztenak? Gaztigu zenbeit aski litekeela egoera hori aldatzeko? Ez ote du beste gogoetarik merezi horrelako egoerak?

Apez bat (edo errient bat edo beste norbait) akusatua delarik, ez dela beti hobendun, egia da. Zuzen kontra akusatua izan dai-

¹⁹³ Richard Winton, «Two ex-priests charged in molestations» eta, «Acused ex-priest reveals his struggle», *Los Angeles Times*, 2002.09.27.

¹⁹⁴ «The scandal had alerady cost other, lesser known dioceses, like Dallas, Texas, millions of dollars in settlements long before the scandale assumed national proportions in Boston two years ago this comming month. It is now cutting deeply into the financial muscle of other dioceses around country, and there seems to be no end in sight.» Rev. Richard P. McBrien. The costs of failure. *The Tidings*, 2003.12.26.

teke. Behin akusatua izanez geroz oso zaila zaio bere buruaren xuritzea. Nola frogatuz dezake ez dela egia? Akusazioa gezurrezkoa bada ere, oraingo giro honetan, askotan, zikindua geldituko da iritzi publikoarentzat, gutienez duda batekin. Egiak horiek denak. Baina horren ondoan ere zenbat dira hobendun, nehork jakin gabe? Horiek denak mantalina xuri batez estaltzea, begiak hestea, eta «Jo! Aintzina! Segi bide beretik» erratea aski ote liteke? Eta han hemenka hartu kasu zenbait baizik ez ditugu aipatu.

Zelibatuaren arazo horrek apezpikuak ere hunkitzen ditu¹⁹⁵: Floridako biga, Palm Beacheko eta New Yorkeko bedera, apez batekin omo moldean bizi zen Kaliforniako bat, Estatu Batuetan. Paulo VI.a eta Joan Paulo I.aren idazkari izan zen Poznanekoa Polonian. Ezkontza Moonek berak eginik eta sekta horretan sarturik mundu osoan ezaguna izan den Miligo afrikarra. Ingalaterran, emazte batekin bizi zelako, apezgoa utzi zuen beste bat duela zenbait urte. Nihaurek badakit zazpigarren bat, Erromara bildua baitute bere herrian poligama zelakotz. Azken kasuak baizik ez aipatzeko.

2001. urtean, izan zen apez eta apezpikuek bortxatu seroren eskandala. Serora batek plazaratu zuen zeren eta Erromara igorri txosten guziek ez zuten ondorio izpirik. Tabu! Eskandalua plaza-ara atera zutelarik, gaitzaren iturria berehala atxeman zuten: Afrikako gizartearen aspaldiko ohidura zaharren ondorioa omen. Ger-

¹⁹⁵ –«L'archévêque (de Palm Beach) démissionne», *La Croix*, 2000.11.10, 10 or.

–Claire Lesegretain, «Jean Paul II accepte la démission de l'archévêque de Poznan», *La Croix*, 2002.03.29.

–«Le prédécesseur de Mgr O'Connell avait dû démissionner aussi», *La Croix*, 2002.03.11.

–J.M. Guénois, «Un évêque Américain démissionne pour abus sexuels», *La Croix*, 2002.03.11, 24 or.

–«Dimite el obispo de Nueva York por relaciones sexuales», *Deia*, 2002.06.13.

–«L'archévêque de Sydney se met en congé», *La Croix*, 2002.08.21.

tatzen da horrelakoak Afrikan ikusi baldin baziren, Afrikatik kanpo ere bai, bost kontinenteetan, hala nola Ameriketako Estatu Batuetan, Italian, Irlandan.¹⁹⁶ Hor ere aspaldiko ohiduren ondorioz? Tabu. Geoffroy Robinson Sydneyko apezpikuak erraten zuen bortxaketa horietaz: «Jesusen Berri Ona Ozeanian zabaltzeko daukagun trabarik handiena da.»¹⁹⁷

Le Monde egunkariko Eliza berriketariak idazten zuen behin Ameriketako Estatu Batuetan zelibatuaren legea, bi apezetarik batek duela errespetatzen. Alemanian hiru apezetarik bik lege hori hausten dutela.¹⁹⁸ Zimbabwe erresuman nuntzioaren arabera ez zezakeen apezpiku gai izenik eman Erromara, zelibatuaren errespetu eza gatik. *Ad limina* bisitaz, Erromara joan beste herrialde batetako apezpikuek entzun zuten mintzaldiaren testoa eskutan daukat: gauza ber bera dio.¹⁹⁹ Hain zen gaitza hedatua erresuma honetan ere, non ez baitzuten apezpiku izendatzeko apez bakar bat aurkitzen! Eta handik igurikatu behar genituzke hemen, *ezkonduak ez diren* apezak? Seriotasun poxi bat otoi.

Nahiz horrelakoekin ere Elizak goiti egin duen, historian ikusten dugun bezala. XVIII-XIX. mendeetan, Brasilgo diozesa

¹⁹⁶ J.M. Guenois, «Des religieuses victimes de prêtres», *La Croix*, 2001.03.23, 9 or.

–Idurre Ezkizabel, «Elizaren bekatuak», *Egunkaria*, 2001.03.25.

–Rev. Ricard P.M. McBrien, «Ending the silence of abused nuns», *The Tidings*, 2001.04.20

¹⁹⁷ Henri Tincq, «Le Vatican reconnaît les nombreux abus sexuels de prêtres sur des religieuses», *Le Monde*, 2001.03.22.

¹⁹⁸ Henri Tincq, «Clergé pédophile et célibat du prêtre», *Le Monde*, 2000.11.11.

¹⁹⁹ «C'est l'occasion de vous recommander vivement de prendre des dispositions disciplinaires à l'égard de vos prêtres dont la vie est un scandale public. Je me réfère à la vie de ces prêtres ou religieux, à leur comportement à l'égard des femmes, des religieuses, des veuves, à l'abus de l'alcool etc... Il y va de la crédibilité de l'Eglise et du sacerdoce. Si j'insiste sur la question c'est aussi parce nous n'avons plus de candidats disponibles pour l'épiscopat dans le clergé diocésain alors que nous avons beaucoup de projets en vue.» 1999.05.25.

zenbaitetan apezzen erdiak emazte batekin bizi ziren eta horiekin dira katoliko egin diozesa horiek²⁰⁰. Bazuten zerbait onik.

Apezzen beherakada hori, ezin besteko gauza bezala onartua da. Ikastaldi batetan gai hori aipatu berri dut. *Mission de France*-ko apezgaien arduraduna itzuli-mitzulika ari izan zitzaidan hamar minutaz: biharko eliza ez dela oraikoa izanzen, laikoek beste tokirik izanzen dutela eta horrelako. Betiko leloa.

Arratsean 3 laiko etorri zitzaizkigun beren lekukotasuna ematera, beren lanetik landa (federik gabe ote?) Galde bera egin nien. *Aerospatiale*-eko ingeniari batek erran zidan: «Arianek huts egiten duelarik arazoa non den bilatzen dugu. Eta gero konpontzen. Apezik ez bada, ikusi behar da zer gatik. Baina nork bilatzen du hori? Ikusi eta erabakiak hartu behar baitira gauzak aldatzeko...»

Ezkondu gabe egotea aipatzen du Jesusek. Ez du apezentzat delakorik erraten: «Beste batzu ez dira ezkontzen Jainkoaren erregetza gatik hala erabaki dutelakotz.» (Mt 19,12) Bera ezkongabea eta Jondoni Paulok ere ezkontzea gomendatzen du, aitortuz ezkondu gabe egotea ez zaiola nor nahiri emana: «Ezkongabeeri eta alar-guntseri erraten diotet ni bezala egotea on dutela. Bainan ezin badira beren buruaren jabe izan, ezkont daitezela; hobe da ezkontzea, sutan egotea baino.» (1 Ko 7,9) Hain da arazoa garrantzitsua non Ebanjelioak ez baitigu erraten ere Jesus ez zela ezkondua.

Ezkongabeak aski zirelarik, apezgoa haientzat baizik ez izatea, ongi. Nahiz merezi duen ikustea zergatik zuten erabaki apezak ezkongabe egon zitezen. Origenek zuen hori aipatu lehen aldikotz 255ean. Artetik errateko, bere burua xikitatua zuen «Jainkoaren amodioz». Sail beretik doa apezak ezkondu gabe egoteko daukan ideia. Zer gatik ezkongabeak? Apezak *garbia* izan behar

²⁰⁰ «Dans certains diocèses, 50% au moins des curés vivaient maritalement, transmettant, le cas échéant, leur cure à l'un de leurs fils. Il n'empêche que ce sont ces pasteurs sans grande prétention à la vertu qui ont fait que, aujourd'hui, le Brésil est un pays fortement catholique.» Jean Delumeau, *Ce que je crois*, Grasset, 1988, 283 or.

duelakotz mezako oparia eskaintzeko: emazte batekin harreman sexualak izanez, *zikintzen* zen! Zikina eta garbiaren ikusmolde hori Testamentu Zaharrekoa da bai eta paganoena.²⁰¹ Testamentu zaharrarenak ez ote du egina? Jesu Kristok ezkontza *sakratu* du. Ez da zikina.

1123an Latraneko kontzilioak behin betikotz erabaki zuelarik apezek ez zutela emazterik izan behar (Mendebalean. Legea ez zen bali Ekialderako!) ezkonduak diren apezzei manatzen die beren emaztetik berexi ditezten. Eta puntu horretan ezin uka gure kontzilioa, nahi bezain kontzilio izana gatik, bide makurretik zozala. Ezkondua den gizon batek ez du bere haurrak eta emaztea uzteko eskubiderik.

Ezkongaberik aski ez delarik, apez eskasa jasan behar du herriak? *Jasan* hitza nahitara erabiltzen dugu. Hippolyte Simonen diozesan 120 apez baizik ez da 5.000 ehorzketa egiteko urtean: ezinezkoa apezpikuak erraten duenaz. Egia, ezkonbageetan mugatzen direno apezak. Jenden gogoak hain idekiak diren ehorzketa horietan apezek ez izatea, ehorzketa exkaxak egitea nahiago ezinez eta legea aldatzea!²⁰² Ez du gizon ezkonduarik ordenatzea onartzen.²⁰³ Bizkitartean, beren bizitik eta dirutik emanez Eliza bizi arazi duten giristinoek apez bat nahi dute beren ehorzketetan. Orduan dute ainitzek gehienik senditzen apezaren beharra eta apez bat izateko *eskubidea* badute. Ohean zelarik gizon batek apez adiskide bati eskatu zion bere ehorzketako meza eman zezan. Hil zelarik apez hau joan zen parropiako erretoraren ikustera: «Ez! Ez dugu mezarik ematen gehiago ehorzketetan.» Mezarik gabe egin ziren ehorzketak... bederatzi apez aldare inguruan! Apezik ez

²⁰¹ Jean Rigal, *Op. cit.*, 224 or.

²⁰² «Je souhaiterais sincèrement qu'il puisse y avoir un prêtre lors de chaque cérémonie d'obsèques. mais je ne peux sérieusement pas demander à un seul prêtre de célébrer trois ou quatre funérailles par semaine.» in Henri Tincq, *Op. cit.*, 221 or.

²⁰³ Hippolyte Simon, *Op. cit.*, 65 or.

ehorzketetan beraz eta orenak ariko gara gogoeta nola hunki sekulan ikusten ez ditugun jendeak. Hor daude, ehorzketetan!

Gizonek egin legea, gizonek alda dezakete. Baina Erromako bulego haietan badira Elizaz (are gehiago munduaz!) daukaten ezagutza bakarra, mahai gainean dauzkaten paperetan mugatzen baita. Han dira erabakiak hartzen... Duela zenbait urte Hego Amerikaz arduratzen zen erakundean, Ameriketako ibili gizon bakar bat baizik ez zen... dena ere italiarra!²⁰⁴ 1992an Santo Domingon bildu baitzen CELAM, Hego Ameriketako apezpikuen biltzarra, Erromatik etorri hiru kardinalak nahi zizkieten inposatu, berek hautatu gogoeta gaiak, amerikarrek nahi zituztenak baztertuz. Segur ziren tokiko apezpikuek baino hobeki bazekitela zer zen hoberena, Italiako bulego barnetan Izpiritu Sainduak beste indar batekin ufatzen baitu!²⁰⁵

Rhodesian apezpiku zen polones batek atera zuen Kontzilioan: «Erromak erabaki duela! Baina idazkari soil batzuk dute erabaki. Ni Jondoni Bartolomeren ondokoa naiz menturaz...»²⁰⁶

Elizako burulehenaren inguruan ari, eta iduritzen zaie haren boteretik bai eta infalibilitatetik beren partea badutela.²⁰⁷ Joani

²⁰⁴ «Les évêques (de Bolivie?) ont fait pression sur le gouvernement pour que s'en aille le nonce de ce pays, Mgr Samorè. Il est parti, mais c'est lui qui est chargé maintenant, des affaires d'Amérique du Sud à la Secrétairerie d'Etat. Il passe pour compétent, tant il est vrai qu'au pays des aveugles les borgnes sont rois: d'autant que dans le personnel de la Secrétairerie qui s'occupe d'Amérique du Sud, il est le seul à avoir séjourné dans le pays.» Yves Congar, *Mon journal du Concile I*, 179 or.

²⁰⁵ G. Matagrín, *Op. cit.*, 175 or.

²⁰⁶ Yves Congar, *Mon Journal du Concile I*, 150 or.

—«Il y a un appareil 'd'Eglise' qui fonctionne par lui-même sans aucun contact avec les hommes.» *Op. cit.* 31 or.

²⁰⁷ «Plusieurs de ces personnalités (de la curie) semblent avoir pensé qu'elles participaient de façon active au pouvoir absolu du pape sur le clergé et les fidèles et que leurs décisions ne devaient pas seulement faire la loi, mais que leurs opinions en matière de doctrine, de morale ou de politique étaient une manifestation de l'infalibilité pontificale.» Xavier Rynne, *La révolution de Jean XXIII*, Grasset, 1963, 28-29 or.

XXIII.ak leihoak zabaltzeko egin gomita ala jazko haizea, berdin munta zaie. Ez ote luke haizetik begiratu behar *egiak*?

Seigarren mende hondarrean, Gregorio I.a aita sainduak Canterburyko Agustini artoski gomendatua zion tokiko ohidurak errespeta zituan.

Aldiz bulegokrazia horrek zituen Uruguay eta Paraguayko *erredukzioen* esperientziak lurperatu, *Mission* filmeak hoin ederki erakusten duen bezala. Horrek zuen Txinan geldi arazi Ricci jesuitaren esperientzia 1646an. Pio XI.ak misionestari arrazoi eman behar zion... 1939an, Txina komunisten eskuetara erori aitzinttoan. Burokrazia horrek zituen, XX. mendean, dominikanoen hiru probintzial beren kargutik bota²⁰⁸, Congar, Chenu, Liégé, Lyonnet eta de Lubac garai haietako teologo handienak isilik egotera bortxatu, Athorren katiximaz besterik aipu zutelakotz. Hautsi zituen, kalitu eta lehertu suge bat lehertzen den bezala. Congar-en hitz batzu biziki argigarriak dira alde horretarik.²⁰⁹ Joani XXIII.ak biga kardenal egin zituen gero. Balio baitzuen!

Burokrazia horrek zuen geldi arazi apez langileen esperientzia: Suhard kardinalak deiturik, XIX. mendean Elizak galdua zuen langileen mundura, *au charbon* joanak ziren apezak erroak berriz egiten hasiak zirelarik, burokrazia horrek hautsi zituen, kalitu eta lehertu haiek ere. Garai haietako apez hoberenak. Langileria utzi edo Elizatik kanpoa zuten hautua. Hori egin aintzin, Marella nuntzioak Frantziako barne ministro hargin beltzari eskatu zion poliziak barranda zituan apez horiek, emazte zenbeit

²⁰⁸ «Le père Provincial me dit qu'il est démissionné ainsi que les deux autres provinciaux français.» Yves Congar, *Journal d'un théologien*, 232 or.

²⁰⁹ «Tant que je respirerai, ils me piétineront (...) Pratiquement, ils m'ont détruit.(...) C'est atroce d'être ainsi tué vivant. (...) Il m'arrive de pleurer dans ma solitude sans issue.(...) J'ai pris mon parti d'avoir manqué ma vie et d'être à tout jamais un pauvre type. (...) La mort? J'y ai souvent pensé.» Yves Congar, *Journal d'un théologien*, 364, 427, 429, 432, 434. or.

bazutelako esperantzaz, horrela zikintzen ahalko baitzituen²¹⁰ eta baztertzen ahalko funtsezko arazoa hunki gabe. Hori da batzutan Elizako arduradun zenbaiten taktika: funtsezko arazoa ez aipa eta zehiharka hunki *hobenduna*.

Vatikanon burulehen bat izatea Elizaren indar handi bat da, katolikoen batasuna egiten baitu. Bainan badira batasuna eta berdintasuna, bat bestearentzat hartzen dituztenak eta horretan da hutsa.²¹¹ Ez naiz beti harek erranekin akort, bainan gogoan daukanaren errateko eskubide osoa daukala ez dut dudarik, mikro bat eskutan hartzen duen lehen jinak bezainbat gutienez. Harriturik nago demokrazia hoin kilika omen diren batzuek hasarretzen ikusten ditudalarik, aita sainduak ahoa ideki bezain laster. Bainan itzul gaiten gure gaiara.

Vatikanoko bigarren kontzilioak aitortzen du apezgoa eta ez-ekzkontzea ez direla elgarri lotuak. Gaur egun ere badirela apez ekzkontuak eta kalitate handikoak.²¹² Clermont-eko apezpikuak ere ez dezake horren aitortzeaz besterik egin.²¹³ 1971ko sinodoa-

²¹⁰ «Les prêtres ouvriers nous disent –ayant vérifié de bonne source– que le nonce Marella a demandé au ministre de l'intérieur, Martinaud Déplat, un rapport de police sur les prêtres ouvriers. Aussi les logeurs, concierges de nos confrères, ainsi que les restaurants où ils déjeunaient, les épiceries, boucheries où ils font leur marché ont reçu la visite de policiers et ont été questionnés. On leur a demandé si le P. X. recevait des femmes, jusqu'à quelle heure, de quel âge. S'il achetait un ou deux beefsteaks, ce qu'il mangeait, etc...». Yves Congar, *Journal d'un théologien*, Cerf, Paris, 2000, 249-50 or.

²¹¹ L'unité de l'Eglise n'est pas uniformité mais intégration organique des légitimes différences. Jean Paul II, *Documentation Catholique*, 2001.01.21, 84 or.

–Il n'y a rien de plus contraire à la véritable unité chrétienne que la recherche d'unification. Y de Montcheuil, *L'Eglise est une*, Bloud et Gay, 1939, 252 or.

²¹² «Egia da, ez duela eskatzen apaizgoaren izaerak berak, hasierako Elizaren praktikan eta Ekialdeko Elizen tradizioan ageri denez; hauetan graziaren dohainak hartara eraginik, apezpiku guziekin batera ekzkontetasunaren aukera egiten dutenez gain, apez ekzkontu oso baliotsuak ere badira.» Apaizen Ministerioa eta bizitza, *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, 807 or.

²¹³ «Il est clair qu'il n'y a pas de lien absolu entre le ministère et le célibat.» Hippolyte Simon, *Op. cit.*, 65 or.

ri buruz, biltzar horren prestatzeko, komisio berezi batek dokumentu ofizial bat plazaratu zuen apezetaz (*ministerium sacerdotalis*). Garbiki erraten du apezgoa eta zelibatua ez direla baitezpada elgarri lotuak eta Elizak zelibatuaren alde agertu arrazoinak ez direla beti zuzenak²¹⁴. Argi eta garbi erraten du bi apez moeta izatea, ezkonduak eta ez ezkonduak, gauza ona litekeela jadanik erran dugun bezala.²¹⁵ Non da bada arazoa? Arazo bat bada bai, gero eta nabariago, apezik ez dela. Frantziako 40 diozesatan ez da apez berri bihirik izan 2003. urtean! Bihirik!²¹⁶

Sinodo horretan aita familiakoen apezteaz mintzatu behar zuten, baina gai hori ez zuten hunki. Matagrín apezpikuaren

²¹⁴ «La connexion historique entre célibat et ministère apostolique n'est pas nécessaire. Le ministère est possible sans célibat, tout comme le célibat l'est sans ministère. (...) Certains des motifs invoqués au cours de l'histoire pour fonder la loi du célibat ont été tributaires de visions philosophiques du monde, de situations politiques, d'intérêts ecclésiastiques, qui n'avaient pas grand chose à voir avec l'Évangile. Il est même arrivé qu'ils soient objectivement faux.» *Rapport de la commission internationale de théologie*, Le Ministère Sacerdotal, Cerf, 1971, 103 or.

²¹⁵ «a) L'affirmation qu'une vie de disciple du Christ, menée dans la pauvreté, la virginité, la joie et le service du prochain est la condition que la hiérarchie peut considérer comme la meilleure pour pouvoir assumer le ministère apostolique ne signifie pas qu'elle doive les exiger toujours et de tous les candidats possibles dans la même mesure. Si ceux qui vivent dans la virginité authentifient certains aspects et certaines valeurs de l'Évangile qu'ils prêchent, ceux qui vivent dans le mariage, s'ils sont appelés au ministère, peuvent authentifier autant de valeurs de ce même Évangile.

b) La hiérarchie responsable (...) peut choisir, pour exercer le ministère apostolique, d'une part ceux qui sont appelés et vivent déjà du charisme de la virginité, et d'autre part, ceux qui dans le mariage, par une expérience de nombreuses années, ont acquis une maturité humaine et professionnelle, un équilibre familial et surtout une valeur apostolique dans le sens qui est indiqué dans les épîtres pastorales.» *Rapport de la Commission internationale de théologie*, Le ministère sacerdotal, Cerf, 1971, 105-106 or.

²¹⁶ Bénédicte Foucher, «L'Église entoure ses nouveaux prêtres», *La Croix*, 2003.06.27.

arabera kontzilioko *Presbyterium ordinis* apezetaz bozkatu dokumentuari *eza izan zen*²¹⁷.

Badira aita familiakoak apeztearen alde mintzatu direnak. Maximos IV.a patriarkak idatzi zion Paulo VI.ari, apez bezala Eliza zerbitza lezaketen aita familiakoak bazirela osteka.²¹⁸

1970eko sinodora Frantziaren izenean joanak ziren bi apezpikuei beren lagunek galdetua zieten horrelakorik ez zezaten eska Frantziarentzat bainan ez zitezen kontra agertu beste batzuek eskatzen baldin bazuten.²¹⁹ *Documentation Catholique* aldizkariak agertu ditu Holanda, Belgika, Alemania, Kanada eta beste zenbait herrialdeetako apezpikuek karia horretara agertu ikusmoldeak, gehienak aita familiakoen apeztearen alde. Suenens Bruselako kardinalak zioen giristinoei apezak emateko eginbidea zutela apezpikuek. Eskandalagarri litzatekeela horretarako gai direnak izatea eta haien ez apeztea²²⁰.

1972 eta 1977an, Frantziako apezpikuen biltzarrean Riobé Orleanseko apezpikua alde horretara mintzatu zen egundainokotan.²²¹

Batere ez zelarik aterabide horren alde, Paulo VI.a burulehenak berak ez du baztertzen apez behar gorrian, apezpikuekin

²¹⁷ "C'est un refus de *presbyterium ordinis*, une volonté de retour au Concile de Trente. Une chape de plomb a pesé sur le Synode", Matagrín, 191 or.

²¹⁸ «Trop de candidats au sacerdoce sont écartés à cause des difficultés grandissantes du célibat. D'autres y sont poussés et admis à la légère. Une foule d'hommes mariés pourraient servir l'Eglise dans le sacerdoce.» *Esprit et Vie*, 1970.12.17.

²¹⁹ Martine Sevegrand, *Op. cit.*, 133 or.

²²⁰ «Comme évêque nous n'avons pas seulement le pouvoir d'ordonner des prêtres. Nous avons le devoir d'ordonner le nombre suffisant de prêtres dont le peuple de Dieu a besoin (...) Refuser le sacerdoce à des baptisés capables d'assurer cette responsabilité est inconcevable et scandaleux (...) Les hommes existent, nombreux, généreux, profondément chrétiens. Ils attendent l'appel.» *Documentation Catholique*, 1971.11.07, 987 or.

²²¹ «Pourquoi refuser d'ordonner prêtres des laïcs mariés, sinon en vertu d'un blocage sur le célibat, lié à une image irrecevable de la sexualité? L'Eglise est invitée au courage», *Le Monde*, 1972.11.11, 1977.02.16.

mintzatu eta²²². Oraiko hau ez bada behar gorria zertaratu behar dugu behar gorrian garela onartzeko?

Iduri luke beldur direla ezkonduak apezuz, ez dela gehiago ezkontzaberik izanen apezetan. Mundu osoan badira ezkondu gabe egoten diren gizon emazteak. Nolaz ez liteke apezetan? Budistek ere badituzte ezkonduak ez diren fraileak! Bainan garuko egoera dramatikoa ikusiz ezin sinetsia da zelibatuaren aldeko thema hori.

Gure herrietako giristino elkarteak, familiak, desagertzera utziko ditugu emeki-emeki apez eskasez, eliza eta apezetxeak hetsiz bata bestearen ondotik, baizik eta apezik ez dela, Elizak berak dielarik atea hesten apez berriei? Chiapasetan, Mexikon, indioak sektetan sartzen ari dira, bai eta azkenik mahomatarretan, apez eskasez²²³. Ameriketako Estatu Batuetara doatzin indioetan ere milaka badira sektetan sartzen direnak, apezik aski balitz Eliza katolikoan sar bailitezke. Bigarren mailako arazo bat ote liteke hori, aita familiakoen apeztearen aldean?

Horrelako zerbait gertatua da azken hamarkada hauetan kofesioarekin. Duela 20 bat urte, Donibane Garaziko eliza bi aldiz mukurru betetzen zen besta buru bezperetan egiten zen barkamen elizkizunerako (bat euskaraz, bestea frantsesez). Bi egunez kofesatzen aritzen ginen bestalde, goiz eta arratsalde, hiru apez. Elizkizun horiek kenduak izan dira, baizik eta bekatoros bakoitzak aitortu behar dituela bere bekatuak. Egia da *mortalak* deituak direnentzat: horrelakoak aitortzen zituztenak ez ziren %5era helzen. Besteentzat meza hastapeneko *aitortzen diot* soila aski da barkamena ardiesteko, lehenagoko katiximan ikasi dudana. Are

²²² Lettre au cardinal Veillot, *Documentation Catholique*, 1970, 162-164 or.

²²³ «Dans des sociétés traditionnelles comme celle du Chiapas, lorsque les individus veulent trouver une solution à leurs maux, ils se tournent vers l'Église Catholique, explique Guillermo Uribe. Mais il y a de moins en moins de curés dans les paroisses.» Patrice Gouy, «Des paysans du Chiapas se convertissent à l'islam», *La Croix*, 2003.08.18.

gehiago *barkamen elizkizuna*. (Plazerrekin irakurtua dut ez hain aspaldi oraingo teologoek ez dirotela besterik!)²²⁴ Elizkizun horiek gustatzen zitzaizkien jendeai, bi gogoeta serio egiteko parada ematen zitelaketz... bakarka joanez ez zekitelarik zer erran. Gaur egun ez da ez bederazkako kofesiorik, ez elgarrekilakorik, Elizaren erabaki baten gatik. Printzipio oker baten gatik, denak galdu ditugu. Gure diozesako historioan, XVIII. mendean ikusten dugu, parropien itzulia egitean bi apezpikuk ematen zutela barkamen orokor hori, batere ez zelarik apez eskasik.²²⁵ Gutierrez Donibane Garazi (4 apez baziren), Ahetz (3 apez), Mugeurre (2 apez) eta Bastidan (7 apez) egin zuten hori.

1980an, Uharteko apezetxean egin zen Garazi Baigorriko apezten bilkura. Mgr Vincent hor zen eta erran zuen elizkizun horiek gelditu behar zirela. Emilio Laxague, bere bikario nagusi ohia ondoan nuen. Erran zuen: «Jaun apezpikua, zuk igorririk ibilia naiz apez-etxez apez-etxe, bekatuen barkamen mota hori onartzen ez zuten apezten konbertitzen. Ez ene gain konda orain kontrarioa egiteko.» Horra *egia* aldakorretan gehiagoko sinesterik ez zuen bat. Baina sinestea bazuen. Eta goraki erraten zer sinesten

²²⁴ «Les théologiens pour leur part précisent que cette prière, comme d'ailleurs l'ensemble de la célébration eucharistique, vaut pour la rémission des péchés véniels (...) Vu la gravité humaine et chrétienne du péché mortel, il est normal qu'il existe une démarche spécifique de conversion, d'accueil, de pardon et de réconciliation.» P. de Clerck, *La réconciliation dans l'assemblée eucharistique*, Prêtre diocésain, 1995.03.

²²⁵ «1703, Mgr de Beauvau, St Jean Pied de Port. «Le peuple à genoux, il accorda l'absolution générale avec 40 jours d'indulgence.» Irissarri: «Après les cérémonies ordinaires et avoir donné l'absolution générale, nous aurions dit la prière des morts.»

1737, Mgr de Bellefont. Ahetze: «Absolution générale, prière pour les défunts...» Mouguerre: «Absolution générale, indulgence de 40 jours.» Bastide Clairence: «Confirmation, absolution générale, indulgence de 40 jours.» Relevé des procès verbaux des visites pastorales au Pays Basque: Mgr de Beauvau (1703) eta Mgr de Bellefont (1737) ADPA G 13 et 14.

zuen. Ez zen magnetofono soil bat. Goragoko mailetan ere gertatzen da oraino bat edo bestek gogoan daukatena erratea, gogoan zerbait baidaukate. Hala nola Timothy Radcliffe batek, dominikarren buru zelarik erran zuen Elizaren kontra hasarre zela, hiesa eta begiragailuetaz erraten zuena gatik.²²⁶ Zoritxarrez horrelako guti da. Jondoni Paulok segitzale guti du Jondoni Petri aholku beharretan delarik.

Zenbat alabainan, *amen* erraten baizik ez baitakite. *Xuri* manatzen badiote egun, *xuri* errepikatzen dute! *Beltz* entzuten badute bihar, *beltz*. Konbikzio berarekin!

Nire beldurra da, giristino batzuk ez dutela onartuko herriak apezik gabe egotea. Beste aterabiderik ikusten ez badute, beren artean hautatuko dituzte apezak eta apezpiku baxtert zenbaiti ordena araziko (Vieux catholiques, ortodoxo edo beste.) Hasarre gorria izanen da Eliza ofizialean, bainan hasarrea eztitu eta apezpikuek ordezkariak igorriko dizkiete, Lefevre-tiarrekin egin duten bezala: «Ez egin Eliza berri bat. Itzul egiazkorat. Zuen apezak utziko dizkizuegu.»

Giristinoentzat igandeko meza baitezpadakoa da. Meza horren segurtatzeko *eginbidea* dauka Elizak. Eginbide horren ez betezea, apez batek emazte bat hartzea baino bekatu handiagoa da Elizarentzat. Biziki handiagoa, Elizaren bizia bera baita jokoan.

Azken kontzilioak zioen: «Jainkoak ez du utziko bere Eliza zerbitzaririk gabe, hartarako on direnak hartzen badira.»²²⁷ Akinoko Tomasek jadanik errana XIII. mendean!²²⁸ Ez du beraz

²²⁶ «Nous sommes en colère contre l'Eglise quand elle fuit le problème du Sida et s'emberlificote avec les préservatifs. Nous sommes en colère parce que nous voyons le Christ présent en cette épreuve. Il souffre en nos frères et nos sœurs. Le corps du Christ a le sida.» in H. Tincq, *Op. cit.*, 109 or.

²²⁷ Apaiz formazioa, *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, 465 or.

²²⁸ «Dieu n'abandonnera jamais son Eglise au point qu'on ne puisse trouver des ministres qualifiés en nombre suffisant pour pourvoir aux nécessités des fidèles, si l'on appelle des sujets qui sont dignes et si l'on écarte les indignes.» Supplementum S.T. Q.36, art 4, sol. 1.

Jainkoak uzten Eliza apezik gabe. Nork bada? Nork ditu horretarako on direnak ez deitzen? Eta zer gatik ez ama familiakoak ere, katekistetan %90 haiek egiten dutelarik? Edith Stein eta Lisieuxko Teresa, biak emazteak apeztearen alde ziren eta Elizak dotore izendatuak ditu. Teologia arrazoiak badirela? Zein dira bada emazteak kardenale izaita debekatzen duten teologia arrazoiak? Hor ez da apez izatearen beharrik: begira Mazarin. Emazte zenbait Vatikanoko arduradunetan izateak, giroa alda lezake.

Oso egun beltzak heldu zaizkigu, baina izan dira lehenago ere. Badakigu gauaren ondotik eguna heldu dela, neguaren ondotik primadera eta uda. Gogoan daukagu oraino Jondoni Paulok zioena: «Ahul naizelarik, oduan naiz indartsu». (2 Ko 12,10); Eliza moeta hau hilen da. Ez zen Bazkorik izanen ostiral saindu bat izan ez balitz. Ez da duda izpirik. Hazia lurrean ozituko denean, gure ondokoek beste bat sortuko dute... hobe (Jn 12,24). Baina garai ilun horien kontra deus egiteko gai izan ez direnek ez dute izen ospetsurik utziko historian.

XII

ELIZA SAINDUA

Irakurlea, erdi etsitua senditzen zaitut. Igandetako mezan «Sinesten dut» kantatzean erraten baituzu «Eliza sainduan» sinesten duzula, inarros aldi bat ona hartu duke sineste horrek goragoko orrialdeak irakurtzean.

Eliza Saindua. Zer erran nahi du horrek? Elizatiarrak sainduak direla? Ez! Elizak, edo zuzenago mintzatzeko, Elizak zabaldu behar duen Jesusen Berri Onak, erakusten digula saindutasunerako bidea. «Zuek guziz onak izan zaitezte, zeruko aita guziz ona den bezala.» (Mt 5,48) Hori erranez Testamentu Zaharra beretzeaz besterik ez zuen egiten Jesusek: «Izan saindu, ni Jauna, zuen Jainko saindua bainaiz.» (Lb 19,1)». Saindu hitz hori lehen jinarentzat bali dela erakusteko bezala, «amodiorekin behatu zion» (Mk 10,21) aberats gazteari erran zion: «Guziz ona izan nahi baduzu» (Mt 19,21). Hori ere «guziz ona» izatera deitua zen beraz.

Baketzearen lehen Esker Onezko Otoitzean erraten dugu: «Gizonari on zaiona ematen diozu, saindu izan dadin, *Zu saindu ziren bezala.*»

Zeruko Aita bezain saindu izatera deitzen gaitu Jesusek, eta Elizak gaitu bide horretan laguntzen Jesusen ondotik. Jainkoa bezain onak izatera entseatu behar dugu. Badakigu ezinezkoa dela, baina ahal bezain ona izateko, saindutasun horretara heltze-

ko ideia emana zaigu. Beti hobeki egitera deitzen gaitu, gero eta hobeak izatera, sekulan bide bazterrean gelditu gabe, ustez eta helmugaratuak garen.

Ametsak beharrezkoak zaizkio gizonari. Gaurko herriei eskaini ametsak: munduko lehena izatea ekonomia aldetik, ahal bezainbat urrezko medela ekartzea joko olinpikoetarik, atorra horiarekin bururatzea Frantziako itzulia... Berri Onak ematen digun ametsa, ahal bezain onak izatea, mundu hau ahal bezain ona izan dadien. Gure urrezko medeladunak: abbé Pierre, Indietako Terexa serora, Emmanuelle Egiptokoa, Abbe Gilbert... Amets hori zeukatelakotz dute Nobel saria izan Rigoberta Mentxu katekista ohiak, Dominique Pire aita dominikanoak, Martin Luther King eta Alfred Schweitzer apez protestantek, Desmond Tutu apezpiku protestantak. Ezagutzen duzue maila horretako besterik behardunen zerbitzuan? Uste gabetarik dira denak fededunak? Ez ahal dute ebanjelioaren balioa frogatzen?

Gure munduko gaitza: ez dela norabiderik. Jendek ez dakite gehiago zer ari diren bizi honetan, ez dakite nora ari diren, ez dakite norabait ari direla ere! Helbururik ez dute, norabiderik ere gutiago. Ez dakite zer den ongi, zer gaizki. Ez dakite zer egin behar den eta zer ez. Galduak dira. Horra hor Ebanjelioak ematen duen helburua eta bidea: Jainkoa bezain onak izatea.

Asteburu bakotx neska berri baten biltzeaz, ase bat gehiagoren egiteaz, edo bankoko kondua oraino gehiago hantzeaz beste helbururik da. Gure buruen hobetzeak, denen onetan, mundu hobe baten eraikitzeko gure harriñoa ekarriz, beste perspektibarik ematen digu. Eta beste motibaziorik. Bizia, egia, bakea, zuzentasuna eta amodioa nagusi izanen diren erresumaren eraikitzea gomitatzen gaitu Kristo Errege eguneko prefazioak. Munduak aldiz ametsetarik ar arazten gaitu, handiena, aberatsena, famatuena izateaz. Ez dute ondorio bera bi ametsek.

Ezagutzen duzue zuek «guziz ona» den norbait, itzalik gabekoa, Jesus eta Ama Birjina baztertuz geroz? Saindu handienek berek bekatorostzat daukate beren burua. Sainduago eta gehiago

baizik ez dira ohartzen nolako mugak eta ahuleziak dituzten. Joka nezake apez guti kofesatzen dela Joan Paulo II.a Aita *Saindua* baino usuago eta kartsutasun gehiagorekin.

Eliza bekatorosez egina izan da beti danik. Nahiz!!! Bederatzi urteko haur andana bati galdetu diot behin hean Jondoni Petrik bekaturik egin ote zuen. Aho batez, baietz erran zidaten denek. Gero, hean Joan Paulo II.ak bekaturik egiten ote duen. Aho batez: «Eeeez!». Aita *Saindua* alabainan. Geroztik erabaki dut ez dutala aita *saindurik* aipatuko gehiago, bainan Elizako Burulehena.

Apezei doakienaz hona zer irakurtzen ahal duzuen hebrearrei epistolari: «Apez nagusia gizonen artetik hautatua eta Jainkoaren aintzinean gizakien ordezkari izateko ezarria da. Bekatuen gatik emaitzak eta opariak eskaintzea du bere lana. Ezjakinak eta bide makurretik dabilzanak urrikari izan ditzake, *bera ere ahuleziaz bete baita alde guzietarik*. Hortakotz *bera bekatuen gatik ere opariak eskaini behar ditu, herriaren bekatuen gatik eskaintzen dituen bezala.*» (Heb 5,1-3)

Garbi errana zaiku, apeza bekatorosa dela, besteen bekatuentzat bezala *bera* bekatuentzat otoitz egin behar duela, eta *bera* bekatoros izateak besteen aldera urrikakor izatera ekarriko duela. Ez dezagun beraz Bibliak baino saindutasun gehiago igurika apezan ganik. Apez soil, apezpiku eta Elizako Burulehen, azken hauek ere apez baitira, apez nagusi, eta «apez nagusiak» baititu aipatzen hebrearrei igorri gutunak.

Apostolu bakar batek, Judasek, egin zuen fingaixto: Jesusek berak formatuetan %8,5 galtze heldu da halere. Ez gara horretan gaur egungo apezpikuekin... Eta orokorki, XIX-XX. mendeko Eliza gizonak, beren estakuru guziekin, Elizak bere historioan izan dituen hoberenetarik izan dira, ondarkin zenbait gorabehera nahi ala ez, %100 ezinezkoa baita gizonekin.

«Ontasun hori buztinezko ontzietan eramaten dugu, horrelako indar harrigarria, Jainkoarena dela ager dadin eta ez gurea» idazten zuen Jondoni Paulok, zerbait ikusirik harek ere. (2 Ko 4,7) Ezagutzen zuen Jondoni Petri gure lehen *apez nagusi*, Buru-

lehen edo aita *saindua*. Elizako Burulehen pollita! Oroit zarete nola ukatu zuen Jesus hiru aldiz, judu etsaien eskutan zen gau hartan (Mk 14,66-72). Begiak hetsirik asma ezazue gaur egun, telebistan galdestatua litekeen batez, Joan Paulo II.ak erraten diola PPDari zortzietako berri sailean: «Jesus! Ez dakit nor den. Ez dut konprenitzen zer erran nahi duzun.»

Zer nolako eskandalua! Biharamun goizean berean munduko egunkari guziek ekar lezaketen berri nagusia, hizki handitan, lehen orrialdetik: «Elizako Burulehenak Jesus ukatu du.» Gertakari hori ez da ametsetakoa. Jesus oraino bizi zelarik gertatua da, zeruko atea ongi zaintzen omen duen Jondoni Petriekin.

Ez da Jondoni Petriren bekatu bakarra. Jesusek erranik lehen aldikotz, Jerusalemen hilen zutela, Jondoni Petri hasi zitzaion larderriaka. Jesusek orduan: «Habil gibelera Satan! Error bide haiz neretzat, hire gogoetak ez baitira Jainkoarenak, bainan gizakiarenak.» (Mt 16,23). Zer konplimendua Elizako Burulehen famatuenarentzat! Deabrua dela! Haren gogoetak ez direla Jainkoarenak!

Historiako lehen Kontzilioa Jerusalemen izan zen, apostoluen artean. Trenkatu zuten ez zitzaie paganoeri galdetu behar juduen legeari plegatzea, Testamentu Zaharrarenak egina baitzuen (Eg 15,5-21). Ebanjelioa zen giristinoen lege bakarra. Urhea balio duen ateraldi hau badu gure Petrik: «Zergatik bada, tentatzen duzue orai Jainkoa, gure arbasoek eta guk ere ezin jasan izan dugun uztarria dizipuluen lepoaren gainan ezarri nahiz?» (Gorago aipatu Riccik zioena Txinan eta Erromako bulegokeriak ez zekiena. Eta ez dakiena gaur egun oraino!) Baina handik eta zenbait denboraren buruan Jondoni Petrik erabaki hori hautsi zuen eta Pauloren erasiak entzun zituen: «Petriri *gogor egin* behar izan nion bekoz beko, hutsean baitzen. Jakoberen inguruko batzu etorri aintzin, judu ez direnekin jaten zuen. Bainan heiek etorri orduko, gibelerat egin zuen eta berex egoiten hasi, ebakitzearen aldekoen beldurrez (...) *Denen aintzinean* erran nion: Zu, judu izanki eta, pagano bezala bizi izan zira hemen eta ez judu bezala, nolaz bor-txa ditzakezu paganoak judu bezala bizitzera?» (Ga 2,11-14)

Zer erran genezake gaur egun, Kontzilioan bildu apezpikuek eta Elizako Burulehenak aho batez gauza bat erabaki eta biharamunean burulehenak kontrarioa egin baleza? Berriz ere, zer eskandala! Zer bazka kazetarietzat! Eta zer erran lezakete apezpiku batek publikoki erasia baleza Burulehena, Paulok Petri bezala? Jondoni Petri gure lehen aita saildua ez da beraz *nota gabea* izan, kantika batetako hitzak erabiltzeko.

Jondoni Paulo handiak berak aitortzen du ahoan bilorik gabe: «Nahi dutan ongia ez dut egiten, eta nahi ez dutan gaizkia egiten dut (...) Nere baitan den bekatuaren lege horrek preso nauka.» (Erm 7,19.23). Jondoni Paulo ere bekatoros beraz. Elizaren bi zutabe nagusiak bekatorosak ziren. Geroztikakoak hobeak ote?

Apostoluen ondotik, gure Eliza maiteak izan du beste biligarror pollit parrasta bat, frango tristeak, ahantziak izateko hobeak bailitezke. Bat aipatuko dugu, Euskal Herriko historia hunkitzen baitu: Alexandro VI.a, sortzez Rodrigo Borja. Jaun apezpiku-kardinale hori, bi emaztekin lau bastarta bazituelarik jadanik, aita *saindu*(?!) edo Elizako Burulehen izendatua izan zen. Pentsatzen duzuen bezala, bere ohakideak ez zituen edozein: bigarrena, Vanozza Cattanei, Titien-en *Venus* modeloa eta Cesar-en ama: lau haur eman zizkion. Hiruetan hogeitun urtetan bi seme gehiago izan zituen Julie Farnèse gaztearekin, eskuin eta ezkerreko ohakide zenbaitekilakoak bestalde. Savonarolek²²⁹ erranik deabruz egina zela, eskumikatu zuen. Aita *Sainduari* errespetua zor baitzaio alabaina.

1491an, Cesar Borja, Rodrigo kardinalearen lehen bastarta, Iruñako apezpiku izendatu zuen Inozentzio VI.a Burulehenak... 17 urtetan, oraino ordena bihirik ez zuelarik ukanik. 27 urtetan baizik ez zuen apezpiku ordenatua izateko eskubiderik. Anartean, 10 urtez, apezpikurik gabe egon behar gure Nabarrak: zertarako ote zen apezpikua? Diozesako mozkinak sakelan sartzeko! Naba-

²²⁹ Firenzeko dominikarren priorea.

rran, denak asaldatuak erregetik haste eta apezetaraino. Bainan Fernando *katolikoa*, Espainiako erregek igorri zien bikario jeneral bat, bere aldekoa, apezpikuaren lanen egiteko. Lan hori... Zaragozatik egiten zuen, ez baitzen fida baino gehiago Nabarran agertzeko!

Apezpiku hori onar zezan, Burulehenak opari bat egin zion Nafarroako erregeri: hortik harat, erregek berak hautatuko zituen bere apezpiku eta abadeak, beste erregek egiten zuten bezala. Urte bat eztabaida eta nahasketaren ondotik Borjak izan zuen aintzianamendua: Valentziako apezpiku bai eta Kardinale. Artean Borja aita, apezpiku-kardinale bastartaduna, Aita *Saindu* (?) pasatua baitzen, Inozentziok (G.B.) Erriberriko erregerekin egin tratua ahantzirik, adiskide italiar bat igorri zuen Iruñara, bere semearen ordain.

Borja Semea ez zen behin ere apezpiku kontsekratua izan. Charlotte Labrit, Nafarroako erregeren arrebarekin ezkondu zen, hiru hilabeteren buruan uzteko andere printzesa eta armada baten buru jartzeko. Gizon hau gogoan du idatzi *Printzea* liburua Machiavelek.

Alexandro VI.aren ondokoa, Pio III.a, Pio II.aren iloba zen. Aferak familian pasatzen ziren.... Gero Julio II.a, Cesar-en adiskidea. Oroit gara, haurra ginelarik Julio II. hori zaldiz ikusirik historia liburuko marrazki batean, ezpata eskuan, burdinezko kaska buruan, bere soldadoen buru, gerlan. Geroztik ikasia dugu 65 urte bazituela ordukotzat. Segida hartu zuen, 14 urtetan jadanik kardinale zen Leon X.ak. Bazen bai zerbait orduan ere!

Eta horiek denak horrela izana gatik, Elizak ez du leher egin! Gehiago dena, orduko fruituak ditugu Iñaki Loiolakoa eta Frantses Jatsukoa. Frantsesen oseba, Martin de Azpilkueta edo *doctor Navarrus*, Bartolome Karrantza nabartar teologo eta apezpikuaren abokat izana, honen izendatzeaz bekaizti zen Sevillako apezpikua jaukitu zitzaientzako Inkisizioan zuzenkontra: 18 urte egon zen preso apezpikua, bere auzia ezin bururatuz, Azpilkueta abokatak akusazio bat bota arau, beste bat asmatzen baitzuen sevi-

llarrak. Erroman hil zelarik, erromatarrek *martirio* deitu zuten Karrantza! Beren hiriko Aita *sainduetaz* beste begi batzuekin jujatua zuten euskaldun apezpikua.

Gutarik hurbilago, 1831an, Gregorio XVI.a beneditar frailea hautatzeko berrogeita hamar egun behar izan zituzten eta 100 bozketa Erroman bilduak ziren 45 kardinaleek. «Ez durduza, ez beldur izan» (Jn 14,27). Ikusten duzue Jesusek arrazoi duela.

Beti izan dira, noiz edo noiz, gorago aipatu Burulehenen kastakoak. Seigarren mendean Kartagoko kontzilioak Bixilio lehenburua eskumikatu zuen, sinestea ez zuelakotz zuzena. 681ean, Konstantinopoliko kontzilioak Honorius Elizako Burulehena kondenatu zuen arrazoi bera gatik. 1437an Baleko kontzilioak erabaki zuen Eugenio IV.a Burulehena bere kargutik kentzea. Eta Elizak ez leher egin!

Apezpiku-apezak ez zitezkeen Burulehenak baino gibelago izan. Zazpigarren mendean, Frantzian, Embrun eta Gap-eko apezpikuak beren kargutik kendu zituzten erailtzaleak zirelaketz... Zazpi-zortzigarren mendeetan, Aix eta Maconeko diozesak apezpikurik gabe egon ziren mende bat pasa, hain zen saltsa handia! Lehentxago santa Brigitak zioen *lupanar* edo putetxe bilakatu zela Eliza. Kontzilioek apez eta apezpikuei manatzen zieten urtean lau aldiz bederen eman zezaten meza! Guttiagorekin bizi zirenak baziren beraz! XVI. mendean, beren parropiak ikusten, sinodoak biltzen eta apezak ongi hautatzen zituzten apezpiku zenbait bazela irakurtu dugu. Erran nahi baita, gehienek ez zutela egiten! Hamar bat apezpiku jansenista bazen Frantzian XVIII. mendean.

Baionako apezpikuetan ere izan dugu biligarro politik. Izen datua izan zenetik, iduriz, behin ere hemen agertu ez den apezpiku bat: Jean du Bellay (1524-1532). Bainan mozkinak sakelarratu! Joachim olerkari frantsesaren arrazakoa zen. François I.a erregeren enbaxadore zebilen Ingalaterran gaindi. Henri VIII.a Ingalaterrako erregeari dibortzatzeko kontseilua eman zion eta Sorbonako teologoak dibortzio horren alde biltzera entseatu zen.

Aitzinamendua ukan zuen: Limoges, Le Mans, Bordale eta Pariseko apezpiku eta azkenik Ostiako kardinale. Parissek zor dio bere harresien parte bat! Collège de France ospetsuko sortzaileetarik da. Gutik egin zuen ez baitzen Burulehen izendatua izan! Palazzo eder bat eraikia zuen hiri *sainduan*. Ezagutu duten bi idazleren arabera haurrak izanak zituen Madame de Chatelon anderearekin, *mariage de conscience* eginik: lekuko eta apezik gabe egin *ezkontza*.

Beste batzuen ildo beretik zebilen etxegintza lanetan: Olzek Iholdin, Sossiondok Azkainen, Etxauzek Baigorrrin, de Maytietarrek Maulen, Ihartzek Bastidan nola ez dute zaharberritu bakoitzak bere familiako jauregia! Farnèse, Borghèse, Este palazioak besteak beste, kardenalek eraikiak dira. Bazuten nori jarraiki beraz.

1551tik 1566ra kargutan izan zen Jean des Montiers du Fraisse batek hiru agerraldi baizik ez zituen egin 15 urtez Baionan. Luzeena urte batekoa. François I.a eta François II.a Frantziako erregeen enbaxadore ibili zen hau ere, Alemanian eta Suitzian, erregeen aholkulari eta kofesatzaile kargua ere bazuela. Aitortu behar da ez zitekeela lanik gabe eremu honetan, gure erregeak batere kofesatzen baldin baziren bederen.

Bertrand Etxauz Baigorrikoa (1598-1618) Henri IV.a Erregeak apezpiku izendatu zuen, Burulehenak baino sei urte lehenago. Behin ere ez dut entzun apezpiku txarra zenik nahiz, erregerikilako harremanen gatik ardura falta zen: 1614 eta 1615ean doioia baizik ez zen agertu hemen. La Rochefoucauld idazlearen arabera de Chevreuseko dukesaren ohakideetarik izana zen. Baionan nola jakin egia denetz?

Raymond de Montaigne (1629-37), deitura bereko idazlearen ilobasoa ere perla ederra dugu. Saintes hiriko diozesan karguak bazituen Baionara izendatua izan zelarik. Kontsekrazio bezperan gaitzeko kalapitak izan zituen, kontsekratu behar zuten apezpikuekin: Saintes-ko karguak utzi behar eta ez zuen horrelakorik entzun nahi... kargu horiei lotuak ziren mozkinen gatik! Henri de Béthune, Baionan ordaindu behar zuenak, kontsekratu gabe joanen zela

mehatxaturik, kargu horiei uko egin zien azken puntan. Eta *sainduki* apezpiku kontsekratua izan, biharamunean. Ez zen behin ere akomeatu bere kalonjeekin. Egun batez, kalonje batek jo zuen, ondorioz apezpikuak eskumikatzen zuela. Azkenaren buruan lekuak hustu behar izan zituen hemendik gure de Montaignek.

Jacques de Maury, 1675ean izendatu eta sei urteren buruan baizik ez zen agertu. Haren mailako gizona Euskal Herri zoko honetara igorria izatea, ezin onetsia zitzaion! Mozkinak haatik eskuratzen zituen. Baionako herri gizonak batere ez zuten hori begi onez ikusten. Bordaleko Parlamentuan jaukitu zitzaizkion. Honek, delibero bat hartu apezpikua Baionara etortzera bortxatzeke. Baina hau beti bere herrian egon Tolosa aldean. Azkenean Parlamentuak bere dirua bahitzea erabaki zuen... eta apezpikua jin orduan! Gero, frangotan eskapatu zen Tolosa bere herri maiterra. Bi delibero hartu behar izan zituzten bere diozesan bizi behar zuela konpreni arazteko.

Geroago Druillet (1707-1727) jansenista ere ohargarria izan zen. Ez zuen onartu Aita Sainduak dotrina horretaz agertu *Unigenitus* Konstituzioa. Gutun bat agertu zuen horren kontra eta kondenatua izan zen 1719an. Apez erakasle jansenisten eskuetan eman zuen bere seminarioa 1722an. Honetatik landa zuen Larresoroko seminarioa sortu Jean Daguerre apezak 1733an. 1774 arte, apezgaiak bi seminariotan izan ziren gure diozesan!!! Bazen zerbaiten beharra. 1728an, Lavieuxville apezpikua ohartu zen apez askoren ezjakinaz eta katixima liburu baten eskasaz. Gai ez ziren apezpei debekatu zien kofesatzea, predikatzea eta haurren kofesatzea. Burugogor batzu urrun arazi zituen²³⁰.

Garai haietan zenbat apezpikuk ez zuten bizi ederra eramaten Versailles hiri sonatuko jauregian, diozesako mozkinak berentzat atxik eta lana han nonbait *la France Profonde* delakoan zegoen bikario nagusiarentzat!

²³⁰ P. Lafitte, "Pierre-Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)", *Euskera*, 1982, 619 or.

Apez saindu izanez baino xantza gehiago bazenuen apezpiku jalgitzeko, osaba jadanik hala baldin bazenuen. Hala nola, Iparraldean mugatzeko, Etxauzen ondotik laster dugun Oltzo honen iloba Baionan. Hiru Arnaud de Maytie oseba iloba mauletar Oloronen. Salvat d'Iharce osaba ilobak Tarbesen. Gauza bera Henri eta Jean de Sponde bi xiberotarrekin Pamiers hirian. Iparraldean mugatzen naiz. Erroman berean ez zen besterik ikusten Elizako Burulehenekin. Bi Conti de Segni izan dira Burulehen, bi Savelli, bi Fieschi, bi Orsini, bi Borgia, bi Piccolomini, bi Della Rovere eta orotan txapeldun Medicis-tarrak lau Burulehenekin!

Oltzo Baionan ukan dugun azken apezpiku euskaldunak Elizaren Estatutuak finkatu baitzituen 1666ko sinodoan, hartu erabakietan irakur daiteke «Gertatzen balitz apez batek haurra ukaita ohaide, neskato gazte edo beste norbaitekin, ez dezala altxa bere etxean bainan beste nonbait eta ez dezala balia elizkizunetan laguntzale bezala....» Hitzez hitz 133 urte lehenago, 1533an egin sinodoko testua da. Mende batez ez zitekeen aldaketa handirik izan beraz: apezten emazteak hiru motakoak ziren *ancilla*, *concupina aut alia*. Ez da uste gabetarik sartzen horrelako xehetasunetan.²³¹ Haurrak ez zuela aitaren beretter izateko eskubiderik da Oltzok gehitu duen gauza bakarra. Xehetasun hori ere ez zuen ametsetarik ateratzen! Ongi altxatu behar zuen, bainan ez bere etxean. Amarekin, aitarik gabe?

Loiolako Iñakiren anaia, Azpeitiako erreitor hil zen... lau haur utzirik ... Anaia aldiz saindu. Italiako atsotitz batek zioen: «Se vuoi andare all'inferno, fatti prete», Ifernura joan nahi baldin baduzu, egin zaitez apez. Frantziako batek berriz: «Un moine qui a goûté à la femme, ne peut plus s'en passer», emaztea jastatu

²³¹ «Si forte contingeret, quod tamen Deus advertat, aliquem sacerdotem ex ancilla, concubina aut alia, habere prolem, non apud se, sed alibi educatur et alatur ex patrimonio, si habeat; alias, de fructibus beneficii ali et educatri poterit; ex quo enim sunt geniti, non sunt perdendi, et maxime studeant talem prolem in bonis moribus instrui.» *Statuta synodiali*, Baiona, 1666, 5 or.

duen frailea ez daiteke gehiago pasa gabe. Fernando inperadore-aren arabera, 1560an, apezten moralitate eskasak egin zuen Lu-theren arrakasta. Axularrek du idatzi: Emaztetan ez dabillan apheza, emazu saildutzat; eta dabillana, hala dabillaño, emazu galdutzat.²³² Horrelakoak baziren beraz.

Zelibatua asmatua izan denetik arazo hori izan du Elizak. Laugarren mendekotzat partida zituzten apezte eta ezkontzen zirenak. VII. mendean, herrietako apezek bazuten ohakide bat. Zortzigarrenean San Bonifaziok apezgotik bota zituen emazte bat bazutenak. Hamaikagarrenean Leon IX.a Burulehenak gauza bera egin behar izan zuen egundainokotan. XV. mendean Bale hiriko kontzilioak erabakiak hartu zituen aldi bat gehiago emazte bat zuten apezten kontra.

Milaka eskandaluren artean hautatu bakar batzu baizik ez dira horiek. Ez uste izan «lehenagoko denbora» famatu haiek batzuk dioten bezen ametsetakoak zirenik. Berriz errateko, horrelako eskandalekin, Elizak aspaldi leher egina beharko zukeen. Baina ez! Horrelakoak milaka eta milaka iragan ondoan, hogei menderen buruan, beti bizi da, eta beti handituz doa. Nonbait baduke zerbait onik. Nehorik ez du oraino deus hoberik asmatu gizonari erakusteko zein den biziaren helburua, non dauden biziko bideko marra zuriak, estopak eta argi gorriak. Eliza egiazkoa delako froga hoberik ez da niretzat. Saindu izatea baino froga hobea. Sainduen eskutan balitz erran genezake saindu horiek dutela zutik atxikitzen. Bainan horrelako bekatorosekin ez badu leher egin, erran nahi du zinez zerbait onik ekartzen diola gizonari, Jainkoaren eskutan dagoela. Zinez Jainkoarena dela. Berriz ere oroit arazi behar dut Jondoni Paulok idatzia: «Ontasun hori buztinezko untzietan eramaten dugu, horrelako indar harrigarria, Jainkoarena dela ager dadien eta ez gurea.» (2 Ko 4,7)

²³² Axular, *Guero*, G. Milanges, Bordele, MDCXLIII, 362 or.

Maldan dagoen zuhaitzak ez du merezimendurik ederra izaten. Haizeak zafratzen duen kasko batean aldiz ederra ateratzen dena, hura hura, arraza onekoa.

Euskal Herrian bururatzeko, ohartu zarete XVII. mendea aberats izan dugula apezpiku tristez. Eta haiek erein *haziaren* uzta bezala etorri zaiku XVIII. mendean, Jean Daguerre apez saildua, Larresoroko seminarioaren sortzailea. Akize, Arles, Iruña eta Parisko seminarioak ere lagundu zituen. Honek ditu formatu Frantziako Iraultza garaietan hemen kargutan ziren apezak: Iraultza garaian, Errepublikak eskatu zien apezpei Konstituzioari zin egin zezaten. Burulehenak debekatu. Baionako diozesan, 180 apezetarik 26k baizik ez zuten zin egin. Beste guztiak Erromari jarraiki, Uztaritzeko Direktorioak Pabera igorri txosten baten arabera²³³. Aldiz, Frantziako apezten erdiak pasa, zin egin zuen. Gai honetaz ari garenaz gain, erran behar dugu hautatuak ziren bezala hautatuak izanikan ere, Frantziako 160 apezpikuetarik zazpik baizik ez zutela zin egin.

Gaurko apezpikuak, orokorki beste kategoria batekoak dira, jadanik erran bezala. Hargatik xifre bat gogoetagarria ematen digu Gabriel Matagrín Grenobleko apezpiku ohiak: hiru-laurehun bat apezpiku ez ziren agertu Kontzilioko bilkurretan.²³⁴ Eta bereziki ez dira gai mundu berri bati buru egiteko. Ez dira beharko genituzkeen profetak.

Bainan ez dute ez apezek, ez apezpikuek, ez Burulehenek egiten Eliza, izan ditezen saildu ala bekatoros, bainan beren zoriona Ebanjelioaren bideari jarraikiz bilatzen dutenek, hauek ere izan diten saildu ala bekatoros. Apezek badute, eta gero eta gehiago izanen dute jos ahala urratu. Laikoek dute Eliza eskutan hartu behar.

²³³ «Sur environ 180 ecclésiastiques fonctionnaires publics et autres qui existent dans ce district, il n'y en a que 26 qui soient conformistes.» P. Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque* I, 123 or.

²³⁴ «Je me demande combien d'évêques ne sont pas venus au Concile. Probablement entre trois cents et quatre cents.» G. Matagrín, *Op. cit.*, 141 or.

XIII

JESUSEN TENTAMENDUAK

Jesusez egin filmak badira ehunka. Arrakasta gehiena dutenak dira batzutan gehienik jorratuak baizik eta ez diotela egiani zor zaion errespetua erakusten. Zein apez, apezpiku edo Burulehenek erakasten du egia bere osotasunean? Zeinek ez du bere gisara bere nortasunaren arabera ikusten Jesus eta beraz erakusten? *Gaizki* egin filma horiek ez ote lukete Jesusen mezua ezagut arazten edozein apez, apezpiku edo Burulehenek baino hobeki, filma horiek gabe ainitzek ez baitzuten Jesus izan zenik ere jakin-nen? Arrazoi ximple baten gatik: ez dute zangorik sartzen elizan. Ez dezagun mutur zuria egin sobera aise.

Oroit zarete zer eskandalua egin zuen *Kristoren azken tentamendua* filmak. Ez da gehiago deus errespetatzen! Jesus tentatua! Eta gainera seigarren manamenduaren kontra! Norat ari gara?

Non zen eskandalua? Ez ote digu Ebanjelioak berak erraten Jesus tentatua izan zela? Egia da, film horretan agertzen diren tentazioak ez direla Jondoni Matiu eta San Luken Ebanjelioetan aipatuak diren hiru haiek. Gutarik bakoitzak ezagutzen ditugun tentazioetarik oso ezberdinak. Bitxiak iduritzen zaizkigu. Batere tentazioak direa bederen? (Mt 4,1-11; Lk 4,1-13) Filmako horretan aldiz, geure burua ezagutzen dugu.

Artetik errateko, bi ebanjelista horiek ez digute erraten hiritan mugatu zirela Jesusen tentazioak. San Lukek gertakaria kon-

datu eta bururatzen du erranez deabrua urrundu zela «tenorea etorri arte» (Lk 4,13). Berriz tentatua izan zen beraz Jesus. San Marki doakionaz, hona zer idatzi duen motz motza, gehiagoko xehetasunik gabe. «Berrogoi egun egon zen mortuan, Satanek tentatua» (Mk 1,13). Ez digu erraten zein ziren Jesusek jasan tentamenduak, ez eta zenbat.

Beste bi tentamendu segurik aipatzen dizkigute Ebanjelioek. Getsemaniko baratzean Aitari egin zion otoitza hauxe da: «Aita, oro egiten ahal dituzu. Urrunt ezazu kaliza hau ni ganik!» (Mk 14,36) Ez ote du horrek desertuko lehen tentamendu haren eite handia? Mirakuluaren bidez ihes egin behar zion goseari, orduan. Beste mirakulu baten bidez, Zeruko Aitak eskua zuzenean sartuz, behar zuen bere oinazetatik libratua izan hemen. Jesusek aldi honetan ere tentazioari ihardoki zion «Haatik, ez nik nahia, baina zuk nahia.» (Mk 14,36)

San Markek (eta honek baizik ez zezakeen horrelakorik kon-
da! Besteek ez dute aipatzen.) ezagut arazten dizkigun Jesusen azken hitzak, kurutze gainean, familia berekoak dira: «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zer gatik abandonatu nauzu?» (Mk 15,34). Jainkoak zerutik jautsi behar izan balu bezala, semea bere etsaetatik libratzeko. Iduri luke Aita akusatzen duela.

Ez ote da hori bera entzuten heriotze lazarri batek edo zorigaitz handi batek norbait jotzen duelarik? «Zer egin diot bada Jainkoari horrelako batek joa izateko?» «Jainkorik balitz ez litake horrelakorik gerta.» Blasfemia zaiote hori zenbaiti. Baina hitz horien erratea bera ez ote liteke Jainkoan sinesten dugula aitortzeko molde bat? Ez zaizkigu Mohamed edo Buda heldu gogora, ez eta deabrua, baina Jainkoa. Otoitza, Jainkoarekin mintzatzea bada, ez ote da otoitza hori ere? Eskerronezko eta eskaera otoitzak ez baitira otoitz bakarrak. Gauzak ez titzeko, zenbaitek diote salmo baten pasarte direla Jesusen azken hitzak. Hain zuzen pasarte hori du Jesusek hartu eta ez beste bat otoitz egiteko eta erraten duena erran nahi du.

Jesus Jainkoa zen, baina Elizak erakasten digunaz gizona ere bai, bekatuaz kanpo, orotan gu iduri gizona. Tentamenduan ere

bai, tentamendua ez baita bekatua. Ebanjelioan zinezko gizon agertzen zaigu. «Gizakien iduriko bilakatua, gizaki bezala agertua» (Flp 2,7) Hainbestetaraino gizon eta gizon xume non bere herritarrek baitzioten: «Ez ote da hori zurginaren semea?» (Mk 6,3)

Ñiñi sortu da, gaur egun familia behartsuenean ere haurrik sortzen ez den moldean, lehenagoko buhameak iduri, aberen erdian. Handitu da. Ikasi du ñauka edo lau patetan ibiltzen, zutik egoiten, kurritzen, mintzatzten. Bere herriko hizkuntza hura bakarrik. Arrotzekin mugatua da, gu bezala: Greziar batzuk zerbait erran nahi diotelarik, Feliperi dei egin behar dio itzultzaile lana egin dezan. (Jn 12,20)

Iheslari politiko joan behar du amaren bizkarrean Egiptora, Herodesek hil nahi duelarik. (Mt 2,3-15)

Haur adoptatuek ezagutzen duten inarros aldi bera jasan du, jakin duelarik San Josepe ez zuela zinezko aita, baina aita ordezkoa.

Zurgin ofizioa ikasi du Josepekin, artetan martailu kaska zenbait bilduz erhi muturretan, beste edozein apendizek bezala.

Gosea zer den badaki, ez bakarrik barur egin duelarik bainan ere bide bazterreko gari landan buruxken moztera ekarri duelarik goseak apostoluekin, bihitu eta hala hala jateko (Lk 6,1). Egarrria ere bai: Samariarrari ura eskatzen dio (Jn 4,1-38). Guri bezala gorputza akitzen zaio: itsasoak hondatzeko heinean alde guzietara daramalarik barkua, nahiz arrantzale atrebituak, apostoluak izituak direla, Jesus lo dago. Hainbestetaraino akitua non ekaitzak ez baitu iratzar arazten (Mk 4,35-38).

Ez dakizkien gauzak badira: apostoluak zertaz mintzo diren (9,16 eta 33), mundu hau noiz bururatuko den. Heriotzeak beldurra ematen dio: «Izaldura eta laztura senditzen hasi zen» (14,33). Lotsaturik hiltzen da jadanik ikusi bezala (15,33).

Adiskideen amodioaren beharra badu guk bezala. Bakar bazu ezagutzen ditugu: Lazaro, Madalena, Maria, Marta: «Juduek erran zuten orduan: zein maite zuen» (Jn 11,35). Haien etxera

biltzen da pausatzeko, goxatzeko. Lazaroren hilobi aintzinean nigar egiten du, heriotzeak hunkitzen gaituelarik guk egiten dugun bezala. «Jesussek nigar egin zuen». (Jn 11,35)

Norbait ikusten duelarik oinazetan edo nahigabean, hartaz urrikaltzen da: gizon bat leprak joa ikusten duelarik (Mk 1,41); Naimeko alargunak bere haurra galtzen duelarik (Lk 7,13); jendea janaririk gabe ikustean basa mortuan (Mk 6,43); Jerikoko bi itsuak hurbiltzen zaizkiolarik (Mt 20,34). Xoratu egoiten da zer-bait eder ikustearekin, hala nola ehuntari erromatarrak erraten diolarik nola bere menekoek obeditzen dioten manua eman bezain segur (Lk 7,9). Legeari jarritzen zitzaion aberatsa *maitatu zuen* (Mk 10,21).

Haserretzen da. Eta nola! Oroit tenplotik kanpora igorri dituela saltzaleak azote ukaldika, mahai, alki eta diru firindika botaz (Mk 11,15). Jainkoaren izenean izan haserre *saindua* zioten lehenagoko predikariek! Alabaina nola sar haserrea bekatu kapituletan, Jesus haserretzen bazen? Bestalde ere haserretu da. Hala nola apostoluek haurrak bortizki urrundu nahi dituztelarik. «Hori ikustearekin Jesus sumindu zen.» (Mk 10,14) Edo eskua eiharra zuen gizon hura larunbatarekin etortzen zaiolarik sendatua izateko: inguruan zeuzkan farisauei «hasarrez behatu zien» (Mk 3,5).

Tentamenduaren aldetik liteke bakarrik mugatua bere gizon-tasunean? Jainko seme batek baizik ezagut ez ditzakeen tentazio arrado haietarik baizik ez duela ezagutu? Ez! Gizona da. Gizona den pundutik, gu bezain gizon, guk ezagutzen ditugun tentamendu ber berak ezagutu ditu. Seigarren manamenduaren kontrakoak ere bai. Hamalau hamabost urtetan, mutiko txarra gizontzen hasi denetik sexuak berea eskatu dio, beste guziei bezala. Beste gizon guziek bezala gose horri ihardoki behar izan dio eta *Jesusen Tentamendua* filmak egia baizik ez digu erraten. Tentamendua ezagutzea ez da bekatuan erortzea. Non da eskandalua Jesus ikusten delarik tentamenduari ihardokitzen, tentamenduan ez erortzen? Jesussek tentamendu hori ezagutu duela ukatzen dutenak Elizako betiko tabu haren menpean bizi dira, sexuaren tabuan.

Zenbatetaradino zen gutartekoa, hona beste gertakari bat: Ostegun Sainduz, Jesusi jarraikiz, gizon zenbaiten oinak ikuzten dituzte apezek. Gizon horietan zenbat etor liteke aldarera oinak ongi garbitu gabe etxean? Gertatu zait lan hori egitea Airemu herrian. Lehen gizonen berean ura beltza nuen. Egun osoa errautsean oinez ibili oina zen. Jesusen apostoluenak ez ziren garbiagoak eta Jainkoaren semeak lan hori egin du. Zinez gizona zen.

Hona zer gertatu zitzaidan behin N'Zinuango bananadoian. 200 bat langile bazen, denak Mozi leinukoak, Burkinatik etorriak. Lurrezko kapera bat eraikia zuten hango 30 bat giristinoek. Bazuen Beleneko barrukiaren eite, Reims-eko katedralak baino gehiago! Hilabetean behin edo, meza bat ematen nien astirian. Zenbaitekin kaperatxoaren aitzinean kalakan ari nintzela, beste batzuk Ugaduguko irrati nazionala entzuten zuten. Bet betan gaitzeko irri karkaila.

–Zer erran dute?

–Baizik eta bakoitzak bere herrian gelditu behar duela. Ez joateko hirira, han ez dela lanik. Bainan, bera? Zer gatik joan da hirira, bere herria utzirik?

Irratilaria ipurutik mintzo zitzaien, futbol zelaian ahal bezala ari zirenei. Jesusek ere ez ote zuen errana: «Heiek erran guzia egizue beraz, bainan heiek egiten dutena ez egin; erraten baitute, bainan ez egiten.» (Mt 23,3)

Jesus ez zaiku ipurutik mintzo, edo bazterretik aholku ematen ari. Ez da besaulkian erroradino sartua den kiroltzale handiaren idurikoa, telebistan ikusten dituen errugbilarietako oihuka, gaizki ari direlaketaz. Jesus hor da, gutartean, zelai erdian. Ez da airera mintzo. 30 urtez goiti gurea iduriko bizi berbera eraman du, nehor ez zela deusetaz mesfidatzen: «zurginaren semea» zen denentzat. Besterik ez. Gizonen biziak, gure biziak mintzo delarik, Jesusek badaki zertaz mintzo den. Berak ezagutu baitu bizi hori. Tentamenduak barne. Konfiantza osoa egiten ahal diogu.

Nahi nuke ohart arazi Ama Birjina ere ez zela beste mundu batetako, bainan gutarteko emazte bat, emazte guziak iduria.

Hamabost bat urte zituzkeen Gabrielen bisita izan zuelarik; garai haietan ez zuten 30 urteren bizi esperantzarik bana beste eta haur bat izateko on ziren pundutik ezkontzen ziren neskak, berriki arte Afrikan egiten zen bezala, arrazoi beraren gatik. Zer ulertu zuen Gabrielen mezuan? Guri Jesusen historia ezagutuz, argi iduritzen zaizkigunak batere ez ziren hala Mariarentzat.

San Josepek ez zukeen tripako min txarra bildu ohartu zelarik Maria esperantxetan zela... beste norbaiten ganik. Mariak eman argitasunek osoki atera zuten bere ilunbetarik, dudak badi-tut.

Asma ezazue hamasei urteko neska bat erdiminetan, herritik urrun eta azkenean bere haurra, behi eta ardiaren artean ukaitera bortxatua. Asma ezazue zenbait hilabete geroago, haurra bizkarran (astoz erakusten dute margolariak, bainan nondik izanen zuen asto baten erosteko dirua?) ihesi joatera bortxatua, berak ez zekielarik norat.

Beste emaztek bezala jatsa pasatzen zuen etxean (Lk 15,8-10), ogia egiten (Lk 13,20), denen jauntziak petaxatzen behar zelarik (Mt 9,16), Jesusen paraboletarik ikusten dugun bezala.

Semearen tenploan galtze, kurutze eta bestek, hainbeste aipaldi badutelarik, iduri zait haur denborako gertakari horien latza ez dela aski azpimarratzen, hoin ederki erakusten dutelarik zenbatetaradino ziren gutartekoak Maria, Josep eta Jesus. Ebanjelioa gure bizian errotua da nehork uste baino gehiago.

Ebanjelioa gure biziko gertakariz betea da, gure heineko predikuz.

XIV

DEMOKRAZIA ELIZAN

Mundu zibilizatu guzian demokrazia delarik martxan bere on-gaitz, itzal-argi eta gora-beherekin, Elizako arduradunek demokrazia predikatzen dutelarik aho beteka... bestentzat, Elizak berak ez du delako demokrazia praktikatzen. 1849an, Pio IX.ak bere estadoak berreskuratu zituen Frantzia eta Suitzako soldado-en laguntzari esker. Laguntzaileek eskatu zioten demokratikoki erabil zitzan lur horiek, baina boterea eskuratu bezain laster, diktatura zuten jasan Erroma inguruko jendeek.

Maila apalago batean, neure beharrez entzun dut apez kargudun batek erranik, demokrazia ez dela posible Elizan. Hori erran didanari doakionaz ez da dudarik bere praktikaren araberrako teoria zuela. Beste zenbatek ez dute hark bezala egiten, erraten ez badute ere? Kontseilariz inguratuak dira, baina kontseilu emateko bakarrik. Erabakiak haien gain, klerikalismoa gorenean zen garaietako moduan. Apezak azken hitza bere! Ez ote da gaur egun oraino Elizako dogma nagusietarik? Telefono gorria badukete Izpiritu Sainduarekin! Demokrazia, begietako errautsa. Laikok ere Eliza eskutan hartze hori, arrabots handi bat baino gehiago ote liteke «brontze dulundari eta zinzala burrunbari» (1 Ko 13,1)? *Kontseiluetako* kidea, madama handien xakur tette bat iduri, obeditu behar duen sehia? Begietako errautsa?

Bizkitartean giristinoak ez ote dira lehen demokratikak izan? Gauza bat bada ohargarria: non sortu da demokrazia ez bada mendez mende Ebanjelioak markatu Europako herrialde giristinoetan? Non bizi da gaur egun oraino ez bada herrialde giristinoetan, salbuespen bat edo beste gorabehera, bainan biziki guti (India ez dut horietan sartuko jakinez 150 milioi jende maila apaleko kastakoak direla eta ez dutela beste guzieren eskubiderik. Ez eta Israel) Ez du zerbait erran nahi horrek? Uste gabetarik da horrela gertatu? Emaztearen eskubideak eta zientziaren garapena ere ez ote dira herrialde giristinoetakoak ustegabestarik?

Frantziako giristinoek lanak izan dituzte demokrazia onartzen Iraultzarekin sortu baita demokrazia eta Iraultza ez baita baitezpada demokratikoki jokatu Elizarekin: hamar bat urtez Frantziako apez guziak kanporatuak izan ziren! Elizak hetsiak edo belartegi ez bazen zalditegi bilakatuak. Hilak izan ziren ehun milaka. Vendée aldean berean 165.000²³⁵, jendetze osoa 750.000koa zelarik. Erailtzaleetan euskaldun xazurrak baziren!²³⁶ Nurembergeko auziko espezialista den Jean Marc Varaut batek Europako lehen genozidiotzat dauka Vendeako hori²³⁷. Ez

²³⁵ *La Vendée, Après la Terreur, la reconstruction*, Perrin, 1997, 243 or.

²³⁶ «Vandeako partia / hain da pozoindatia, / debuz poseditia, / bizpahirur urte huntan / beti gitu xerkatu. / Harek orai pagatu, / bi mila gizon galdu, / gal-tza gabeak garaitu.» A. Zavala, *Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoan*, Etor, 1989, Auspoa 202, 127 or. Kantu honek erakusten digu euskaldunak osoki sartuak zirela vendearren kontrako ideologian.

²³⁷ «Cette extermination systématique, ordonnée et exécutée au nom de l'idéologie de la régénération de la dictature jacobine, est incontestablement justiciable de la qualification de crime contre l'humanité. (...) Dans l'histoire de l'Europe, c'est la révolution française qui, la première, fit passer dans la réalité, l'idée d'exterminer un groupe humain, non pour ce qu'il avait fait, mais pour ce qu'il est.» *La Vendée*, 629 or.

Hartz eta Garrau «Comité de salut public» erakundeko ordezkariak idatzi ateraldi hau bada artxibotan: «La guerre de Vendée ne sera terminée que quand il n'y aura plus un habitant dans la Vendée. Le général en chef nous a promis de les détruire tous avant quinze jours.» *La Vendée*, 121 or. (SHAT, Armée de l'Ouest, 1794.02.19.)

da harritzekorik Iraultza ondoko girstino ainitz errepublikaz mesfidatzen baldin baziren. Ur beroak erre potzoa, epelaren beldur, dio atsotitzak.

Ameriketako Estatu Batuetan katolikoek ez dute arazo izpirik izan demokrazian bizitzeko, haste-hastetik. Eta hemendik harat joan euskaldun girstinoek onartzen zuten demokrazia hori. Hona zer idazten zuen *Californiako Eskual Herria* kazetan, Etcheverry, Kanbotik Los Angelesetara joan laborari semeak: «Gure erresuma huntan, Kardinal Gibbon, apezpiku eta apez guziak Errepublikanoak dira eta lehenbizikoak litazke errege edo inperadore baten kasatzeko. Europako buru koronatoek ez duteia haltoki erraten Aita Saindua, Leon XIIIgarrena Errepublikanoa dela? Orduan ez dugu ohorerik baizik ikusten Errepublikanoak izaita gure bi deputatuak.»²³⁸ Bestalde, Iparraldeko girstinoak xuri ziren, apezek beren gogoia Parisko apezek idatzi liburuetarik hazten zutelakotz, ebanjeliotik baino gehiago.

Gaur egun, Frantziako gorriek, beren burua errepublikar garbi-garbi, errepublikar puntako gogolari zeukaten intelektual handietan zenbatek, ez dute luzaz eta luzaz sinetsi XX. mendeko totalitarismo ikaragarrienean, Komunismoan? Txekoslovakia, Hungariako oldartzeak odolean itoak ikusi eta ere ez dira bidez aldatu ainitzak. Zenbatentzat ez dira jainko izan Marx, honen ondoko xismakoekin: troskista, leninista, maoista eta beste, Stalin eta Mao Tse Tung aita saindu! Ez delarik Pol Pot. Aita sainduak barkamendu galdetu du publikoki bai juduei, bai ekialdeko girstinoei. *L'Humanité* komunisten egukarian ez dut behin ere horrelakorik ikusi Gulagetaz. Ezin uka Elizak argiago ikusi duela puntu honetan. Frantziak ere ez du barkamenik eskatu dotzena milaka Aljerian erail dituen arabeentzat, ez eskuina, ez ezkerra boterean zelarik.

²³⁸ Santa Mariako bizkondea, «Gure deputatuak», *Californiako Eskual Herria*, 1893.11.4.

Gaur egun badugu beste jainko berri bat, Asia mendebalean, Bin Laden. Bush ere ez ote liteke horrelako zerbait amerikano andana batentzat?

Gizonaren eskubideetaz hain minbera diren (eta arrazoinekin) zenbaitek noiz aipatzen dituzte, gaur egun oraino, fedearen gatik erailak diren giristinoak Txinan, Indonesian, Sudanen, Indian? Aljerian berean badira 20 bat fraile, apez eta serora erailak izanak. Euskaldunetan aipa ditzagun Mendiburu trapista eta Bonnet misionesta Indotxinan, Ellakuria jesuita Ertamerikan eta beste. Eskandala handirik egin du horien odolaren ixurtzeak?

Demokrazia zer zen ere nehork ez zekielarik, lehen giristinoek praktikatzen zuten. Jondoni Pauloren garaietan jadanik, giristinoek *hautatzen* zuten nor izanen zen beren burua, *presbyter*: hitz hortarik heldu baita *prêtre* hitz frantsesa, bai eta lehenago euskaraz apez erran nahi zuen *bereter* hitza. (*Bereterretxea* ez da behin ere beretter edo monagillo baten etxea izan, baina *presbyter* batena.)

Apezpiku eta Burulehenak ere demokratikoki hautatuak ziren. Lehen mendean berean Erromako Klementek Korintoko giristinoei idatzi zien «eliza osoaren baimenarekin» hauta zitzaten beren arduradunak (44,3). Garai beretako *Didake* dokumentuan irakurtzen dugu «*Hauta* Jainkoaren gustuko apez eta apezpikuak.» (15,1) Mende bat berantago Hippolytek *Apostoluen Tradizioan* (2): «Apezpikua, *herriak hautatua* izan bedi.» Bitxi ere da ikustea zer garrantzia ematen zaien gauza batzuetan lehen giristinoei, *tradizioa*-ri dei eginez, eta beste batzuetan, hau izan ez balitz bezala egiten. Emazterik ez da apeztu nahi, baizik eta lehen giristinoek ez zutela horrelakorik egiten, aldiz demokraziari doakionaz delako *lehen giristinoen* demokraziarik bazela ere ez da aipu. Gauza bera aita familiakoen apezteaz.

1918ko Eliza-deretxo berria idatzi arte, teorikoki martxan zen deretxoan idatzia zen, apezpikuak bozkaz hautatua izan behar zuela. Arte horretan zernahi salbuespen sartua zen, batzu kalonjeen alde, besteak erregeen alde eta abar, baina legea hor zen beti.

Anbroxio Milaneko apezpiku hautatu zuten bere herritarrek bataiatzekoa zelarik oraino, berak uste ez zuela, oihuka hasi zitzaizkiolarik «Anbroxio apezpiku! Anbroxio apezpiku!» Ez ditake erran hautu demokratikoa, makurra izan zenik.

Gauza bera Afrikan Jondoni Xipirinerekin. «Vox Populi, vox Dei!» Hots! Herriak errana, Jainkoak errana. Honek zioen giristinoek badutela apezpikua hautatzeko eskubidea edo eman nahi diotenaren ez onartzekoa. Gauza bertsua gertatu zitzaion Auxerre hirian, Frantzia iparraldean, gobernamentuko goi langile zen San Germain bati 418an.

1049an oraino, Leon IX.ak deitu Reims-eko sinodoak erabaki zuen, Henri I.a erregeren nahiaren kontra, nehork ez zezakeela eskutan har Elizaren zuzendaritza ez bazen apezek eta *herriak hautatu*.²³⁹ Garai haietakoa da «Querelle des investitures» eztabaida, politikoez nahi baitzuten beretu eskubide hori.

Herriak ez bada, Baionako kalonjeek hautatu azkena, Bertrand de Lahet saratarra izan da 1504an. 1516tik harat, François I.a Frantziako erregeak eta Leon X.a Eliza Burulehenak Boloñan izenpetu konkordatuaren ondorioz, erregeak berak hautatu zituen apezpikuak. Elizaren ongia gogoan ote?

Bere faltaz dio Elizak eskua sartzeko ahala eman politikari. Constantin inperadorearen garaietan Eliza eta politika adiskidetu zirenetik, Elizak esku ukaldiak eskatzen zizkion errege edo inperadoreari arazoak bazituelarik fede erabakiak onart arazteko giristinoei eta alabaina, erregeak ere eman zerbitzuaren ordaina nahi. Elizako boterea laguntzen zuen herriko botereak... ordainean truk! Jerusalemgo hartaz kanpo, lehen zazpi kontzilioak inperadoreak ditu deitu eta inperadorearen palazioan iraganak dira! Bide makurra! Fedea ez baita bortxaz sakatzen jenden gogoan,

²³⁹ «Nul ne peut s'arroger le gouvernement de l'Eglise s'il n'a été élu par le clergé et par le peuple.» Xavier de Montclos, *Brève histoire de l'Eglise de France*, Cerf, 2002, 60 or.

nahi bezain egiazkoa izana gatik. Eta Elizari ahantzia zitzaion, Constantin gabe zituela erroak hoin ederki eginak ordu arteko munduan.

Dueña 50 urte oraino, apezpiku bat izendatu behar zelarik, misionestek hiru izen ematen zituzten (*terna* deitzen zen hori). Lehen ateratzen ziren hiruetarik bat zen apezpiku izendatua. Pierre Dokelarrek ongi esplikatzen du hori Larregainen kasuan.²⁴⁰ Apezak eta eliza ongi ezagutzen zituen apezpikua. Ez nonbaitik jinikako ezezaguna, diozesa arrotz batetan galdua. Apez guziek ezagutzen zuten apezpikua. Beren arteko bat, eta ez *jaun* apezpikua. Nonbaitik jinikako norbait delarik, nahi ala ez urruntasun bat bada apez eta apezpikuaren artean. Apez eta giristinoak arrotzak dauzka honek. Tokiko harat honatak ez ditu ezagutzen.

Zenbatez arrotzago diozesa batetarik bigarren batetara pasatzen delarik, ez delarik hiru edo laugarrenera, iduri karrera egiten ari den Errepublikako prefeta. Jondoni Xipirinek zioen, apezpikua bere Elizarekin ezkondua dela eta hartarik ezin berezia: «Apezpikuak egiten du bere Eliza eta Elizak bere apezpikua» (Ep. LXVI. 8). Nizeoko kontzilioak bekatu bezala kondenatu zuen apezpikuen diozesez aldatzea. Tradizio hori ere gehiago konda ez direnetan sartzekoa hain segur! Bigarren mailako apezpikuak baik ez izatera kondenatuak ote litezke diozesa ttipiak, Jesusek ttipien aldera zeukan amodio berezia ezagutzen dugularik?

2003an Gapeko apezpiku izendatua izan da Marseillako hirian sorturik, apezutz geroz, Parisen ari izan den di Falco. Hiri handitik, dena herri ttipi den mendiko diozesa horretara. Zenbat

²⁴⁰ «Le processus de nomination d'un évêque d'un territoire qui dépend de la «Congrégation de la Propagande» était relativement simple. Les prêtres de ce diocèse ou vicariat donnaient, après vote, une liste de trois noms dans l'ordre de préférence. Rome après une enquête sommaire choisissait généralement le mieux placé. (...) Le père Larregain venait en tête». Pierre Dokhélar, *Jean Larregain*, Pau, 1999, 74 or.

urte beharko du egoera berriari jartzeko, lanean plantan hasi aitzin.²⁴¹ Ez badiote diozesa handiago batetara aitzinamendua ematen artean.

Badakit *estatu grazia* hura badela, Jainkoak bere kargua betetzeko bakoitzari ematen dion laguntza berezia. Apez gazte nintzelarik ezagutu dut seminario ttipira ingles irakasle izendatu izan zen bat, bere klaseko azkenetarik izana inglesean, ikasle zelarik. Hark ere estatu graziaren beharra bazuen! Elizako buruzagien erabakiz, zenbat eta zenbat apez eta kargudun ez du Jainkoak lagundu behar izan, delako grazia horretaz Elizako historian barna, itxura guzien arabera ez baitziren batere, emana izan zitzaioten lanarentzat eginak.

Laikoek (ez politikoe!) eskua sartu Elizan? Zenbat ez dira beldur, laikoek boterea hartuko dutela, ez direla apezak baino hobeak izanen, hauek bezain *diktatore* izanen direla. Diktatore: zer aitormena! Gauza segurua, botere parte bat galduko dutela apezek. Gaizkiago izanen gara horren gatik? Ez daiteke erran gaurko apez eta apezpikuek mirakulu handirik egiten dugunik Elizarekin, botere guziak eskutan dauzkagularik. Peko erre kara joatera uzten ari dugu, isil-isila, iduri ez dugula geroan ez esperantzarik, ez sinesterik. Baionan egin baititugu sinodo-gogoetak 2003an, talde baten erantzunetan haxe irakurtu dut apezetaz: «Etsituak dira. Amor emana dute elizak husten direla ikustearekin.»

Beste batzuk diote kalapitak sortuko direla jendeak akort izanen ez direlarik apez edo apezpiku baten izendatzeaz. Herriko bozken karietara ere badira kalapitak. Badira bi parte egiten diren herriak bozken ondorioz. Demokratikoki hau-

²⁴¹ «Le diocèse de Gap offre à ce Marseillais devenu Parisien, un 'terrain peu connu'. Diocèse de montagne à la population disséminée, il présente des problématiques de pastorale en monde rural auxquelles le P. di Falco n'est pas habitué.» Isabelle de Gaulmyn, «Mgr di Falco nommé évêque auxiliaire de Gap», *La Croix*, 2003.09.03.

tatzea bazterrera utzi behar ote liteke horren gatik? Apez bat izendatua delarik nonbaiteko erretor, herritar guziek onartzen dute beti? Arras ongi ezagutzen dut herritar andana baten iritzia- ren kontra egin izendatze bat, apezetxea bera ez baitzioten apezari utzi nahi. Kazetetan polemikak izan baitziren aldeko eta kontrakoan artean. Egina egin, apeza izendatu tokian egon.

Elizako Burulehena bera, Erromako apez eta giristinoek hautatu dute luzaz. XI. mendean zuten erabaki kardinalak zutela izendatuko. Ez daiteke erran molderik hoberena zenik: hemezortzi hilabete Burulehenik gabe egon ziren XIII. mendean, Klemente IV.a hil ondoan. Azkenean, Viterbeko auzapezak ur eta ogian bizitzera kondenatu zituen kardinaleak beren hautua egin arte. Ogi eta ura baino nahiago zuketen xingar eta arraultze baso bat arnorekin, ezen egun laburrik barne trenkatua izan zen afera. Inozentzio IV.a hautatu zuten. Genes hirian gelditu zen, Erromara joateko ez soberakinik fida. Lehen ere askotan zerbait bazela trebeska Elizan errana dizuet jadanik.

XX. mende hasieran oraino Frantzia, Espainia edo Italiako estadoek beren eza eman ziezaioketen hau edo hura Burulehen izendatzeari. Horrela da behin ere Burulehen ez izan denek igurikatzen zuten Rampolla kardinala 1903an, Autrixiako inperadorearen erabakiz. Pio X.a hautatua izan zen ondorioz. Eskutan daukat postal bat: cardinal Rampola, nommé pape le...!!!

Gogoan duke zue hiru Burulehen betan izan direla XIV-XV. mendeetan, Baionari doakionaz bi apezpikurrekin, bat Baionan, bestea Donibane Garazin. Horiek denak ez dira Elizako demokraziaren ondorioak izan. Eta nehork ez du aipatzen horien gatik demokraziara itzuli behar denik! Eta garai horiek ere gaintu ditu Elizak! Ez du leher egin! Behin baino gehiagotan bi Burulehen gertatu direlarik aipatu garai horietaz kanpo ere: 33 kasu ezagutzen ditugu.

Eta ez uste izan botere politikoak ez duela gehiago sudurrik sartzen izendatze horietan! 2002an René Rémond historialariak mintzaldi bat egin zuen Baionako komertzialdegian. Galdetu genion heian, gaur egun, laikotasuna dogma nagusitzat daukan

Frantziako Estadoan, gobernuak zerbait erratekorik ba ote lukeen apezpikuen izendatzeetan. Garbiki erran zigun, han ginen guziei, gauzak onez onean pasatzen direla. Apez bat nonbaiteko apezpiku izendatzeko xedetan direlarik, hizño bat erraten diotela gobernuari, jendetasun soilez. Gobernuak zerbait baldin badu apezpiku-gai horren kontra, jakin arazten du. Ez zaie balio horren gatik boterearekin makurtzea eta beste bat izendatzen dute. Onez onean pasatzen dira guziak. Etxekoz etxeko.

Gabriel Matagrín-ek idatzi du Villot kardinaleak apezpiku laguntzale hautatu zuela laguntzalearentzat ez zuelakotz gobernamenduaren baimenik behar.²⁴²

Gure apezpiku guziek badute Frantziako lehendakariaren *benedikapena*, hau, *hargin beltza* eta poligama izana gatik Miterrand-en gisa. Horra zergatik Baionan apezpiku euskaldun bat ez izatea segura dugun. Eta luzaz oraino. Gure departamendua ez duguno. Beren bizia Elizari emana dioten diozesako apez, serora eta militanteek pentsatzen dutenaz nehork ez du axolarik. Errepublikako nagusi paganoen ikusmoldea aski zaie.

Horrek baditu bere ondorioak. 1940ko hamarkadako lehen partean, apezpikuetan gutiz gehienak Pétain kolaboratzailearen aitzinean zeuden belauniko: ez zena Elizaren aldekoa? Hainbestetaradino non, De Gaulek eskatu baitzuen bizpahiru dotzena apezpikuren aldaira, bizpahirurena baizik ez zuelarik ardietsi. Apezpiku haien manuei desobeditu behar izan zieten errezistentzian sartu ziren apez eta girixtinoek.²⁴³

²⁴² «Quand en septembre 1964, le cardinal Villot m'a informé qu'il demandait que je sois nommé évêque auxiliaire de Lyon, il m'a précisé: comme cela, la demande n'a pas à passer par l'Etat, et ce sera vite fait, dans quinze jours ou trois semaines.» G. Matagrín, *Op. cit.*, 79-80 or.

²⁴³ «L'épiscopat se trouve de ce fait passablement discrédité à la Libération, son autorité affaiblie pour les engagements temporels, et il n'échappera à la rigueur de l'épuration que grâce à l'habileté diplomatique du nonce à Paris, Mgr Roncalli, futur Jean XXIII.» René Rémond, *Le Christianisme en accusation*, Desclée de Brower, 2000, 100 or.

Bada, politikoen esku sartzearen ondorioak erakusten dizkigu historiak. XVI. mendetik Frantziako Iraultza arte, 25 apezpiku izan baitira Baionan, 23k *de* bazuten beren deitura aitzin. Apez on guziak jauregiatarik ateratzen zirelaketz ote? Iraultza ondoan, Napoleonek konkordatua izenpetu zuelarik Erromarekin, Iraultzako egun beltzetan Elizari fidel egon apezpiku batzu baztertuak izan ziren, hamar bat zin egile gorago hupatzen zirelarik; hauetan Saurine, hemengoak, Estrasburgorako aitzinamendua ardiesten zuela, apezpikutik artzapezpiku²⁴⁴. Apezpikuen izendatzeak, bi lehenburu preso atxiki zituen Napoleonen esku ziren!

De Coucy Arroxelako apezpikuak ez zuen Konkordatua onartu eta han gelditzen da geroztik, Elizatik berexia *Eliza ttipia*.²⁴⁵

Joseph Jacques Loison etorri zitzaigun orduan Verdun aldeko parropia batetik Baionara. Iraultza garaian, zin egin ondoan, hain zen ontsa akomeatu Elizaren etsai ziren iraultzaleekin, non goxotan egon baitzen bere parropian. Pariseko Vendome plazako zutabeen izena grabaturik daukan osaba jeneralari zor zion bere apezpiku izendatzea.²⁴⁶ Kantonamenduetako erretorak prefetarekin eskuz esku izendatzen zituen apezpiku berriak. Besteak kantonamenduko jujearekin. Haristoy apez historialariak begiko zikina baino gehiago jasan ez zitzakeen *apez arnegatu* zin egiletarik zen

²⁴⁴ 1793an iraultzaleek apez-apezpikuari manatu zieten Konstituzio berriari zin egin zezaten. Elizako Burulehenak debekatu zien. Zin egin ez zutenek lekuak hustu behar izan zituzten non ez ziren preso emanak izan edo hil. Apez zin egileetan izendatu zituzten apezpiku berriak. Napoleonek konkordatua izenpetu zuelarik 60 diozesa baizik ez ziren gelditu. Hamasei apezpiku hartu zituen lehenagokoetan, hamabi zin-egileetan: horietan Saurine gurea eta Flesch bere oseba, apezgoa utzia izana zuena zenbait urtez. Lyon hiriko kardinale izanen zen! Hamabi hoiari Pio VI.ak galdetu zien idatziz uko egin zezaten lehenago egina zuten zinari. Bik baizik ez zioten obeditu, baina denak apezpiku gelditu!

²⁴⁵ *La Vendée, Après la Terreur la reconstruction*, 419 or.

²⁴⁶ V. Dubarat eta J.B.Daranatz, *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne*, Baiona, 1910, 397 or.

beraz, baina xehetasun horiek ez ditugu Haristoyen obretan aurkitu... Apezpikuari errespetua zor.²⁴⁷

Iraultzako gobernuarekin hautsi zuen Elizak beraz, gorago aipatu Iraultzako konstituzioari zin egitea apezpei debekatuz, baina zin egitea onartua zen Napoleonekin! Balio baitzuen horrenbeste atsegabe jasan araztea! 1803an egin zen zin hori Baionan, azaroko 13an. Loisonek bere predikuan apezpei erran zien: «Zoriona ordreari lotua zaio, legeen menpe izateari. Zuen fededunei zorrozki behar diezue hori eskatu.»²⁴⁸.

Honen ondotik etorri zitzaigun Paul d'Astros, Parisko kallonje zen, *Inperioko katixima* idatzi zuelarik: apezpiku guziek hori eta hori bakarrik zuten beren diozesako katixima. Inperadorea Jainkoaren gantzutua bezala ekarria da eta hari eta haren ondokoei desobeditzea ifernuaz gaztigatua litekeela abisatzen du. Jondoni Pauloren arabera, Jainkoaren nahia liteke familiak hartzea ondoregoa²⁴⁹. Daniel Rops historialari

²⁴⁷ Hona zer idazten duen Haristoyek: «Le premier évêque concordataire de cet immense diocèse fut Joseph Jacques Loyson, prêtre de Verdun. Il était né à Montaubé (Meuse) le 21 février 1744. Sacré à Paris le 14 novembre 1802, il fit sa première entrée à Bayonne le 20 décembre suivant et prit possession de son siège le jour de Noël de la même année. Ses premiers vicaires généraux furent MM Lallemand (Claude François), et Lamarque (Jean Jacques). Dès l'année suivante il fit une première circonscription des paroisses. En 1807 il en fit une nouvelle; en 1826 on érigea de nouvelles paroisses.» Mgr Loyson mourut le 17 février 1820. PPB II 528 or.

Hemezortzi urte 6 lerroz! Ez daiteke erran ez duela aipatu...

Beste xehetasunak hemengo apezpikuetaz: V. Dubarat eta J.B. Daranatz, *Recherches sur la ville et sur l'Église de Bayonne*, Baiona, 1910.

²⁴⁸ «La félicité publique sera le fruit de vos augustes fonctions. Elle tient à l'ordre et à la soumission. Vous l'exigerez de vos fidèles.»

²⁴⁹ (L'empereur) est devenu l'oïnt du Seigneur par la consécration qu'il a reçue du souverain pontife, chef de l'église universelle.

—Que doit-on penser de ceux qui manqueroient à leur devoir envers notre empereur?

Selon l'apôtre St Paul ils résisteroient à l'ordre établi de Dieu même, et se rendroient dignes de la *damnation éternelle*. (guk dugu azpimarratzen)

frantsesak zioen honetaz, mugarik gabeko ambizioa zeukala.²⁵⁰

Bi apezpikuak Galikanoak ziren: 1682an, Frantziako apezpezikuen biltzarrak onartu *Déclaration des 4 articles*, Inozentzio XI.a Burulehenak kondenatua, nahi zuten irakatsia izan zedin seminario handian. Nahiz batere ez ziren bero, zuzendariak eta ekonomak irakatsiko zutelako engaiamendua izenpetu zuten.

Eta garai nahasi horietan du eman gure lurak Mixel Gariokitx saindua! Sei hilabete zituen bataiatu ahal izan zutelarik, apezik nihun ezin hatxemanez. Horien garaian da apez berrien kopurua urtean zerotarik (1808-1812) hamabira (1831-1840) pasatu Iparralde honetan. Ikusten duzue ez dela lotsatu behar!

Gaur egun oraino, Burulehena preso eman zuen Napoleonek egin Elizarekin bizi gara Frantzian. Gure departamenduan hiru diozesa balire lehenago bezala (Baiona, Olué, Lezkar) ez ote luke denbora gehiago apezpiku batek bere apez eta herrien ikusteko? 180 kilometro baditu Hendaiatik Lembeyera. Landesetako diozesa gurea baino zabalagoa da. Girondakoa oraino handiagoa, jendetze doblearekin. Hurbilekoak baizik ez aipatzeko.

Kontzilioko buruetarik izana den Parente apezpikuak zioen hain direla apezpikuak lanpetuak non ez baitute teologia lantzeko astirik

(...) Nous lisons dans la sainte écriture que Dieu, Seigneur du ciel et de la terre, par une disposition de sa volonté suprême et par sa providence, donne les empires, non seulement à une personne en particulier, *mais aussi à sa famille.*

Catéchisme à l'usage de toutes les églises de l'empire français, imprimé par ordre de Mgr JJ Loison, évêque de Bayonne, pour être seul enseigné dans tout son diocèse, Bayonne, chez Cluzeau, 1807, 76 or.

²⁵⁰ «Le jeune chanoine d'Astros du chapitre de Notre Dame dont l'intelligence était subtile et l'ambition illimitée.» Daniel Rops, *L'Eglise des révolutions, en face de nouveaux destins*, Fayard, 1960, 166 or.

Orrialde berean aipatzen du Frantziako apezpikuetaz «la vassalisation», hots, inperadorearen shiak zirela. Austerlitzeko guduan zeukan ezpata pausatua izan zen eliza batetan, kalonje kapitulu baten gerizapean. Mirakuluz bezala aurkitu zuten «San Napoleon» bat. Honen besta, nonbaitik ere, agorrileko 15ean zen, frantses guziak elizan ibiltzen ziren egun batez!

gehiago.²⁵¹ Eta hori, Napoleonek bere politikaren onetan egin zati-
keten menpe dagoelakotz Eliza, bi menderen buruan oraino.

Bainan egia osoa errateko, aitortu behar dut demokrazia badela gure gaurko Elizan oraino. Serora eta fraile ordenetan, zuzendariak hautatuak dira kide guzien bozez. Gehiago dena, kargu batean ez daiteke bi aldiz baino gehiago egon: hala nola ordenako lehendakari nagusi bi aldiz izendatua izan bada norbait, apez edo serora soil itzultzen da, bere lehendakari denbora bete ondoan. Bestalde, ez ditzakete karguak meta, hala nola, probintziako eta beste etxe batetako buru denbora berean: hautetsi bat, kargu bakar bat! Gure demokrazia zaharrak ere ez dira hein horretara helduak: badira beren kargutan hoge, hogeita hamar urte, berdin gehiago irauten duten hautetsiak. Bi edo hiru kargu, berdin gehiago badutenak. Beraz demokrazia bada Elizan beste nihon aipu ez zenetik. Emaztentzat ere, zeren eta seroren ordene-
tan ere bozkaz hautatzen dituzte zuzendariak.

Baionako diozesako astekarian ematen dute hauteskunde horien berri. Nork so egiten die? Astekari hori zinez irakurtzen dutenak ohartu dira nola Orteseko Klarisen azken hauteskunderetan Erromako baimen berezia behar izan duten zuzendaria jadanik bi aldiz hautatua izana eta hirugarren aldikotz, beste hiru urterentzat hura bera bozkatua baitzuten, legeak ez duelarik onartzen.²⁵² Baimena izan dute arrazoi serioak eman dizkiotelakotz Erromari: bederatzi serora dira ortara, denak ere adinean han harat joanak.

Apezpikuek baitute apez kontseilu bat, ordezkariak bozkatzuz hautatuak dira eta ez daiteke hautetsi izan bi aldiz baino gehiago.

²⁵¹ «Mgr Parente me dit qu'on a bien vu au Concile que les évêques ne sont pas théologiens, mais sont des novices en ces questions: ils sont pris par d'autres besognes et n'ont plus le temps d'étudier la théologie». Yves Congar, *Mon journal du Concile*, 348 or.

²⁵² «Au monastère des clarisses. Le 12 novembre 2002, Sœur Marie de Jésus a été réélue abesse de la communauté des Clarisses pour un *troisième triennat*, avec l'accord de la *Congrégation* pour les instituts de vie consacrée et les sociétés de vie apostolique». *Bulletin Diocésain*, 2002.12.4, 925 or. Guk dugu azpimarratu.

Sindikatuak ez zuten emazterik ikusi nahi ere inprimerietan XIX. mendean.²⁵³ Elizan ez badira oraino gizonen hein berean, ez gara behin ere hein horretara jautsi. Emaztek toki bat izan dute eta badute, ez bada ere XXI. mendeak eskatzen lukeena. Eta ez lukete daukaten tokirik munduan, Eliza hor izan ez balitz. Nolaz esplika bestenaz, hain zuzen Herrialde *girstinoetan* dela emaztea emantzipatuena? Non nahiago lukete bizi emaztek? Iran, Irak, Aljeria, Sudanen... ala apur bat bederen girstino den mendebalean? Ez ote luke zerbait erran nahi horrek?

Batere ez zait iduritzen gobernuko baimenarekin izendatu apezpikuen eskutan diren diozesak baino gaizkiago doazela serora eta fraile ordena demokratikoak. Erran nezake horiek dutela Eliza aitzinarazten, diozesek Elizaren gestioa egiten dutelarik. Eta ez da lan ttipia hau! Egun guzietako lanak hartuak, gogoeta aritzeko denbora guti dute apezek, parropietan ari direlarik. Fraile-etaz etsenplu bat hartuko dut. Orain arte diozesa bakoitzak bazuen bere seminario handia, bere irakasleekin. Frailen seminarioetan baino irakasle gehiago bazen diozesetan. So egiezue joan den mendeko Eliza markatu duten gogolari haindiei: gehienak ordenetakoak dira: Danielou, Lubac, Martelet, Montcheuil, Rahnner, Varillon, jesuitak; Chenu, Congar, Liégé, dominikarrak; Loew Mission Ouvrière-koa; Voillaume Aita Foucaud-ren anaietakoa; Bouyer oratoriarra; Hamann kaputxina; Bardy, Kung. Horra ene gazte denbora markatu duten gizonak. Horieta denetan biga dira diozesa batekoak. Beste hamahirurak, jesuita, dominikar, kaputxino eta abar. Congar teologoak azpimarratzen du hori.²⁵⁴

²⁵³ «Les ouvriers du Livre au XIX^e siècle refusaient l'embauche féminine et pas seulement par crainte d'un dumping des salaires. 'La morale aussi bien que la bonne confection des vêtements s'opposent à ce que les femmes soient employées comme composteurs,' lit-on dans les statuts de la société typographique française en 1849». Régis Debray, *Op. cit.*, 226 or.

²⁵⁴ «Chez nous, la plupart des experts sont des religieux. Or, malgré tout, il y a un petit écran entre les évêques et les religieux. (...) Qu'ont fait les facultés de

Elizan bi sare badira. Bata apezpikuen esku, diozesak. Bestea ez: Jesuita, dominikar, beneditar, frantziskotar eta beste fraileak. Beneditar abade batek azpimarratzen zuen Kontzilioan, zer ekarpena izan den fraile ordenena... ez direlaketz apezpikuen meneko.²⁵⁵

Zein dira Elizaren tresnak Frantzian? *La Croix* egunkaria eta *Le Pèlerin* astekaria, asuntzionistenak. *La Vie* eta *Telesrama* astekariak laiko eta dominikarrena. *Témoignage Chrétien* astekaria, jesuita batek sortua. *Etudes*, *Projet* eta *Christus* jesuiten hilabete-kariak. Editorialak: Bayard asuntzionistena, Le Cerf dominikarrena, Fleurus Fils de la Charité ordenakoa.

Hemen berean, ez ote ditu Belokeko beneditarren Ezkila argitaletxeak plazaratu euskarazko liturgiarentzat, diozesak behar zituen liburu guziak. Liturgia horretaz egin gogoetak ez ote ditu *Otoizlari* beneditarren aldizkariak agertu eta ez apezpikutegiko *Bulletin Diocésain* astekariak? Martzel Mendiboure apezak idazten zuen 1965ean: «Sekulan ez dugu aski preziatuko, Belokeko beneditanoek ixil-ixila deramaten lan gaitza herrietako apezan laguntzeko. (...) Norbait agertuko ahal da egun batez, goraki eta garbiki erranen duena zer zor dioten Euskal Herrian dagon Elizak eta Euskal Herriak berak.»²⁵⁶

Pastoralgintzan ere urratu dituzte bideak frailek. Diozesak beti deitoratu du horrenbeste euskaldunen Ameriketara joatea. Apezik ez die igorri 1961 arte, Luro joan zelarik. Izan zen bai, Jean Pierre Arbelbiden entsegua, bainan Jauffret apezpikuak

théologie de nos Instituts Catholiques? Pratiquement rien. Aucun de nos évêques venant d'elles n'a apporté quelque chose.» Yves Congar, *Mon journal du Concile* II, 56-57 or.

²⁵³ «Sans elle (l'exemption) les ordres religieux n'auraient jamais donné tant de fruits. Dans le Concile même, un tiers des évêques est religieux; les missions et les sciences théologiques comptent un TRES grand nombre de religieux» (Dom Reetz, Beurongo abadeak) Y. Congar, *Le Journal du Concile* I, 512.

²⁵⁶ M. Mendiboure, «Apez baten galdea», *Othoizlari*, 1965.1, 15 eta 18 or.

haren kongregazioa barreiatu zuen, lehen bi misionestekin harat joan orduko. Eta ordainik ez zuen asmatu. Gero betarramista eta Belokeko fraileek dituzte apezak harat igorri.

Gaxitegik zituen euskal ixtudianteak bildu zenbait udaz Euskal Herriaz gogoetak egiteko, bai eta herri zenbaitetan ikerketak (Suhuskun, Azkain, Idauz, Izturitz).²⁵⁷

Pastorala mailean berean, frailek dituzte bide berriak urratzen. Aspaldi du gure artzainek uda mendian pasatzen dutela. Apez guziek deitoratzen zuten haien elizan ez ikustea. Mendez mende, bihi bati ez zitzaion gogoan pasatu bera joan zitekeela mendira, mezaren emaitera artzaintzat. Hori egin duen lehena, Belokeko fraile bat da 1955ean, Ignace Etxehandi eihalartarra: egun batez hamabi artzain izan zituen, biharamunean 22. Artetik errateko, 12 eta 22, ez zitzaion artalde ttikiegia iduritu. Hona fraile horren gogoeta: «Zertako ez da apez bat igaiten bortu hoietarat, mezaren emaiteko? Ez da hori naski ezin egina. Esneketa-riak igaiten dira eta ez lukete apezek gutiago ausartak izan behar.»²⁵⁸

Zein dira Elizaren historia markatu duten saindu handiak, oraino ordenarik ez zen lehen bost mendeak utzi eta? Kantorberriko Agustin, Alberto Handia, Ligoriko Alfontso, Anselmo, Paduko Andoni, Benito, Beñat, Lurdako Bernadeta, Pauloko Bixente, Bonaventura, Bonifazio, Bruno, Domingo, Eskolastika, Jatsuko Frantses, Gregorio Handia, Loiolako Iñaki, Joanes Bozko, Joanes Kurutze, Roberto Belarmin, Terexa Handia, Terexa Ttipia, Akinko Tomas, Zirilo eta Metodo, Saleseko Frantses, Artzeko erretora, denak fraile eta serorak ez bada azken biak.

Zer gatik ez litezke, fraile eta serora kongregazioetan bezala, bospasei urtetarako izendatuak Vatikanoko apez-apezpiku-kardinalak? Beren denbora bete eta, parropia edo diozesa batetara

²⁵⁷ *Othoizlari*, 106, 37 or.

²⁵⁸ «Artzainen artean», *Othoizlari*, 1955.09.25, 54 or.

itzul litezke. Ez baitezpada handia: diozesa ttipi batetan denbora gehiago balukete intelektualek gogoetak egiteko eta idazteko. Vatikanoko bulego haiek gal lezakete bere mutzidura hartarik, fresko aldi bat hartuz.

Arbola fruituetatik jujatu behar baldin bada (Mt 12,33), Jesusek erran bezala, ez da dudarik Eliza demokratikoa nagusi zaiola besteari.

Eta halere, monokrazia politiko garaietan, bere estakuru eta itzal guziekin, Elizak ez du leher egin. Jainkoarena delako froga bat berriz ere errateko.

Galde bat gelditzen da halere: nondik dator erroak hoin barna eginak dituen demokraziaren alderako beldur hori? Botere gose hori? Gauza segurra, ez dela nihondik ere Ebanjelioko iturritik heldu.

XV EZKONTZA

20 urteko bi gazte, nik donado zaharrak, karlosak, ezkontzari buruz lagundu behar ditudalarik, oraino ere ez-ontsa bezala senditzen naiz. Zer erran diezaieket kanpotik baizik ezagutzen ez dutan ezkontzaz, haiek barnetik ezagutzen dutelarik jadanik? Ondorioz, begi-beharriak beti erne nago pundu horretaz, ez sobe-
ra astokeria ateratzeko.

Ezkontza ezin hautsia. Gauza guti da horretaz Ebanjelioan. Bibliako lehen orrialdean irakurtzen duguna, Jesusek bere gain hartua: «Biak bat izanen dira» lerro laburra (Has 2,24). Gero, hau gehitzen du: «Gizonak ez dezala berex, Jainkoak bat egin duena» (Mk 10,6-9). Zer erran nahi du horrek? Gostarik gusta, senar-emazteek elgarrekin egon behar dutela, ezin bizia delarik, batak bestea jotzen duelarik, amodiorik ez delarik ere? Amodioa ez den pundutik, ez da gehiago batasunik. Amodiorik ez den pundutik, gizonak bereizia du Jainkoak bat egin. *De facto* dibortziatuak dira eta ez daitezke senar-emazteak ifernuan bizitzera kondena lur honetan.

Gazte denboran, behin baino gehiagotan entzun dut emazte batek haurra ipuruan munduratu zuela, arto-jorran ari zelarik. Emazte bat ezagutu dut, zortzi hilabete esperantxetan eta senarrak berekin eramaten baitzuen mendira ote epaitera, hots, laborantzako lan bortitzenetarik baten egitera. Bere auzoak erranik

jakin dut geroztik, egun batez, goizean goizik joan zela etxetik erregebiderat, autokarraren hartzeko: ilobaren bataiora zoan, amaxi baitzen. Argia baino lehen utzia zuen etxea, ilunarekin, senarrak joatera utziko ez zuelako beldurrarekin! Zorion iturri zen *ezkontza* hori? Amodiorik bazen? Ezkontzarik bazen?

Ezkontzako eginbidea²⁵⁹ aipatzen zen teologia liburuetan. Zenbat emazte ez da senarrak bortxatua izan, *eginbide* horren ize-nean? Ebanjelioak horrelakorik eskatzen du? Amodioa desagertu eta, oraino hor balitz bezala alegia egitea eskatzen du? Jeronimo de Mendieta gazteiztarra, XVI. mendeko azken apezpikua Mexikon, bere aitaren 40. haurra zen (hirugarren emaztetik). Bai! Ongi bete zuten «ezkontzako eginbidea» bere hiru emazteek!²⁶⁰

Interesantea liteke jakitea heian eginbide hori ez ote litekeen apezpikuak erregeek izendatzen zituzten garaietakoa. Nobleen artean bizi zirenekoa. Gizon haiei eginbide iduritzen zitzaiena, erlisionearentzat ere eginbide izan beharko baitzen. Ezkontzaren berri ez zekien apezpikuak, ezkondua zen errege eta nobleen aholkuei jarraikitzen puntu horretan! Errege horri zor baitzioten beren kargua apezpikuek eta beraz *obligazione* baitzituzten. Duela 60 bat urte H. Godin-ek idatzi zuen, Elizarekin aspaldi hartan harremanik ez zuen langileen munduaz, gizonarentzat denak haizu izatea onartzen zutela emazteek berek, senarra gal beldurrez. Hor ere bazen nolazbait ezkontzako eginbidearen eta ezkontza hautsi behar ez zelako sendimendua.²⁶¹ Ez zuten Eli-

²⁵⁹ Augustino Lehmkuhl, *Theologia moralis, De obligatione circa actus conjugalis*, Herder, Friburgi Brisgoviae, 1896 (8. edizioa), 608-615 or. Beste liburuetan ere bazen kapitulu hori.

²⁶⁰ Inazio Ormaetxeberria, *Franciscanos misioneros vascos*, Ed. Arantzazu, Oñati, 2001, 477 or.

²⁶¹ «C'est quasiment un dogme pour ces femmes que pour garder les hommes il faut les laisser faire 'ce qu'ils veulent', quitte à se débrouiller ensuite. (...) La mentalité de ces femmes qui font 'tout' pour garder leur mari et y voient un devoir, est tout de même très courante en milieu païen.» H. Godin et Y. Daniel, *Op. cit.*, 1943, 30 or.

zan bildua ikusmolde hori. Haur baten ukaitea, gaizki ikusia zen.²⁶²

Gauza kuriosa gutienez, Mgr Gieuren katiximan, 1912an, ezkontzako kapituluan ez da amodiorik aipu!²⁶³

Ezkontza ezin hautsia da, ezkontzeko bidean ezagutu ditudan gazteen gogoan. Hain dira zorionez beteak non ez baitzaie gogoan pasatzen ahal ere amodio horrek muga bat izan dezakeenik, beren ezkontza hauts litekeenik.

Ezkongaieri bi gauza oroit arazten dizkiet. Lehenik, zorionez gaindika direnaz gain ezkontzen direlarik, damu litekeela zorion horren galtzea. Ezkontzaren haustea. Hori bien eskuetan dagoela. Ez dela uste gabetarik itzaltzen amodio hori, zorion hori.

Gero, ezkontza horren fruitua baita haurra, haur horrek ere eskatzen duela ezkontza ezin hautsia izatea, eta ez bakarrik beren zorionak. Haur batek aita eta ama biak beharrezkoak dituela eta berriki irakurtzen nuen bezala, dibortziatuen haurra *sinistratua* dela. Sail guzietan, beste haurren artean baino nahigabe gehiago bada haur horiekin. Hala nola eskolan: ama eskolatik unibertsitate-terako diplometan, beste haurretan baino huts egite gehiago bada dibortziatuen haurretan, Frantzian egin ikerketa zabal batek frogatu duenaz. Guy Corneau baten liburu-titulu honek berak ainitz erran nahi du: Aita eskasak, seme exkaxa.²⁶⁴ Aitarik gabe bizi delarik edo aitak bere eginbidea betetzen ez duelarik, haurrak pairatzen.

Horrek ez du erran nahi dibortziatu guzien haurrek huts egi-ten dutela edo dibortziatuak ez direnen guziek kausitzen. Baka-

²⁶² «Appeler un enfant à la vie est regardé par beaucoup comme une insouciance et une injustice. ‘Si cela ne vous fait rien pour vous, songez au moins à lui.’ Cette absence totale de besoin de maternité chez les femmes de plus de trente ans est la règle presque générale dans le vrai prolétariat païen.» *Op. cit.*, 290r.

²⁶³ F.M. Gieure, *Catichima Baionaco diozesacoa*, Mame, Tours, 1912.

²⁶⁴ Guy Corneau, *Père manquant... fils manqué*, Editions de l'homme, Paris, 1992.

rrik, dibortziatuak direnen haurretan kausitze gutiago eta hutsegite gehiago badela. Badira oso ongi ateratzen direnak dibortziatuetan ere. Bideko kodea errespetatzea ez duela balio erranen ote duzu, kodea errespetatzen dutenei ere istripuak gertatzen zaizkielakotz? Edo kodea ez errespetatuz, ez delakotz beti istripurik?

Den pagano handienak ere amodio kantu bat egiten duelarik frantsesez, ez du huts egiten, bi lerro mutur izanen dituzu: *amour* eta *toujours*. Ez ote du zerbait erran nahi? Xalbadoren bertsu hauek ere ohargarriak dira:

*Andrea ez dut nik hartu geroko menturan
Neguaz pentsa eta maitatu dut udan;
Bainan oraintxe jartzen ari naiz dudan
Gero eta maiteago zergatik zaitudan*

*Zure egina nauzu muina ta hezurra
Hala pasako zela banuen beldurra
Oraino're zurekin beti gostura
zutan kusi nuena ez baitzen gezurra*

*Iguzki egina da zu zaren itzala
Luzaro elgarrekin gaitezke, oxala!
Ikusten dut beti ta hobe zoazala
Armairu-xokoan den ardoa bezala.²⁶⁵*

Behin baino gehiagotan egin ditut urrezko ezteiak. Denek gauza bera zioten. Bai izan zirela gorabeherak beren bizian, neguko egunak, baina euriaren ondotik heldu zela iguzkia. Haien amodioa ere Xalbadarren armairu xokoko arno xaharra iduria izan da. Zergatik ez bestentzat? Non ez den aintzinetik erabakitzen lehen kalapita partidari bakoitza bere alde doala. Lanean ere

²⁶⁵ Xalbador, *Odolaren mintzoa*, Auspoa, Tolosa, 1989, 342 or.

badira egun txarrak lagunekin, nagusiarekin. Fuera partitzen da berehala?

Gazteak ezkontzen direlarik, betirako dira ezkontzen. Gero... Beren nagusiarekin nahiago dute CDI²⁶⁶, mugarik gabeko lan kontratua ezinez eta CDD kontratu mugatua. Senar-emazteen artean CDI egiten dute. Langileak behar du askotan bere nagusia jasan eta gostatzen zaio. Zenbat aldiz ez zaio gertatzen isil-isila egotea bere tripako minarekin? Nagusia eta lankideak jasaiten dira gostatzen bada ere. Amodioz hautatu biziko lagunak, amodioz izan haurrek, ez lukete nagusiak edo lankideak bezainbat pazientzia merezi? Lanaren amorea gatik onartzen da indarño bat egitea. Ezkontzako zorion horrek ez ote luke lanak bezainbat merezi eta gehiago? Ez indarño bat, baina indar bat egitea artean, zorion horrek iraun dezan.

Patar guziak ez direla beti ordoki! Bai segurki! Lanean ere ez. Ez da laneko kontratu bat hola eta hola hausten tipus-tapastean. Amodioak ere baditu bere gorabeherak. Baina nork ez daki ortzi eta ximisten ondotik heldu dela denbora ederra, pazientzia labur bat baduenarentzat.

Lagunak estakuru handiak badituela! Haren ondotik hartuko duzun beste hark ere bai. Gure zaharrek erraten zuten zuhaitz guziek adar eiharrak badituztela. Erran nahi baita den hoberena ere ez dela estakururik gabea.

Ama edo aitaren gandik urrun bizi diren haurrak aipatuak ditugu jadanik. Berexi eta, aste buruetan ala egun oroz dute lagun berriarekin izateko eskubidea eskatzen aita eta amak? Astean barna ama eta beste gizon batekin, aste buruetan aita eta beste emazte batekin bizi dadien haurra nahi genuke! Hark ere egun oroz, bere aita eta bere ama, biak nahi ditu.

Entzun dut behin baino gehiagotan umexurtzak ere aita edo ama gabe bizi direla. Beso edo zango motzak, okerrak ere, beso,

²⁶⁶ CDI Contrat à durée indéterminée: mugarik gabeko kontratua. CDD Contrat à durée déterminée: denboraz mugatu kontratua.

zango edo begi bakar batekin bizi dira. Nork erran lezake ondorioz, oker, beso eta zango motz izateak ez duela arazorik sortzen.

Ezkontza ez haustea. Erran nahi baita aita-amen arteko amodio hori iraun araztea, ezkontza eguneko zorion hark irautea, senar-emazteen eskuetan dagoela, kontziente izan behar dute. Lore guziek ureztatuak izatea eskatzen dute. Amodioak ere bai. Ez da uste gabetarik bezala itzaltzen amodio hori, zorion hori.

Nahiz bai, batzutan, uste gabetarik. Zenbat etxetan ez da telebista piztua goizetik arrats? Mahain parrean, jatorduetan, hark baizik ez duela mintzatzeko eskubiderik. Halaber afal ondolik eta oheratu arte, besaulkietan erroraino sartuak daudelarik denak, telebistari begira. Zenbat etxetan ez dakite Irakeko gerlarren berri xehetasun guziekin, emaztea, senarra edo haurraren kezka bihi bat ez delarik ezagutzen, ez delakotz elgarren arteko solasik?

Mintzo den bakarra: telebista! Entzuten den bakarra, telebista! Hilabetez hilabete, urtez urte, bakoitzak bere bidea egiten du bizian, denek egiten dugun bezala. Hogei urteko Ganix ez da hamar urteko hura. Berrogeietan beste bat izanen da. Bakoitza badoa bere alde. Ez elgarrekin... Eta bereziki, bestea ohartu gabe. Egun batez ikusten dute bata bestetik hain urrun joanak direla non ez baita gehiago elgarrekin bizitzea posible.

Nola altxatuko dute haurra aita-amek ez badira harekin mintzaten? Espainiako aita bat egunean bost minutuz mintzo da bere haurrarekin, honek hiru oren eta erdi pasatzen dituelarik telebistari begira eta urtean 50.000 erailtze ikusten²⁶⁷. Nolako gizon edo emaztea emanen du gero haur horrek?

Aita-amek, biek bat izan behar dute, haurrak altxatzeko. Ez da amaren gain baizik utzi behar dena. Egunean bost minuta aski zaizkio aitari bere haurra maitatzeko?

²⁶⁷ «Los padres españoles hablan con sus hijos cinco minutos al día», *El Mundo*, 2003.12.12.

Bestalde, badira denek ezagutzen ditugun baldintzak. Hala nola bata besteari leial egotea, eskuin eta ezker ibili gabe ardi ñapurra bezala. Gaur egun, gizonak bigarren emazte bat (edo alderantziz) gordeka izatea *norma* baldin bada behin entzun dutan bezala, horren ondorioak onartu behar dira, bai bikotearentzat, bai haurrentzat. Garbiki erran behar da egun oroz aita-amek maitatua izatea ez dela gehiago haurraren lehen eskubidea.

Gaur egun haur adoptagaiak baino gehiago dira haurrak adoptatu nahi lituzketenak. Homoek ere ba omen dute haurrak adoptatzeko eskubidea. Lehenik eta bat, nehork ez dauka horrelako eskubiderik. Haurrek dute aita eta ama izateko eskubidea. Biak. Ahalaz bereak. Ahal ez delarik, beste gizon eta emazte bat, gizonak emanen baitio emazteak ematen ahal ez diona eta emazteak, gizonak ematen ahal ez diona. Besterik ez bada, zergatik ez bi gizon edo bi emazte.

Oso bihurria ez den batek onartu behar du, aita eta ama, biak behar dituela. Gizona eta emaztea. Gizonak eta emazteak, biek eskubide berak dituzte. Bat ez da bestea baino gehiago. Bainan ez dira berdinak. Berdinak litezkeenik ez dut behin ere entzun futbol talde bat muntatu behar delarik eta koro bat. Kirolean, emazteak beren artean aritzen dira eta koroan sopranoek ez dute bariton baten partea kantatzen. Gizonak du emaztea biolatzen. Gizonak du emaztea jotzen eta ez kontrarioa. 20 urteko neskek dira 60 urteko gizonarekin ezkontzen eta ez 20 urteko mutikoak 60 urteko emaztearekin. Espainiako Interneten, egun berean, 1.645 neska zirelarik mutiko baten bila 56.482 mutiko ziren neska baten bila.²⁶⁸ Frantziako presoetan %96,4 gizonak dira, %5,6 emazteak! Horra gizonaren berezitasun zenbait.

Aldiz amak du haurra egiten bederatzi hilabetez bere sabelean haziz. Ama da erditzen, hots, amak dio bere erdia ematen hau-

²⁶⁸ Pako Aristi, «Sexu bilatzaileak», *Berría*, 2004.08.18.

rrari. Amak dio bere bularra ematen. Aita edo amarik gabeko familietan haurren %85 amarekin dira. Zenbait dotzena mila urte badu, emazteak badakiela haurra berea duela. Gizonak aldiz zenbait mila urte bakarrik, emaztearekin etzaten baitzen bere gose sexuala asetzeko gehiagokorik gabe eta berantean baizik ez baitzaio ohartu etzatea eta sortzearen arteko loturari. Eta diferentzia horiek denek ez luketela ondorioz? Sexua zuzenenik jokoan den punduan liteke sexurik ez balitz bezala egin behar? Homoek eta heteroek eskubide berak dituztela? Bai, futbolari eta eskubaloi jokolariek ere. Futbolariak baloia eskuz hunkitzeko eskubidea eskatzen dute, eskubaloian ari direnen eskubide berak nahi dituztelakotz?

Homoen ezkontzaz, elgarrekin bizi nahi duten bi emazte edo bi gizonen artean izan dadien kontratu bat, zer gatik ez? Bainan hori ez da ezkontza. Ez dira denak zaku berean sartu behar. Kurioso da ezkontza gutiesten duten horiek berek ezkontzaren alderat daukaten atxikimendua homoen kasuan.

Zenbait dotzena mila urte hontan, lur honetako arraza guzietan, ezkontza bada tokian tokiko ñabardurekin, beti emazte eta gizonen artean, haurrak sortzeko eta hazteko. Zoazte Hego-Afrikako boshimanetara ala Groelandeko eskimoetara. Amazoniako leinu ttikietatik Borneoko beltzetara, denetan gizon-emazteen artean egiten da ezkontza haurrak ukaiteko. Santamamiña ala Otsozelaiko harpeetan berdin. Ez du zerbait erran nahi ala munduaren ala mendeen zabalera hedatzen den unibertsaltasun horrek? Ezkontza ez da ez Elizak ez estado batek asmatua. Ez da gizon-emazteen kaprizia baten ondorioa. Mendez mende lur zabalera guztian gizarteak sortu ditu lege zorrotzak ezkontzaz, bai senar-emazteen, bai aita-ama-haurren artekoak, bai oseba eta koinatekilakoak. Ezkontza ezin hautsia ez du Elizak asmatu ez eta Jesu Kristok Afrikako paganoetan bazen. Duela 2.500 urte aipu zen Bibliako lehen lehen liburuan: «Bat bera izango dira.» (Has 3,24)

Ezkontza gizartearen bizkarhezurra da. Ezkontza kolokan delarik gizartea da kolokan. Eta horretan gara orai bestalde erraten dugun bezala.

Gure arbasoak aspalditik ohartu baitira, zahartzearekin gazteen beharra bazutela, haurrek aita-amena baduten bezala ttipiak direlarik. Haurrak ziren (eta dira, mundu honetako jende gehientzat) zahar arranda. Oso besterik da ezkontza, ikuspegi horretarik so egiten badiogu. Zahar arrandak badirela egun entzunen dut. Nork pagatuko ditu haurrik ez bada? Inmigratuek eta hauen haurrek? Zuzen da norbait bere herritik joatera bortxatua izatea lana izateko? Zuzen da Afrikako herrialde pobreek haurrak beren bizkar izan ditzaten gostatzen direno eta *errentable* direlarik, beste batzu, aberatsak balia ditezen haietaz? Hortaratzen gaitu haurrik gabeko ezkontzak. Ezkontzarekin josteta ari garelakotz, Euskal Herria hiltzen ari da... non ez diegun imigratuei dei egiten. 2000tik 2002rat, EAEko imigratuen kopurua %261,5ez goititu da.²⁶⁹

Biak bat izatea, zorion egunetan, bai eta zoritxar egunetan, ezkontzako otoitzetan errana den bezala. Egun arraroetan bai eta arruntetan. Etxeko lanetan ere. Emaztea ez da pagatzen ez den sehia. Ez da joiten den norbait. Hori ere ikusten baita! Ba ote dakizue Espainian 80 emazte erail dituztela beren senarrek, 2003. urteko lehen 8 hilabeteetan²⁷⁰? Hamar hilabeteetan! 2001 eta 2003 artean hiru urtez senarrek erail emazteen kopurua %52z goititu da Espainian! Baionan berean bada joak dien emazteen ihesleku etxea!

Badira Trinitate saindua baino misterio handiagoak niretzat! Etxe horretara ihesi etorri emazte batzu, lehen okasionean, berriz

²⁶⁹ «La llegada de inmigrantes se ha triplicado desde el año 2000», *Deia*, 2004.12.26.

²⁷⁰ «Cincuenta mujeres han muerto por violencia doméstica este año», *Deia*, 22.05.2003.

doaz beren senarrarekin. Dotzena erdi bat emazte bere eskuz erail dituen Patrice Alègre batek badu bere emazte fan taldetxoa, presondegira idazten baitiote, xoratuak. Zoazte zerbait konprenitzera!²⁷¹

Batak ala besteak hutsak egiten dituzte, batak ala besteak barkatu behar beraz: begiak hesten jakin behar da, ez ikusiarena egiten, barkatzen. Artetan xuriketak egin, baina gozoan, lasaiki, eta onez onean.

Oroz gainetik gogoan atxiki behar dena da, bien arteko amodio hori ezin hautsia dela, bai ezkonduen, bai haurren zorionerako. Hausteko arriskua hartzea ez dela gure beribila, aparkagian pagatua dugun denbora baino hamar minuta gehiago uztearen pareko hutsa.

Ezkontza gizarte baten zimendua da. Ezkontza inarrosia delarik, gizarte osoa da inarrosia, gizartea da leher egiteko arriskuan: ezkontzen erdiak hausten dituen gure gizartea leher egitetik zenbatetan da? Euskal Herrian berean sortze baino heriotze gehiago bada. Alde guzietatik entzunen dugu Iparraldean lanik ez dela. Lana bada, gero eta gehiago: 1990 eta 1999 artean desagertu den baino 11.848 lanpostu gehiago sortu da azken jende kontaktako datuen arabera. Urtean 1.184. Hamarkada berean, sortze baino 4.303 heriotze gehiago izan da. Urtean 430. Urte oroz herri ttipi bat desagertzen da. Euskaldun gutiago eta lanpostu gehiago horiek gehituz, ikusten da hamar urtez, 16.000 langile etorri direla beste nonbaitik²⁷². Baiona-Biarritz-Angelun bi urtez petikako haurren aita-ametari %56 kanpotik etorriak dira²⁷³.

²⁷¹ «Il reçoit régulièrement des lettres de femmes de ‘tous âges’ fascinées par son statut de tueur en série. Les gardiens chargés du courrier parlent de ses ‘admiratrices’. Beaucoup d’entre elles ont demandé des permis de visite pour venir le voir en prison.» Hervé Monzat, «Le tueur en série reçoit lettres et visites d’admiratrices», *La dépêche du midi*, 2003.07.30.

²⁷² *Ipar Euskal Herria*, Hemen, Baiona, 2002, 27, 37 or.

²⁷³ «Les parents d’enfants de 0 à 2 ans du B.A.B. et l’apprentissage de la langue basque». Sondage CSA, octobre 2001, 22 or.

Hegoaldean gibelago oraino: hilen ordaintzeko behar litekeen sortzeen erdirik ez da! Euskaldunik gabe nahi dugu salbatu euskara? Behin Amets Arzalluz bertsolari gazteak Euskadi Irratian erraten zuen: abertzale baten lehen eginbidea, haurren egitea da, herrian sinesten badu. Arzalluz ez da Rouco ez eta haren monagilluetarik! Eta haur bat egiteko ezkontza beharrezkoa da, ezkontzak irautea ere bai, haurra sortu eta ez baita egina. Euskal populua leher egiten ari da, ezkontzarekin josteta ari garelakotz baloi batekin bezala, bizian sinesten ez dugulakotz. Non ez dugun onartzen Euskal Herriak leher egin dezan. Bainan orduan zer balio du hats bahituak aritzea euskara bizirik atxiki nahiz?

Iduri luke Francoren garaian sofriturik euskaldunek uste dutela haren garaietako kontrarioa egitea aski litekeela zoriontsu izateko. Ez ahal dira jate, edate, lo egite, hatsa hartze eta gaineratikoetarik gelditu, baizik eta Francok jaten, edaten, lo egiten, hatsa hartzen eta abar egiten zuela! Buruaz murrua jo eta ohar-tuko ditazke gizarte batek badituela bere legeak.

XVI

ELIZA ETA EUSKAL HERRIA

Euskal Herriak zer ez dio eman Elizari? Bai! Zer ez dio eman? Zenbat saindu, apez, apezpiku, kardinale, serora, militante? Zenbat diru? Munduko lau hegaletan, nork ez ditu ezagutzen Loiolako Iñaki eta Frantses Jatsukoa?

Ez dira bakarrak, baina nork ezagutzen ditu besteak? Gure seminarioetan, Parisko (edo Madrilgo) liburuak baitira nagusi! Paris (Madril) ez bakarrik munduko, baina Elizako zilkoa balitz bezala! Zenbat dira Iparraldean Gasteizko Frantses (Francisco de Vitoria †1546) ezagutzen duten apezak? Deretxo Internazionalaren sortzailea da. Ameriketako indioen aberastasunen larrutzeaz beste ametsik ez zelarik Europan, haien alde idatzi zuen *De Indiis*.²⁷⁴ Gerla egiteko eskubidez *De jure belli*. Geroztik hark erranetan gaude. Haren lanak eta haren lanaz idatzi liburuak badira latinez, espainolez, frantsesez, italieraz, euskaraz... Frantsesezko azkena, guk dakigula, *Francisco de Vitoria et la 'Leçon sur les Indiens'*, 1997an agertua, Le Cerf argitaletxean. Euskal Herriko zenbat apezten bibliotekan ba ote liteke? Zenbat apez ez baitakite liburu hori badela ere? Paris edo Madrilerara begira dau-de, begiak zurutuak zer argi distirant etorriko zaien handik, iduri

²⁷⁴ *Indio aurkitu berriak*, itzultzailea: Piarres Xarriton, Klasikoak, Bilbo, 1991.

zerutik heldu zuzenean. Eta mundu guziak hemen bilatzen duen argiaren berri ez dakite. Interneten emazue Google eta sar Francisco de Vitoria. 100 orrialde erreferentzia aurkituko duzue, eta 100 horietan mugatzeko, 660en artean hautu bat egin dutela abisatzen zaituzte! Honen garaietako Bartolome de las Casas, indioen aita teologoak zioen bere ospe guzia zor ziola Pedro de Renteririari «todo lo que ambos poseían era de cada uno, y antes todo se podía decir del P. Renteria».

Loiolako Iñaki (†1546) eta Frantses Jatsukoa (1552)²⁷⁵, mundu osoan ezagunek sortu zuten Jesusen Konpainia. Bainan Martin de Azpilkueta (†1555), Frantses Jatsukoaren ahaideak ere merezi du aipamen bat. *Doctor Navarrus* izengoitia eman zioten. Pio V.a, Gregorio XIII.a eta Sixto V.a Burulehenen adiskide eta aholkukari zela erran eta, bakoitzak ikusiko du zer nolako pisua zeukan gizon horrek Elizan. Bartolome Karrantza (†1576), Inksizioak 18 urte preso atxiki zuen nabartar teologo eta apezpiku handiaren abokata izan zen Valladolid eta Erroman. Juan de Azpilkueta (†1555), familia berekoa da Brasilen izan den lehen misionesta, tupi-guarani mintzaira ikasi duen lehena.

Maila apalagoko beste zenbat? Gazteizeko Paskual (†1339), frantziskotarra Txinan izan den lehen apeza eta hango lehen martirioa. Juan de Zumarraga (†1548) Mexikoko lehen apezpikua, indioen gerizatzalea; Amerikak zor dio lehen inprimategia, indiozko lehen liburua eta indioentzat sortu lehen kolejioa. Jose Antxietajesuitak (†1597) Sao Paulo hiria sortu zuen 44 urte pasatzen zituela Brasilen, tupi guarani mintzairaren lehen gramatika egin zuen. Elkanorekin munduko itzulia egin eta Legazpirekin Filipinak aurkitu ondoan, Andres Urdaneta (†1568) Mexikoko komentu batetan sartu zen eta gero Filipinen konbertitzera joan. Martin de Rada (†1578) honen laguna, Espainiako lehen enbaxadore iza-

²⁷⁵ «San Frantses Jatsukoa» kantatzen dugu, Jatsu Lazkorretik ateratzen baita familia, nahiz bere aitona jadanik joana zen hemendik Nafarroako erregeren zerbitzurako. Berak 'de Jaso' izenpetzen zuen.

na Txinan, eliza liburu eta hiztegi zenbait idazten zituela txinarrez edo hango beste zenbait mintzaireretan (otumi, cebu...). Behringeko itsasartearen deskribitu duen lehena da.

Filipinetako lau diozesa sortu zituen Domingo Salazar Karri-gak (†1594). San Martin (†1537), Japoniako lehen martiria, 29 urtetan kurutzizatua izana Nagasakin beste batzurekin. Japoniako beste martiri bat, Tomas Zumarraga (†1622). Japonian hil zituzten (†1633) ere Jacinto Ezkibel filologia japoniarreko zenbait libururen idazlea, Domingo Erkizia eta Martin Aozarra, hirurak dominikarrak. Balentin Berriotxo apezpikutuari (†1858), 31 urtetan lepoa moztu zioten Tonkin-en. Esteban Zudaire eta Juan Maiorga (†1570) erailak Brasileran zoazilarik beren ontzian: Baionako Eliza liburuan Maiorga izena agertzen da, bai eta Arkako Joana Frantziako armada buru izana, baina ez Zuraide. Tomas Esteban (†1933) gaxtagin batzuk Txinan hil zutena Wuhu aldean, eta bere girstinoek monumentu bat eraiki ziotena. Teresalina Zubiri (†1947) Kaxemirren 29 urtetan hil zuten serora. Idiart Alhor (†1948) burua moztu ziotena Tonkinen. Bonnet tiroz hila Indotxinan. Xemartin Mendiboure (†1954) zuhaitz bati lotua zela, mañan deitu xinaurriek bizirik jana.

Amerikari doakionaz, Frantzisko Berascola (†1597), Floridan hil zutena aizkora ukaldika; Juan del Valle (†1616) jesuita Mexikon hil zuten. Julian de Lizardi (†1735), jesuita hau ere, Paraguayko martiria: Châteaubriand-ek aipatzen du²⁷⁶, baina ez gure diozesako ordoak. Domingo Iribarne (†1885) ortzaiztarrari lepoa moztu zioten 26 urtetan Koxintxinan. Josep Hurtin-Dibildos baionesa 30 urtez oinutsik ibili zen Indian. Horra hor beren odola ixuri dutenentarik... *zenbait*.

Mundu horretan aipatu behar dira tokian tokiko mintzaireretz misionestek egin lanak; liburu osoa behar liteke denak aipatzeko.

²⁷⁶ «Le père Lizardi fut trouvé percé de flèches sur un rocher; son corps était à demi déchiré par les oiseaux de proie, et son bréviaire était ouvert auprès de lui à l'office des morts.» *Génie du Christianisme*, 4^o partie, Ch. 4.

Hiru mintzaira ikasi zituzten frantziskotarretan: Juan Ibarzabal, Migel Martinez Larraga, Perro Mendia, Jeronimo Souza, Juan Salaberria; Euskara, espainola, latina eta grekoa bestalde apez guziek bezala, heldu baita zazpi mintzaira orotara. Melkior Oian-guren batek bazekizkien euskara, espainola, latina eta grekoa beraz eta gainera hebrearra, tagaloga, txinatarra, japonesa, ana-mita eta malaioa, 10 orotara. Bere lanak: *Talagog-espainol-eus-kara* hiztegia, *Arte de la lengua japona* (es obra importantissima y casi tan rara como el arte de la lengua japona, Humbolten ara-bera), *Tagalismo elucidado y reducida*. Misionestetan ainitzek ikasiak zituzten tokiko bi mintzaira eta kasik denek bat bederen. Salterain Bizkarra hinduistaz (†1887) Ghandik erran zuen «gure erlisionea alderdikierarik gabe eta barnatik ikertu duen lehen europarra dela». Marokako mahomatarrek berriz *saindu* izena eman zioten Jose Lertxundiri (†1896): luzaz klasikoa izan den gramatika araba egina zuen.

Etnologia, kultura eta historiak ere lan handiak egin dituzte. Hona zenbait: Gonzalez de Mendozaren (†1612) *Historia de las cosas mas notables en diversas lenguas desde 1585 a 1600* liburuak (1944 or.) izan ditu 38 edizio mintzaire zenbaitetan. Jeronimo Mendietak (†1604) idatzi zuen ordu arteko misioneen historia *Historia ecclesiastica Indiana*. Reginaldo Lizarragak (†1612) Txileko historia. San Pedro Uztaritz (†1615) karmeldarren jeneralak idatzi *Tractatus que asseruntur misiones eta rationes adversae refelluntur*. Jeronimo Ezpeleta (†1617) San Frantsesen iloba luzaz Mongoliako inperadorearen semearen aholkulari izan zen; pertsiarra ongi ikasirik oso lan interesgarriak idatzi ditu hango literatura eta historiak. Juan Rogeli (†1619) esker ditugu ezagutzen Floridan, Calus aldeko indioen sineste zaharrak. Martin Muruarenak *Historia general de los Incas de Peru* idatzi zuen. Eusebio Bengoarenak *Historia de las misiones franciscanas del Peru*, Jose Arlegirenak (†1719) *Cronica de la provincia de Francisco de Zatecas*. Janbattitt Duhalde (†1743) *lettres édifiantes*, misionestek igorri gutunen bilduma (18 tomo) eta Voltaire eta

entziklopedistek baliatu duten *Description de la Chine*. Buena-ventura Uriarte (†1970) apezpikuak ikerketa sakonak egin zituen animale eta landareetaz, 155 eskola, lau kolegio eta zenbait lan-bide eskola idekitzen zituela bestalde. Frantzisko Irazola Galarzak (†1945) sortu zuen *Museo Amazonico Peruano* erakustokia, bide asko idekitzen zituela bestalde. Rafael Gaztelua Ortuzarek (†1962) 500 kilometro bide ideki ditu Amazonian. Juan Lezika Torrezurik eraiki du Lujango basilika Argentinan.

Erredukzio famatuen sortzaletarik zen Iruñako Francisco baroia (Don Redin †1597), Felipe IV.a erregeren galeretako jeneral izan ondoan misionest joana Ameriketara. Burulehenak kardinal izendatu nahi izan zuelarik, ez zuen onartu: horrek berak merezi lioke sailduen erronkan emana izatea! Fermin Lasuenek (†1803) sortuak ditu Kaliforniako euskaldunek ongi ezagutzen dituzten 9 herri-parrochia: Santa Barbara, Soledad, Santa Cruz, San Migel, San Fernando, San Luis... 50 ofizio ikasi zizkieten indioei, laborantzari egin arazi zizkion urrats handiak bestalde: ustatzea, urtegiak, ubideak. La Pérouse bidaiari frantsesak laudatzen zuen.²⁷⁷ Honen aintzinetik Sistiaga jesuita ekartzen dute hango misioen zutabe bezala. Juan de Ugarte honen laguna Kaliforniako lehen agronomoa da: 1820an San Fernandon baziren 1.080 indio, 21.000 abere buru, 7.000 ardi, gari, garagar, arto, oliba eta beste ainitz uzta mota egiten zutela. Nikolas Armentia (†1909) apezpikuak 20 liburu idatzi ditu: Bolibiako indioen hiztegi, mintzaira, etnologia eta beste.

Ez nagoke Santa Kruz (†1926) gerla karlistetako apeza aipatu gabe. Gerla galdu eta Ameriketara joan zen eta han 51 urtez misionest lana egin!²⁷⁸

²⁷⁷ «C'est un des hommes les plus estimables et les plus respectables que j'ai jamais rencontrés: sa douceur, sa charité, son amour pour les Indiens sont inexprimables». (1786)

²⁷⁸ Parte hau egiteko laguntza handia ekarri dit orai kardinale den Roger Etxegaray-ren lanak: *L'effort missionnaire des Basques à travers les siècles*, Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua, Biarritz, 1948, J.C. Larrondek publikatua.

Horra hor izen parrasta bat. Futbolean Espainiako ekipak behar dituen hogoi bat jokolariak ateratzeko badira hogoi bat talde profesional eta nik dakita zenbat dotzena mila futbolari maila apalagokoak. Hemen agertu izen horiek ere, milaka eta milaka badituzte beren ondoan nehork aipatzen ez dituen Elizako zerbitzariak. Bainan besterik ere eman dio Euskal Herriak Elizari.

Migel Serveten izena ezagutzen nuen gaztedanik. Nehork ez zidan behin ere erran, nabartarra zela, Tuterakoa. Mediku ofizioa utzirik sinesteaz idazten hasi zen eta Calvin-ek erre zuen bizirik duela 450 urte, 1553an, Genoba hirian, ideia *makurrak* zituela-kotz. Melanchtonen²⁷⁹ adiskidea zen.

Aipatu behar dituda Duvergier de Hauranne (†1643) eta Martin Barcos (†1678) honen iloba, biak euskaldunak? Alabaina, jansenismoaren gogolari handienak izan dira eta jansenismoa batere ez zait gustatzen! Frantziako Eliza eta politika markatu dituzte beren garaian. Lehena ezagutzen ez duenik ez da edozein lizeotan *abbé de St Cyran* izenarekin, Racine, Pascal eta XVII. mendeko idazle famatuena dizipuluak baitzituen.

René Cassin (†1976), bake Nobel saria, baionesa zela badakizue. Baina judua zela erranen didate batzuk. Eta bai! Euskaldun guziak ez dira Euskaldun Fededun. Honek ez zion zorrik edozein fededuni. Nazio Batuek onartu Gizonaren eskubideak Cassin-ek idatziak dira. Bibliako ttuttutik edanetatik, bai eta Euskal Herriko kulturatik hazia zuen bere gogo. Ez bakarrik giro orokor batean, baina haur denboran etxeko sehi zeukan ortzaiztar emazte haren gandik: garai haietako familia handietan, ama baino gehiago, sehiarekin bizi ziren haurrak.

Mixel Garikoitz (†1863) ibarlarraren dizipuluak ere mundu osoan zabalduak dira, Afrikatik Ameriketara, Asian gaindi, misio-nerest eta eskola-emaila. Hau ere gure Elizaren historioko garai ilunenetarik bateko semea.

²⁷⁹ Luther-en laguna. Honek zuen idatzi «Augsburgoko aitormena» Lutera-
noen sinestearen laburpena.

Lavigerie (†1892) kardenal baionesak sortu zituen Aita Xuriak eta Serora Xuriak misionestak eta gaitzeko lana egin esklabogoa debekatua izan zedin. Nola esplikatzen ote zituen Jondoni Petri eta Paulo? Honek zuen Frantziako Eliza ekarri, azkeanean errepublika onartzerat.

2003 hondarrean ziren 194 kardinaletarik zazpik izen euskalduna baitzuten (%3,6), horrek ere zerbait erran nahi du. Euskaldunek ez dugu katolikoen %3,6k egiten hurbiltzekorik ere. Getotik atera behar dugula ari baitira zenbait, aho beteka, non bizi dira? Zabal ditzatela bada begiak! Atera ditela beren ilumbetarik!

Horra beste milaren artean, Ebanjelioa eta Elizari ederki baliatu zaizkien euskaldun zenbait. Baina bada bestalde, Apokalipsiak dioena «nehork ezin kondatuzko jendeketa handia» (Ap 7,9).

1973an baziren 6.639 apez eta fraile, 16.458 serora Euskal Herri osoan. 7.681 misionetan, Hegoaldeari doakionaz: 2.844 apez eta fraile, 4.837 serora.²⁸⁰ Hegoaldetik Hego Ameriketara joan 39 apezpiku euskaldun izan dira.²⁸¹

Othoizlarik ematen ditu Iparraldeko datuak 1974ko urtearentzat: 648 apez, 44 fraile eta 716 serora baziren gure xokoak emanak, edo hemen berean edo urrunago.²⁸²

Misionest horien jorratzea modan da gaur egun. Zer behar zuten hor harat joanik? Zergatik ez dituzte lasai utzi jende horiek denak, beren sinesteekin? Jorratzale handienak, beren alderdi politikoaren misionesta fondamentalistenak: haiek badute beren ikusmoldeen hedatzeko eta batzutan inposatzeko eskubidea. Misionestek ez zuketen beren sinestea aipatu behar ere.

²⁸⁰ *Othoizlari*, 1974, 77 zk., 33 or.

²⁸¹ Oscar Alvarez Gila, *Misioneros Vascos en Hispanoamerica*, Labayru Ikastegia, 1998, 98 or.

²⁸² *Othoizlari*, 1976, 76 zk., 43 or.

Diruaz ere hitz bat erran nahi nuke. Kalkulatua dut bizi naitzen parropia soilean urte bakoitz, girixtino familia bakoitzak 300 euroz goiti ematen diola Elizari. Bai ongi ulertu duzue, hirurehun euroz goiti! Beste herri batzuen konduak eskutan ukan baitituz, hein berean daude, Iparralde barnealdeari doakionaz bederen. Diru horretan, euskaldunek kanpoko apezpei ematen dizkieten mezak, dozena milaka. Horien kondurik ez da nihon agertzen.

Bai Elizak ainitz zor dio Euskal Herriari. Merezi lukeen ikus-tatea hartzen ote du ordainez? Ez. Batere dudarik gabeko eza erran behar da.

Hegoldearentzat bi gertakari aipatuko ditut. Cadena y Eleta nabartarra (Heleta Garratik ateraita, noizbait... ni bezala!) Gas-teizen apezpiku zelarik senadore izendatu zuten: politikoki bere ikusmoldekoak ez ziren abertzaleen kontra, gutun bat idatzi zuen 1910ean. Ez Jesusen Berri Onaz!

1936ko gerlatik du gehienik sofritu Hegoaldeko Elizak: 16 apez fusilatua Jainkoaren izenean, berrehun eta berrogeita hamar preso. Bost ehun bat 26 erresumatara edo Espainia hegoaldera igorriak erbestera. Mateo Mugica apezpikua bera bere diocesatik botaita, batere ez zelarik abertzalea.²⁸³ Kanbon bizi zela idatzi zuen 1945ean bere gutun famatua *Imperativos de mi conciencia*²⁸⁴ Euskal Herriko Eliza eta apezak xuritzeko jasan zituzten kalumnien kontra.

Duela zenbait egun beretter izanki eta kasik igande oroz mezan den 9 urteko neska batek erran dit ez zekiela zer den serora edo monja bat, ez duela behin ere bihirik ikusi. Katiximarako haurrak biltzen ditugun lau herrietan sortu 33 serora badira bizi. Badakizue zenbat diren lanean lau herri horietan? Bihirik ez!

²⁸³ Serafin Esnaola, *El clero Vasco en la clandestinidad*, Graficas Lizarra, 1994, 15 or.

²⁸⁴ Mateo Mugica, obispo titular de Cinna, antiguo obispo de Vitoria, *Imperativos de mi conciencia*, Cambo (France), abril 1945.

Bihirik! Horrek ez badu *pillage du Tiers Monde* delakoaren eite-rik...! Serorarik ez dutela gehiago ematen gure herriek? Nola izan dezake serora joateko ideia, serora bat behin ere ikusi ez duen batek?

Afrikan nintzelarik, ehun bat apez beltz zeukan Bolikostak. Azken apezpiku zuriak bere dimisioa eman zuen, 50 urtetan: lekua tokiko apezpei utzi behar zitzaizela iduritu zitzaion. Zahar eta gazte, apez on eta entrebaleko, 100ez petik ziren apez beltzetan hautatua izan zen honen ordaina. Ez dut behin ere misionest zuri bat entzun hautu horren kritikatzan. Elizaren betiko erakaspena da, herri bakoitzak behar dituela eman bere apez, serora eta apezpikuak. Kanpotik sartu misionesten lema da Jondoni Joani Batis-tarena: Handitu behar du eta nik ttipitu (Jn 3,30).

Zer ikusi dut herrira itzultzearekin? 1981ean, Oltzo, Baiona-ko azken apezpiku euskaldunaren hirugarren mendeurrena ospa-tzera ekarri nuen Euskaltzaleen Biltzarra! Hiru mendez goiti badu kanpoari hoinbeste apezpiku eman diogun euskaldunok ez dugula apezpiku euskaldunik Baionan. Gorago erran bezala, Parisko politikero eta framazoneriari kausitzeko, Elizak bere erakaspentak zangopilatzen ditu.

Zenbaitek erran didate kanpoko begi batek hemengo giroa ikusteak ez digula kalterik egiten. Artetan, ez nezake ezetz erran, baina hiru mendez! Ebanjelioaz futitzen diren politikoei kausitze-ko! Gainera, delako kanpoko begi horretan sinetsiko dut Parisen ikusiko dutalarik apezpiku inglesa eta Madrilen alemana. Kanpo-ko begirada batek ez ote lieke on eginen bi hiri handi horiei ere? Eliza eta Frantzia (edo Espainia) hobeki bereiz litzateke, galika-nismoa ez baita arras hila oraino. Hori ikusiko ez dudano eta eus-kalduna den apezpiku bat hemen izendatuko ez duteno, Paris eta Madrilgo joko politikoaren partaide sendituko dut Eliza, Konstantin inperadorearen garai mitikoetako Eliza iduria.

Frantzian ere Elizak badaki tokian tokikoa izendatzen Paris-koaz bestalde ere: Hérault departamenduko Guy Thomazeau, okzitaniarra mintzo duen apeza, Montpellierren berean azke-

nik.²⁸⁵ Estrasburgoko apezpiku guziak altzaziarrak izan dira azken hau arte. Eta honen izendatzeak arazoak sortu ditu. Israelen, parrochia bakar bat baizik ez dutelarik osatzen hebrearrez mintzo direnek, beren apezpikua badute, israeldarra, Jan Battitt Gourion, Jerusalemgo apezpikuaren laguntzalea.

Hegoaldeaz zer erran? Madrilen ohartu daitezke nonbait bazela zerbait johan ez zena, Bilbon euskalduna ez zen Blazquez izendatu dutelarik. Sekula santan ikusi ez dena gertatu da: apezpiku berriak apezpiku laguntzailerik euskalduna hautatu du... bera baino zaharragoa!

Madrilen ere, sekulan ikusi ez zena: 2002an dokumentu bat, politika gai batez, (terrorismoa estakuru, autodeterminazio eskubideaz), plazaratu dute apezpikuek, %17 akort ez zirelarik: Elizako ohitura da, ona ala txarra, baina ohitura, dokumentu bat aho batez onartua izatea. Kontsentsusa. Vatikanoko kontzilioan Ekialdeko Elizetaz egin dekretuak 1.841 boz izan zituen alde, 283 kontra lehen bozkaldian. %87 alde, gehiengo handia zen. Ez aski izanez beste hiru aldaketa andana egin zituzten eta eza %1,8tan zelarik gelditu!²⁸⁶ Roucok beste biderik hartu du. Madrildik etxera eta, laratza pikoan eman behar izan dute apezpiku zenbaitetik, Euskal Herrian eta Katalunian, beste gutun bat ateratzen zutela beren diozesako giristinoei jakin arazteko, ez zirela Madrillgo testuari jarraikitzen behartuak!

Kanpoko apezpikuak izate horren ondorioetarik bat da, euskarak ez duela zor zaion tokirik elizan. Elizak hizkuntza gutietasietaz dauzkan erakaspen guziak zangopilatuz aldi honetan ere. Euskaldun apezpek horrelako lanak egiten misionetako mintzaireren errespetuz, eta Elizak euskara ez errespetatzen hemen.

²⁸⁵ Isabelle de Gaulmyn, «Un évêque auxiliaire à Montpellier», *La Croix*, 2003.05.23.

²⁸⁶ Vatikanoko bigarren kontzilioan 2000 apezpikuz goiti baten, kolore, mintzaira, kultura guzietakoak: hautsi-mautsiei esker erabakiek ez dute %0,75 botu baino gehiago izan kontra, bana beste.

Baionako azken sinodoak erabaki onak hartu ditu. Euskaldunak minoria bat baizik ez ziren sinodo horretan eta kasik aho batez onartu zuten 400. artikulua: komunitate bakoitzari meza bere hizkuntzan segurtatu behar zaiola, frantsesez, euskaraz, edo elebidunez²⁸⁷. Frantsesezkoak badira beraz. Elebidunak (?) ere bai (kantua euskaraz, gaineratikoa frantsesez. Behin ere ez dut ulertu ahal izan nolaz euskara ulertzen zen kantatua zelarik eta ez mintzatua zelarik! «Qu'ils sont beaux les chants Basques!» Jendeak elizara biltzeko amuak izateko doia bagara!).

Euskarazko mezak, hiru, lerro lerro kostalde osoarentzat Baionatik Hendaiara. eremu horretan berean delarik ikastola, klase elebidun eta gau eskoletako ikasle kopuru handiena! Euskal mezak badira Parisen eta San Frantziskon, baina ez Angelu eta Biarritzen. Bizkitartean *Codex Canonici* Elizako deretxo liburuak aipatzen ditu, ez eremu batentzat baina jende batzuentzat bereziki egin parropiak.²⁸⁸

Barne aldean, euskarazko mezak, askotan goizeko 8etan edo bazter herri batetan. Badelarik! Los Angelesetan eta Suitzako Friburgon izan bainaiz, han ez da meza elebidunik, ez bada Eguberri eta Bazko arratseko mezak Friburgon. Eta horiek zinez elebidunak dira, noiz nahi mintzaira batetarik bestera pasatzen direla. Aldiz meza osoak baditu mintzaira bakoitzak, igande oroz. Gau-

²⁸⁷ «Il est demandé de poursuivre le renouveau liturgique entrepris en langue basque depuis le concile Vatican II. Il est demandé aux Conseils Pastoraux de secteur en Pays Basque de faire des propositions, selon les besoins, sur le nombre de messes en français, en basque ou bilingue, pour garantir à chaque communauté la liberté de célébrer dans sa langue.(...)»

Il est demandé de poursuivre la tradition catéchétique du diocèse en Pays Basque et d'élaborer de nouveaux outils de catéchèse en langue basque. Il est également demandé de mettre en œuvre une pastorale destinée aux milliers d'enfants et de jeunes scolarisés en langue basque.» *Synode 1992*, 29 or.

²⁸⁸ *Codex Juris Canonici*. Can 519: *Ubi id expediat, constituentur paroeciae personales, ratione ritus, linguae...*: Egoki den tokian, sortuko dira presuna parropiak, errito, mintzaira eta abarren arabera.

za bera gertatzen da Bruselan, eskutan izan dudak paper baten arabera. Toronton 45 mintzairatan badira mezak.²⁸⁹ Kanadan, Halifaxeko apezpikuak eliza bat erosteko diruaren erdia eman diete hango 200 familia frantsesei: beste eliza batetan bazuten meza frantsesez, beren tenorean. Biziki ontsa pasatzen zen, bainan beren eliza nahiago.²⁹⁰ Nihork ez du erran eskandalagarri zenik. Euskaldunak izan balire!!!

Ni baino sinesgarriago den René Rémond batek azpimarratzen du Elizak bere orokortasunaren muña hertsiki lotua duela Jesusen Berri Ona mintzaira, leinu eta kultura guzietan zabaltze-ari. Orokortasunaren molde hori Elizak munduari ekarri dizkion «asmakizunetan» ematen du.²⁹¹ Mende erdi bat lehenago, Karl Rhaner kontzilioko aleman teologoak ez zuen besterik erraten: berezitasuna ez zaio berexgarri, bainan hurbilgarri²⁹².

Euskarazko mezek, euskarazko katiximak, giristinoen batasuna hausten dutela baiterasate zenbaitek, arazo izpirik gabe emanen dute meza bat larunbat arratsean eta beste bat, ez delarik bi, igande goizean, giristinoak hiru zatitan emanez delako batasunaren arrangura izpirik gabe. Latinaren alde zirenek arra-

²⁸⁹ Emmanuel Romer, "Toronto Tour de Babel", *La Croix*, 2001.08.17.

²⁹⁰ Emmanuel Romer, "Les derniers bastions de la francophonie", *La Croix*, 2001.08.16.

²⁹¹ «Le noyau central du message universaliste de l'Évangile est étroitement lié à la prédication de la Bonne Nouvelle, c'est à dire la communication de la Parole à tous, sans exclusivité et même avec une préférence marquée pour les personnes de toutes les langues et de toutes les provenances ethniques et culturelles. Cette «invention» de l'universalité est sans cesse proposée par les Écritures qui jouent un rôle central dans la liturgie de l'Église et dans sa vie.» R. Rémond, *Les grandes inventions du christianisme*, Bayard, 16 or.

²⁹² «La vraie loi de l'être n'est donc pas: plus grande est l'individualité réelle, source de distinction, plus marquée est aussi le caractère d'indépendance, d'isolement et de séparation par rapport à l'autre; mais l'inverse: *plus il y a dans le réel de particularité et de plénitude d'être en soi, plus il y a de proximité, de liaison, de participation mutuelles entre les êtres.*» (italikak idazlearenak dira). Karl Rahner, *Mission et grâce*, Mame, 1962, 118 or.

zoinamendu berbera zuten. Bitxi ere bada nolaz euskarak baizik ez duen hausten batasuna. Batasun horren izenean euskarak ez du behar lukeen tokirik gure elizetan, minoria batek ez dezake-lakotz jasan. Intolerentzia ez da Ebanjelioko baloreetarik, nik dakidala.

Katiximarako liburu berriak aipu ditu sinodoak.²⁹³ 2003an, 12.000 € behar izan delarik eskuliburu berri bat inprimatzeko, kutxan dauden 18 milioi euroetarik, deus ez digu eman diozesako diruzainak. Borondate oneko parropiei eskatua izan zaie emaitza berezi bat! Bat gehiago. Jadanik erran bezala euskaldunek hoinbeste eta hoinbeste ematen diotelarik Elizari. Baionako diozesako berezitasun bat, katiximak diozesak pagatu dituela, katiximak direnetik. Mgr Vincent-ekin gelditu da ohidura zahar hori.

Iparraldeko mugimendu politiko, sozial eta kultural osoa, herriaren berreuskalduntzeari lotua delarik, mugimendu orokor horretatik kanpo dago Eliza, bidean doan kamioiari so, bide bazterretik. Hoinbeste eskola baduelarik BABen, 17 haur zeuzkan 2001ean bere saileko elebidunean (elizako eskoletan dabilzane-tarik %0,7!!!), 700 bazirelarik euskara ikasten publikoan eta Seaskan.

Noiz gogoeta serioa bat apezten artean sinodoaren eta behin baino gehiagotan apezpikuak eman ereduak aplikatzeaz pundu horretan? Bakoitzak nahi duena egiten du. Edo ahal duena, jasaten dituen presioen arabera.

Ez dakite zer aberastasuna baztertzen duten euskararekin! Fededunentzat aberasgarri litekeen aberastasuna. 1926ko kanti-ka liburuan, Leizarraga, Duvoisin edo Haranederrek beren eban-jelioetan bezala, Ama Birjinaren *erditzea* erraten baita, hitz hori desagertu da, hain segur behientzat ere hitz bera delakotz. Parise-ko teoretiaz hantuak, gure teologoen bereizi dituzte *enfant* eta

²⁹³ «Il est demandé (...) d'élaborer de nouveaux outils de catéchèse en lan-gue basque.» *Synode*, 1992, 29 or.

vêler: emaztea ez baita behia! Baztertze horrekin ez dakite zer altxorra galdu duten: erditzeak ez ote du erran nahi ama batek bere erdia ematen diola haurrari? Esperantxetan den emazte batetaz galdetzen da oraino: «Osoa dea?» eta ez «Haurra ukana du?» Frantsesez entzuna dut euskaldun bat: “Elle est entière”.

Gero eta gehiago, haurdun izateko *arriskua* aipu delarik, ama izatea zorigaitz bat balitz bezala, *esperantxetan* izatea erraten da haur bat sabelean daukan emazteaz. Esperantxetan izatea eta haur baten izateko arriskua, ez da arras ikusmolde bera. Ezin uka, orain sartzen ari den *haurdun* baino askoz ere aberatsagoa dela *esperantxetan* hitz hori.

Nahiz Intxauzpe xiberotarra gustatzen zaidan, bikario nagusigotik Xiberoko herri ttipi batetara igorri baitzuen egunetik biharrera, hemen sartu orduko, Jauffret apezpikuak, garbitzale ohidura bera badu, sexua hunkitzen delarik. Axularren *Gero* arrapublikatu zuen 1864an, «edizione berria, *garbitua*» berak idazten duen bezala. Hala nola Axularren *putaseme p...sеме* bilakatzen den. Egia erran, geroago Sartrek ere bide bera hartu behar zuen *la p. respectueuse*. Axularrek garbiki erraten duelarik Neron mutiko gaztekin eta bere amarekin etzaten zela, Intxauzpek ez du horrelakorik aipatzen. Mendea horrela zen eta Archuk berak eskola publikoko inspektore zelarik, ez zuen «Emazten fabore» Etxeparen olerkia osoan itzuli frantsesera!²⁹⁴

Euskaldun batek ez du erranen ene etxea, ene ama, ene haurrak, ene pentzea, ene herria... bainan gure etxea, gure ama, gure haurrak, gure pentsea, gure herria... Jabetasunaz ebanjelioari biziki hurbil den ikusmoldea.²⁹⁵ Eta gisa bereko beste zenbat hurbilketa ez liteke Berri Ona eta euskararen artean? Baliatzen du hori Elizak?

²⁹⁴ Jean Haritschelhar, «Intxauspe Axularren zentsuratzaile?», *Euskera*, 48, 2003-3, 569-580 or.

²⁹⁵ P. Juaristi Larrinaga, *Euskaldunak eta ondasunak*, Pamiela, Iruña, 2001.

Non da Mendekoste? Elizaren sortegunaren ezaugarria izan zen, bakoitzak bere sorterriko mintzairan entzuten zituela apostoluak. Euskaldunik izan balitz han, euskaraz entzunen zituzten beraz. Gauza harrigarria, 15 mintzaira aipatuak baitira, ez da agertzen orduko mundu osoan nagusi zen mintzaira, greziera. Aldiz bai euskara bezain xumeak ziren elamdar eta panfiliarra. Eta Euskal Herriko Elizak, hemengo grezierari, frantsesari ematen dio lehentasuna. Laket litzaidake jakitea zenbat apez euskaldunek ematen duten *Apostoluen Egintzak* liburuko pasarte horretaz interpretazio hori! Mendekoste ere erlisione inkarnatuko besta estraterrestra bat gehiago?

Biltzar Handietako Esker Onezko Otoitzean erraten dugu: «Zure semeak ekarri digun Berri Onaren bidez, herrialde eta mintzaira guzietarik gizonak bildu dituzu.» Baketzearen bigarrenen: «Ekar ditzazu gizon guziak ere edozein herri, leinu, hizkuntza eta kulturetakoak». Nola erran dezakegu otoitz hori, geure herrian geure hizkuntzak ez daukalarik bere tokia? Afrikako eta Asiako Elizentzat baizik ez ote liteke bali hori? Aldi bat gehiago ageri da zein guti den hemen errotua, inkarnatua, gure Eliza.

Bere erakaspenak ahantzirik eta ukaturik, Elizak Euskal Mundua galdu du XX. mendean, XIX.ean langileen mundua galdu duen bezala. 1960ko hamarkadan Aberri Eguna mezarekin hasten zen. Non daude orain abertzaleak? Nola nahi zenukete euskaldun guziak kezkatzen dituzten arazo nagusietarik bati izoztua dagoen Elizak interesa ditzan euskaldunak?

Gaur egun noiz nahi gurtzatzen dira kostaldeko eta Gipuzkoako auzapezak, gure departamenduko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunak, mugaz bi aldeetako komertzio ganberetako kargudunak eta abar. Aldi bat gehiago mugimendu zabal hortarik kanpo dago Eliza. Ipuruan, kirol zelaiari bizkarrez. Non daude Euskal Herriko bost apezpikuen bilkurak, bikario nagusienak, apezzenak?

50 kilometrotan dagoen Donostiako apezpikuarekin baino harreman aise gehiago badute Baionako apezpikuek, mila kilome-

trotan dauden Lille edo Estrasburgokoekin. European gara ala ez? Ez ote da hain zuzen Madrilen mintzatu goraki Joan Paulo II.a Europaren alde 2003an, maiatzeko 4an azkenik? Zer dira bada Elizaren mugakeria horiek Bidasoako bi aldeetan? Eliza *unibertsaleko* apezpiku dira, baina lehenagoko mugen esklabo! Frantziako (edo Espainiako) Eliza aipu da aste oroz apezpikutegieta-ko aldizkarietan, Mugaz bestaldekoa oso bekan. Eliza *nazional* horrek ez ote luke lehenagoko *galikanismoaren* kutsu zerbait?

Ikusiz zer kenka larrian dagoen Eliza, beste gauza bat ikasten ahal luke euskaldunen gandik: duela 30 urte, euskara hil zorian zegoen. Gehienek uste zuten, euskara mintzo zutenak bizi zireno entzunen zela gure mintzaira zaharra, baina epe laburrik barne euskararenak egina zuela, lur azaletik desagertzera kondenatua zela.

Etsitu ez den minoria bat izan da. Geroan sinetsi du. Lanari lotu esperantzaz beterik. Bide zaharrak atekak zirela ikusirik, bide berriak ideki. Sortu ikastolak, sortu irratiak, sortu gau-eskolak, sortu klase elebidunak. Hegoaldeari doakionaz, erran daiteke gaina hartua dutela eta zilo beltzetik aterako direla. Iparraldean ez gara oraino horretan baina bide onean... Elizarik gabe.

Ez ote da hori Elizaren eginbidea azken hatsetatik atera nahi baldin badu? Irabazia izanen dugularik irria ezpainetan oroit araziko digu Etxepare eta Axular, apezak zirela. Elizak ere bere harria ekarri diola euskarari. Baina hogoita batgarren mendean gara. Ez hemeretzi edo hamaseigarrenean. Eta azken hatsak aipatzean ez dut euskara gogoan. Elizaren azken hatsetaz ari naiz.

Bere agoniatik atera nahi baldin badu Elizak, euskararentzat egin dugun bezala, geroan sinetsi behar du gostarik gosta, lanari lotu heriotzera daraman atekatik baztertuz. Bide berriak ideki. Giristinoek ez dute apezpiku eta apezzen beha egon behar horretarako: jos ahal urratu badute jadanik. Hoberenak ere lanez itoak dira eta gero eta gutiago izanen dira. Elizak bizirik irautea ala ez, giristinoen eskutan dago. Eliza, sinestedun guziek egiten dugun

familia da. Sinesdunok dugu Ebanjelioaren beharra. Gure onetan dugu Eliza bizirik atxiki behar, sinetsi behar, ez apez edo apezpikuen gatik, haiei kausitzea gatik. Irabazia izanen dugularik, hauek jarraikiko zaizkigu.

Non ez dugun Amoco Cadix, Prestige, Irak eta Palestinako gerla, Le Floch Prigent, politikari lapur, sorgin, azti, kirolari dopatu, etorkin esplotatu, droga, Fairfax Cryobank, Top girl's obulo edo birjinitate inkantez eginikako mundua hautatzen.

Jainkoa ukatzen hasten delarik, gizakia ukatuz eta suntsituz bururatzen da faltarik gabe. «Hil da Jainkoa» kantatzen du π LT Bizkaiko rokeroko taldeak Nietzsche, Heggel, Michelet eta beste zenbaiten ondotik. Jainkoa ez da hila bainan gizakia eri.

XVII HAUTUA

Hautua oso sinplea da. Edo 1968an Parisko metroan irakurtu nuen lema gure egiten dugu: «debekeztea debekatua da», hots, bakoitzak nahi duena egiten du, denak haizu, eta ez da sekulan aski polizia, aski juje, aski presondegi izanen. Beti polizia gehiago, beti juje gehiago, beti presondegi gehiago beharko da. Pasquak presondegi berriak eraiki zituen baina jadanik ttikiegi dira eta egundainotan beste batzuen egitea erabakia da. Frantziako presondegietan 157 preso badira ehunen tokian! Pasquak presondegi berriak egin ondoan! Oraiko guzientzat tokia eginen dutelarik, egundainokotan berrogeita hamar bat preso sobera izanen da ehun tokirentzat, gero eta jende gehiago emanen dutelakotz preso!... Eta preso joan aitzin egiten diren sarraskiak jasan beharko ditugu. Gero eta gehiago.

Edo bestela Jesusen kode hori onartzen dugu. Badakit. Presondegiak beharko dira halere. Presatuak garelarik argi horia ikustearekin beribilari abiadura gehixago ematen diogun bezala, ahalaz gorria aitzin pasatzeko, gure isurgia naturalaren aldera joanen gara, kodea zenbait minutaz bazterturik, kodea hausten dugulako kontzientzia osoarekin. Baina badakigu kode bat badela, kodea hausten dugula. Badakigu gaizki ari garela. Ez dugu erranen gure hutsa ongi denik, kode bilakatu behar duenik. Kodea kode dela onartuko dugu. Gaizkia gaizki dela. Bide onera itzuliko gara gure hutsaren ondotik.

Badakit, beharko dugu gure isurgiaren kontra egin igerika. Badakit isurgiaren alde aritzea baino nekeago dela. Nahiz horrek ere ematen duen bere atsegina. Beharko dugu gure burua bortxatu. Gostako zaigu. Baina zer eskatzen diogu gure haurrari, haur bat baizik ez delarik! Zenbat aldiz ez diogu garrazki eskatzen nahi ez duena egin dezan. Goizean goiz jeiki dadin eskolara joateko; telebistari begira egoteko partez, matematikak egin ditzan eta abar. Eskolako lanaz kanpo, behar du entrenatu pilota edo futboleant, dantzara joan, musika ikasi, kantu txapelketarako prestatu: medikuak errana dit oso zaila zaiola haurrekin hitzorduen finkatzea: ez dute minutu bat librerik. Beti hartuak! Zenbat haur eta gazte, beren 35 orenak baino gehiago egiten baitute, askoz ere gehiago, beren geroaren segurtatzeko? Denborarik gelditzen ote zaie bizitzen ikasteko?

Eta gu, helduak, zohituak, zentzuz beteak, gibelka ari ote gara? Gure haurrari hoinbeste eskatzen diogularik, patar guziak ordoki nahi genituzke guhaurentzat. Ezagutzen dugu indarño bat gabe eskura daitekeen zerbait balios? Jesusek berak abisatuak gaitu bidea gogorra izan daitekeela: Bizira deraman atea hertsia da eta meharra bidea (Mt 7,14). Hertsia, baina bizira derama. Zorionera. Zabala iduritzen zaigun atea nora eramaten gaitu?

Beharko dira bai isun, polizia, juje eta presondegiak oraino, gizona gizon baita eta gizonkerietara ekarria nahi ala ez. Bihurrikerietara erortzetik begiratuko baigaituzte gu ere, zenbait aldiz, lehen horiek.

Orainokoan zure 15 urteko alaba uzten duzu gostuan, Baiona ttipiko ostatuetan goizeko biak arte²⁹⁶. Berdin trankil utz zenezake Chanteloup les Vignes edo Garges les Gonesses-eko karriketara? Bercy-ko futbol partida batentzat 3.000 polizia behar dira, hemen

²⁹⁶ Ez da gehiago egia. «Aintzinamendua» martxan hemen ere. Baiona tipiko arkupe horietarik batean, 16 urteko neska bat bortxatu dute geroztik adin bereko hiru mutikok! Ortesen bi urtez (15 urtetarik 16 arte) neska gaixo bat dotzena bat mutikok, horietarik bat Kurutxet, ez baita arabea, ez kurdoa.

zenbait pare aski direlarik. Euskal Herria eta Paris aldearen arteko diferentzia bat zein den erranen dizut, besteak beste. Hango haurretan %80 ez da katiximan ibiltzen. %90ez goiti zenbait gunetan! %80 horietan, zenbat ez baitakite koderik badela ere. Zenbatentzat ez da *libertate osoa* etxeko katixima. Bakoitzak nahi duena du lege. Denak haizu. Hemen, %80 katiximan ibiltzen dira. Ez dut erranen hango guziak deabruz eginak direnik hurbiltzekorik ere, eta hemengoak denak aingeru. Baina, nahi ala ez, 80 axerik, 20k baino gehiago oilo jaten dute. Paris aldeko kolejio eta lizeo batzutan ikasleen beldurrak harturik daude irakasleak!!!

Hemen, Jesusen Berri Onaren berri badakite gutiz gehienek. Bidetik baztertzen badira, gaizki doazela senditzen dute. Bide onera itzultzeko xantza zerbait badute, bide hori ezagutzen baitute, bide hori ona dela baitakite.

Orokorki onartzen dituzu horiek denak. Gaineratiko beharrik ez duzu. Jainkoa badela, Jesus Jainko dela, piztu dela, zeru bat badela eta beste xorakeriei doakienaz... Pascal idazle frantsesak zioen Jainkoa baitan sinestea ala ez, pario oso berezia dela. Irabazteko xantza baduzu, deus galdu gabe. Ez zezakeela froga Jainkorik badela. (Bainan nehork ez dezake froga ez dela!) Jainkoan sinetsiz deus ez zuela galtzen. Irabazteko xantza ba, galtzeko arriskurik ez; ez, ez zuela duda izpirik hautua egiterakoan.

Zer arriskatzen duzu sineste horrekin, sineste horrek eskatzen dizun bidea hartzen duzun pundutik? Behin bide hori hartuz geroz, bizi hobea eramanen duzu, mundu honen mugak ikusiz goza dezakezun hoberena. Mundu hobe baten eraikitze obretan zure partea ekarriko duzu. Eta gero, segur eta fida naiz, egun ez bada bihar, bide horrek eramanen zaituela, bide hori erakutsi digunaren gana. Alabaina, errana digu «Ni naiz bidea.» (Jn 14,6). Ni: Jesus. Ez apezak, ez apezpikuak, ez Aita *Sainduak*. Bide hori ez duzu hartzen hauei kausitzeko, hauen gatik, baina zuretzat hoberena delakotz, zure gatik, zure zorionerako.

Bibliako orrialde aberatsenak Babilonen idatziak izan dira, juduak erbestean zirelarik, tenplorik gabe, elizkizunik gabe.

Nabukodonosorren lur ikara izigarri hark denak lurrera botaiak, denak suntsituak zituelarik da juduen fedea gorenean izan. Garai gogor horietakoak dira Bibliako orrialderik ederrenak.

Gure zibilizazioa beherapenean da. Beherapenaren ondotik, gorapena. Non ez dugun gure gizartea gero eta beherago erortzera uzten, isurgiaren alde joatea erretxago zaikulakotz. Mesopotamiako zibilizazioak leher egin du. Egiptokoak bere piramideekin, Kreta eta Greziakoek ere bai. Guri, mundu hau gorapenera eramatea, eta berriz ere errateko, ebanjeliotik kanpo ez dut ikusten beste zein norabide ematen ahal geniokeen horretarako.

Frantziako eskola publikoetan, erlisionerik ez zen aipu haurra nintzelarik baina, goiz guziez, eskolan sartu eta lehen lana, moralak irakasten zigun errientak *La bible des instituteurs* deitzen zen liburu batetatik. Katiximan ikasten genuen moralak hura ber bera zen, Jainkoaren aipamenaz kanpo. Morala guti egiten da orain eskola publikoetan. Iturritik moztua, urtetik urtera, indarra galdu du moralak horrek, Eguberriko izeiak bezala: berde-berdea da erosten dugularik. Handik hilabete bat barne, bere orratzak galtzen hasten da, bizia ematen zioten erroetarik moztua baita. Europako kulturaren mendez mende sartu Ebanjelioko moralak zen eskolako hura. Iturritik moztua, zimeldu da emeki emeki, eta eihartu.

Gure mundu honetan badira oraino, nahiz tutik ez sinesten, balore batzuei zaindu dituztenak. Amaren bularretik balore horietan haziak izan baitira. Baina amaren haietarik batzuei baztertuak dituzte. Bide beretik, hauen haurrek beste batzuei baztertuak dituzte. «Bakotzak berak finka bere mugak. Askatasuna» aita-amek eman dogma berria gatik. Eta zer geldituko da bizpahirugarren gizaldian? Zer gizarte emanen du horrek? Eguberriko izeia iduri, berri hartan baloreak bizi izanen dira, baina denborarekin historikoko, hilen eta orratzak bezala, lurrera eroriko, abarrak hilak utziz, buluzirik.²⁹⁷

²⁹⁷ «L'Eglise entame son 3^e millénaire et dans ses églises on récite au mot près un Credo qui remonte au concile de Nicée (325). On notera aussi que les clercs continuent de croire en la révélation. Je doute que la foi patriotique répu-

Duela 30 urte, larunbatetik iganderako gauetan beha nindagoen noiz joko zuen sirenak, suhiltzaleak deitzeko bide istripu batetara: zernahi gazte hiltzen zen bidetan. Gaur egun askoz ere gutiago. Lagunak hiltzen ikustearen bortxaz, gehienek ulertu dute koda errespetatu behar dela. Gaur egun alkoholari kasu egiten diote. Abiadurari ere bai.

Jesusen kodarentzat ere horrelako zerbait gertatuko dela ez dut dudarik. Gizarte hau ohartuko da jaten den lekuan arbi, ez daitekeela izan etxea garbi. Jesusen koda gabe nora goazen ikustearekin, serioan hartua izanen da. Hogeita hameka eta esku dugu. Ez gaiten izi hogeita hamahiruarekin, oihuka, hordago botatzen digutenean aintzinean.

blicaine et laïque soit aussi vivace dans les IUFM qu'elle le fut dans feu les écoles normales. Finalement les derniers en date des ennemis déclarés de l'Eglise de France n'auront pas mieux tenu la distance que les dualistes de jadis, les déistes de naguère.» Tillinac, *Op. cit.*, 49 or.

BIBLIOGRAFIA

- Aller au cœur de la foi*, Bayard, Paris 2003.
- Altuna Belen, *Euskaldun fededun*, Alberdania, Donostia, 2003.
- Alvarez Gila Oscar, *Misioneros Vascos en Hispanoamérica*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1998.
- Arbelbide J.P., *Bokazioea edo Jainkoaren deia*, Desclée de Brower, Lille, 1887.
- Arbelbide J.P., *Erlisioea*, Desclée de Brower, Lille 1892.
- Arbelbide J.P., *Igandea edo Jaunaren eguna*, Desclée de Brower, Lille, 1895.
- Arbelbide X., *Euskaldunak Algerian*, Elkar, Donostia, 2004.
- Axular, *Guero*, G. Millanges, Bordele, MDCXLIII.
- Barrière H., *Bruce Sprinsteen*, Flammarion, Paris, 2001.
- Benichou Gregory, *Le Chiffre de la vie*, Seuil, Paris 2002.
- Boulard F., *Problèmes missionnaires de la France rurale*, Le Cerf, Paris, 1945.
- Celebraciones dominicales y festivas en ausencia de presbitero*, Secretariado Nacional de Liturgia, Barcelona, 2000.
- Congar Y., *Journal d'un théologien*, Cerf, Paris, 2000.
- Congar Y., *Mon journal du Concile*, 2 T., Cerf, Paris, 2002.
- Corneau G., *Père manquant... fils manqué*, Editions de l'homme, Paris 1992.
- Debray Régis, *Dieu un itinéraire*, O. Jacob, Paris 2001.
- Delumeau J., *Ce que je crois*, Grasset, 1988.
- Denis H., *L'avenir en face*, Desclée de Brower, Paris, 2002

- Dokelar Pierre, *Jean Larrepain*, Pau, 1999.
- Doncoeur, *La crise sacerdotale*, Flammarion, 1932.
- Drewermann, *Fonctionnaires de Dieu*, Albin Michel, 1993.
- Duquesne Jacques, *Demain une église sans prêtre*, 1968.
- Dubarat V., Daranatz J.B., *Recherche sur la ville de Bayonne*, A. Lafon, Pau, 1910.
- Elizako liburua*, Editions Religieuses Basques, Baiona, 1961.
- Escande J.P., *Des cobayes, des médailles, des ministres*, Max Millo, Paris 2003.
- Esnaola S., *El clero Vasco en la clandestinidad*, Graficas Lizarra, 1994.
- Etxenagusia Karmelo, *Euskerea nire bizitzan*, Labayru, Bilbo, 2003.
- Exercicio ispiritualak*, Virilinde, Baiona, 1868.
- Gieure F.M., *Catichima Baionaco diozesacoa*, Mame, Tours, 1912.
- Girixtinoaren elizako liburua*, Mame, Tours, 1938.
- Godin H. eta Daniel Y., *La France pays de mission?*, Le Cerf, Paris, 1943.
- Guitton J., *Mon testament philosophique*, Flammarion, 1997.
- Haristoy P., *Les paroisses du Pays Basque*, Harriet, Baiona, 1981.
- Haritschelhar, J., «Intxauzpe Axularren zentzuratzaile?», *Euskera*, 2003-3, 569 or.
- Hemen aldizkaria*, Gazteiz, 2004.
- Hervieu-Léger D., *Catholicisme, La fin d'un monde*, Bayard, 2003.
- Ipar Euskal Herria*, Hemen, Baiona. 2002.
- Jean Paul II, *L'Eglise vit de l'eucharistie*, Bayard, 2003.
- Juaristi Larriaga Patxi, *Euskaldunak eta ontasunak*, Pamiela, Iruña, 2001.
- Kanters Robert, *Essai sur l'avenir de la religion*, Julliard, 1945.
- Kung Hans, *Une théologie pour le troisième millénaire*, Seuil, 1989.
- Lancré de, *Tableau de l'inconstance des mauvais anges*, Aubier, 1982.

- Larreguy B., *Testament zaharreco eta berrico historiaa*, Hordago, Donostia, 1978.
- Lehmkuhl A., *Theologia moralis*, Herder, Friburgi Brisgoviae, 1896.
- Lertxundi Gabriel, *Kantikak*, Belloc, 1948.
- Loison J.J., *Catéchisme*, Cluzeau, Baiona, 1807.
- Matagrín G., *Le chêne et la futaie*, Bayard, Paris, 2000.
- Montclos X. (de), *Brève histoire de l'Église de France*, Cerf, Paris, 2002.
- Montcheuil Y. De, *L'Église est une, Bloud et Gay*, 1939.
- Montillet (de) Jean François, *Rituel de la province ecclésiastique d'Auch*, J.B. Coignard, Paris, 1751.
- Moreau R., *L'Ame Basque*, Ulysse Edition, Bordeaux, 1981.
- Morillon (Général), *Mon Credo*, Presses de la Renaissance, Paris, 2003.
- Mugica Mateo, *Imperativos de mi consciencia*, Cambo, 1945.
- Niquèze B., «*Il a quitté*». *Mémoire pour la maîtrise en sociologie*. Bordeaux II, 2000.
- Olce. Statuta synodiali, Baiona, 1666.
- Ormaetxeberria I., *Franciscanos misioneros Vascos*, Arantzazu, Oñati, 2001.
- Pagola Manex, *Biziaren altzotik*, Baionako Euskal Erakustokiaren Adixkideak, Baiona, 1988.
- Parents (les) d'enfants du BAB de 0 à 2 ans et l'apprentissage de la langue basque. CSA, 2001.
- Piralian Hélène, *La Vendée, Après le Terreur, la reconstruction*, Perrin, Paris, 1997.
- Pean Pierre, *L'argent noir*, Fayard, 1988.
- Quenum Alphonse, *Les Églises chrétiennes et la traite atlantique du XV^e au XIX^e siècle*, Karthala, Paris, 1998.
- Rahner Karl, *Schriif zur Teologie*.
- Rahner Karl, *XX. Siècle, siècle de grâce*, Mame, 1962.
- Rahner Karl, *Mission et grâce*, Mame, 1962.
- Rapport de la commission internationale de théologie. Le ministère sacerdotal*, Cerf, Paris, 1970.

- Rémond René, *Le christianisme en accusation*, Desclée de Brower, Paris, 2000.
- Rémond René, *Les grandes inventions du christianisme*, Bayard, Paris, 1999.
- Rémond René, *Religions et Société en Europe*, Seuil, Paris, 1998.
- Rops Daniel, *L'Eglise des révolutions, en face de nouveaux destins*, Fayard, Paris, 1960.
- Rigal Jean, *L'Eglise en quête d'Avenir*, Cerf, Paris, 2003.
- Ryhne X., *La révolution de Jean XXIII*, Grasset, Paris, 1963.
- Sevegrand Martine, *Vers une Eglise sans prêtres*, Presses Universitaires de Rennes, 2004.
- Simon H., *Libres d'être prêtres*, Les éditions de l'Atelier, Paris, 2001.
- Simon H., *Vers une France païenne*, Cana, 1999.
- Synode des évêques. Assemblée spéciale pour l'Afrique*, Cité du Vatican, 1990.
- Synode 1992, texte promulgué par Mgr Pierre Molerès*, 1992.
- Tillinac Denis, *Le Dieu de nos pères*, Bayard, 2003.
- Tincq H., *Dieu en France*, Calmann Lévy, Paris, 2003.
- Ucoligia ttipia*, Cluzeau, Baiona, 1831.
- Vatikanoko kontzilio ekumenikoa*, Deustuko unibersitatea, Bilbo, 2003.
- Xalbador, *Odolaren mintzoa*, Auspoa, Tolosa, 1989.
- Zalduby, *Kantikak eta neurtizak*, Klasikoak 47, Euskal Editorialen Elkarte, 1991.
- Zavala A., *Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoetan*, Etor, 1989.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaillea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*

